La prudencia ha sido la tónica general a la hora de tomar diferentes decisiones referentes a los gastos a ejecutar. El año se cierra, por tanto, de manera equilibrada. Como en ejercicios anteriores, la partida de gastos más relevante corresponde a los "gastos de personal". En este ejercicio 2023, el importe del gasto por este concepto ha sido de 2,42 millones de euros, que engloba a un total de 124 personas diferentes (fijos y eventuales) que han tenido, en algún momento del año, un contrato laboral en la Sociedad. Del total de personas, en su mayoría corresponden a investigadore/as, a los que habría que añadir los servicios generales de biblioteca, archivo, administración o comunicación, entre otros. Por otro lado, 13 personas han estado contratadas en la sede del Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga. En cuanto al resto de las partidas de gasto, los aprovisionamientos han alcanzado un importe de 644.386,90 €, los otros gastos de la actividad 1.487.183,58 € y finalmente las amortizaciones han sido por valor de 128.790,21 €.

Por último, el **Balance de Situación** a 31 de Diciembre de 2023, muestra unos fondos propios de 417.178,77 €, con un Patrimonio Neto de 3,13 millones de euros. El pasivo corriente asciende a 2.185.208,67 €, de los cuales 1,43 millones corresponden a periodificaciones a corto plazo. El activo corriente ronda los 2,9 millones de euros, por lo que se trabaja con un fondo de maniobra positivo de 774.847,51 € como indicador de solvencia de la Sociedad. El activo no corriente (aproximadamente 2,42 millones de euros), lo conforma en su mayor parte el valor del Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga (Bizkaia).

2023 GALDU-IRABAZI KONTUAK // CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS 2023

		(Debe) Haber
1	Bazkide kuotak Cuotas de socio/a	98.417,00 €
2	Salmenten zenbateko garbia Importe neto de la cifra de negocios	2.436.758,19 €
4	Zuzkidurak Aprovisionamientos	-644.386,90 €
5	Beste ustiapen sarrerak Otros ingresos de explotación	2.014.864,79 €
6	Langile gastuak Gastos de personal	-2.422.682,93 €
7	Beste ustiapen gastuak Otros gastos de explotación	-1.487.183,58 €
8	Ibilgetuaren amortizazioa Amortización de inmovilizado	-128.790,21 €
9	Finantziero ez den ibilgetu kapital dirulaguntzak egozketa Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero	105.470,39 €
10	Gehiegizko zuzkidurak Exceso de provisiones	10.974,87 €
12	Beste emaitzak Otros resultados	4.435,08 €
A) USTIAPEN EMAITZA RESULTADO DE EXPLOTACION		-12.123,30 €
14	Finantza gastuak Gastos financieros	-1.326,65 €
B) FINANTZA EMAITZA RESULTADO FINANCIERO		**-1.326,65 €**
C) ZERGAK AURRETIKO EMAITZA RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS		**-13.449,95 €**
D) URTEKO EMAITZA (GALERA) RESULTADO DEL EJERCICIO (PERDIDA)		**-13.449,95 €**

2023 URTEKO ITXIERA BALANTZEA // BALANCE AL CIERRE DEL EJERCICIO 2023

AKTIBOA / ACTIVO	
A) AKTIBO EZ ARRUNTA / ACTIVO NO CORRIENTE	**2.416.637,14 €**
I. Ibilgetu ez materiala / Inmovilizado intangible	84.910,65 €
II. Ibilgetu materiala / Inmovilizado material	2.135.632,79 €
IV. Taldeko enpresetan inbertsioak epe luzerako Inversiones en empresas del grupo a largo plazo	77.006,00 €
VII. Epe luzerako kobratzeko zordun komertzialak Deudores comerciales a largo plazo	119.087,70 €
B) AKTIBO ARRUNTA / ACTIVO CORRIENTE	**2.960.056,18 €**
II. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontuak Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	1.497.296,38 €
IV. Epe motzerako finantza inbertsioak Inversiones financieras a corto plazo	153.085,95 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / Periodificaciones a corto plazo	5.998,03 €
VI. Eskudirua eta aktibo likidoak / Efectivo y otros activos líquidos	1.303.675,82 €
GUZTIRA AKTIBOA / TOTAL ACTIVO (A+B)	**5.376.693,32 €**
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / PATRIMONIO NETO Y PASIVO	
A) ONDARE GARBIA / PATRIMONIO NETO	**3.128.485,59 €**
A-1) Berezko Fondoak / Fondos propios	417.178,77 €
I. Kapitala / Capital	430.628,72 €
VII. Urteko emaitza / Resultado del ejercicio	-13.449,95 €
A-2) Jasotako dirulaguntzak, emateak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados recibidos	2.711.306,82 €
B) PASIBO EZ ARRUNTA / PASIVO NO CORRIENTE	**62.999,06 €**
I. Epe luzerako hornidurak / Provisiones a largo plazo	12.678,56 €
II. Epe luzerako zorrak / Deudas a largo plazo	50.320,50 €
C) PASIBO ARRUNTA / PASIVO CORRIENTE	**2.185.208,67 €**
II. Epe motzerako zorrak / Deudas a corto plazo	67.081,00 €
IV. Hartzekodun komertzialak / Acreedores comerciales a pagar	686.406,59 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / Periodificaciones a corto plazo	1.431.721,08 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A+B+C) **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO**	**5.376.693,32 €**

2024
TXOSTEN EKONOMIKOA
INFORME ECONÓMICO

Aranzadiana aldizkari honetan aurkezten diren 2024ko ekitaldiko urteko kontuak kontabilitate-auditoretzaren (Salaberria & Uzcudun SL) txostenaren xede diren behin-behineko kontuak dira. Ekitaldia modu negatiboan itxi da. Eragiketa-bolumena (faktu-razioa, dirulaguntzak eta bazkideen kuotak) 4.042.796,29 €koa izan da. Emaitza ekonomikoak 50.863,88 €ko galera erakusten du, eta horrek jetxiera ekonomikoa berresten du diru-sarreren eta gastuen zenbaketari dagokionez.

Ekitaldiko urteko kontu hauek, dagokion auditoretza-txostenarekin eta urteko kudeaketa-memoriarekin batera, hurrengo Bazkideen Batzar Nagusian aurkeztuko dira. Urtero bezala, kontuak onespenpean jarriko dira, eta, behin berretsi ondoren, Elkartearen webgunean (www.aranzadi.eus) eta Aranzadiana aldizkarian emango dira argitara.

Urteko kontu eta balantze hauetan jasotzen dira "Associació de tecnics d'investigació culturals i socials -ATICS SL" enpresarekin aldi baterako enpresa-elkartean izandako dirusarrera eta gastuak, Balear irletan egiten ari den IV Fosen Planaren ekintzak gauzatzeko, non Aranzadik %55ko partaidetza duen eta dagokion kontabilitate-ekitaldia orekatua izan den.

Sarreren partidaren barruan, bazkideen kuoten zenbatekoa aurreko urtearen antzekoa izan da, 101.033,00 €koa. Fakturazio bidezko diru-sarrerek jaitsiera izan dute; 2.275.157,02 € fakturatu dira, 2023ko ekitaldian baino %6.63 gutxiago. Dirulaguntzen atalean, zenbatekoa %18 txikiagoa izan da, 1.649.291,07 €koa. Dirulaguntzarik garrantzitsuenek bere horretan iraun dute (Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila eta Donostiako Udala). Bestalde, proiektuak gutxitu egin dira, bai kopuruari dagokionez bai zenbateko ekonomikoari dagokionez, lehiaketa bidezko lizitazio publikoen bitartez

Las anuales del ejercicio 2024 que se presentan en esta revista Aranzadiana son las cuentas provisionales que están siendo objeto del informe auditoría contable (Salaberria&Uzcudun SL). El ejercicio se cierra de manera negativa. Con un volumen de operaciones (facturación, subvenciones y cuotas de socio/as) de 4.042.796,29 €, el resultado económico refleja una pérdida de 50.863,88 €, lo cual enseña una bajada económica en lo referente al cómputo de los ingresos y los gastos.

Estas cuentas anuales del ejercicio, junto con el informe de auditoría pertinente y la memoria de gestión anual, se presentarán ante la siguiente Asamblea General de Socios/as. Como todos los años, las cuentas se someterán a su aprobación y una vez que éstas sean ratificadas, se publicarán tanto en la página web de la Sociedad (www.aranzadi.eus) como en la próxima revista Aranzadiana.

La cuenta de resultados y el balance del ejercicio 2024 contempla los ingresos y gastos de la Unión Temporal de Empresas con la "Associació de técnics d'investigacion culturals i socials – ATICS S.L." para las actuaciones relativas al IV Plan de Fosas de las Islas Baleares, en la que Aranzadi tiene un 55% de participación, y cuyo ejercicio contable ha sido equilibrado.

Dentro de la partida de ingresos, el importe de las cuotas de socios/as se ha mantenido similar al año anterior, en torno a los 101.033,00 €. Los ingresos por facturación han tenido un descenso; se han facturado 2.275.157,02 €, un 6,63% menos que en el ejercicio 2023. En el apartado de subvenciones, el importe ha sido un 18% inferior, siendo el importe de 1.649.291,07 €. Se han mantenido las subvenciones más relevantes (Ministerio de Ciencia e Innovación, Departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián). Pero, ha habido un descenso de

hainbat kontratu galdu baitira Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz gure Erkidegotik kanpo.

Gastuen atalean, kopururik esanguratsuena pertsonal-gastuei dagokie, 2,49 milioi euroko zenbatekoarekin. Horrek %3,13ko igoera ekarri du aurreko ekitaldiarekin alderatuta, lan itunaren eguneraketa dela eta. Ekitaldi honetan, urteko uneren batean 115 pertsonak izan dute lan-kontratua Elkartearekin; horietako 12 Gautegiz-Arteagako Urdaibai Bird Centerren kontratatu dira. Proiektuak gutxitzearekin batera, horiek garatzeko material eta zerbitzuen beharrak ere txikiagoak izan dira, eta hori ustiapen-gastuen partidan islatu da. Amortizazioen zenbatekoak ere behera egin du, % 4,32 inguru, aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

2024eko abenduaren 31ko **Egoera Balantzean** ikus daitekeenez, funts propioen balioa 366.314,89€-koa da, iazko zenbatekoaren antzekoa. Pasibo ez-korrontea 113.405,60€-koa da, eta epe luzeko zorrak ditu. Pasibo korrontea 2.100.689,53€koa da eta 1.388.808,41€ko epe motzeko periodofikazioak barneratzen ditu.

Elkartearen maniobra-funts positiboak, abenduaren 31n, 960.000€ inguruko balioa du; aktibo arrunta, berriz, 2,20 milioi euro ingurukoa da. Azkenik, aktibo ez-korrontearen balorazioa 5,26 milioi eurokoa dela ikus dezakegu

proyectos, tanto en número como en importe económico, por la pérdida de distintos contratos a través de licitaciones públicas en concurrencia competitiva, en la comunidad autónoma vasca y fuera de ella.

En el apartado de gastos, la cuantía más significativa corresponde a los gastos de personal, con un importe de 2,49 millones de euros. Esto ha supuesto un incremento del 3,13% con respecto al ejercicio anterior, motivado por la actualización del convenio colectivo. En este ejercicio, han sido 115 las diferentes personas, que en algún momento del año, han tenido un contrato laboral con la Sociedad; 12 de ellos han sido contratado/as en el Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga. Paralelamente al descenso de los proyectos, las necesidades de material y servicios para el desarrollo de los mismos también han sido menores, por lo que esto se ha visto reflejado en la partida de gastos de explotación. También ha disminuido la cuantía de las amortizaciones, aproximadamente en un 4,32% con respecto al ejercicio anterior.

En el **Balance de Situación** a 31 de Diciembre de 2024, se observa que el valor de los fondos propios es de 366.314,89€, importe similar al año pasado. El pasivo no corriente, por importe de 113.405,60€, incluye las deudas a largo plazo. El pasivo corriente, por importe de 2.100.689,53€, incluye las periodificaciones a corto plazo por importe de 1.388.808,41€.

El fondo de maniobra positivo con el que cuenta la Sociedad a 31 de diciembre es de un valor cercano a los 960.000€, con un activo corriente próximo a los 2,20 millones de euros. Por último, tenemos un activo de 5,26 millones de euros.

2024 GALDU-IRABAZI KONTUAK* // CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS 2024*

1	Bazkide kuotak Cuotas de socio/a	101.033,00 €
2	Salmenten zenbateko garbia Importe neto de la cifra de negocios	2.275.157,02 €
4	Zuzkidurak Aprovisionamientos	-870.912,09 €
5	Beste ustiapen sarrerak Otros ingresos de explotación	1.666.606,27 €
6	Langile gastuak Gastos de personal	-2.498.404,69 €
7	Beste ustiapen gastuak Otros gastos de explotación	-717.147,70 €
8	Ibilgetuaren amortizazioa Amortización de inmovilizado	-123.227,32 €
9	Finantziero ez den ibilgetu kapital dirulaguntzak egozketa Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero	111.504,70 €
12	Beste emaitzak Otros resultados	5.727,08 €
A) USTIAPEN EMAITZA RESULTADO DE EXPLOTACIÓN		**-49.663,73 €**
14	Finantza gastuak Gastos financieros	-1.200,15 €
B) FINANTZA EMAITZA RESULTADO FINANCIERO		**-1.200,15 €**
C) ZERGAK AURRETIKO EMAITZA RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS		**-50.863,88 €**
D) URTEKO EMAITZA (GALERA) RESULTADO DEL EJERCICIO (PERDIDA)		**-50.863,88 €**

* Behin behineko datuak, auditoria txostenaren aurretik / Datos provisionales, previos al informe de auditoría.
* Behin betiko datuak, auditatuak eta Batzarrak onartu ondoren, web orrian azalduko dira / Los datos definitivos, una vez auditados y aprobados por la Asamblea, se publicarán en la página web.

2024 URTEKO ITXIERA BALANTZEA* // BALANCE AL CIERRE DEL EJERCICIO 2024*

AKTIBOA / ACTIVO	
A) AKTIBO EZ ARRUNTA / ACTIVO NO CORRIENTE	**2.205.139,66 €**
I. Ibilgetu ez materiala / Inmovilizado intangible	62.169,92 €
II. Ibilgetu materiala / Inmovilizado material	2.065.963,74 €
IV. Taldeko enpresetan inbertsioak epe luzerako Inversiones en empresas del grupo a largo plazo	77.006,00 €
B) AKTIBO ARRUNTA / ACTIVO CORRIENTE	**3.064.319,36 €**
II. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontuak Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	1.538.141,51 €
IV. Epe motzerako finantza inbertsioak Inversiones financieras a corto plazo	141.049,68 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / Periodificaciones a corto plazo	2.948,63 €
VI. Eskudirua eta aktibo likidoak / Efectivo y otros activos líquidos	1.382.179,54 €
GUZTIRA AKTIBOA / TOTAL ACTIVO (A+B)	**5.269.459,02 €**
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / PATRIMONIO NETO Y PASIVO	
A) ONDARE GARBIA / PATRIMONIO NETO	**3.055.363,89 €**
A-1) Berezko Fondoak / Fondos propios	366.314,89 €
I. Kapitala / Capital	417.178,77 €
IV. Urteko emaitza / Resultado del ejercicio	-50.863,88 €
A-2) Jasotako dirulaguntzak, emateak eta legatuak Subvenciones, donaciones y legados recibidos	2.689.049,00 €
B) PASIBO EZ ARRUNTA / PASIVO NO CORRIENTE	**113.405,60 €**
II. Epe luzerako zorrak / Deudas a largo plazo	113.405,60 €
C) PASIBO ARRUNTA / PASIVO CORRIENTE	**2.100.689,53 €**
II. Epe motzerako zorrak / Deudas a corto plazo	115.668,00 €
IV. Hartzekodun komertzialak / Acreedores comerciales a pagar	596.213,12 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / Periodificaciones a corto plazo	1.388.808,41 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A+B+C) **TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO**	**5.269.459,02 €**

* Behin behineko datuak, auditoria txostenaren aurretik / Datos provisionales, previos al informe de auditoría.
* Behin betiko datuak, auditatuak eta Batzarrak onartu ondoren, web orrian azalduko dira / Los datos definitivos, una vez auditados y aprobados por la Asamblea, se publicarán en la página web.

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTXIBOAren katalogo digitalaren mantenua, agiria eta argazki bilduma berrien antolakuntza eta katalogazio lanak 2024ko ardatz nagusiak izan dira. Hiritar eta erakundeen kontsulten zerbitzu publikoak eman da ere bai. Aranzadi Zientzia Elkarteak urteak daramatza lanean bere fondo dokumentalak antolatzen, artxibo-sistema baten bitartez hauxe lortzeko: alde batetik, dokumentazioa antolatuta eta deskribatuta edukitzea; eta beste aldetik dokumentazioa kontsultatu eta kontrolatzeko sistema egoki batez hornitzea.

1947. urtean Elkartea eratu zenetik gaur egun arte sortarazi diren Elkartearen dokumentu-fondo guztiak gordeta daude Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Nagusian, baita dohaintza modura emandako beste fondo batzuk ere. Dokumentu horiek zaindu, antolatu, deskribatu, gorde eta ezagutzera ematea gure funtsezko zeregina izango da.

DOKUMENTU-FONDOAK ANTOLAKETA

Artxiboko zeregin nagusia Aranzadik sortarazitako dokumentazioen antolaketa eta katalogatzea izan da. Dokumentu-kudeaketaren munduan paperetik mundu digitalera aldatzeko prozesuan murgilduta gaude. Orain arte gure katalogoak batez ere paperezko espedienteak aipatzen zituen, baina araudi berriei erreparatu behar diegu eta dokumentazio digitalaren kudeaketara egokitu.

2024an informazioa biltzen hasi gara, gaur egun digitalki sortzen ari den informazioa ahalik eta modu eraginkorrenean antolatu ahal izateko. Horretarako, artxiboa ez ezik, Aranzadi ere barne hartzen duten kudeaketa-tresnak ere izan behar ditugu espediente digitalak kudeatzeko.

Mundu digitalera egokitzeko egiten ari garen urratsak gorabehera, ez dugu ahaztu behar egunero izapidetzen diren espediente askok paperean izaten jarraitzen dutela eta formatu horretan jarraitzen duten funts historikoak eta dohaintzak ditugula. Beraz, katalogazio tradizionalari eutsi behar diogu, bi errealitateak konbinatzen saiatuz.

Bestalde, kontuan izan behar dugu gaur egungo artxiboa paperean osatuta dagoela gehienbat. Horregatik, komenigarritzat jotzen da espediente zaharrak berrikustea eta digitalizatu beharko liratekeenak baloratzea. Lehen balorazioan, eta gehien kontsultatutako espediente zaharrak kontuan hartuta, uste da esku-hartze arkeologikoei buruzkoak digitalizatu egin beharko liratekeela.

EL MANTENIMIENTO tanto del catálogo digital como el documental del Archivo de la Sociedad de Ciencia Aranzadi y la organización y catalogación de las nuevas colecciones fotográficas han sido los ejes principales del año 2024. Se han prestado también servicios públicos de consultas ciudadanas e institucionales. La Sociedad de Ciencias Aranzadi lleva años trabajando en la organización de sus fondos documentales a través de un sistema de archivo que permita, por un lado, mantener organizada y descrita la documentación y, por otro, dotarla de un sistema adecuado de consulta y control de la documentación.

En el Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi se conservan todos los fondos documentales de la Sociedad que se han ido creando desde su constitución en 1947 hasta la actualidad, así como otros fondos donados. La custodia, organización, descripción, conservación y difusión de estos documentos es nuestra tarea fundamental.

ORGANIZACIÓN DE FONDOS DOCUMENTALES

La labor principal del Archivo ha sido la organización y catalogación de la documentación generada por Aranzadi. En el mundo de la gestión documental estamos inmersos en un proceso de cambio del papel al mundo digital. Hasta ahora nuestro catálogo estaba formado sobre todo de expedientes en papel, pero debemos fijarnos en las nuevas normativas y adaptarnos a la gestión de la documentación digital.

En 2024 se ha iniciado la recogida de información para poder organizar de la forma más eficaz posible la información que actualmente se está generando digitalmente. Para ello debemos contar con herramientas de gestión que incluyan no sólo el archivo, sino también Aranzadi en general.

A pesar de los pasos que estamos dando para adaptarnos al mundo digital, no debemos olvidar que muchos de los expedientes que se tramitan a diario siguen siendo en papel y tenemos fondos históricos y donaciones que siguen en este formato. Debemos, pues, mantener la catalogación tradicional, tratando de combinar ambas realidades.

Por otro lado, hay que tener en cuenta que el archivo actual está compuesto mayoritariamente en papel. Por ello, se considera conveniente revisar los antiguos expedientes y valorar los que deberían digitalizarse. En una primera valoración, y teniendo en cuenta los expedientes antiguos más consultados, se considera que las intervenciones arqueológicas deberían digitalizarse.

ARCHIVO GENERAL
DE LA SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

Jean Hazera funtseko materialaren xehetasuna. Ondoan, Jean-Claude Hazera, bere aita Jean Hazerak utzitako ondarea emateko unean.
Detalle del material del fondo Jean Hazera. Jean-Claude Hazera en el momento de la donación del legado de su padre Jean Hazera.

Espedienterik gehienak egunez egun sortuz doan dokumentazioarekin bat datoz, hainbat administrazio-bulegotatik eta Elkarteko sailetatik helaraziak. Halaber, erkatze-lanak ere egiten dira; dagoeneko landuta dauden espedienteak oinarri hartuta, azalduz joan diren dokumentuak eta dokumentu berriak gehituz joan direlarik.

2024ko urterako, Artxiboaren zereginak urtero ixten diren eta katalogatzen eta kontsultatzen den material gehiena osatzen duten espediente berrienen katalogazioan zentratu dira urtero bezala. Ez dugu ahaztu behar Aranzadiko hainbat eremutatik oraindik ere iristen zaigun materiala, 2010a baino lehenagokoa, katalogo orokorrean txertatzen jarraitzen duguna.

Gaur egun, katalogaturiko dokumentazioa instalatzeko **1086** unitate ditugu **(145 m.l) 9900** espediente guztira, horietatik **300** aurtengo **2024** urte honetan bertan berri katalogatuak, eta horren ondorioz, dokumentazioak **4 m.l.ko** gorakada izan du.

2024an Jean Hazera geografo frantsesaren dohaintza jaso dugu, Bilboko Eskolen eta Institutu Frantsesaren zuzendaria (1945-57) eta zentro horien Donostiako zuzendaria (1957-64) eta Paueko Unibertsitateko Geografia Saileko irakasle eta zuzendaria, Pirinioetako glaziar modelatuaren azterketan espezializatuz. 1968an La región de Bilbao et son arriére pays doktore-tesia amaitu zuen. Etude géomorphologique eta 1968ko "Munibe" aldizkarian argitaratu zuen. Bere familiak gugan konfiantza izan du tesia egiteko erabili zuen materiala behin betiko uzteko, jatorrizko landa-egunkariak barne.

Orrialde hauetatik eskerrak eman nahi dizkiogu Jean-Claude Hazerari, Aranzadiren esku utzi duelako bere aitaren memoriaren zati bat. Funts hau geografoak Munibe argitaratzeko erabilitako jatorrizko materialez osatuta dago.

La mayor parte de los expedientes se corresponden con la documentación que se va generando día a día, trasladada desde diferentes oficinas administrativas y departamentos de la Sociedad. Asimismo, se realizan labores de contraste, a partir de expedientes ya elaborados, en los que se han ido incorporando documentos que se han ido explicando y nuevos documentos.

Para el ejercicio 2024, las tareas del Archivo se han centrado como cada año en la catalogación de los expedientes más recientes que se cierran anualmente y que constituyen la mayor parte del material que se cataloga y consulta. No debemos olvidar el material que todavía nos llega de diferentes zonas de Aranzadi, anterior a 2010, y que seguimos incorporando al catálogo general.

En la actualidad se dispone de **1086** unidades de instalación de documentación catalogada (145 m.l.) en un total de **9900** expedientes, **300** de los cuales han sido nuevos catalogados en el presente año 2024, lo que ha supuesto un incremento de la documentación de **4 m.l.**

En 2024 hemos recibido la donación de un parte del legado del geógrafo francés Jean Hazera, director de las Escuelas e Instituto Francés de Bilbao (1945-57) y director de estos centros en San Sebastián (1957-64) y profesor y director del Departamento de Geografía de la Universidad de Pau, especializándose en el estudio del modelado glaciar pirenaico. En 1968 finalizó su tesis doctoral La región de Bilbao et son arriére pays. Etude géomorphologique y lo publicó en la revista "Munibe" de 1968.

Desde estas páginas queremos agradecer a Jean-Claude Hazera que haya confiado en Aranzadi para depositar parte de la memoria de su padre. Este fondo está compuesto por material original utilizado por el geografo para la publicación del Munibe.

ARGAZKI FUNTSAK

Aranzadi Zientzia Elkarteak garrantzi handiko Argazki-funtsak ditu, eta Euskal Herriko eta Gipuzkoako kultur eta zientzia-esparruetarako oso interesgarriak izateaz gain, orokorrean kultur memoriarako ere iturri garrantzitsua osatzen dute, zeren-eta, Elkartea sortu zenetik, beste erkidego eta beste herrialde batzuetako erakunde eta lankideekin gauzatzen diren proiektuak ugari-ugariak baitira.

Argazki-fondo ororen helburuak kontserbazioa eta zabalkundea dira. Premisa horiek helburutzat harturik, Aranzadi Zientzia Elkartea bere argazki-fondoen antolaketan buru-belarri murgildurik dago, bere fondoak digitalizatu eta katalogatzeko lanei eta gordeta dauden eta iristen jarraitzen duten argazki-materialak zaintzeko planei lehentasuna ematen zaielarik.

Aurten bazkideek eta kolaboratzaileek 500 irudi inguru utzi dituzte Elkarteko Artxiboan. %100 jada gure eskuetan daude formatu digitalean eta euskarri optikoan gorde dira.

Ez dugu ahaztu behar arkeologiari buruzko argazki-funts garrantzitsua. Gaur egun, egiten den indusketa bakoitzaren argazkiak biltzen dira, baina, era berean, hainbat formatutan (negatibo plastikoa, diapositibak eta papera) irudi-hondo indartsua dugu. Gaur egun, artxibategiz osatutako funts bat dugu, 5 m Lehen esan dugun bezala, funts honi interes berezia eskaintzen ari gatzaizkio eta dagoeneko digitalizatuta dauden 3 proiektu garrantzitsuren materiala dugu: Hondarribiko Hirigune Historikoa, Segurako Hirigune Historikoa eta Buruntzako San Martin. Zaintzen dugun materiala baloratzen jarraituko dugu, interes handiena duena edo kontserbazio-egoera okerrenean dagoena aukeratzeko.

ZERBITZUAK

KONTSULTAK

Artxiboan sailkatutako dokumentazioa izaera publikotzat jotzen da, barruko zein kanpoko kontsulten kasuan, Datuak Babesteko Lege Organikoak (DNLO 15/1999), Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra (DBEO 2016/679) eta Euskal Kultur Ondarearen Legeak (6/2019) eta Aranzadi Zientzia Elkarteak ezarritako murrizketak izan ezik. Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboak bere fondoak eta dokumentuak kontsultatzeko doako zerbitzua eskaintzen du eta horretarako badu prozedura bat, Aranzadiren web gunetik erabiltzaile guztien eskura jarrita jada (www.aranzadi.eus).

Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Nagusian jasotako kontsultarik bi izaten dira, dokumentazio orokorra administrazio-erabilerarako eta kanpoko

FONDOS FOTOGRÁFICOS

La Sociedad de Ciencias Aranzadi cuenta con Fondos Fotográficos de gran importancia, que además de ser muy interesantes para los ámbitos culturales y científicos del País Vasco y de Gipuzkoa, constituyen una fuente importante para la memoria cultural en general, ya que desde su creación son numerosos los proyectos que se llevan a cabo con instituciones y colaboraciones de otras comunidades y otros países.

Los objetivos de todo fondo fotográfico son la conservación y la difusión. Bajo estas premisas, la Sociedad de Ciencias Aranzadi está inmersa de lleno en la organización de sus fondos fotográficos, dando prioridad a los trabajos de digitalización y catalogación de sus fondos y a los planes de conservación de los materiales fotográficos conservados y que siguen llegando.

Este año socias, socios y colaboradores han depositado cerca de 500 imágenes en el Archivo de la Sociedad. El 100% ya están en nuestras manos en formato digital y se han conservado en soporte óptico.

No hay que olvidar el importante fondo fotográfico sobre arqueología. En la actualidad se recogen fotografías de cada una de las excavaciones que se realizan, pero también disponemos de un potente fondo de imagen en diferentes formatos: negativo plástico, diapositivas y papel. En la actualidad contamos con un fondo de archivo de 5 metro lineales. Como hemos dicho anteriormente, estamos dedicando un interés especial a este fondo y disponemos de material de 3 proyectos importantes ya digitalizados: Casco Histórico de Hondarribia, Casco Histórico de Segura y San Martín de Buruntza. Seguiremos valorando el material que custodiamos para elegir el que más interés tiene o el que esté en peor estado de conservación.

SERVICIOS

CONSULTAS

La documentación catalogada en archivo se considera de carácter público, tanto en el caso de consultas internas como externas, salvo las restricciones impuestas por la Ley Orgánica de Protección de Datos (LOPD 15/1999), el Reglamento General de Protección de Datos (RGPD 2016/679) y la Ley de Patrimonio Cultural Vasco (6/2019) y la Sociedad de Ciencias Aranzadi. El Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi ofrece un servicio gratuito de consulta de sus fondos y documentos, para lo cual ya dispone de un procedimiento puesto a disposición de todos los usuarios desde la web de Aranzadi (www.aranzadi.eus).

KONTSULTAK ARTXIBO NAGUSIAN / CONSULTAS EN EL ARCHIVO GENERAL



eragileek gehien egiten dituzten kontsultak, berriz, argazkiei eta ondare-txostenei buruzkoak dira. Azken kontsulta hauek urtez urte gero eta gehiago dira.

Aranzadi Zientzia Elkartearen artxiboak bestelako kontsultak ere jasotzen ditu, ez bakarrik erakundeak sortutako dokumentazioari edo partikularrek gordailututako dokumentazioari dagozkionak. Artxiboko materialaren (dokumentuak, argazkiak...) antolaketari eta katalogazioari buruzko artxibo-kudeaketari buruzko kontsultak ere jasotzen dira.

2024an kontsulta gehien egin dituena (% 60) Administrazio saila izan dira, atzetik hainbat sailek jarraikia: Arkeologia Historikoa (%16), Oroimen Historiokoa (%10), Ornitologia (%1) eta Antropologia (%2). 2024ko urtean kanpoko kontsultek % 11 izan dute.

KOPIAK

Aranzadiren Artxibo zerbitzuak argazki-fondoen kopiak eskuratzeko aukera eskaintzen dio erabiltzaileari. Kopiak eskatzeko prozedura bat landu da, Aranzadin zaindutako fondoen irudiak erreproduzitzeko motak eta baldintzak bere baitan biltzen dituena. Prozedura hau dagoeneko onartuta dago eta erabiltzaileen eskura dago gure web gunean(www.aranzadi.eus).

2024an Jesus Elosegi Irazusta argazki-fondoak kopia-eskaera gehien jaso ditu, urtero bezala. Kopia hauek aurten hainbat erakusketan, argitalpenetan eta erabilera pertsonala erabili dira.

Artikuluekin jarraituz, bertsolaritzari buruzko artikulu baterako argazkiak ere eskatu ziren; izan ere, funtsean, euskal kulturaren munduari hain lotuta dagoenez, garai hartako bertsolarien argazkiak ditu.

Jesus Elosegiren argazkiak ere Malloei buruzko erakusketa baten parte izan dira. Elosegik belarra jaisteko kableen erabilerari buruzko argazki interesgarri batzuk egin zituen, gaur egun lan-prozesu hori ulertzen laguntzen dutenak.

Las consultas recibidas en el Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi suelen ser de dos tipos. Consulta de documentación general que suele tener un uso administrativo y las consultas realizadas por agentes externos que se refieren sobre todo a fotografías e informes patrimoniales. Estas últimas consultas van en aumento año tras año.

El archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi también recibe otro tipo de consultas, no sólo las relativas a la documentación generada por la institución o depositada por particulares. También se recogen consultas sobre la organización y la gestión de archivo del material de archivo (documentos, fotografías...).

El departamento que más consultas ha realizado en 2024 (60%) ha sido el de Administración, seguido de Arqueología Histórica (16%), Memoria Histórica (10%), Ornitología (1%) y Antropología (2%). En el año 2024 el porcentaje de consultas externas ha sido del 11%.

COPIAS

El servicio de Archivo de Aranzadi ofrece al usuario la posibilidad de acceder a copias de los fondos fotográficos. Se ha elaborado un procedimiento de solicitud de copias que recoge los tipos y condiciones de reproducción de las imágenes de los fondos custodiados en Aranzadi. Este procedimiento ya está aprobado y a disposición de los usuarios en nuestra web (www.aranzadi.eus).

En 2024 el fondo fotográfico Jesús Elosegi Irazusta ha recibido, como cada año, el mayor número de solicitudes de copias. Estas copias se han utilizado este año en diversas exposiciones, publicaciones y uso personal.

Siguiendo con los artículos, también se pidieron fotografías para un artículo sobre el bertsolarismo, ya que, básicamente, está tan vinculado al mundo de la cultura vasca que contiene fotografías de bertsolaris de aquella época.

Las fotografías de Jesús Elosegi también han formado parte de una exposición sobre las Malloas.

Identifikatu gabeko kapitel baten xehetasuna. Juan Mari Hernández de Gurmendik egindako argazkia.
Detalle de un capitel sin identificar. Fotografía realizada por Juan Mari Hernández de Gurmendi

Taldea horien artean dago Luis Pedro Peña Santiago etnografoa. Juan Mari Hernández de Gurmendik bere bisita etnografikoetako batean egindako argazkia.
Grupo entre los que se encuentra el etnógrafo Luis Pedro Peña Santiago. Fotografía realizada por Juan Mari Hernández de Gurmendi en una de sus visitas etnográficas.

Aurten, Altxerriko kobazuloaren argazkiak eskatu dituztenak ere nabarmendu ditzakegu, bai "Saber y ganar" telebista-programarako, bai koba honi buruzko dokumental baterako.

DIGITALIZAZIOA

Artxiboak eskaintzen duen beste zerbitzuetako bat dokumentazioa eta argazki-materialak digitalizatzea da, aldi baterako sailkatzeko, geroago deskribatuak eta ezagutzera emanak izateko. Orduan, Elkarteak ikergai dituen arloekin lotura duten gaiei buruzko argazki-fondoak digitalizatzeko zerbitzu bat jartzen du erabiltzaileen esku.

2024an Gurmendiko Hernandez fondoaren digitalizazioa amaitzea dugu helburu. Fondo handi hori eskaneatzeko prozesuarekin amaitzea lortu dugu, eta guztira 16200 irudi digital baino gehiago lortu ditugu TIFF formatuan.

Diapositibak zein negatiboak eskaneatu ditu, bolumena ia berdina izanik. Jatorrizko gehienak zuri-beltzekoak dira. Une honetan, miniaturazko kopia bat egin da, argazkiak deskribatzeko datu-basea inplementatu ahal izateko. Diapositiben zati handi batean nahiz negatiboen gutun-azaletan eskuz egindako deskribapenak izan arren, deskribapen-lanak uste baino motelagoak izaten ari dira, idazketa irakurtzeko zailtasuna dela eta.

Deskribatutako irudiak ez izan arren, material hau oso interesgarria da. Juan Mari Hernádez de Gurmendi oso kide aktiboa izan zen Aranzadi Zientzia Elkartean, eta lotura handia izan zuen etnografia ikasketekin. Funts osoaren % 20, gutxi gorabehera. Familiako argazkiak dira, baina gainerako irudiek balio etnografiko handia dute, Euskal Herri osoko ikerketa etnografikoak ilustratzen baitituzte, baita Peña Santiago bezalako beste etnografo ospetsu batzuk ere.

Elosegi realizó unas interesantes fotografías sobre el uso de cables para bajar la hierba que hoy en día ayudan a entender este proceso de trabajo.

Este año también podemos destacar que nos han solicitado fotos de la cueva de Altxerri, tanto para el programa de televisión "Saber y ganar" como para un documental sobre esta cueva.

DIGITALIZACIÓN

Otro de los servicios que ofrece el archivo es la digitalización de documentación y materiales fotográficos en depósito temporal, para ser posteriormente descritos y difundidos. La Sociedad pone a disposición de los usuarios un servicio de digitalización de fondos fotográficos sobre temas relacionados con nuestras áreas objeto de investigación.

El objetivo en 2024 ha sido finalizar a digitalización del fondo Hernández de Gurmendi Se ha conseguido terminar con el proceso de escaneado de este voluminoso fondo obteniendo un total de más de 16200 imágenes digitales en formato TIFF.

Se han escaneado tanto las diapositivas como los negativos, con un volumen prácticamente igual. La mayoría de los originales son en blanco y negro. En este momento se ha realizado una copia en miniatura para poder implementar la base de datos descriptiva de las fotografías. A pesar de tratarse de descripciones manuscritas tanto en gran parte de las diapositivas como en sobres de negativos, los trabajos de descripción están siendo más lentos de lo esperado debido a la dificultad para leer la escritura.

Aunque no se trate de las imágenes descritas, este material es muy interesante. Juan Mari Hernádez de Gurmendi fue un miembro muy activo en la Sociedad de Ciencias Aranzadi y vinculado a estudios de etnografía. Aproximadamente el 20% del fondo total son fotografías de familia, pero el resto de imágenes tienen un gran valor etnográfico, ya que ilustran investigaciones etnográficas de todo el País Vasco, así como imágenes con

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN **BILDUMAK**
COLECCIONES DE LA SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

Azken urteetan Aranzadi Zientzia Elkarteak bere bildumei balioa emateko prozesua bultzatzeari ekin dio. Aranzadiko bilduma hauek ondarearekin eta zientziarekin zerikusia dute, Elkartearen sorreratik ikerketa zientifikoaren, historiaren eta gure lurraldearen lekukotasunak eta testigantza fisikoak jaso izan ditugulako. Bazkide belaunaldiek urteetan zehar bilduma hauen sorrera bultzatzeari esker egun funts interesgarriak ditugu Elkartean. Elkarteko Artxibo Orokorrak jaso izan dituen funtsak nahiz gure ikerlariek burutu izan dituzten ikerketen eta bilketen fruitu dira egun Elkarteak dituen bilduma garrantzitsuenak.

Gure bildumak etorkizunerako kontserbatu, ezagutzera eman eta hiritarren esku jartzeko prozesu honetan hiru esparru landu dira azken urteetan:

- Bildumak ongi ezagutu eta haien kontserbazioa bermatzea.
- Bildumak gordetzeko espazio egokiak sortzea gure Zorroagako egoitzan.
- Ondare bildumetarako protokolo bat izatea.

2019tik hona bildumei dagokienez eman ditugun pausoak handiak izan dira. Bide honetan Sail guztien inplikazioa eta bereziki Etnografia Sailaren laguntza izan dugu. Gainera, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari esker hainbat berrikuntza, hobekuntza eta prozesu jarri ahal izan dira martxan.

En los últimos años la Sociedad de Ciencias Aranzadi ha iniciado un proceso de puesta en valor de sus colecciones. Estas colecciones están relacionadas con el patrimonio y la ciencia, porque desde los inicios de Aranzadi hemos recogido testimonios de nuestra historia, de la investigación científica y de nuestro territorio. Las generaciones de socios y socias han impulsado a lo largo de los años la creación de estas colecciones y gracias a ellos hoy en día tenemos fondos muy interesantes. Nuestros fondos están formados por las donaciones que ha recibido el Archivo General de Aranzadi o aquellos fondos fruto de las investigaciones y recopilaciones que han llevado a cabo nuestros investigadores.

En este proceso de conservación, difusión y acercamiento de los fondos a la ciudadanía se han trabajado tres ámbitos en el último año:

- Conocer bien las colecciones y garantizar su conservación.
- Garantizar espacios acondicionados de almacenamiento de colecciones en nuestra sede de Zorroaga.
- Disponer de un protocolo para las colecciones patrimoniales.

Desde 2019 los pasos que hemos dado con respecto a las colecciones han sido considerables. En este camino hemos contado con la implicación y colaboración de todos los departamentos. Además, gracias al Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco se han podido poner en marcha diversas mejoras, renovaciones y procesos.

Ondare Bildumaren erregistro lanak. Trabajos de registro de la Ondare Bilduma.

ONDARE BILDUMA

Zorroagako egoitzan kokatzen dira bilduma honen biltegiak, 2021 urtean berariaz horretarako egokitu ziren espazioetan: bata, egoitzaren lehen pisuan kokatzen da eta besteak berriz sotoaren hegal bat hartzen du. Espazio hauetan margoketa lanak, apalategien ezartzea nahiz argiteria berriaren instalazioa egin ziren. Horrez gain, gordetze-sistema ugariz hornitu ziren: azidorik gabeko kaxak, plastikozko paleak, etab. Aranzadiko ondare historiko honen gaineko lanak erraztasun handiagoz egiteko, bilduma historikoak Bidebietako Etnografia Laborategira lekualdatu zen. Behin hori eginda, Aranzadiko Ondare Bildumaren inbentariatze eta katalogazio lanei ekin zaie:

- **Datu base baten sorrera, materialen ahalik eta informazio gehien biltzeko eta datu basean hauen bilaketa errazteko eremu anitzak dituela.**
- **Bildumaren barnean, materialak funtsetan azpi-sailkatu dira, orohar emaileen araberako funtsak osatuz edota gaiaren araberakoak.**
- **Materialen argazki bidezko erregistroa eta etiketatzea.**

Katalogatu heinean, materialak Bidebietako Etnografia Laborategitik Aranzadiren Zorroagako egoitzako biltegietara lekualdatzen dira eta material bakoitzak eskatu bezala behin betiko biltegiratzen dira.

ONDARE BILDUMA

Los almacenes de esta colección se ubican en la sede de Zorroaga, en los espacios acondicionados para tal efecto en 2021: uno se ubica en el primer piso de la sede y el otro ocupa un ala del sótano. En estos espacios se realizaron trabajos de pintura, instalación de estanterías e instalación de nuevo alumbrado. Además, se dotaron de numerosos sistemas de almacenamiento: cajas libres de ácido, palés de plástico, etc. Para realizar con mayor facilidad los trabajos sobre este patrimonio histórico de Aranzadi, la colección histórica se trasladó al Laboratorio Etnográfico de Bidebieta. Una vez realizado esto, se han iniciado los trabajos de inventariado y catalogación de la Colección Patrimonial de Aranzadi:

- **Se ha procedido a la creación de una base de datos con una amplia gama de campos para recopilar la mayor información posible de los materiales y facilitar su búsqueda en la base de datos.**
- **Dentro de la colección, los materiales se han subclasificado en fondos, generalmente formando fondos por donantes o por temática.**
- **Registro fotográfico y etiquetado de materiales.**

A medida que los objetos se van catalogando, se van trasladando desde el Laboratorio Etnográfico de Bidebieta a los almacenes de la sede de Zorroaga y se almacenan definitivamente tal y como cada material lo requiere.

BILDUMEN GAINEKO LANAK

TRABAJOS SOBRE LAS COLECCIONES

Aranzadiko Ondare Bildumako funtsen parte diren bi hauspo Aezkoako Kultur Ola erakusketa zentroari maileguan uztea.

Aezkoako Kultur Ola Aezkoako Batzarre Nagusiak eginiko erakusketa zentroa da, Aezkoa ibarra bera, haren kultura eta historia ezagutzera emateko, bideoen, maketen, liburuen, panelen eta erakusketen bidez.

Espazio honetan antzina Orbaizetako Munizioen Errege Fabrika egon zen eta hari eskainitako atal bat ere badute erakusketan. Hori horrela, Aranzadi Zientzia Elkarteak bere funtsetan zituen burdinoletarako bi hauspo handi maileguan utzi dizkio, zeinak Errege Fabrika testuinguratzeko balio duten. 2024ko urrian lekualdatu ziren eta gaur egun bertako erakusketan ikus daitezke.

Préstamo de dos fuelles de la Ondare Bilduma al centro expositivo Kultur Ola de Aezkoa.

Aezkoako Kultur Ola es un centro expositivo de la Junta del Valle de Aezkoa mediante el cual se quieren dar a conocer el propio valle, la cultura e historia de Aezkoa a través de vídeos, maquetas, libros, paneles y exposiciones.

Este espacio albergó antiguamente la llamada Real Fábrica de Armas de Orbaizeta, a la cual se le dedica un apartado significativo en la exposición permanente. Así, la Sociedad de Ciencias Aranzadi ha cedido al centro en categoría de préstamo dos grandes fuelles de ferrería que conservaba en sus fondos, como recurso para la contextualización de la Real Fábrica. Se trasladaron en octubre de 2024 y hoy se pueden ver en la exposición.





ORNITOLOGIAKO BILDUMA, AZTERGAI

Claudia Sombria Gonzalezek, EHUko Arte Ederren Fakultateak eskaintzen duen Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Graduko ikasleak, bere Gradu Amaierako Lana (GRAL) Aranzadi Zientzia Elkarteak duen hegaztien bilduma historikoaren inguruan burutu du, funtsak duen kontserbazio egoerari egokitutako kontserbazio-proposamen bat planteatuz. Piezetako bat Arte Ederren Fakultateko zaharberritze-tailerretara eraman zen (Bizkaiko Campusa, Erandio-Leioa), sakontasun gehiagorekin aztertzeko (erradiografiak egin, UV argiarekin aztertu, mikroskopio bidezko behatu, osatzen duten materialen identifikatu) eta kontserbazio-zaharberritze proposamena diseinatu zitzaion.

Bilduma osatzen duten materialen eta piezen azterketa egin ahal izateak ikasleari aukera emango zion graduan zehar eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak aplikatzeko. Aldi berean, Claudiak bere kontserbazio proposamenaren bidez benetako egoera bati erantzuteaz gain, Aranzadi Zientzia Elkarteak duen bilduma historikoaren kontserbazioari ekarpena egingo dio.

LA COLECCIÓN DE ORNITOLOGIA, A ESTUDIO

Claudia Sombria Gonzalez, alumna del Grado en Conservación y Restauración de Bienes Culturales que se imparte en la Facultad de Bellas Artes de la UPV/EHU, ha centrado su Trabajo Fin de Grado (TFG) en el estudio de la colección histórica de aves con el objetivo principal de plantear una propuesta de conservación adaptada a los principales deterioros que presenta el fondo.

En cuanto a los trabajos de análisis realizados, una de las aves fue trasladada a los talleres de restauración de la Facultad de Bellas Artes (Campus de Bizkaia, Área Leioa-Erandio) para su estudio (realización de radiografías, estudio con luz UV, visualización al microscopio, identificación de materiales constitutivos) y diseño de los posibles tratamientos de conservación y restauración.

El acceso al estudio de los materiales y piezas que componen la colección ha permitido a la estudiante aplicar los conocimientos adquiridos a lo largo del grado, así como dar respuesta a una situación real contribuyendo a que la colección histórica que Aranzadi posee pueda disponer de la aportación que Claudia ha realizado mediante su propuesta.

ARANZADIKO ERLOJU ETNOGRAFIKOAK MARTXAN JARTZEA

Ander Moso Veira antropologoak Aranzadiko Ondare Bildumako eta etnografia fondoetako erloju batzuk jarri ditu martxan. Erloju mekaniko zaharrek engranaje-sistema batekin funtzionatzen dute. Erloju hauek zaharberritzeak esan nahi du pieza horiek garbitu, konpondu eta doitu behar direla, erlojuaren originaltasuna aldatu gabe. Antzinako erlojuen konponketa artisautza, prezisiozko mekanika eta historia uztartzen dituen diziplina da. Pazientzia, ezagutza espezializatuak eta tresna egokiak behar dira erloju bati funtzionaltasuna itzultzeko, honen balio historikoa aldatu gabe. Ondo zaharberritutako erloju batek belaunaldiz belaunaldi funtzionatzen jarrai dezake, erloju-artearen ondarea bizirik mantenduz. Lan hauek Bidebietako Etnografia Laborategia espazioari esker burutu ahal izan dira.

PUESTA A PUNTO DE LOS RELOJES ETNOGRÁFICOS DE ARANZADI

El antropólogo Ander Moso Veira ha puesto en marcha varios relojes pertenecientes a la Ondare Bilduma y a varios fondos de Etnografía de Aranzadi. Los relojes mecánicos antiguos funcionan con un sistema de engranajes. La restauración implica la limpieza, reparación y ajuste de estas piezas sin alterar la originalidad del reloj. La reparación de relojes antiguos es una disciplina que combina artesanía, mecánica de precisión e historia. Requiere paciencia, conocimientos especializados y herramientas adecuadas para devolverles su funcionalidad sin alterar su valor histórico. Un reloj bien restaurado puede seguir funcionando durante generaciones, manteniendo vivo el legado del arte relojero. Estos trabajos han sido realizados gracias al espacio de trabajo Laboratorio de Etnografia de Bidebieta.

OBJEKTUEN MEMORIA ETA DOHAINTZAK

2020an martxan jarri zen ekimena bada ere, 2022 urtean ere indarrean egon den egitasmoa izan da hau. Etnografia Sailak hainbat bazkideren kezka sumatu zuen etxean bilduta zituzten bilduma historiko naiz zientifikoekin zer egin ez zekitelako. Hau ikusita, *La memoria de las cosas / Objektuen memoria* eskuorria sortu zuen Etnografia Sailak. Eskuorria bazkide guztien artean banatu zen, eta modu horretan jendea etxeetan zer egin ez zekiten materialak dohaintzan ematera animatu da. Modu horretan Aranzadiko hainbat bazkidek material oso interesgarriak eman dituzte, askoren esanetan "Aranzadin gordetzea merezi duten materialak" dira. Horrela, Elkartetik pasa diren ikerlarien lantresnak jaso ahal izan ditugu, edo bilduma zientifiko partikularrak, fosilak, adibidez.

Nahiz eta Aranzadik beti izan duen gure ondare historiko eta zientifikoa kontserbatzeko konpromezua, eskuorria banatzeari esker dohaintza ezberdinak jaso ahal izan dira. Dohaintza hauek gure funtsetan integratu dira, behar bezala erregistratu eta gordeaz eta gure bilduma hobetuz. Horrela, gizarte guztiarentzako tresna bihurtzen dira, hiritar zientzia bultzatzeko eta dibulgazioan sakontzeko. Orain, material hauen etorkizuna bermatuta dago eta guztiontzako eskuragarri daude.

Dohaintzak Aranzadi Zientzia Elkarteko bildumak handitzeko eta hiritar zientzia sustatzeko bide aberasgarria dira. Aurten dohaintzek gora egin dute, eta izaera ezberdinetako materialak bildu

LA MEMORIA DE LAS COSAS Y DONACIONES

Aunque se puso en marcha en 2020, este proyecto ha sido fructífero también en 2022. El Departamento de Etnografía percibió la preocupación de varios socios por no saber qué hacer con las colecciones históricas y científicas que tenían guardadas en casa. A la vista de ello, el Departamento de Etnografía publicó el tríptico *La memoria de las cosas / Objektuen memoria*. Este folleto se ha repartido entre todos los socios, animando así a la gente a donar materiales con los que no sabían qué hacer en sus casas. De esta forma, varios socios de Aranzadi han aportado materiales muy interesantes que muchos consideran "que merecen ser conservados en Aranzadi". Así, hemos podido recoger herramientas de trabajo de investigadores que han pasado por la Sociedad, o colecciones científicas particulares como fósiles.

Aunque Aranzadi siempre ha tenido el compromiso de conservar nuestro patrimonio histórico y científico, gracias a la distribución de este folleto se han podido recibir diferentes donaciones. Estas donaciones se han integrado en nuestros fondos, registrándolos y guardándolos adecuadamente, mejorando nuestra colección. Así, se convierten en un instrumento para toda la sociedad, para impulsar la ciencia ciudadana y profundizar en la divulgación. Ahora, el futuro de estos materiales está garantizado y están disponibles para todos.

Las donaciones son un enriquecedor medio para ampliar las colecciones de la Sociedad de Ciencias

ahal izan ditugu modu honetan. Azken urtean jasotako funts garrantzitsuenak ondorengoak dira:

- **Antxon Olalde: paretako erlojua eta zapatari ingudea.**
- **Mikel Legorburu: nekazaritza lanabesak.**
- **Guillermo Gallastegiren sendia: taxidermia bilduma.**
- **Ramon Urrutiaren sendia: Ramon Urrutia etnografoaren argazki eta objektu pertsonal funtsa eta Patxi Arraras folkloristaren objektu funtsa.**
- **Joan Castany: fosil bilduma.**
- **Luisa Aldaburu: buztinezko kanika zaharrak.**
- **Mari Karmen Oiarbide: josteko makina, argazki-kamera bilduma, txanpon/billete bilduma eta zigilu bilduma.**
- **Eizaguirre Ordoqui sendia: bizkar gisa argizaiola duten aulki parea.**
- **Gemma del Rio: Aizkorri, Aloña eta Urkilla inguruetako mapa zaharra.**
- **Jose Luis Arrue: objektu bilduma.**
- **Miguel Ángel Padrones: telebista.**

Aranzadi y fomentar la ciencia ciudadana. Este año las donaciones han aumentado, y de esta manera hemos podido reunir materiales de diferentes ámbitos. Algunos fondos importantes recibidos los últimos años son los siguientes:

- **Antxon Olalde: reloj de pared y yunque de zapatero.**
- **Mikel Legorburu: aperos de labranza.**
- **Familia de Guillermo Gallastegi: colección de taxidermia.**
- **Familia de Ramón Urrutia: fondo fotográfico y objetos personales del etnógrafo Ramón Urrutia y objetos personales del folklorista Patxi Arrarás.**
- **Joan Castany: colección de fósiles.**
- **Luisa Aldaburu: antiguas canicas de barro.**
- **Mari Karmen Oiarbide: máquina de coser, colección de cámaras fotográficas, colección de monedas/billetes y colección de sellos.**
- **Familia Eizaguirre Ordoqui: par de sillas con una argizaiola como respaldo.**
- **Gemma del Río: antiguo mapa de los alrededores de Aizkorri, Aloña y Urkilla.**
- **José Luis Arrue: colección de objetos.**
- **Miguel Ángel Padrones: televisor.**

XXII Simposio "La condición de la mujer en el derecho histórico de Euskal Herria". Enero 2024.

IURA VASCONIAE SIGUE CONSOLIDÁNDOSE COMO EL REFERENTE EN MATERIA DE DERECHO HISTÓRICO Y AUTONÓMICO DE EUSKAL HERRIA

La intensa tarea desarrollada por la Fundación a lo largo de 2024 sigue permitiendo consolidar a Iura Vasconiae como el referente en Euskal Herria en materia de estudio y difusión del derecho histórico y autonómico vasco no sólo en el ámbito académico, en el que sus publicaciones conforman el mayor repositorio existente hasta la fecha, sino también en el ámbito institucional, gracias a la colaboración estrecha que mantiene con las distintas administraciones territoriales y autonómicas del País.

Revista Iura Vasconiae

Las gestiones realizadas por la Fundación han permitido incluir la Revista Iura Vasconiae en el fondo de revistas de la UPV/EHU, lo cual prestigia, aún más si cabe, dicha publicación al vincularla a una Universidad reconocida internacionalmente. La revista puede consultarse ahora tanto en el portal de revistas científicas de la UPV/EHU como en la de página de publicaciones de la Fundación.

Encuentros científicos

En enero de 2024, la Facultad de Derecho de la UPV/EHU en San Sebastián acogió el **XXII Simposio de Derecho histórico y autonómico** como continuación del simposio XXI, con el mismo título de la *Condición de la mujer en el derecho histórico de Euskal Herria* que tuvo lugar en el mismo escenario un mes antes, en diciembre de 2023.

En este ámbito de la mujer, la aportación de la Fundación Iura Vasconiae ha permitido acceder a un enorme elenco de especialistas en distintas áreas del derecho y hacer un recorrido fascinante, y en parte desconocido, sobre cómo ha tratado el derecho en cada territorio a la mujer vasca a lo largo de los siglos. Ya está publicada la revista que recoge las ponencias del primero de los simposios sobre esta temática, el XXI, y este año saldrá la revista XXII con la segunda parte.

Difusión

Para Iura Vasconiae la tarea de seguir nutriendo la historia del derecho con nuevas investigaciones y publicaciones científicas que sirvan para los académicos y los interesados en esta temática debe ir acompañada de la difusión de estas herramientas.

Para ello, la Fundación sigue alimentando su web iuravasconiae.eus con nuevas publicaciones en abierto. En 2024, se hizo un esfuerzo por digitalizar el libro **"Génesis de la Ley de Territorios Históricos" de Virginia Tamayo,** fundamental para entender uno de los episodios más relevantes de la historia reciente de la CAV. Y se han seguido subiendo a la plataforma los tomos del Diccionario Notitia Vasconiae en los diferentes idiomas.

Así mismo, en 2024 La Fundación coeditó, junto con el IVAP, el libro del profesor y exconsejero de Hacienda de Navarra **Mikel Aranburu**, titulado **"Convenio / Concierto: El sistema tributario de las haciendas forales"**, presentado con la participación de las tres diputadas forales de Hacienda de Gipuzkoa, Bizkaia y Álava y el consejero de Hacienda del Gobierno Vasco.

KOMUNIKAZIO TXOSTENA
INFORME DE COMUNICACIÓN

2024. urtea oso positiboa izan da komunikazioari dagokionez, gure presentzia nabarmen handitzen jarraitzen dugu, bai komunikabide tradizionaletan: telebistan, prentsa idatzian, irratian bai digitaletan: sare sozialetan. Horrela, prentsa idatziaren hedabideek gure lana islatu dute, azal ugariren protagonista izanik eta Aranzadik herritarren aurrean duen irudia indartzen lagunduz.

Gainera, herritarren zientziari buruzko kanpainak berriro abiarazi ditugu, hala nola #polenbila, #txiobatputzuan edo #sugebizi. Hauek guztiak oso harrera ona izan dute.

Prentsari dagokionez aurten hauek izan dira gai esanguratsuenak.

El año 2024 ha sido muy positivo en términos de comunicación, ya que hemos logrado aumentar significativamente nuestra presencia en diversos medios, tanto tradicionales: televisión, prensa escrita y radio, como digitales: redes sociales. De esta manera, los medios de prensa escrita han reflejado nuestro trabajo, protagonizando numerosas portadas y contribuyendo así a fortalecer la imagen de Aranzadi ante la ciudadanía.

Además, hemos lanzado nuevamente campañas de ciencia ciudadana, como #polenbila, #txiobatputzuan o #sugebizi, que han tenido una gran acogida.

Aquí una muestra de algunas apariciones y ruedas de prensa más importantes de año.

'ZooNaGreen' proiektuak 10.500 ale baino gehiago detektatu ditu Sendavivan. Ikerketa honek, Sendavivak finantzatua eta koordinatua, Aranzadi Zientzia Elkartearekin, Nafarroako Unibertsitatearekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan, 110 talde antzeman ditu, parkearen barruan eta inguruan, espezieen eta morfoespezieen artean; horietatik 47 espezie eta 27 morfoespezie Sendaviva barruan identifikatu dituzte.

El proyecto 'ZooNaGreen' detecta en Sendaviva y su entorno a más de 10.500 ejemplares. Este estudio financiado y coordinado por Sendaviva, en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi, Universidad de Navarra y Universidad del País Vasco ha detectado 110 grupos, entre especies y morfoespecies dentro del parque y en su entorno, de las cuales 47 especies y 27 morfoespecies han sido identificadas dentro Sendaviva.



Pasaian eraztundutako txonta, Siberian agertu zen. Aranzadik urtero Donostiatik kudeatzen dituen 150.000 hegazti markaketen adibide bat baino ez da. Espainian eraztunak dituzten aleen erdiek beren hanka batean daramatzate eraztunak.

El pinzón anillado en Pasaia que apareció en Siberia. Es sólo uno de los ejemplos de los 150.000 marcajes de aves que Aranzadi gestiona cada año desde Donostia. La mitad de los ejemplares anillados en España llevan sus anillas en una de sus patas.

14 | 2024 | 5 | 7 | ostegunea GARA

EUSKAL HERRIA

Familiares han empezado a acceder al laboratorio instalado en Cuelgamuros, donde se afronta una tarea titánica: tratar de recuperar los restos de 160 represaliados por el franquismo entre los 33.800 cadáveres allí enterrados. Paco Etxeberria y Lourdes Herrasti participan en unos trabajos con obstáculos añadidos.

Restos en Cuelgamuros: una «aguja en un pajar», trabas, presiones y dolor

Pedro Sanchezek Cuelgamurosen instalatutako laborategia bisitatu du. Senitartekoak dagoeneko hasi dira lan titanikoa egiten den leku hori ezagutzen. Bertan, frankismoko 160 errepresaliaturen gorpuzkiak berreskuratu nahi dituzte lurperatutako 33.800 gorpuen artean. Paco Etxeberriak eta Lourdes Herrastik parte hartzen dute lan horietan.

Pedro Sánchez visita el laboratorio instalado en Cuelgamuros. Familiares ya han empezado a acceder a este lugar donde se afronta una tarea titánica: tratar de recuperar los restos de 160 represaliados del franquismo entre 33.800 cadáveres enterrados. Paco Etxeberria y Lourdes Herrasti participan en estos trabajos.

Aranzadi Zientzia Elkarteak egindako indusketa eta desehorzketa-lanen ondorioz Amorebieta-Etxanoko (Bizkaia) hilerriko hobian berreskuratu diren Gerra Zibileko 86 desagertuetako lehena identifikatu dute. Familiak maiatzaren 13an jasoko ditu herriko udaletxean.

Identificado el primero de los 86 desaparecidos de la Guerra Civil cuyos restos han sido recuperados en la fosa del cementerio de la localidad vizcaína de Amorebieta-Etxano tras los trabajos de excavación y exhumación llevados a cabo por la Sociedad de Ciencias Aranzadi. Su familia los recibirá el próximo 13 de mayo en el Ayuntamiento de la localidad.

Francisco Etxeberria antropologo eta forentseak Conchita Viera saria jaso du bere lehen edizioan. Cacereseko Foru Aldundiak sortu du sari hau, memoria demokratikoaren eta memoria historikoaren alde lan egiten duten pertsonak eta erakundeak ohoratzeko.

El antropólogo y forense Francisco Etxeberria recibe el Premio Conchita Viera en su primera edición. El reconocimiento ha sido creado por la Diputación de Cáceres para honrar a personas e instituciones que trabajan en favor de la memoria democrática y la memoria histórica.

I. mendeko aldare erromatar bat aurkitu da, Larrahe euskal jainkoari eskainia. Aranzadik koordinatutako taldeak Doneztebeko Erdi Aroko monasterioa induskatzen ari zirela aurkitu zuen harrizko aldarea, putzu bateko inskripzioarekin.

Hallan un altar romano del siglo I dedicado a la deidad vascona Larrahe. El equipo coordinado por Aranzadi descubrió el ara de piedra con la inscripción en un pozo, durante la excavación del monasterio medieval de Doneztebe en Larunbe.

Erabilerarik gabeko ur-biltegiak anfibio, narrasti, hegazti eta ugaztunentzat tranpa bihurtu dira. Mahastigel proiektuaren helburua da Arabako Errioxan biodibertsitatea sustatzea eta, horretarako, halako "putzuak" lehengoratzea. Halaber, eskualdean zenbait hezegune txiki sortu edo lehengoratu dira.

Los depósitos de agua que están en desuso se han convertido en trampas para anfibios, reptiles, aves y mamíferos. El objetivo del proyecto Anfiviñas es favorecer la biodiversidad de Rioja Alavesa restaurando este tipo de "pozos". También se han creado o restaurado algunos microhumedales en la comarca.



Pirinioen bi aldeetako erakundeak uztailaren 3an bildu ziren Jakan, OPCCren egoitzan, Interreg POCTEFA INBIOPYR proiektuari hasiera emateko asmoz. Pirinioetako faunan klima-aldaketak dituen ondorioak monitorizatzeko ekintzak proposatzen dituzten erakundeen arteko aliantza da INBIOPYR.

Entidades de ambos lados del Pirineo se reunieron el 3 de julio en Jaca, en la sede del OPCC, con el objetivo de dar el pistoletazo de salida al proyecto Interreg POCTEFA INBIOPYR. Una alianza de entidades que proponen acciones para monitorizar los efectos del cambio climático en la fauna de los Pirineos.

Manuel Azcona Arabako Probintzia Kudeatzaileko diputatuaren gorpuzkiak entregatu dira. Azcona altxamendu militarretik ordu gutxira atxilotu eta epaiz kanpo exekutatu zuten 1936ko irailean. Nahitaezko desagerpenaren biktima bat da.

Entregados los restos mortales de Manuel Azcona, diputado de la Gestora Provincial de Álava. Azcona fue detenido a las pocas horas de la sublevación militar y ejecutado extrajudicialmente en septiembre de 1936. Se trata de una víctima de desaparición forzosa.

Consell de Mallorcak 17 pertsona eta erakunderi entregatu dizkie Sariak, Ohoreak eta Goraipamenak, Mallorcaren alde egindako lanagatik. Lourdes Herrasti Antropologia saileko zuzendariak eta Almudena Garcia-Rubio Mallorcako uhartetik gorpuak ateratzeko ardura duen antropologoak jaso dute sari garrantzitsu hau.

El Consell de Mallorca entrega los Premios, Honores y Distinciones a 17 personas y entidades por su labor a favor de Mallorca. Lourdes Herrasti, directora del departamento de Antropología y la antropóloga responsable de las exhumaciones de la isla de Mallorca, Almudena García-Rubio, han sido las encargadas de recibir este distinguido e importante premio.

Aurora Borealek kolore gorri eta morez tindatu dute Gipuzkoako zerua. Eguzki-jarduera biziak eragindako aparteko gertaera hori lurraldeko hainbat tokitan ikus zitekeen, hala nola, Hondarribian edo Kontxako badian.

Las Auroras Boreales tiñen el cielo de Gipuzkoa de color rojo y morado. Este evento extraordinario provocado por una intensa actividad solar pudo ser observado en diferentes puntos del territorio como Hondarribia o la bahía de la Concha.

Onddo-biltzaile txikiak. Zaleek udazkeneko garai honetaz gozatzen duten bitartean, beste batzuk mikologiaren munduan estreinatzen dira. Gure basoak, batzuetan, meategi bihurtzen dira mikologiazaleen gozamenerako.

Pequeños recolectores de hongos. Mientras los aficionados disfrutan de esta época otoñal, otros se estrenan en el mundo de la micología. Nuestros bosques se convierten en ocasiones en una auténtica mina para gozo de los amantes de la micología.

Aurtengo aztarnategi arkeologikoei buruzko erreportaia seriea idatzi du Berria egunkariak. Aurten lehenengo aldiz Euskal Herriko 7 probintzietan lan egin dugu.

Berria ha escrito una serie de reportajes sobre los yacimientos arqueológicos que estamos investigando este año. Hemos trabajado por primera vez en las 7 provincias de Euskal Herria.

XVI. mendeko Artziko Jauregia birgaitu da, turismo-erakarpena bilakatuta. Lurralde Kohesiorako kontseilari Oscar Chivite Artziko Cabo de Armeria jauregian izan da gaur goizean, Nafarroako Gobernuak egindako birgaitzearen ondoren.

Rehabilitado el Palacio de Arce del siglo XVI y convertido en atractivo turístico. El consejero de Cohesión Territorial, Óscar Chivite, ha visitado esta mañana el Palacio de Cabo de Armería de Arce, tras la rehabilitación llevada a cabo por el Gobierno de Navarra.

Artzainen etnografoaren ondare izugarria. Astearte honetan Fermin Leizaolak merezitako omenaldia jasoko du Aranzadi Zientzia Elkartearen Etnografia Jardunaldien 45. edizioan.

El inmenso legado del etnógrafo de los pastores. Este martes Fermin Leizaola recibirá un merecido homenaje en el marco de la 45ª edición de las Jornadas de Etnografia de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Katxiporreta Kooperatibak "Zerua lapurtu dute!" haurrei eta familiei zuzenduriko ipuin eta diska ilustratua argitaratu ditu Aranzadi Zientzia elkartearekin elkarlanean eta hainbat partaiderekin batera.

La Cooperativa Katxiporreta ha editado en colaboración con la Sociedad de Ciencias Aranzadi un cuento y un disco ilustrado dirigido a familias, niños y niñas "Zerua lapurtu dute!".

Lasain-Gogortegiko mikrohezeguneak inauguratu dira: Gipuzkoako klimaren erresilientziarako urrats berria. Mikrohezegune hauek MIKROKLIMA proiektuan sartu dira. Naturklima eta Aranzadi Zientzia Elkartea dira proiektu horren buru, eta habitat horien bilakaera monitorizatzen du, klima-aldaketara egokitzen diren ebaluatzeko.

Inaugurados los microhumedales de Lasain-Gogortegi: un nuevo paso hacia la resiliencia climática de Gipuzkoa. Estos microhumedales se han incorporado al proyecto MIKROKLIMA, liderado por Naturklima y la Sociedad de Ciencias Aranzadi, que monitoriza la evolución de estos hábitats para evaluar su adaptación al cambio climático.

Mikel Salegiren familiak bere omenezko ekitaldia antolatu du. Ekitaldi honetan, Javier Buces Aranzadiko historialariak idatzitako liburua aurkeztu da. *1974. Mikel Salegi. Del recuerdo a la memoria* tituluduna.

La familia de Mikel Salegi organiza un acto en su recuerdo. En este acto se ha presentado el libro escrito por el historiador de Aranzadi, Javier Buces, titulado *1974. Mikel Salegi. Del recuerdo a la memoria*.

Diputatuen Kongresuak diktadura frankistaren biktimei lehen omenaldi ofiziala egin die. Lourdes Herrastik, Antropologia saileko zuzendariak, gai honetan egiten duen lana azaldu du.

El Congreso de los Diputados ha acogido el primer homenaje oficial a las víctimas de la dictadura franquista. Lourdes Herrasti, directora del departamento de Antropología, ha explicado el trabajo que realiza en esta materia.

Irulegiko Eskua eta Loizuko Gizakia Nafarroako Museoan daude ikusgai, Historiaurreko areto berrituan eta sarrera doan izango da.

La Mano de Irulegi y el Hombre de Loizu lucen ya de forma permanente en el Museo de Navarra, donde pueden visitarse con entrada gratuita en una renovada sala de Prehistoria.

KOMUNIKABIDEEKIN LANKIDETZAK
COLABORACIONES COM MEDIOS DE COMUNICACIÓN

Urtean zehar komunikazio sailak jarraian dauden kolaborazioak adostu ditu:
Durante este año el departamento de comunicación ha cerrado distintas colaboraciones con los siguientes medios:

EUSKADI IRRATIA Faktoria

Programa honekin asteroko kolaborazio bat daukagu. Asteartero gure zientzialariak Faktoriako estudioetara joaten dira euren ikerketen azken nobedadeak kontatzera. Faktoria magazina egunero egiten den saioa da, eta eguneko albiste garrantzitsuenen berri ematen eta aztertzen da bertan. 07:00etan hasita. Iñaki Guridik gidatuta. 10:00etan, Maider Segurolak hartzen du lekukoa, magazina martxan jartzeko. Gertatzen ari denaren berri, ikuspegi guztietatik.

EUSKADI IRRATIA: Ekosfera (Aranzadiesfera)

Klima aldaketa eta trantsizio ekologikoa hizpide dituen saio honetan ikerketak ere tarte berezia du. Datorkigunaren aurrean zer egin dezakegun ezagutzera eman nahi du, Guillermo Roak gidatutako saioan. Eta berarekin Aranzadiesfera deitzen den atal berria jarri genuen martxan 2020. urtean. Aurten ere jarraituko dugu eta dagoeneko gure ikerlarien gehiengoak hartu dute parte.

El cambio climático o la transición ecológica son algunos de los temas que se tratan en este programa. Siempre suele haber también espacio para la investigación. Este programa dirigido por Guillermo Roa se planeta el objetivo de dar a conocer lo que podemos hacer frente al futuro que nos espera. Esta colaboración se ha puesto en marcha en 2020 y durante este año ya ha pasado la mayoría de nuestro equipo de investigación.

RADIO EUSKADI (Planeta Aranzadi)

Nuestra colaboración con Radio Euskadi tiene una trayectoria de muchos años. Cada semana nos hacemos eco de nuestras actividades y de las investigaciones de nuestras científicas y científicos. Eva Caballero, a través de su programa La Mecánica del Caracol, pone voz a nuestra entidad y nos coloca en un lugar de referencia del mundo de la divulgación, en nuestro espacio titulado: Planeta Aranzadi.



EMAKUMEAK ZIENTZIAN

Zientziaz haragoko bizitza izan zen Emakumeak Zientzian 8. edizioaren leloa. Ekimen hau *Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna* (otsailak 11) dela eta ospatzen da. Guztira, 32 euskal erakundek parte hartu zuten 60 jarduera baino gehiagoko programa zabal batean. Oraingo honetan, bere helburua zientzialari eta teknologoek bizimodu beteko pertsonak izan nahi dutela azpimarratzea izan zen; beren beharrak, grinak, konpromisoak eta zaletasunak dituztela.

Aranzadin, bigarren urtez, helduei eta haurrei ateak ireki genizkien, gure etxea bertatik bertara ezagutu zezaten. Gure instalazioetatik ibilbide txiki bat egin eta egunero egiten dugun lanaren azalpen labur bat eman ondoren, gure zientzialariek hainbat tailer prestatu zituzten. Haurrek botanikek landa-lana nola egiten duten esperimentatu ahal izan zuten, intsektu-hotelak eraiki zituzten, indusketak egiten ikasi zuten, plastilinazko pieza etnografikoak erreproduzitu zituzten, eta ipuin-kontaketa bat ere izan zen, Gerra Zibila bezalako gaiak jorratzen zituena. Horrela, Aranzadin ondo gordeta dauden gure sekretuak eta altxorrak ezagutu zituzten

Una vida más allá de la ciencia fue el lema de la 8ª edición de *Emakumeak Zientzian*. Una iniciativa que se celebra con motivo del *Día Internacional de la Mujer y la Niña* en *la Ciencia* (11 febrero). Un total de 32 entidades vascas participaron en un amplio programa de más de 60 actividades. Su objetivo, en esta ocasión, fue subrayar que las personas del ámbito científico-tecnológico quieran ser ante todo personas con una vida plena; con sus necesidades, sus pasiones, sus compromisos y sus aficiones.

En Aranzadi, por segundo año consecutivo, abrimos nuestras puertas tanto a adultos como a niñas y niños para que conocieran de primera mano nuestra casa. Después de un pequeño recorrido por nuestras instalaciones y una breve explicación de la labor que realizamos, nuestras científicas organizaron varios talleres. Las niñas y niños pudieron experimentar cómo realizan las botánicas su trabajo en el campo, construyeron hoteles de insectos, aprendieron a excavar, reprodujeron piezas etnográficas con plastilina y hasta hubo un taller de cuenta cuentos en el que se trataron temas como el de la Guerra Civil. De esta manera se descubrieron los secretos y los tesoros mejor guardados de Aranzadi.

BIHOTZ BERDEAK
Finantziazioa: Kutxa Fundazioa, Real Sociedad Fundazioa.
Aliantzak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Ihobe, Geoparkea, Neiker, Mater Museoa, Gnat Zinema, Lurpea garbi, Cimasub
Arduraduna: Virginia Garcia
Lan-taldea: Jexux Tapia, Maite Errarte, Suberri Matelo, Ion Garin, Maddi Astigarraga, Asier Izagirre, Txema Hernandez, Olatz Aizpurua, Maite Laso, Iñaki Mezquita eta Iñaki Romero

NATURA EZAGUTZEA, MAITATZEA DA

Bihotz Berdeak 12 eta 15 urte bitarteko gazte naturalistei zuzendutako programa da. Natura aztertu, ikasi eta maitatzeko hainbat diziplinak lantzen dituzte programa honetan, hala nola: **herpetologia, ornitologia, biziraupena, espeleologia, edafologia eta entomologia, ilustrazio zientifikoa eta etnografia.**

Adituen eskutik eta hainbat Gipuzkoako naturguneetan murgilduta, igandeetan egin diren **13 saio eta irteeratan,** ezagutzarako leiho berriak ireki dira eta eko-aktibismoa bultzatu da ere bai.

Horretaz gain, programa honek aukera eman die lagun berriak egin eta euren pasioak partekatzeko.

2020an hasi ginen Bihotz Berdeak programa. **Kutxa Fundazioak** sustatua, **Aranzadi Zientzia Elkarteak darama kudeaketa**. Horretaz gain, hainbat elkarte ere bildu dira hala nola, **Real Sociedad Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ihobe, Geoparkea, Neiker** eta beste elkarte eko-aktibista batzuk.

Programa aurrera eramateko sare bat sortu da, talentu naturalista eta STEAM bokazioak ekoalfabetizatzeko helburuarekin.

2024an **Eusko Jaurlaritzaren lehen STEAM saria** lortu zuen programa honek, Erakunde sozioekonomikoek sustatutako STEAM hezkuntza-ekimenaren barnean.

2024. urtean zehar gure bihotz berdeek parte hartu dute hainbat ekimenetan.

- **Urriak 27**: Geologia- *Txema Hernandez geologoaren eskutik.*
- **Azaroak 21:** Isas Zinema.
- **Azaroak 23-24**: Asteburua naturan- *Jexux Tapia eta Virginia Garcia (Elosu-Gipuzkoa).*
- **Abenduak 15**: Ilustrazio zientifikoa- *Maddi Astigarraga.*
- **Urtarrilak 26**: Etnografia- *Maite Errarte eta Suberri Matelo.*
- **Otsailak 16**: Espeleologia- *Jexux Tapia eta Asier Izagirre.*
- **Martxoak 23**: Ornitologia- *Olatz Aizpurua eta Maite Laso.*
- **Martxoak 30**: *Ekoaktibismoa - Mater itsasontzi museoa.*

OIANGU NATUR ESKOLA
Finantziazioa: Ordiziako Udala.
Arduraduna: Yoana García.
Hezitzaile-taldea: Maialen Muniozguren, Mari Azpiroz, Yoana García, Anaïs Mitxelena eta Irati Milikua.
Lan-taldea: Mikel Etxeberria eta Luzia Urkiola.

Jasangarritasunera bidean giltzarri dira ikastetxeak ingurumen hezkuntzan egiten ari diren lana, eta hainbat dira helburu horiek lortzeko egindako ahaleginak. Hala ere, irakasleen esperientzien eta hainbat ikerketen arabera, ikastetxeetako ingurumen hezkuntza alderdi batzuetan hankamotz geratzen da. Hau da, eduki disziplinarrak ondo landuak dauden bitartean, ingurumen hezkuntzan garrantzizkoak diren beste alderdi batzuen gabezia egon ohi da. Gabezia horiek indartzeko helburuarekin sortu zuen Botanika Sailak Oiangu Natur Eskola 2017. urtean.

Oiangu Natur Eskolan diseinatutako jarduerek herriko biodibertsitatea lantzen dute espezifikoki eta ondorengo printzipio pedagogikoak ditu oinarrian; naturarekiko hartu-emana egotea uneoro, edukiak in situ behatzea, jarduerak burutzeko elkarlana ezinbestekoa izatea, jarduerek umeen motibazioa pizteko diseinatuta egotea, ikasle/hezitzaile ratioak zaintzea, naturan gertatzen den jolas libreari eta hezitzaile-ikasle arteko komunikazio motari arreta jartzea, etab. Noski, aukera hau natur zientzien inguruko jakinmina sustatzeko baliatzen da.

Aipatzeko da Oiangu Parkearen apartekotasuna helburu horretarako. Batetik, herriko naturgunea izanik ikasleek landutako edukiekin erlazio afektibo bat sortzen laguntzen du. Erlazio afektibo hori da irakaskuntza metodologiaren arrakastaren arrazoi nagusietako bat. Aldi berean, Oiangu herriko natur eremu garrantzitsuena dela esan daiteke, biodibertsitatean aberatsa eta herritik oinez iristeko erraza.

Oiangu Natur eskolako ekintzak garatzen.

Oiangu Natur Eskolako egitasmoa herriko bi ikastexeei bideratuta dago (8-12 urteko ikasleei) eta udaberrian gauzatzen da, maiatza eta apirilean zehazki.

Irteera bakoitzaren amaieran Oiangu Natur Eskolako hezitzaileek ikasleekin batera irteera egunaren balorazio egiten dute. Izan ere, ikasleen iritzia etorkizuneko ekintzak moldatu eta berriak sortzeko baliatzen da. Horrez gain, irakasleen iritzia ezagutzeko, inkesta bat betetzen dute. Urtetik urtera balorazioa oso positiboa da, egindako lana oso ondo baloratzen dute (ekintzen berritasun eta orijinaltasuna, lantzen ditugun gaiak, hezitzaile-haur arteko komunikazioa, etab.) eta etorkizunean Oiangu Natur Eskola ekimenarekin jarraitzeko nahia adierazi dute.

KULTURA ESKOLA
Arduradunak: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza, Jone Zuloaga, Maria Laespada, Manex Arrastoa, Irati Zurriarain eta Jexux Tapia
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia-Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari esker Aranzadi Zientzia Elkarteak martxan jarritako **Kultura Eskola** egitasmoaren harira, Etnografia Sailak *Museo etnografiko bat ikasgelan: gizarte tradizionalera hurbilduz* saioa eskaini du 2024. urtean.

Hala, Etnografia Saileko ekipoa **Errenteriako Bizarain BHIn** izan zen apirilaren 8an, 9an eta 15ean**, DBH 3. mailako** zenbait ikasgeletan tailer berau eskaintzen. Saio hauetan zehar, ikasleek taldeetan banatuta, alegiazko pertsonaia batzuen ondare materiala (objektu pertsonalak, lan tresnak) identifikatu, etiketatu eta katalogatu behar izan zuten.

Behin hori eginda, pertsonaia bakoitzaren istorioa eta bizitza ibilbidea asmatu behar izan zituzten, amaitzeko poster batzuen bidez pertsonaiak beren gainerako kideei aurkeztu zituzten.

2024ko otsailetik aurrera, beste urte batez, **Kultura Eskolaren** baitan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Manex Arrastoa, Ione Zuloaga, Maria Laespada eta Irati Zuriarrain ikerlariek *Memoria Historikoa Orainalditik* ikastaroa egin dute **Mutriku BHI, IPI Karmengo Ama, Orixe BHI, Bizarain BHI, Arizmendi Ikastola, Azkoitia BHI eta Bizarain BHI DBH 3 eta DBH 4-ko ikasleekin.**

Hitsoriaurrea eta **Giza Eboluzioa** tailerrak landu dira baita ere Kultura Eskola ekimenaren barruan. DBHko ikasleentzat zuzendutakoak hauek izan dira:

Giza Eboluzioa tailerra, **Hondarribiako Talaia DBHko** ikasleentzat. Eta **Jakintza**

Ikastolako DBHko ikasleentzat (Ordizia). Biak Jexux Tapia arkeologoak eman zituen.

ESKOLETAKO URMAELEN SAREA
Arduradunak: Iñaki Sanz-Azkue, Ion Garin.
Aliantzak: UPV/EHU, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Berritzegune Nagusia, Neiker, Kutxa Fundazioa eta Sarearen parte diren 45 eskolak

IKASLEAK ZIENTZIAREN DIDAKTIKAN MURGILTZEN

Eskoletako Urmaelen Sareak 2020ean eman zituen bere lehen pausuak 6 ikastetxerekin. Ordutik, sarea handitzen joan da eta ikastetxeek urmaelarekiko duten interesa nabarmen hazi da.

2020ko sei ikastetxe horiez gain, azken urteetan beste hainbatek sortu dute urmaela, eta sarean sartzeko eskaera egin dute. Egun 45 ikastetxe dira Eskoletako Urmaelen Sarea osatzen dutenak, beraz, agerikoa da proiektuak izan duen hazkuntza. Ikastetxeez gain, alabaina, urmaelak izan dezakeen potentzial didaktikoak interes berezia sortu du mundu akademikoan ere. Hala, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Campusek jada badute euren urmaela eta azken urtean ekosistema honi eta hezkuntzari loturiko ikerketen eta publikazioen kopurua asko igo dira.

2024 urtea, era berean, oso garrantzitsua izan da Eskoletako Urmaelen Sarearen bidean. Lehenbiziko aldiz, sarea kudeatzeko batzorde bat eratu da, sarea osatzen duten hainbat erakunderen ordezkariek osatuta. Hala, bera osatzen dute, **Aranzadi** Zientzia Elkarteko Herpetologia Saileko ordezkari batek, **EHUko bi ordezkarik, Neikerrek, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Berritzegune Nagusiak eta lau ikastetxeren ordezkariek**. Esperientzia oso aberasgarria ari da izaten, urmaela ikuspuntu ezberdinetatik heltzeko aukera ematen duelako batetik, eta bestetik, elkarlanak kudeaketarako neurri berritzaileak eta komunak adostea egiten duelako.

Era berean, ordea, 2024ak ere Kutxa Fundazioak finantziaturiko Mikroklima proiektuaren lanketa ekarri du. Aranzadi Zientzia Elkarteko Herpetologia Sailak gidaturiko proiektu honek, beste hainbat sailen parte hartzearekin batera, ikasleak biodibertsitatearen ikertzaile bihurtu ditu, eta urmaeleko biodibertsitatea lantzeko ikerketa protokoloak garatu ditu. Hala, sarea osatu duten ikastetxeek haien ikastetxeko urmaela ikertu dute eta datuak Aranzadira bidali.

Bi puntu garrantzitsu horiez gain, alabaina, 2024ean lehenbiziko aldiz, Berritzegune Nagusiak urmaelean zientziaren didaktika lantzeko ikastaro bereiztu bat eskaini du. Bertan, ikasleek, eltxoei buruzko prozesu zientifiko bat diseinatu eta garatu behar izan dute hasieratik amaieraraino, galdera ikergarri bati erantzuteko ikerketa erreal bat eginez. Horrez gain, EHUk ere ikastaro berezi bat jarri dut martxan, **STEM konpetentzia** eta biodibertsitatea urmaelean lantzeko.

Zalantzarik ez da, beraz, 2024a mugarri txiki bat izan dela sarea egiten ari den bide aberatsean. Zientzia lantzeko laborategi natural bikaina da urmaela, eta horrek, besteak beste, ari du sortzen zientziaren didaktika lantzeko, horri buruzko ikerketa egiteko eta era berean, alfabetatze ekologikoa uztartzeko eremu bikain bat. Eremu horrek Eskoletako Urmaelen Sarea du izena.

Proiektuaren webgune: https://www.urmaelaeskolan.eus/orri-nagusia

Sarea kudeatzeko batzordeko kideak. Eskuinean, UPV/EHUko falkultatean dagoen putzua.

PREST_GARA

Finantziazioa: Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Prest Gara Planak, irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzkoak dira, irakasleei prestakuntza-proposamenak eskaintzea du helburu, haien lanbide-gaitasuna hobetzeko, baina bereziki azpimarratuz prestakuntza horrek ikastetxean eta hezkuntza-sistema osoan egiten den lanaren hobekuntzan izan behar duen eragina.

Aranzadi Zientzia Elkarteak urteak daramatza **Prest Gara** planarekin lanean, eta irakasleak birziklatzeko ikastaroak kudeatzen ditu hainbat arlotan, hala nola **Matematikan, Artean, Teknologian, Geologian eta Haur Hezkuntzan**. 2024-2025 ikasturterako 25 ikastaro baino gehiago kudeatzeaz arduratzen gara; beraz**, 400 irakasleri** baino gehiagori ematen diegu zerbitzua. Ikastaro horietako gehienak online eskaintzen dira, baina aurten aurrez aurreko ikastaro bat izan dugu, eta Geologia Sailak hainbat txango geologiko egin ditu euskal geografian zehar.

El Plan **Prest Gara del Departamento de Educación del Gobierno Vasco**, de formación continua del profesorado, tiene como objetivo ofrecer propuestas de formación al profesorado, destinadas a mejorar su competencia profesional, pero haciendo especial hincapié en la repercusión que esta formación debe tener en la mejora del trabajo que se desarrolla en el centro educativo y en el sistema educativo en su conjunto.

La Sociedad de Ciencias Aranzadi lleva años involucrada con el plan Prest Gara impartiendo cursos orientados al reciclaje de las y los docentes en áreas tan diversas como **Matemáticas, Arte, Tecnología, Geologia y Educación Infantil.** Para el curso académico 2024 -2025 nos encargamos de la gestión de más de 25 cursos lo que supone dar servicio a más de 400 docentes. La mayoría de estos cursos se ofrecen en formato online pero este año hemos contado con un curso presencial en el que el Departamento de Geología ha realizado diferentes excursiones geológicas por la geografía vasca.

URUMEA ZENA ETA DENA

Arduraduna: Iñaki Sanz-Azkue
Finantziazioa: Hernaniko Udala

URUMEA ZENA ETA DENA URUMEAKO BAILARAREN NATUR ETA KULTUR ONDAREA HIZPIDE

Aranzadi Zientzia Elkarteak, Hernaniko Udalarekin batera hiru hitzaldiko zikloa antolatzen du urtero azaroan.

Aurtengo honetan **Urumeako hidrogeologia eta bertako paisaia aldaketa** izan zuen hizpide eta horretarako hitzaldi hauek aurkeztu ziren:

MIREN DEL VAL
Urumea bailararen bilakaera Kuaternarioa: nola aldatu da gaur egun ikusten dugun paisaia azken milioi urteetan?
Geokronologian aditua da, gaur egun doktoretza ikaslea da EHUko Geologia sailean eta aldi berean Burgoseko CENIEHko Geokronologia sailean dihardu teknikari lanetan. Bere ikerketa lerro nagusia Kantauriar isurialdeko bailara flubialen bilakaera Kuaternarioa da, GIS, kartografia eta geomorfologia eta geokronologia metodo ezberdinetan nabarmenduz.

IÑAKI ANTIGUEDAD
Urumea arroa: ibaia ondorio.
Hidrogeologian katedraduna da Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Geodinamika Sailean. Zientzietan doktorea (1986) eta Geologian lizentziaduna (1978) da UPV/EHUn. UPV/EHUko irakaslea da 1979tik.

ARTURO ELOSEGI
Izenik ez duena ere bada. Urumeako landare eta animalia ezezagunak.
EHUko ekologia irakaslea. Erreken biodibertsitatea eta funtzionamendua aztertzen du, eta nola erantzuten duten giza-jardueren aurrean. Administrazioarekin elkarlanean ari da erreken errestaurazioan eta espezie mehatxatuen kontserbazioan.

Aurten Hernaniko Udalaren youtube kanaletik ikusi ahal izan ziren streaming-ean.
https://www.youtube.com/watch?v=u1-meplSdBnc&ab_channel=HernanikoUdala

LAS AVES UNEN A LA GENTE EN UN AÑO LLENO DE ACTIVIDADES

DÍA MUNDIAL DE LOS HUMEDALES 2024

¡Un día inolvidable! El Día Mundial de los Humedales fue un gran éxito entre nuestros visitantes. Nuestro objetivo para este día fue el compartir las maravillas de estos frágiles ecosistemas y sensibilizar a la gente sobre la necesidad de protegerlos. El tema del 2024 fue "Los Humedales y el Bienestar Humano".

Aunque el día amaneció con niebla, las condiciones fueron buenas para el paseo guiado por la marisma que se había organizado desde nuestro centro. En esta actividad los participantes pudieron familiarizarse con la geografía general de Urdaibai y conocer los problemas a los que se enfrenta el humedal. Una vez fuera, los visitantes pudieron conocer de primera mano el hábitat y la fauna del entorno.

Como siempre, la naturaleza nos sorprendió de muchas maneras. Equipados con prismáticos, el grupo estaba a punto de entrar en el observatorio de Orueta cuando un bando de 33 espátulas nos sobrevoló. Estábamos observando el primer grupo de espátulas que veíamos en migración prenupcial de este año. Fue un espectáculo maravilloso. Una vez dentro del observatorio, todos los ojos se posaron en la marisma se pudieron observar un sinfín de aves acuáticas: cormoranes, patos cucharas, ánades rabudos, tarro blanco etc.

El paseo continuó por un sendero arbolado junto a la marisma, donde nuestros visitantes se percataron de los problemas que las plantas invasoras causan en nuestro humedal, sobre todo de cómo los carrizales están siendo invadidos por plantas como el *Baccharis halimifolia*.

Además de nuestro paseo guiado, también se realizaron dos sesiones de anillamiento científico. ¿Por qué anillamos aves? ¿Qué métodos utilizamos? ¿Qué datos recogemos? Todas estas preguntas fueron respondidas y los participantes pudieron experimentar todo el proceso y aprender a identificar distintas especies.

El *Día Mundial de los Humedales* nos da la posibilidad de reunirnos, reforzar las conexiones entre nosotros y crear un sentimiento de comunidad. Sin duda, estar en la naturaleza y observar las aves es muy beneficioso para nuestro bienestar. Ésta es sólo una de las muchas razones por las que es esencial que conservemos los humedales y sus habitantes.

2024KO UDAKO BOLUNTARIOTZA KANPAINA

Ekainetik irailera bitartean, 25 boluntariok hartu zuten parte Urdaibai Bird Centerreko boluntariotzaren urteko programan.

Programaren helburua jendea prestatzea da, ingurumenarekin zerikusia duten arloetan esperientzia har dezaten. Ingurumen-prestakuntza horretan, hainbat gai jorratzen dira, hala nola habitatak ikertzea, zabaltzea, kudeatzea eta maneiatzea, bai eta Urdaibai bezalako naturaguneen natura-balioak eta -baliabideak zabaltzea ere.

Programa honen oinarri eta helburu nagusia ingurumena zaintzeko ekintzak egitea eta herritarrak egungo ingurumen-arazoaz sentsibilizatzea da.

Prestakuntza ikaskuntza praktikoan oinarritzen da, eta parte-hartzaileak ingurumen-boluntario gisa gaitzen ditu. Horrekin batera, formakuntza honek erakunderekin elkarlanean aritzeko eta ingurumen-arazo jakin batzuetan lan egiteko ezagutzak eta tresnak ere eskaintzen ditu. Programa honekin ingurumen-boluntariotzako proiektuen antolamenduan eta funtzionamenduan sakontzen da, eta ingurumen-sentsibilizazioko eta ingurumenaren kudeaketan parte hartzeko eragile gisa jarduteko beharrezkoak diren teknikak eta estrategiak eskuratzen ditu.

Urdaibai Bird Centerretik planteatzen den ingurumeneko boluntarioen kanpaina modu bikaina da kontserbazioan laguntzeko eta naturari buruz gehiago ikasteko. Gero eta gehiago dira ingurumen-boluntariotzako programekin bat egiten duten gazteak, inguratzen gaituen ingurumena hobeto ezagutzeko, naturarekin lotutako alderdietan trebatzeko eta naturari bere harri-koskorra emateko.

Badira 10 urte eraztunketa formazioaren barruan, Urdaibaiko erreserbako hainbat lekutan zaten jarraipena egiten ari garela, eta hainbat izan dira eraztundu eta kontrolatu diren zatak.

Gure boluntarioek ez dute ahaztuko 2024ko abuztuaren 19an Ereñon egindako gaueko eraztunketa saioa. Sareetara itzultzean, lagun zahar batekin topo egin zuten... B90538 zata bere lurraldera itzuli zen. Ale hori 2023an eraztundu zen lehen aldiz, gaztea zenean. Eraztunak jartzeko taldeak, iluntze berean zata ar heldu bat ikusteko aukera izateaz gain, gazte bat eraztuntzeko aukera ere izan zuen eta ar heldu baten eta gazte baten arteko desberdintasunak behatzeko parada ezin hobea izan zuten. Urtero, eraztunak jartzeko taldeak bildutako datuek Urdaibaiko hegazti-populazioei eta hegazti bakoitzaren osasunari buruzko informazioa ematen dute.

LA DIVERSIDAD DA COLOR A LA VIDA

En Urdaibai Bird Center nos encanta la biodiversidad. Y no sólo en la naturaleza, Urdaibai Bird Center nos viene gente de todas las edades y nacionalidades y últimamente hemos notado que cada vez tenemos más visitantes con diversidad funcional.

Es un placer para nosotros dar la bienvenida a asociaciones como Gorabide, Apnabi, Gaude o Cruz Roja al Urdaibai Bird Center. Para ofrecerles la mejor experiencia posible hemos desarrollado un nuevo modelo de visita que está siendo muy bien recibido.

Además, en agosto de este año recibimos una visita de algunos de nuestros amigos de la Asociación Gorabide. Ariane, Jorge e Iñaki nos trajeron un regalo increíble: una enorme colección de marcapáginas con temática de aves que ellos mismos habían diseñado y confeccionado. ¡Que coloridos y bonitos! ¡Pasamos una mañana genial con estos tres artistas!

Tenemos muchas ganas de seguir colaborando con asociaciones como Gorabide, Apnabi, Cruz Roja o Gaude en 2025. ¡Siempre nos llenan la visita con sonrisas y color!

MINIGUIAS DE NATURALEZA

Las especies de aves, flores, mariposas y árboles de Euskal Herria más representativas del territorio, se muestran en estas prácticas e ilustrativas guías de campo

Toni Llobet, ilustrador científico de naturaleza y los departamentos de botánica y ornitología de Aranzadi, junto con la Asociación Zerinthya, han presentado sus últimas guías de campo.

Este tipo de guías se editan en otros lugares del Estado con gran éxito de venta, a través de la editorial **Lectio ediciones** y la librería catalana especializada en naturaleza **Oryx**.

En esta ocasión, ha sido la Sociedad de Ciencias Aranzadi la encargada de elaborar el contenido de estas mini-guías de campo que reúnen, por un lado, las flores más comunes que según sus autoras "todas las personas debemos conocer". La botánica Ana García del Bao apuntaba también que "las flores están ordenadas por colores: blanco, rosa, morado, naranja etc…" según la especialista "es una forma muy visual y fácil para diferenciarlas".

Las aves han sido elegidas por el departamento de ornitología "hemos elegido estas especies que son las más comunes en todo el territorio y las hemos dividido por grupos de especies similares: aves nocturnas, aves marinas, rapaces diurnas, fringílidos etc", comenta su director Juan Arizaga.

Por otra parte, las mariposas seleccionadas por la Asociación Zerynthia han sido únicamente las diurnas y en la guía encontramos información sobre su periodo de vuelo, rango altitudinal, tipos de hábitat referidos y las plantas nutricias de las orugas.

MUGARRI ZIENTIFIKOAK 2024

ESPINOSÁURIDO RIOJAVENATRIX LACUSTRIS

RIOJAVENATRIX LACUSTRIS ESPINOSAUROA, ERRIOXAN DESKRIBATUTAKO LEHEN DINOSAUROA

Igea udalerriak aztarnategi paleoiknolologiko garrantzitsuak ditu, dinosauroen milaka aztarna biltzen dituztenak eta mundu osoan erreferente direnak. Aurkitutako materialaren berrikuspenak adierazten du espinosaurido espezie eta genero berri bat dagoela, *Riojavenatrix lacustris* izen zientifikoa eman zaiona, Errioxan deskribatutako lehen dinosauroa bihurtuz.

EL *ESPINOSÁURIDO RIOJAVENATRIX LACUSTRIS*, PRIMER DINOSAURIO DESCRITO EN LA RIOJA

El municipio de Igea alberga importantes yacimientos paleoicnológicos, que reúnen miles de huellas de dinosaurios y son un referente mundial. La revisión del material encontrado indica la presencia de un nuevo género y especie de espinosáurido, al que se le ha dado el nombre científico de *Riojavenatrix lacustris*, convirtiéndose en el primer dinosaurio descrito en La Rioja.

IRULEGIKO ESKUA ANTIQUITY ALDIZKARIAN

ANTIQUITY ALDIZKARIAK IRULEGIRI BURUZKO IKERKETA ARKEOLOGIKO OSOENA ARGITARATU DU

Irulegiri buruzko ikerketak nazioarteko eragina izaten jarraitzen du ikerketa arkeologikoaren arloan. Antiquity aldizkariak, 2024ko otsailean, A Vasconic inscription on a bronze hand: writing and rituality in the Iron Age Irulegi settlement (Ebro Valley) artikulua argitaratu du, Mattin Aiestaran Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologoak, Javier Velaza, Bartzelonako Unibertsitateko Latindar Filologian katedradunak eta Joaquin Gorrochategui EHUko Indoeuropar Linguistikako katedradunak sinatuta.

ANTIQUITY PUBLICA LA INVESTIGACIÓN ARQUEOLÓGICA MÁS COMPLETA SOBRE IRULEGI

La investigación sobre Irulegi continúa teniendo un impacto internacional en el ámbito de la investigación arqueológica. La revista Antiquity ha publicado en su número de febrero del 2024 el artículo A Vasconic inscription on a bronze hand: writing and rituality in the Iron Age Irulegi settlement (Ebro Valley), firmado por Mattin Aiestaran, arqueólogo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi responsable del yacimiento de Irulegi; Javier Velaza, catedrático de Filología Latina de la Universidad de Barcelona; y Joaquín Gorrochategui, catedrático de Lingüística Indoeuropea en la UPV/EHU.

QUATERNARY SCIENCE REVIEWS ALDIZKARIA

QUATERNARY SCIENCE REVIEWS ALDIZKARI OSPETSUAK AMALDA III AZTARNATEGIARI BURUZKO ARTIKULU BAT ARGITARATU DU

Quaternary Science Reviews aldizkariak Joseba Rios-Garaizar arkeologiako doktore eta Bizkaiko Arkeologia Museoko teknikaria buru dela egin den azterlana argitaratu du. Azterlan horrek datu berriak ematen ditu neandertalek Amalda III haitzuloan (Zestoa) izan zuten bizimoduari buruz. Aztarnategia Erdi Paleolitoko Moustier Klasiko garaikoa da eta 100.000 eta 55.000 urte bitarteko antzinatasuna du.

LA REVISTA PRESTIGIOSA QUATERNARY SCIENCE REVIEWS PUBLICA UN ARTÍCULO SOBRE EL YACIMIENTO AMALDA III

La revista Quaternary Science Reviews ha publicado el estudio liderado por el Doctor en arqueología y técnico del Museo de Arqueología de Bizkaia, Joseba Rios-Garaizar, que arroja nuevos datos sobre las pautas de comportamiento de los Neandertales en la cueva Amalda III (Zestoa). Este yacimiento del Paleolítico Medio tiene entre 100.000 y 55.000 años de antigüedad, que corresponde al Musteriense clásico.

LARUNBEKO ALDAREA

ARANZADIK K.O. I. MENDEKO BASKOIEN ALDARE BAT AURKITU DU LARUNBEN

Aldareak latinez idatzitako testu bat du, eta emakume batek, Valeria Vitellak, Larrahe jainko baskoiari eskainitako dedikazioa jasotzen du. 2022an aurkitu zen, putzu baten barruan, Doneztebeko Erdi Aroko monasterioko indusketa arkeologikoetan, Arriaundi mendian (Larunbe). Erromatarren garaian jainko eta jainkosa indigenen gurtzaren testigantza da pieza hau.

ARANZADI DESCUBRE EN LARUNBE UN ALTAR VOTIVO DEL SIGLO I D.C. DEDICADO A UNA DIVINIDAD VASCONA

El altar contiene un texto escrito en latín y recoge la dedicación de una mujer, Valeria Vitella, a la deidad vascona Larrahe. El descubrimiento se produjo el 2022 en el interior de un pozo durante las excavaciones arqueológicas del monasterio medieval de Doneztebe en el monte Arriaundi, Larunbe. La pieza es un reflejo de la permanencia del culto a deidades indígenas vasconas durante el periodo romano.

75 AÑOS ANILLANDO AVES

ARANZADIKO ERAZTUNTZE BULEGOAK 75 URTE BETE DITU

Aranzadi Zientzia Elkartearen eraztuntze bulegoa 1949an eratu zuten Donostian. Talde aitzindaria izan zen Espainian eraztun zientifikoak jartzen, teknika ez baitzen oraindik ezagutzen Estatu mailan. Gaur egun, Aranzadik urtean 150.000 eraztunketa kudeatzen ditu bere hegaztien eraztuntze bulegotik eta Estatu osoko 500 eraztunle baino gehiagok Aranzadiren eraztunak erabiltzen dituzte hegaztiak markatzeko.

LA OFICINA DE ANILLAMIENTO DE ARANZADI CUMPLE 75 AÑOS

La Oficina de anillamiento de aves de la Sociedad de Ciencias Aranzadi se fundó en 1949 en San Sebastián. Fue un grupo pionero en el anillamiento científico en España, ya que la técnica no se conocía aún en el resto del país. Actualmente, Aranzadi gestiona desde su oficina 150.000 anillamientos de aves al año y más de 500 anilladores y anilladoras en todo el estado utilizan anillas de Aranzadi para el marcaje de las aves.

IKERBASQUE SARIA – AMAIA ARRANZ

ARANZADIKO BAZKIDE DEN AMAIA ARRANZEK AINTZATESPENA JASO DU BERE IKERKETENGATIK IKERBASQUEREN ESKUTIK

Amaia Arranz Otaegik Ikerbasqueren aitortza jaso du, ikertzaile gazte baten ekarpen nabarmenari esker. Aintzatespen honen helburua da Euskadiko emakume ikertzaileak eta haien lana ikusaraztea, emakume ikertzaileen belaunaldi berrientzat eredu eta inspirazio izan daitezen.

LA SOCIA DE ARANZADI AMAIA ARRANZ RECIBE UN RECONOCIMIENTO POR SU CARRERA INVESTIGADORA POR PARTE DE IKERBASQUE

Amaia Arranz Otaegi ha recibido el reconocimiento de Ikerbasque a una contribución destacada de una joven investigadora. El objetivo de este galardón es visibilizar a las mujeres investigadoras de Euskadi y su labor, para que sirvan de ejemplo e inspiración a las nuevas generaciones de investigadoras.

GIZA ETA GIZAR

ANTROPOLOGIA

Sailak Giza Eskubideen aldeko ikerketa-lanak burutzen darrai, Gerra Zibilean eraildako pertsonen gorpuzkiak hobitik ateratzen eta familiei dokumentazioa eskainiz. Gogora Institutuarekin eta Nafarroako Gobernuarekin elkarlanak areagotu dira, saila erreferentziazko lantaldea bilakatu delarik.

El departamento ha continuado con su labor en materia de Derechos Humanos, exhumando fosas de personas represaliadas durante la Guerra Civil y atendiendo a familiares que desean recuperar la memoria de sus desaparecidos. Se han estrechado las colaboraciones con instituciones como Gogora o el Gobierno Foral de Navarra, siendo el equipo investigador uno de los referentes a nivel estatal en el ámbito de la memoria.

ARKEOLOGIA HISTORIKOA

Gure inguruko Kultura-ondarea ikertu, zabaldu eta babesteko 2024. urtean zehar egindako lanei esker, Arkeologia Historikoaren Sailak eta bertako kideek garapen handia izan dute. Ahalegin horri esker, ikerketa-alderdi berriak eta interesgarriak landu ahal izan dira, kronologia- eta lurralde-esparru zabalarekin.

Las labores de investigación, difusión y protección del Patrimonio Cultural de nuestro entorno a lo largo del año 2024 han permitido al Departamento de Arqueologia Historica y a sus miembros un importante desarrollo. Un esfuerzo que ha permitido abarcar nuevas y más interesantes facetas de investigación con un amplio marco cronológico y territorial.

CIENCIAS HUMA

TE ZIENTZIAK

HISTORIAURREKO ARKEOLOGIA

Historiaurreko Departamentuak Euskal Herriko lurraldeetan egiten dituen ikerketa- eta kudeaketa-lanekin jarraitzen du, eta Estatuko eta nazioarteko beste proiektu eta erakunde zientifiko batzuekin elkarlanean aritzen da. Gure indusketa, prospekzio eta azterlanen emaitzak zientzia- eta dibulgazio-arloko hitzaldi, biltzar eta argitalpenetan eman dira ezagutzera, eta, beti bezala, ikertzaile berriak prestatzeko eta historiaurrea publiko orokorrari hurbiltzeko konpromisoari eusten diogu.

El Departamento de Prehistoria continúa con sus trabajos de investigación y de gestión en los distintos territorios de Euskal Herria, y colabora con otros proyectos e instituciones científicas de ámbito estatal e internacional. Los resultados de nuestras excavaciones, prospecciones y estudios se han dado a conocer en conferencias, congresos y publicaciones de carácter científico y divulgativo, y como siempre, mantenemos nuestro compromiso de formar a nuevos investigadores y de acercar la Prehistoria al público general.

ETNOGRAFIA

2024 jarduera handiko urtea izan da sailean. Aspaldidanik garatzen ari diren ikerketa-ildoek bere dinamikari eutsi diote. Baina, zalantzarik gabe, Fermin Leizaolaren agurra saileko zuzendari gisa izan da aurtengo garrantzitsuena. Horren ondorio, Maite Errarte historialariari egindako ongietorria ere azpimarratzekoa da. Errarte museografia katalogatzeko eta kultura-ondare materiala zabaltzeko proiektuen buru izan da 2019tik.

Estos fosos y estos terraplenes no son fruto de un trabajo de movimientos de tierras para fines agrícolas o forestales, sino que responden a trabajos con finalidades defensivas, de probable cronología romana, vistas las características arquitectónicas que presentan.

Ciertamente, atendiendo a sus particularidades, sigue en pie la hipótesis de que el yacimiento probablemente pueda tratarse de un campamento de marcha (*castrum aestivum*), ya que sus características no coinciden con fortificaciones y defensas de otras cronologías.

Arriba, perspectiva aérea del monte Santa Cruz-Zarbeta (Valle de Aranguren) en relacion al Poblado de Irulegi, y locazacion de los sondeos arqueológicos. Izquierda, detalle del recinto defensiovo del Campamento de Santa Cruz-Zarbeta (Valle de Aranguren).
M. Aiestaran

La investigación arqueológica de este recinto defensivo puede seguir aclarando ciertas cuestiones acerca de lo acontecido en Irulegi en el siglo I. a.C., y sobre diferentes puntos de vista planteados por diversos autores para la presencia y actividad militar romana en Iruñerria - Cuenca de Pamplona.

Para concluir, quisiéramos agradecer el trabajo indispensable del alumnado y voluntariado que ha participado en la campaña, y la ayuda y las facilidades que nos han ofrecido los vecinos del Valle de Aranguren y su Ayuntamiento.

AZKOITIA 700 URTE (1324-2024). ERDI AROKO HIRIBILDU BATEN IRAGAN ARKEOLOGIKOAREN BILA: II. FASEA: BALDAKO SANTA MARIA MONASTERIOA

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea

Sustatzaileak: Azkoitiko Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Azkoitiko antzinako Baldako Santa Mariaren Monasterioan (gaur egungo Hilerria) egindako lan arkeologikoak "Azkoitia 700 urte (1324-2024). Erdi Aroko Hiribildu baten iragan arkeologikoaren bila" Proiektuaren barruan garatu dira.

Lan Planak hainbat jarduera planteatzen zituen 2023 eta 2024 urteetan, zehazki azterketa arkeologiko bat egitea, Azkoitiko iragan historiko eta arkeologikoari estu lotuta. Aldez aurretik, bi kokaleku horietan (Iraurgiko San Martin hiribilduko Muinoa eta Baldako Santa Maria Monasterioa) historikoki egindako arkeologia-jardueren berrikuspen xehatua egin zen, eta haiei buruzko nahitaezko datu historikoak bildu ziren.

Egon zitezkeen populatze-ebidentzien kokapena zehazte aldera, bi lan-eremu horien prospekzio geomagnetikoa egin zen 2023an. Jarduketa horri esker, era askotako anomalia identifikatu ahal izan genituen, eta horiek behar ziren pistak eman zizkiguten ondoren esku-hartze arkeologikoa egin ahal izateko.

Esku-hartze arkeologikoa antzinako hilerriko Kaperaren barruan egin zen, "L" formako Zundaketa bakar batekin. Sekuentzia oso xumea izan zen, batez ere metakin eta eraikuntza egiturei lotuta.

Identifikatutako hondakin zaharrenak buztin naturalean induskatutako errekuntza-egitura txiki batekin lotzen dira, kontserbazio-egoera oso eskasean (ia zimenduetaraino suntsituta). Oinplano pixka bat oboidea du, sinpletasun handikoa (ez dago inolako horma-egiturari lotuta). Egitura horrek etxeko unitateren batekin edo industria-instalazio sinpleren batekin lotzen gaitu, baina ezin da zehaztu, betelan horretan ebidentzia materialik ez delako azaldu. "Labe" hau XIII. mendearen amaieran datatu ahal izan zen erradiokarbono sistemarekin. Datazio hori bat dator lotzen den eraikin erlijiosoarentzat ezarritakoarekin, baina ez dago ziurtasunik biak lotuta zeuden ala ez jakiteko.

Egitura horrekin estuki lotuta, nolabaiteko garrantzia zuen eraikuntza bat erregistratu ahal izan zen (ia zimenduetaraino suntsituta egon arren), gutxienez 2,52 metroko diametroa zuen dorre bati edo antzeko bati lotua, eta interpretazio zailagoko horma bat zuen erantsita. Bi elementu horiek zuzenean lotu daitezke Baldako jatorrizko Santa Maria Eliza/Monasterioarekin. Esku-hartze arkeologiko honen bidez, aurretik sektore horretan egindako lanak berretsi dira (2006-2008). Eraikin hori XIII. mendearen bigarren erdian zegoen altxatuta, eta, ziurrenik, Hiribildua sortu aurretik eta orain arte eskuragarri dauden lehen dokumentu-erreferentziak baino lehen (1319) zegoen finkapen eta/edo eraikuntza motaren bati lotuta zegoen.

Erregistratutako beste elementu interesgarri bat plataforma horizontal bat da, mendebaldeko muturrean kareharrizko lauzen (7) lerrokadura



Baldako monasterio zaharrean (Azkoitia) arkeologikoki erregistratutako hiru okupazio-faseen oinplanoa. M. Garcia

erregular batek mugatzen duena, I-H orientazioarekin. Egitura horrek interpretazio zaila du, eta, agian, aipatutako tenplu erlijiosoaren atari edo sarrera batekin lotuta dago, XVI. mendearen hasieran egindako erreforma zabalarekin bat etor daitekeena (tenplua eraistea eta ermita bihurtzea).

Dokumentatutako hirugarren eraikuntza faseak XIX. mendearen lehen herenean kokatzen gaitu. Antzinako Antioko Baselizaren desakralizazioarekin bat dator, eta 1826an gaitutako Udal Kanposanturako Hilerri-kapera berri bihurtu zen. Une horretan, gaur egun ezagutzen dugun eraikinaren atal nagusia altxatu zen, sarrera monumentala eta hormak aprobetxatuz. Geroago, XIX. mende horren amaieran (1886. urte inguruan), espazio hori berriro birmoldatu zuten, Ekialdeko sarreran dokumentatutako harkoskorrekin egindako enkatxo zorua eta lauza handiekin.

Laburbilduz, esku-hartze arkeologiko honi esker, ziur asko tenplu erlijioso horri (Baldako Santa Maria) lotutako giza asentamendu bat dagoela egiaztatu ahal izan da. Dokumentatutako lagina oso txikia da, eta ezin dira zehaztasunez zehaztu asentamendu horren ezaugarri espezifikoak eta hedadura. Erdi Aroan finkatuta dagoen kokalekua da, gutxienez XIII. mendearen amaierakoa, eta Urola ibaiaren harana menderatzen zuen muino estrategikoa hartzen du.

Pare-parean, Iraurgiko San Martin muinoa kokatzen da, Harana ere menderatuz. Bi aztarnategiak (Balda eta Iraurgi) gaur egungo Azkoitiko herriaren aurrekoak izango dira, eta horien 700 urteurrena (1324-2024) data hauetan betetzen da.

1

2

3

4

1: Erregistro arkeologikoaren prozesua Baldako monasterio zaharrean (Azkoitia). **2:** Monasterio zaharrean erregistratutako errekuntza-egitura. **3:** Dokumentatutako Plataforma (XVI. mendea?) **4:** Ekialdeko sarrerako zolataren xehetasuna.

A. Moraza

PROSPECCION ARQUEOLÓGICA EN EL ENTORNO DE ELIZAR (LIZOAIN-ARRIASGOITI, NAVARRA)

Dirección: Mattin Aiestaran

Promotor: Ayuntamiento de Lizoain-Arriasgoiti y Sociedad de Ciencias Aranzadi

Ha sido la primera edición de campañas de investigación arqueológica desarrolladas en torno al espacio circundante de Elizar. En diversas iniciativas culturales como El parque Celta como proyecto de educación ambiental o en las actividades realizadas en el mismo centro cultural Elizar se ha demostrado la constancia de las entidades del Valle de Lizoain-Arriasgoiti para con su patrimonio, como ya se mostró en los trabajos realizados en Ube o el acondicionamiento del entrono de la iglesia.

En cuanto al topografiado del sitio y reconocimiento de las irregularidades del entorno, se ha apreciado que el hecho de que las parcelas denominadas "playa de la Iglesia" y "bizkai" no presentan ninguna irregularidad notoria, aunque ha llamado la atención el triángulo formado entre la "playa de la Iglesia" y la parcela de "goitiko oihana", justo en el tramo por donde discurre el camino de Mendioroz. Este hecho ya nos fue indicado por Félix Lizarraga en el transcurso de los trabajos, con quien estamos sumamente agradecidos.

La prospección pedestre ha abarcado la totalidad del área a prospectar y se han hallado sobre todo materiales constructivos latericios, destacando entre ellos los fragmentos de teja. La campa de la "Playa de la Iglesia" muestra estos elementos removidos por el arado que inducen a pensar en este espacio como un espacio agrícola cercano a la Iglesia y al entorno del núcleo urbano de Lizoain.

En cuanto a los sondeos geoarqueológicos, se han realizado tres en total en la zona cercana a la iglesia de Elizar, aunque no sin dificultades. De ellos, el tercero ofreció un registro geoarqueológico suficiente para poder conocer los procesos naturales y antrópicos que formaron el entorno de Elizar. No obstante, los trabajos arqueológicos realizados en el entorno de Elizar no han mostrado signos de ocupación o uso del lugar en cronologías anteriores al periodo medieval y moderno.

Entorno de la iglesia de Elizar (Lizoain-Arriasgoiti). M. Aiestaran

No obstante, volvemos a manifestar la gratitud hacia los vecinos del municipio que impulsan la investigación y el conocimiento del pasado de Lizoain-Arriasgoiti, ofreciendo una ayuda inestimable.



Plano de localización de las evidencias arqueológicas recuperadas en el entorno de la iglesia de Elizar. M. Aiestaran

ESKU-HARTZE ARKEOLOGIKOA GAZTELÜ AZTARNATEGIAN (ALTZÜRÜKÜ, XIBEROA)

Zuzendaritza: Mattin Aiestaran

Babeslea: Baionako CNRS-IKER Ikerketa Zentroa, Altzürüküko Herriko Etxea eta Aranzadi Zientzia Elkartea

Altzürüküko Gaztelü aztarnategian lehen aldiz hainbat esku-hartze egin dira, Aranzadi Zientzia Elkartearen eta Baionako CNRS-IKER (UMR 5478) ikerketa zentroaren elkarlanaren baitan.

Lehenik, uztailaren 25etik 28ra aztarnategiaren prospekzio bisuala eta zundaketa geoarkeologikoak egin ziren.

Guztira 7 zundaketa geoarkeologiko egin ziren aztarnategiren sekuentzia estratigrafikoa ezagutzeko, lehen hurbilketa metodologiko ezsuntsitzaile gisara. Zundaketa hauek harresi bezala identifikatu diren irregularitate topografikoek sortzen duten terrazaren inguruan egin ziren, aztarnategiaren eremu guztia aintzat hartuaz.

Emaitza onak izan dira, goiko defentsaren lerro inguruan antropizazio aztarnak topatu direlako, zeramika eta ikatz arrastoak batez ere, 50 cm eta 100 cm arteko sakoneretan. Zundaketa horietatik bi geokimika bitartez analizatzen ari dira Burgosko Unibertsitatean estratigrafia zehazteko asmoz.

Ondoren, urriaren 19tik 24ra, 7x1,5 metroko miaketa-zuloa egin zen zundaketa geoarkeologikoak emaitzarik onena ema zuen tokian eta emaitza biziki interesgarriak jaso dira. Batetik, harresiaren hondakinak edo derrunbea topatu ahal izan da, lurpean zegoena. Aurreko sintesi lanetan, Gaztelü lurrezko parapeto edo terrazez defenditua zela uste zen, baina esku-hartzeari esker defentsak harrizkoak zirela baieztatu ahal izan da.

Bestalde, industu diren unitate estratigrafiko ezberdinetan zeramika zati aunitz bildu da (GPS-az geoerreferentzatuta 100 zatitik gora) eta baita ikatz arrastoak ere.

Bi elementu hauek, batek C14 bitartez, eta besteak tipologia bidez, aztarnategiaren bizitza kronologikoki kokatzea ahalbideratu dute. Momentuz, C14 datazioen emaitzek, zein agertu diren zeramiken tipologiak, K.a. II-I. mendean kokatzen dute gotorlekuaren erabilera.

Bestalde, buztin egosi zatiak topatu dira, eraikuntza materialarekin lotu direnak eta baita burdinazko material gutxi batzuk ere. Sutegi edo labe bat izan daitekeena ere topatu da, ikatzek inguraturik eta baita ondoan zituen bi burdin mineral zati ere. Agertu diren elementuak seguruenik haize-ola bati dagozkie, baina gehiago ikertu beharko da gai honetan.

Ondorioz, Altzürükuko Gaztelü aztarnategian eginiko lanek oro har emaitza onak izan dituzte, defentsa nolakoa den jakin ahal izan dugulako, gunea gotorleku bezala kalifikatzea ahalbidetuz. Bestalde, gutxienez ikertu den gunean asentamenduak izan zuen erabileraren kronologia zehatz bat jakitea posible izan da, K.a. II-I. mendeetan kokatu daitekeena. Azkenik, bertan egin izan ziren aktibitateen inguruko datu gutxi batzuk ere jakin ahal izan dira, sutegia edo labea izan daitekeena topatu delako. Momentu honetan baina, gotorturik ageri den bizileku egonkor hau ezaugarritzeko datu gehiagoren beharra dugula uste dugu eta ikerketak zentzu horretan jarraitu behar luke etorkizunean.

Ikerketa taldearen partetik lanean aritu diren boluntario eta ikasleei eskerrak eman nahi dizkiegu, horien artean EHU/UPV-ko lankideei, Fany Larre arkeologoari eta Ikerzaleak taldeko lagunei. Ahantzi gabe, Altzürüküko herritarrei eta Herriko Etxeari ere eskerrak luzatu nahi dizkiogu eskainitako laguntzagatik.

Goian, Gaztelü (Altzürükü) aztarnategiaren ikuspenan. Ezkerrean, aztarnategian egindako indusketa lanak.

M. Aiestaran

BELABIETAKO (TOLOSA-VILLABONA, GIPUZKOA) BATAILAREN AZTERKETA LIDAR (*LIGHT DETECTION AND RANGING*) SISTEMAREN BIDEZ

Zuzendaritza Euken Alonso Gondra

Sustatzailea: Tolosako Udala, Amasa-Villabonako Udala eta Aranzadi Zientzia Elkartea

Belabieta mendian (Amasa Villabona-Tolosa), 1873ko abenduaren 9an Hirugarren Karlistaldian (1872-1876) gertatu zen Belabietako bataila izenekoan, gertatutakoari buruzko azterketa eta ezagutza handiagoa lortzeko egindako lanei dagokie idatzi hau.

Une hartan Tolosa setiatuta zuen Lizarraga jenerala buru zuen armada karlistaren eta Moriones jenerala buru zuen armada liberalaren artean gertatu zen bataila hori; garai hartako dokumentuen arabera, 14.000 pertsonak hartu zuten parte, egun bakar bat iraun zuen eta 600 pertsona inguru hil eta milaka zauritu ziren.

Tropen asentamenduek, mugimenduek eta dokumentatutako ekintzek adierazten dute defentsa-sistemekin lotutako aldaketak egin direla lurrean; aldaketa horiek denboran iraun duten ebidentziak izan daitezke. Eremu horretan liskar horrekin zuzenean lotutako hainbat material aurkitu izanak babesten du hori guztia.

Tolosako setioa eta Belabietako bataila aztertzeari buruz Aranzadi Zientzia Elkarteak azken urteotan egin dituen ikerlanen barruan, elkarlanean Jexux Badiola, Jose Luis Iraola eta Karlos Almorza Arrieta historialariaren zuzendaritzapean, lurraren azterketa sakona LIDAR (Light Detection and Ranging) sistemaren bidez egiteko beharra ikusi zen.

Laser sorta baten bidezko erregistro tridimentsional batean oinarritutako sistema, aireontzi baten garraiatua. Sistema horri esker, aztertu beharreko eremuaren 3D erregistro zehatza egin daiteke, Lurraren Eredu Digital bat lortuz, "mikro-topografia" bat sortuz, hau da, dentsitate handiko eredu topografiko bat, Belabietako batailarekin lotutako ebidentziak direla adierazten duen lursailaren irregulartasunak aztertzeko ezin hobea. Horrela, Amasa Villabonako eta Tolosako udalek LIDAR sistema erabiltzea sustatu zuten, gertaera historiko horri buruzko azterlanetan sakontzeko. Guztira 140 Ha erregistratu ziren.

Sistema honen bidez, Eredu Digital Zehatz Geo-erreferentziatu bat egin nahi izan da, non orografiaren gainean defentsa-sistemak irudikatzen dituzten elementuak karakterizatu ahal izango diren, hala nola lubakiak eta kokaleku edo kanpalekuen inguruen seinaleak etabar.

LIDAR "Light Detection and Ranging" sistema laser pultsu baten igorpenean datza, eta itzultzeko behar duen denbora neurtzen da, zehaztasun handiz. Hau da, laser pultsuen hegaldi-denbora (TOF - Time Of Flight) neurtzen da. Horrela,

Drone LIDAR Sistema Belabietako Bataila (1873) dokumentatzen. E. Alonso

pultsuaren abiadura, igorpenaren ezaugarri angeluarrak eta igorritako tximistaren eta islatuaren arteko denbora-aldea ezagututa, erraz zehaztu daiteke zer distantziatara dagoen oztopoa/objektua. Lurrean neurtu den puntua behar bezala erreferentziatu ahal izateko, bi teknika desberdinen konbinazioa erabiltzen da..

- INS (Nabigazio Inertzialeko Sistema): sentsoreen arteko orientazio erlatibo bera konpentsatzea eta mantentzea ahalbidetzen du. Gimbaled sistema batekin osatzen da, sentsoreen plataforma aireontziaren berezko kanpoko errotazio-mugimenduetatik isolatzen duena.

- GPS diferentziala: sentsorearen posizio zehatza neurtu ahal izateko.

Laser izpia lurrera iristen denean, desberdin jokatzen du aurkitzen diren objektuen ezaugarrien arabera: Gainazal solido batean (eraikinak, lurzorua, etab.), tximista arazorik gabe islatzen da eta aireontzira itzultzen da bestalde uretan, laser izpia azkar xurgatzen da eta ez da aireontzira itzultzen; beraz, ez da informaziorik lortzen.

Landarediari dagokionez, tximistak zuhaitzaren adaburuarekin talka egiten du lehenik. Une honetan, tximistaren zati bat islatu eta aireontzira itzultzen da, baina gainazal ez solidoa denez, beste tximista zati batek landaretza zeharkatzen du lurrera iritsi arte, eta gero aireontzira bueltatzen da. Sistemak lehen eta azken pultsuak gordetzen ditu.

RPAS sisteman sartutako LIDAR teknologiak (Remotely Piloted Aircraft Systems), detekzio pasiboko metodoek ez bezala (fotogrametria, adibidez), landaredian sartzea eta argiztapen gutxiko egoeretan jardutea ahalbidetzen du. LIDAR teknologia erabiltzen errazagoa da, eta datuak azkarrago eta errazago prozesatzen dira.

Bestalde, LIDAR laser-sistemarekin lortutakoen bidez, eta landaredia ezabatu eta lurra bakarrik lortze aldera tratatu eta iragazi ondoren, lurraren eredu digital bat osatu zan, lurzoruaren aldaketa guztiak







1: LIDAR Sistema. Lurzorua eta landarediaren laser datuen arteko aldea. (Aeromedia)
2: Belabietako Bataila (1873). LIDAR datuak. Puntu hodeiak.
3: Belabietako Bataila (1873). LIDAR Sistemarekin jasotakoaren emaitzak, puntu hodeia, argazki aereoa eta zentimetroko eredu digitala.
4: Belabietako Batailaren (1873) aztarna eta ebidentzien irakurketa.

E. Alonso

zehaztasunez definitzen dituen azalera bat *(Mesh)*. Eredu horren gainean, testuinguru batetik kanpo dauden aldaketa orografiko guztiak aztertzen dira, bideetatik, sarbideetatik, ur-korronteetatik, baso-landaketaren ondoriozko mugimenduetatik eta abarretatik kanpo daudenak. Zanga lerroak, parapetoak, gainaldeak eta barrunbeak definituz, aldaketa guzti horiek eta eremu guztietan material arkeologikoak aurkitzeak, aztertzen ari garen gertakariaren aztarna arkeologiko-historikoak izateko aukera handiak dituztela adierazten digute.

LIDAR eta Fotogrametria sistemak oso egokiak dira lurralde zabalean aztertzen ari garenean , ikuspegi globala bat eskaintzen digutelako, aztertu beharreko ebidentziak nolabaiteko distantziara edo distantzia handira badaude, formaren, posizionamenduaren eta horien erlazioaren eta jarraitutasunaren ezaugarrien ikuspegi global hori edukitzea funtsezkoa da, ikertzen ari garen gertakari historikoen azterketa intuitiboa ahal izan dadin.

Hori guztia indartu egiten du sistema horrek, auskultatzeko eta Lurraren Hiru Dimentsioko Eredu Digitala lortzeko aukera ematen digula, oso xehatua (zehaztasunez eta bereizmen zentimetrokoarekin), baita zuhaitz-landarediko eremuetan ere, eta hori ezinezkoa da beste modu batera.

Sistema kapturatzeko gai den lur-puntuen dentsitate altuaren ondorioz, oso azalera xehea da, eta bertan erregistratzen da aldaketarik txikiena ere. Horregatik, bilatzen ari garen ebidentzia horiek, guztiak behar bezala erregistratuta eta dokumentatuta geratzen dira. Gainazal-ereduetan argi ikusten da edozein aldaketa txiki (zentimetro gutxikoa), hala nola irtengune txikiak edo arraildurak.

Belabietako batailan gertatutakoak, tropak finkatu eta mugitzeko gune gisa: Dagokigun kasuan, ebidentzien definizioaren argitasunak, hala nola lubaki eta parapetoen zangek, bi fronteen kokapena, aurrera egitea eta tropen arteko borroka hobeto ulertzen laguntzen digute.

Azterlanaren emaitzetan hainbat elementu ikusi ditugu, eta elementu horiek hainbat zalantza sortzen dizkigute. Elementu horiek zehatz-mehatz erregistratuta geratzen dira, hala nola zanga-lerroak eta ahurtasunak, testuinguru zehatzik ez dutenak, baina, ziurrenik, Batailan gertatutakoekin lotu daitezkeenak. Hurrengo ikerketetan aurrera egin beharko da, zalantza horiek argitzeko.

PIRENAEUS I-II MUGAZ GAIUNDIKO PROIEKTUAK

Arduradunak: Mikel Edeso Egia eta Oihane Mendizabal Sandonís

Finantziazioa: Akitania Berria, Nafarroa, Euskadi Euroeskualdea, Auritz/Burgueteko Udala, Donazaharre/ Saint Jean le Vieux-eko Udala, Luzaide/Valcarloseko Udala

EUROREGION EUROESKUALDEA EURORREGIÓN

PIRENAEUS I eta II mugazgaindiko proiektuaren bidez mugaren bi aldetan kokatutako aztarnategi arkeologikoak era bateratuan lantzea proposatzen da, irizpide zientifikoak jarraituz. Horretaz gain, gune horien balioan jartzeko zein gizarteratzeko ekimenak ere modu bateratuan gauzatzeko baliatu nahi da, nazioarteko ikuspegiarekin amankomunean duten ondare baliabideak ezagutarazi eta mugaren bi aldeetako pertsonen mugikortasuna sustatuz. PIRENAEUS proiektuaren bi edizioak Akitania-Berria Euskadi Nafarroa Euroeskualdeak finantzatutako proiektua da, 2023-2024 eta 2024-2025 deialdietan.

Proiektua hiru zutabe edo oinarri izan ditu haren bi edizioetan: ikerkuntza, ondarea balioan jartzea eta eskuratutako jakintzaren dibulgazioa. Planteatutako ekintza hiru ardatz horietan txertatzen dira:

- Zaldua zein Donazaharreko erromatar hirietan ikerketa arkeologikoekin jarraitzea
- Aztarnategietako baliabide museografiko eta informatiboak osatu eta sendotzea, mugaz gaindiko ikuspegia txertatuz.
- Mugaz gaindiko ondare arkeologikoari hedapena eman eta gizarteratzea.

Hori horrela, proiektua Donazaharreko aztarnategiko miaketa geofisikoekin abiatu zen 2023. urtean eta ondoren, 2024. urtean Zaldua eta Donazaharreko aztarnategietan topatutako hainbat material edo elementuren 3D digitalizazioarekin eman zitzaion segida. Ondoren, bi herrietako plazan jarritako panel informatiboak ezarri ziren eta bi gune horietan egindako induketa arkeologikoen osteko hitzaldi eta bisita gidatuak ere ekaini ziren. Azken horiek 3 hizkuntzetan eman ziren, hegoaldeko kasuan euskaraz eta gaztelaniaz eta iparraldekoetan, aldiz euskaraz eta frantsesez. Difusioa eremu anitzetan egiteko ahalegina egin zen eta hori betetzeko Euskal Herriko Unibertsitatean, Gasteizen hain zuzen, beste hitzaldi osagarri bat aurkeztu zen Pirinioen Mendebaldean egindako ikerketa berriak ardatz dituzten ECOA III jardunaldien testuinguruan.

Pirenaeus I 2024ko uztailean amaitu bazen ere eta haren arrakasta ikusita jarraipena eskatu zen, Pirenaeus II eta partaideetara Luzaideko herria gehitu zen. Udalerri hori Auritz eta Donazaharreko udalen erdibidean kokatuta dago, hau da, gaur egungo muga bete betean. Egitasmo honen ardatz den galtzada erromatarrak gaur egungo udalerria iparretik hegora zeharkatzen du eta haren ertzean hainbat aurkikuntza egin dira, Soraundiko inguruan

Donazaharren (Nafarroa Behera) indusketa arkeologikoen amaiera emandako hitzaldia. Eskubiko irudian, Auritzeko (Nafarroa) plazan jarritako panela. S. Matelo

edota hegoaldeko muga egiten duen Ibañetako edo Lepoederreko pasabideetan, esaterako. Horretaz gain, mendi inguruan identifikatutako bestelako aztarnategiek ere duela 2000 urte lurraldean garatuko ziren jarduera ekonomikoei buruzko informazio esanguratsua eskaintzen digute, Meatzeko meategiek, adibidez.

Beraz, bigarren edizioa 2024ko irailean abiatu zen, Luzaiden topatutako material arkeologiko multzo baten ikerketarekin. Lan horren helburua piezak identifikatu eta haien funtzio eta kronologiak zehaztea izan da, etorkizunean horietako aukeraketa bat Luzaideko 778 Erakusketa Zentroan egoteko helburuarekin. Bestalde, Ibañetan topatutako araren digitalizazioa ere gauzatu da proiektuaren lehen fase honetan.

Luzaiden (Nafarroa) Ibañetako araren fotogrametria egiten. O. Mendizabal

DONAZAHARREKO INDUSKETA KANPAINA
Zuzendaritza: Oihane Mendizabal Sandonís
Babeslea: Donazaharre/ Saint-Jean-le-Vieux-eko Udala, IKER Laborategia (UPPA) eta Aranzadi Zientzia Elkartea

Indusketa kanpainan parte hartutako lantaldearen argazkia. J. Etxegoien

Pirinioetako galtzadako proiektuaren ikerketa lerroaren barnean kokatutako indusketa kanpaina izan da, Zaldua (Auritz/Burguete) eta Artzikoekin (Artzibar/Valle de Arce) batera. Ekimen horrek duela 2000 urte ingurutik aurrera, erromatar garaian, Ibañetako portuaren bi aldeetan gertatutako aldaketak ikertzea baitu xede. Beraz, helburu horrekin ekaineko azken astean indusketa kanpaina bat antolatu zen, aurretiaz J.L. Tobiek ikertutako termen ondoan.

Guztira 10 pertsonako boluntario taldea izan zen lanean bertan, gehienak ikasleak hainbat unibertsitateetatik etorriak: Université de Pau et

Goian, Donezaharre (Nafarroa Behera) aztarnategian- boluntarioak zundaketa handienean lanean. Behean azken eguneko frantsesezko bisita gidatuko irudia. O. Mendizabal, S. Mateo

des Pays de l'Adour (UPPA), Nafarroako Unibertsitate Publikoa (NUP) eta Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU/UPV). Beste arkeologia talde batzuetako partaideen laguntza ere jaso zen hala nola Hades edo Eusko Arkeologia. Taldekideen gehiengoak Donibane Garazin hartu zuen ostatu, *Terres de Navarre* elkartearen kolaborazioari esker, eta otorduak Herriko Etxeak utziriko gela batean egin ziren.

Herri honetan aurretiaz egindako eskuhartze arkeologiakoak anitzak dira, hain zuzen, historiaurretik gaur egun arteko aztarnak dokumentatu baitira inguruan. Testuinguru horretan, badakigu Antzinaroan Pirinioez gaindiko bidearen babesean garatu zen leku garrantzitsua izan zela, lotura zein antzekotasun nabarmenak izanik bortuen hegoaldeko guneekin. Hala ere, gune honen garapenaren alderdi asko gaur egun ezezagunak dira oraindik eta horrek are eta interesgarriago bilakatzen du aztarnategi hau.

Beraz, hori guztia kontuan hartuta, 2024ko indusketa kanpainan orotara 2 zundaketa edo sondeo egin ziren, 2023an *Pirenaeus* I mugazgaindiko proiektuaren barnean egindako miaketa geofisikoen emaitzetan oinarritua, bata 20m2-koa eta bigarrena 9m^2-koa. Lehenean, pentzearen hego ekialdean kokatuta, eraikin handiago baten barnean zegoen gela baten murruak atzeman ziren, baita barneko zola osatuko zuen uharrizko gainazala ere. Egitura guzti hauen gainean erromatar garaitik gaurdainoko materialak identifikatu ziren (zeramika, berina, metalezko objektuak), egiturak lehen fase horretan datatzea ahalbidetu zuena. Bigarrenean, ipar mendebaldean, ez zen posible izan egitura garbirik aurkitzea, soilik uharri handien pilaketa, geofisikak bertan oinarri laukizuzeneko anomalia bat lokalizatu zuen arren. Hala ere, maila batetik behera topatutako materialaren gehiengoak sakoneko maila estratigrafiko horiek erromatar garaian osatutakoak izango zirela ikustea ahalbidetu du.

Indusketari amaiera emateko, azken egunean bisita gidatuak eskaini ziren herritarrei zein bisitariei bertan egindako lanak bertatik bertara ezagutu zitzaten. Euskaraz eta frantsesez egin ziren eta bakoitzera 30 pertsona inguru hurbildu ziren. Difusiozko azken ekimen hau Euroeskualdeak finantzatutako *Pirenaeus* I proiektuaren barnean burutu zen.

GARRAITZEK (LEKEITIO, BIZKAIA) PARKE HISTORIKO-NATURALA: EREMU ERLIJIOSO-MILITARRAREN EGONKORTZEKO PROIEKTUA. II. FASEKO LANAK

Zuzendaritza: Anartz Ormaza Ugalde, Alfredo Moraza Barea
Finantziazioa: Lekeitioko Udala, Europako Next Generation funtsak
Sustatzailea: Atabaka Kultur Elkartea eta Lekeitioko Udala

Garraitzeko uhartea (San Nikolas irla izenaz ere ezaguna), Lekeitioko (Bizkaia) udalerrian kokatuta dago, honen ipar-ekialdean, Lea ibaiaren bokalearen aurrean. Kostaldeko herri hori ondoen identifikatzen duen ikonoetako bat da, aski ezaguna, eta bertako baliabide turistiko nagusietako bat bihurtu da azken urteetan.

Lekeitioko Atabaka Elkarteak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak elkarlanean, 2015etik urtero burutu dituzte prospekzio eta indusketa lanak auzolanean. 2021an uharteko eremu erlijioso-militarrean aurkitzen diren harrizko horma eta aztarnak egonkortzeko exekuzio proiektua idazten da, eta 2023an honen lehendabiziko fase baten kontsolidazio lanak egin ondoren, 2024an gainontzeko aztarnen egonkortzea garatu da, uztaila eta abendua artean.

Garraitz uhartean aurkitzen diren aztarnen multzoak bi eremu orokorretan banatzen diren hiru azpieremuek osatzen dute, orokorrean ezaugarri ezberdinak dituztenak, bai forma aldetik eta bai kronologia aldetik ere. Aztarna-eremuen sailkapena hurrengoa da:

- I EREMUA - eremu erlijiosoa: hegoaldean.
- II EREMUA - eremu militarra.
- IIA EREMUA - erdialdeko unitate militarra: gotorlekua.
- IIB EREMUA – iparraldeko unitate militarra: kuartela, bolborategia eta goiko gotorlekua.

2022-2023 bitartean egin ziren kontsolidazio lanak (I. fasea), IIB eremuko aztarna militarretan zentratu ziren (kuartela, bolborategia eta goiko gotorlekuan).

2024an egin diren kontsolidazio lanak, gainontzeko eremuetara zabaldu dira, beste eremuetako (I eremu erlijiosoa eta IIA eremua, erdialdeko gotorleku militarra) aztarnak egonkortuz.

Garraitzeko (Lekeitio) Parke Historiko-Naturalaren egonkortzeko prozesua: Mendebaldeko hormak egonkortuta.
A. Ormaza

Alde batetik, ermita edo komentuaren hormak kontsolidatu dira, eta beronen lurzorua baita ere (harriak banan-banan altxatu eta berriro bere lekuan jarriz). Komentuaren eremuko gainerako horma eta harresiak ere kontsolidatu dira.

Eremu erlijiosoa eta militarra banatzen zuen harresiaren atea ere kontsolidatu da, inguruan jausita zeuden harlanduak bere lekuan berriro kokatuz eta atearen egitura berreskuratuz.

Erdialdeko goiko gotorlekuan ere, bertako hormak kontsolidatu dira, eta mendebaldera bajatzen zen harresia bera eta itsas labarrean dauden espezieak babesteko, hesia kokatu da (bisitariak bertara ez gerturatzeko).

Bigarren kontsolidazio fase honetako helburu garrantzitsuena, lehen fasearen ostean kontsolidatu gabe geratu ziren egituren irakurketa argia berreskuratzea izan da, esan bezala, aztarnen kontsolidazioaren bitartez.

Esku-hartze guztian, jatorri naturaldun material ekologikoa erabili da: kare hidraulikozko mortairua hormen egonkortzean eta bertatik berreskuratuko harria horma buruen kontsolidaziorako. Hesia egurrezkoa eraiki da.

Uhartera eraikuntza materialak eramateko (herramintak, mortairua, harea, ura…), malekoia erabili da, eta lanordu eta lanegunak mareen araberakoak izan dira, jakina..

Irudiak goitik behera:
Komentuko elizako zorua egonkortzen
Harresiko atea berreskuratuta
Komentuko elizako ekialdeko horma kontsolidatuta.
A. Ormaza

AUZOLANDEGIA ZALURRIBARREKO SAN SALBATORE MONASTERIOAN (AGOITZ, NAFARROA)
Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena
Babesleak: Agoizko Udala, CEDERNA-GARALUR agentzia, HIDEA Agoizko Kultur Elkartea eta Aranzadi Zientzia Elkartea

Aranzadi Zientzia Elkartea 2020az geroztik ari da, Agoizko Hidea Kultur Elkartearekin elkarlanean, Zalurribarreko monasterioaren aztarnen gainean lanean.

Zalurribarreko San Salbatore monasterioa beneditarren antzinako monasterio bat da eta iturri dokumentaletan XI. mendeaz geroztik aipatuta ageri da. XIX. mende bukaerarako eta XX. hasierako argazki zaharretan oraindik zutik ageri da. Dena den, inguru hori sasiz eta ezpelez estalita zegoen aspalditik, eta nekez bereiz zitezkeen zenbait harri han eta hemen sakabanatuta. Hori dela eta, 2020. urtean monasterio honen egiturak azaleratzeko indusketa arkeologikoak abiatu ziren, auzolandegi formatuan planteatuta. Urte hauetan ingurua balioan jartzea ere lehenetsi da, monasterioaren nahiz indusketaren informazioa eskaintzen duen panel bat kokatuz bertan. 2024. urtean pasa diren auzolandegietan azaleratutako egituraren aztarnak kontsolidatzen hasi da. Horretarako, bi eguneko hiru auzolandegi antolatu dira, zeintzuetan egituraren paretak kontsolidatu eta egitura hobeto ikustea lortu den.

Auzolandegiek erantzun positiboa izan dute herrian, aurtengoan ere guztira berrogeita hamar bat lagunek parte hartu baitute txanda desberdinetan. Hala, herriko ondare kulturalaren elementu hau berreskuratzeko urratsetan aurrera egin dute, bizilagunen parte-hartze eta inplikazio aktiboa sustatuz.

Goiko irudian, Zalurribarrreko Monasterioan parte hartzu zuen lantaldea. Behean, lan prozesua irudietan. S. Matelo

PROYECTO: GENDULAIN (NAVARRA). ERMITA DE SAN ROMAN: LUGAR DE PAZ
Responsables: HIDEA Asociación Cultural de Aoiz; Ayuntamiento de Aoiz/Agoitz, CEDERNA-GARALUR, Aranzadi Zientzia Elkartea
Financiación: Programa INNOVA impulsado por la Fundación Caja Navarra y Fundación "La Caixa"; Ayuntamiento de Aoiz/Agoitz

En la localidad de Aoiz/Agoitz, en el prepirineo navarro, cerca del casco urbano, existe el antiguo despoblado medieval de Gendulain. Hoy en día no queda nada más del despoblado que la ermita de San Román, visible y referente para los y las vecinas del entorno. Esta ermita tiene un valor simbólico importante, ya que se cree que en ella aconteció en época medieval un hito histórico determinante para la paz de la Navarra medieval, sumida en una guerra durante años: la firma de la paz entre Agramonteses y Beaumonteses.

Con el objetivo de recuperar la memoria y resignificar este enclave, la Asociación Historia de Aoiz (HIDEA) ha puesto en marcha el proyecto "Gendulain-Ermita de San Román: Lugar de Paz". A través de esta iniciativa local impulsada por HIDEA y con la colaboración del Ayuntamiento de Aoiz/agoitz, se quiere investigar con mayor profundidad la historia y los posibles restos arqueológicos tanto del despoblado de Gendulain como de la ermita de San Román.

Para ello, y a lo largo de dos años, HIDEA impulsará actuaciones arqueológicas en la zona de la ermita de San Román, organizando jornadas de auzolan o voluntariado junto con otras asociaciones del municipio, que ayuden a acondicionar el entorno para incorporarlo como recurso turístico a un sendero ya existente, y restaurar su valor simbólico para las y los agoizkos.

Este proyecto se acompañará además con actividades educativas, culturales y sociales tales como la creación de una unidad didáctica para escolares, la colocación de paneles informativos, charlas, una exposición, etc. De esta manera, se quiere recuperar el enclave de Gendulain y su ermita de San Román y que pueda ser disfrutado por toda la ciudadanía.

Arriba ermita de San Roman (Guendulain). Abajo, Presentación del Proyecto "Gendulain Ermita de San Roman: Lugar de Paz" S. Matelo

El proyecto "Gendulain-Ermita de San Román: Lugar de Paz" cuenta con la colaboración de Cederna-Garalur, la Sociedad de Ciencias Aranzadi y con el apoyo del Programa Innova, impulsado por Fundación Caja Navarra y Fundación "la Caixa".

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN LA PARCELA DE GURUTZEAGA (AZKOITIA, GIPUZKOA)

Dirección: Alfredo Moraza
Promotor: Residencial Azkoitia GE, S.L.

La parcela definida como Ámbito A29 (Gurutzeaga) se dispone en la parte alta de la población, al pie de la colina de San Martin de Iraurgi. En este concreto entorno se han verificado varias intervenciones arqueológicas durante los últimos años con unos resultados globalmente muy pobres. Obras que están relacionadas con una nueva promoción urbanística en la zona.

El proceso de registro llevado a cabo no ha permitido identificar resto arqueológico alguno de relevancia, aflorando el substrato geológico natural a los pocos centímetros de la superficie (10-40 cm).

Detalle de la reducida potencia del substrato arquologico en la Parcela de Gurutzeaga. A. Moraza

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN EL CASERÍO OLABARRIKO ERROTA (BAKIO, BIZKAIA)

Dirección: Alfredo Moraza
Promotor: Naiara Madariaga Orbe y David Ugalde Ugarte

Los trabajos arqueológicos desarrollados en el caserío Olabarriko errota de Bakio están relacionados con las obras de reforma y rehabilitación emprendidas en este inmueble por parte de sus propietarios.

Históricamente las primeras referencias al funcionamiento de este conjunto de producción ferrón no se remontan más allá de mediados del siglo XVII (1643), momento en el que ya estaba activa *"la ferrería mayor de Olabarri"*. Unas instalaciones que serán conocidas también como los nombres de Ondarra u Ondartza, en referencia a la regata de la que alimentaba su maquinaria. Se desconoce totalmente las características de las instalaciones productivas puesto que el primitivo taller e infraestructuras anexas se encuentran prácticamente desparecidas. A este conjunto se unirá a mediados del siglo XVIII la presencia de un nuevo molino harinero aprovechando esa misma infraestructura. La ferrería se mantendrá activa hasta al menos 1801, desapareciendo posteriormente, y quedando solo activo el molino que dará nombre al presente caserío (cesó su actividad ya bien entrado el siglo XX).

Vista del caserío Olabarriko errota (Bakio), y a la izquierda la antigua antepara o depósito de agua. A. Moraza

El referido conjunto disponía de una presa de piedra de 6 m de longitud y 0,50 de altura, conduciéndose las aguas a través de un canal excavado en el terreno de unos 550 m de longitud. La antepara o depósito de agua es el único elemento



Plano de las estancias del antiguo molino/ferrería conservados en el caserío Olabarriko errota (Bakio). M. Garcia

Proceso de ejecución del Sondeo III en el caserío Olabarriko errota, junto al muro de la antigua antepara. A. Moraza

conservado en pie bajo la cual se disponían el túnel hidráulico con las ruedas que accionaban los diferentes artefactos. Conformado por un gran paralelípedo de unos 4,50 m de altura y 5,40 de anchura y una longitud conservada de poco más de 40 metros, disponiendo un salto útil de 6,47 m. Conduciendo el agua sobrante a través de un estrecho canal de 1,60 m de anchura y 75 de longitud hasta la regata pasando por debajo de las actuales construcciones

El actual conjunto está conformado por una serie de estancias o cuerpos edificados adosados entre si que globalmente presentan una factura muy deficiente y carente de interés desde el punto de vista patrimonial. Entre ellas se encuentra la estancia donde se dispuso originalmente el primitivo Molino o Errota (28 m2). En ella aún se conservan en la solera las dos ruedas o muelas bajeras con un diámetro muy similar entre si (1,17 y 1,20 m); una de las piedras superiores se conserva en el vecino jardín, todas ellas ejecutadas en arenisca. Igualmente, bajo este edificio se conserva también la estolda abovedada (actualmente totalmente anegada) con los ejes verticales y posiblemente sus *turtukiak* o rodetes.

La intervención arqueológica consistió en la ejecución de varios sondeos (4) distribuidos tanto en el interior como el exterior del conjunto. Su objetivo era el de determinar las características del posible deposito arqueológico y la localización de evidencias constructivas relacionadas con el conjunto. El más interesante de ellos fue el definido como Sondeo II, llevado a cabo en el pasillo interior del edificio de unos 8,30 m de longitud y 90/152 cm de anchura. En el mismo se pudieron identificar diferentes elementos:

- Una solera de gran calidad ejecutada con grandes losas de piedra arenisca, y asociada a las últimas facies de ocupación de este espacio ya reconvertido en una explotación agropecuaria.



- Un pavimento, una solera de arcilla plástica aislante y un muro principalmente. Estos elementos formaban parte de una supuesta construcción de características y proporciones desconocidas relacionada directamente con los restos de un taller complementario a la cercana ferrería a modo de fragua o similar (habitual en este tipo de contextos productivos). La falta de evidencias materiales impide determinar su posible cronología. De todas formas, es muy posible que dejaría de funcionar a mediados del siglo XVIII, siendo demolida con ocasión de la habilitación en ese sector del nuevo molino harinero construido por sus propietarios.

Arriba, plano de los restos conservados en el antiguomolino en el caserío Olabarriko errota (Bakio) y fotografía de los mismos. Abajo, perspectiva de las diferentes estructuras documentadas en el Sondeo del caserío relacionadas con una posible fragua.

A. Moraza; M. Garcia

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN EL CASERÍO AMETXAGATORRE -O- (BARRIKA, BIZKAIA)

Dirección: Alfredo Moraza y Miren Garcia Dalmau
Promotor: Asier Ruiz Ramirez



Alzado de la fachada N del caserío Ametxagatorre (Barrika) con las distintas fases documentadas. A. Moraza, M. Garcia

La intervención arqueológica llevada a cabo en el caserío Ametxagatorre (mitad O) está relacionada con las obras de reforma y rehabilitación abordados en este inmueble.

Un edificio que estaba compartimentado en dos estancias independientes, dotado de una serie de elementos arquitectónicos de cierto interés: gran soportal arquitrabado y adintelado; la fachada lateral con su primitivo entramado; o la fachada N ejecutada en sillería (la única) dotada de dos vanos singulares (un arco apuntado de acceso y otro de pequeñas proporciones, también apuntado, a modo de ventana. Evidencias éstas que nos permiten remontar la antigüedad del actual edificio hasta finales del siglo XV o principios del XVI. Posteriormente, en algún momento desconocido entre el siglo XVII o XVIII, el inmueble experimentará una profunda transformación con el traslado de la fachada principal de acceso desde el lienzo N al S, procediéndose a verificar además un destacado recrecimiento del volumen con el añadido de una nueva crujía en planta y dotándole de una mayor altura, así como compartimentándolo en dos viviendas separadas por un nuevo muro medianil interior.

La intervención se ha verificado exclusivamente en la mitad Occidental (la mitad E ya fue excavada en 2010), llevándose a cabo en dos fases consecutivas (enero y abril). La secuencia estratigráfica registrado ha sido prácticamente nula, la actual solera cerámica se apoyaba directamente sobre el sustrato geológico natural, careciendo de relevancia alguna desde el punto de vista del patrimonio arqueológico.

Izquierda, detalle de la estructura portante interior del caserío Ametxagatorre (Barrika) durante el proceso de intervención. Derecha, detalle de afloramiento geologicio natural que aflora a los pocos centímetros de la solera. A. Moraz

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN EL PASEO BERRIA (DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, GIPUZKOA)

Dirección: Alfredo Moraza
Promotor: Donostiako Udala/Ayuntamiento de San Sebastian

A instancias del Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián se procedió a llevar a cabo durante la primavera de este año un proceso de control arqueológico con ocasión de las obras necesarias para efectuar el proceso de electrificación del Ferial del Paseo Nuevo o Paseo Berria donostiarra.

El área de trabajo se disponía en la ladera N y NO del monte Urgull. La construcción de este Paseo Nuevo se verificará en un complejo proceso constructivo, tanto por las dificultades administrativas (choques con las autoridades militares propietarias de la parcela) como por la complejidad técnica de la obra (azotada por los embates directos del mar, desprendimientos de la ladera, etc.), prolongándose las mismas entre 1915 y 1922.

La actuación arqueológica se centró en dos ámbitos principalmente. Por un lado, la excavación del nuevo Centro de Transformación (6,10x2,38x3,05 m) empotrado en la ladera del monte, y por el otro la ejecución de una serie de zanjas de distribución de la línea de electrificación con una anchura media de 40-50 cm y una profundidad de unos 140-150 cm. La secuencia registrada fue muy sencilla y carente de relevancia, relacionada casi exclusivamente con los rellenos derivados del proceso de construcción del presente Paseo Nuevo a principios del siglo XX, o de las posteriores remodelaciones efectuadas en la zona.

Fotografía antigua del proceso de ejecución del Paseo Nuevo (Donostia) a principios del siglo XX. Abajo, emplazamiento del nuevo Centro de Transformación en el Paseo Nuevo (Donostia).

DONOSTIAKO UDALA

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN EL SOLAR DE KALE NAGUSIA, 3 (DONOSTIA-SAN SEBASTIAN, GIPUZKOA)

Dirección: Alfredo Moraza y Miren García
Promotor: Comunidad de Propietarios

Las obras llevadas a cabo en solar de Kale Nagusia nº 3, en pleno Casco Histórico donostiarra, se han verificado con ocasión de habilitar un nuevo ascensor en el inmueble. La secuencia registrada ha resultado carente de interés alguno desde el punto de vista arqueológico, aflorando a los pocos centímetros el deposito de arena natural del terreno.

ESKU-HARTZE ARKEOLOGIKOA ETXEBARRIAKO (ELORRIO, BIZKAIA) SAN AGUSTIN TEILERIAN

Zuzendaritza: Alfredo Moraza eta Miren Garcia
Sustatzailea: U3 Arquitectura Técnica, S.L.

Etxebarriako San Agustin Teileria izen bera duen Elorrioko auzoan kokatzen da. Interes handiko multzo arkitektonikoa da, eraikuntzako material zeramikoen ekoizpenarekin lotuta dagoena. Multzo hori berreskuratze eta balioztatze prozesu betean dago azken urteotan, 2006an estalkia hondoratu ondoren.

Teileria honen historiak eta bilakaerak ez du XVIII. mendetik aurrera egiten. Bere existentzia zuzenean ondoko Parrokiarekin lotu behar da (*"la casa y caseria Texeria de dicho San Agustin y pertenecidos, con inclusión del Orno Tejera de cocer teja y ladrillo"* -1801-), azken hori ekoizpen instalazio honen jabea eta errentaria baitzen. Egitate hori ez da ohikoa, eta bakarra da Euskal Autonomia Erkidego osoan; izan ere, oro har, Kontzejuak berak edo ekimen pribatuak izango du haren jabetza eta ustiapena. Labe horrek ustekabeko sutea izan zuen 1769an, eta, horren ondorioz, instalazio berriak berreraiki behar izan ziren, aurrerago ikusiko dugun bezala. Bere funtzionamenduari buruzko azken erreferentziak 1839koak dira, eta oraindik ere aktibo mantendu zen urte batzuetan, nahiz eta ezin den jakin noiz utzi zuten. Ondoren, oilategi, lanabesen biltegi eta abar bihurtu zen.

Gaur egun jatorrizko ekoizpen multzotik elementu nagusia eta adierazgarriena baino ez da kontserbatzen: egosteko labea, edo, hobeto esanda, kontserbatutako bi labeetako aztarnak. Egungo labeak labe arabiarraren edo tiro bertikaleko labearen tipologia du, eta gainjarritako ganbera bikoitza du (errekuntzakoa edo behekoa, eta egostekoa edo goikoa). Kono-enbor formako itxura du, 6,25 x 5,70 metroko oinplano angeluzuzena eta 7,25 metroko altuera. Horri estalkiari eusteko zutabe lirainak (1,60 metro) gehitu behar zaizkio; beraz, ia 9 metroko altuera du guztira. Eraikinaren kanpoaldea harlangaitz-hormaz egina dago, eta barrualdea, berriz, adreiluz. Beheko ganberan, errekuntza-ganberako arku bikoitz paraleloak kontserbatze dira, eta goikoan, jatorrizko parrilla eta alboko sarrera ezin hobeto dokumentatzen dira.

Etxebarriako San Agustin Teileriaren irudia XX. mende hasieran. Elorrioko Udal Artxiboa

Teileriaren egoera birgaitzearen aurretik (2019). A. Moraza

Gaurko labearen ondoan jatorrizko labea 2021ean erregistratu zen, multzoa berreskuratzeko lanetan. Erabat lurperatuta zegoen, eta kontserbazio-egoera oso eskasa eta partziala zuen (beheko ganberaren zati bat eta goikoaren eta parrillaren hondakinak baino ez zituen



Etxebarriako (Elorrio) San Agustin teileriako jatorrizko labearen kokapenaren ikuspegia, egungo labeak ebakia (2021). M. Garcia

kontserbatzen), labe berria eraikitzeko prozesuan zehar moztuta. Oinplano angeluzuzen luzangako eraikin txiki batek osatzen zuen (4,27 m luze eta 2,82 m zabal), eta gutxienez 2,60 m-ko garaiera zuen. Hasieran, deskribatutako horma mistoa zuen (kanpoko harlangaitz-horma eta barruko adreilua). Tipologia apur bat desberdina zuen, korridore bakar eta zabal batekin (190 cm inguruko zabalera eta 110 cm-ko altuera), E-M orientazio nagusiarekin, gaur egungo labearekin (I-H) kontrastean. Eredu hori dagoeneko dokumentatu ahal izan da inguruko lurraldeetan.

Ikerketa arkeologikoaren prozesua Zundaketa arkeologiko bat egitea izan da, ekoizpen multzo honi lotuta egon daitezkeen eraikuntzak eta/edo metakinak dokumentatzeko eta horien bilakaera sekuentzia bat ezartzeko. Lan horiekin ezin izan da eraikuntza prozesu horrekin lotutako aztarna garrantzitsurik dokumentatu, eta lehen aipatutako 1769ko sutean suntsitutako jatorrizko labearen zimenduak baino ezin izan dira identifikatu.

Goiko irudian, Etxebarriako (Elorrio) San Agustin teileriak osatzen duen multzoaren oinplanoa, eta Zundaketa arkeologikoaren kokapena. Beheko irudian, egindako lan arkeologikoen garapena. A. Moraza

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN SOLAR DE ANDREKALE 8 (HERNANI, GIPUZKOA)

Dirección: Alfredo Moraza
Promotor: Goizuetako Etxeak, S.L.

Las labores arqueológicas llevadas a cabo en el solar de Andrekale nº 8, en el Casco Histórico de Hernani, tienen su origen en las obras de rehabilitación del inmueble emprendidas por sus propietarios.

La edificación existente presentaba una planta rectangular alargada, en la que destacaba la planta baja de la fachada principal dotada con un grueso muro de sillería caliza. La actuación no pudo documentar la presencia de estructuras ni depósitos de interés desde el punto de vista arqueológico, con un relleno muy sencillo asociado a las ultimas facies de ocupación del solar.

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN EL ENTORNO DEL PUERTO DE PASAIA (PASAIA, GIPUZKOA)

Dirección: Alfredo Moraza
Promotor: Ekos. Estudios Ambientales, S.L.U.; Junta del Puerto de Pasaia

La necesidad de proceder a ejecutar una serie de obras para habilitar las nuevas instalaciones de alumbrado exterior del canal del puerto de Pasaia dio lugar a la necesidad de efectuar un Control arqueológico de las mismas. Labores éstas que no permitieron documentar elemento alguno de interés.

INTERVENCIÓN ARQUEOLÓGICA EN EL SOLAR DE AROSTEGIETA, 14 (TOLOSA, GIPUZKOA)

Dirección: Alfredo Moraza
Promotor: Comunidad de propietarios

El Plan de obra a desarrollar en el solar de Arostegieta 14, en pleno Casco Histórico de Tolosa, consistía en la ejecución de dos nuevas zapatas para reforzar la estructura portante del edificio.

La secuencia estratigráfica registrada ha presentado muy escasa relevancia y sin apenas interés (cimentaciones, rellenos heterogéneos, solera con lajas de caliza, etc.).

Detalle de uno de los sondeos practicados en el solar de Arostegieta nº 14 (Tolosa). A. Moraza

ESKU-HARTZE ARKEOLOGIKOA IDIAKAITZ EDO IRIKAITZEKO (ZESTOA, GIPUZKOA) LURSAILEAN

Zuzendaritza: Alfredo Moraza eta Manu Ceberio
Sustatzailea: Zestoako Udala

Idiakaitzeko Lursailean egindako arkeologia-lanak Udalak inguruan kirol-azpiegitura batzuk prestatzeko egindako lanekin lotuta daude ("Idiakaitz Denbora lerroa. Zestoa Pump Track").

Arkeologia-lan horiek gune nagusitik Hegoaldera dagoen lursail batean egin ziren, Urola ibaiaren ezkerreko ertzean. Espazio hori bat zetorren herriko futbol-zelai zaharraren kokapenarekin (1984-2004), eta Urolako FFCCren trazaduratik gertu. Gaur egun, ingurune hori nahiko aldatuta dago lehen deskribatutako jarduketen ondorioz, eta hainbat berritze eta betelan zituen.

Idiakaitzeko (Zestoa) Lursailean egindako futbol-zelai zaharrarekin lotutako betelan garaikideak. M. Ceberio

Ingurune hori, bestalde, Irikaitzeko Eremu gisa definitutakoaren barruan sartzen zen, Antzinako Goi Paleolitoaren (Gravettiarra) okupazio-maila batzuei lotuta.

Lanek azaleko geruzei bakarrik eragin zieten (30 cm inguru), 1980ko hamarkadaren erdialdean futbol-zelaia egokitzeko egindako betelanarekin lotuta. Salbuespen bakarra Hego-ekialdeko muturrean irekitako zulo bat izan zen. Bertan, gaur egungo betelanez gain, harrizko zenbait harlandu isolatu identifikatu ahal izan ziren, kokaleku horretan bertan zegoen Zubiaurre baserri zaharra eraisteko prozesuarekin lotuta.

Kokalekuaren berezitasunak kontuan hartuta, modu osagarrian panel batzuk (7) jarri dira, Zestoako aztarnategi arkeologiko nagusien ezaugarriak azalduz (Baio, Amalda, Idiakaitz, Ikaitz, Ekain eta Erlaitz), jende guztiarengana hurbiltzeko. Historiaurreko saileko Jexux Tapiak diseinatutako panelak.

DIVULGACIÓN Y CONSERVACIÓN DEL PATRIMONIO CULTURAL

BAZTAN (NAFARROA), PAISAIA BIZI BATEN ARKEOLOGIA

Arduradunak: Josu Narbarte, Mattin Aiestaran
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea eta Miren Garcia Dalmau
Sustatzailea: Baztango Udala

Aranzadi Zientzia Elkarteak 2020an abiatu zuen Baztango kultur paisaia ikertzeko egitasmoa. Ordutik, hainbat esku-hartzen egin dira gai eta espazio desberdinen inguruan, emaitza adierazgarriekin. Beste, giza eta ingurumen faktoreen arteko elkareraginen historia bat proposatu ahal izan da, Historiaurretik gaur egunera; klimak, geologiak eta landaretzak giza jarduera nola baldintzatu duen behatu da; Erdi Aroko herri-sarearen eta tokiko identitateen sorrera nola gauzatu ziren ikusi da; eta Aro Modernoko eraldaketa handien inpaktua aztertu, bai Amerikako laboreen sarrera –"artoaren iraultza" delakoa, Baztango jendartea globalizazio atlantikoan bete-betean txertatu zuena– eta baita komunalen inguruan sortutako gatazken historia ere.

Lan horien guztien artean, bi adibide aipatuko ditugu hemen.

Zigako (Baztan) terraza-sistemaren ikuspegi orokorra. Diez-Oronoz

1. Ziga: nekazaritza egonkorra, herria sortzeko baldintza

Baztango herri txikienetakoa izanik ere, Zigak altxor etnografiko eta arkeologiko bat gordetzen du: bizitegien inguruan ia 17 hektareatan hedatzen den terraza-sistema. Tokiko mintzoan *xunda* eta *ezponda* deitzen zaie, eta herriko nekazaeritza-eremu garrantzitsuena izan da beti.

Terraza horietan egindako zundaketa geoarkeologikoek sedimentu-sekuentzia jarraiak berreskuratzeko aukera eman zuen, lau metroko sakonera bitarte. Sedimentuen propietate fisiko-kimikoak aztertuta, sekuentzia horien formazioan eragin duten ingurumen eta giza faktoreak identifikatu ahal izan dira, eta herriaren sorreran nekazaritzak izan zuen garrantzia aztertu.

Izan ere, kokalekua ezin hobea zen nekazaritza egin ahal izateko. Ziga Leitzako failak sortutako *mélange* tektoniko baten gainean kokatuta dago; horrek esan nahi du arroka-mota desberdinek osatzen dutela bere substratua, eta horiek oso meteorizatuta daudela. Ezaugarri horiei esker, bertako lurzoruak nutrienteetan aberatsak ziren, baina baita higakor samarrak ere. Gainera, erliebea malkarra da, eta horrek areagotu egiten ditu higadura prozesuak. Hortaz, nekazaritzarako egokia izan arren, beharrezkoa zen esku-hartze handi bat egitea, lurra modu egonkorrean landu ahal izateko.

Etimologikoki, Ziga izena *zihi* 'harizti' hitzak eta *-aga* toki-atzizkiak osatzen dute. Hori bat dator eskualdeko balizko landaretza-mapek erakusten dutenarekin: giza esku-hartzerik gabe, oihan misto atlantiarrak lirateke hemen nagusi eta, altitude ertain-baxuan egonik, haritzak bereziki. Baina harizti horiek erabat desagertuta daude gaur egun; K.o. VI. mendean desegin zituzten, sua erabilita agian, eta haien tokian mendia zelaitu zuten eustormak eraikiz eta betelanak eginez. Une horretan sortu zen egun ikusten dugun terraza-sistema, eta ordutik etengabe landu izan da.

2. Elorta: abereentzako babeslekuak muga batek zeharkatuta

Herriak garrantzitsuak dira Baztango paisaian, baina are nabarmenagoak dira mendiak. Ibar osoa mendiz inguratuta dago, eta horietako gehiengehienak komunalak dira. Mendi horiek antzinatik ustiatu izan dira, eta Baztango gizartearen aberastasun-iturri nagusia izan dira.

Aprobetxamendu desberdinak egon izan diren arren, abeltzaintza da paisaian arrastorik nabarmenena utzi duena. Hainbat elementu aurkitzen dira mendietan sakabanatuta: bide zaharrak, muga-markagailuak, bordak eta haien inguruko saroiak, mendez mende abereen bazkak garbitu eta moldatu dituen larreak, eta abar.

Elortako (Baztan) saroien ikuspegi orokorra. J. NARBARTEZ

Mendi-paisaiaren adibiderik ederrenetako bat Izpegiko lepoaren eta Hauza mendiaren artean dago: Elorta errekaren inguruan, hain zuzen ere. Gizakiaren presentzia Historiaurretik ikus daiteke eremu horretan: cromlech edo harrespil multzo handi batek zeharkatzen du, Burdin Aroan Pirinio osoan nagusitu zen hilerri-ereduari jarraiki. Deigarria da Baztan eta Baigorri ibarren arteko muga ere hor bertan kokatzen dela gaur egun oraindik.

Baigorriko bizkontea, Etxauzko jauna, behin eta berriro saiatu zen Elortako bazkalekuen kontrola bereganatzen, Erdi Aroan eta Aro Modernoan; hainbat eskutitz kontserbatzen dira artxibo desberdinetan, baztandarrei egin zizkien mehatxuak eta ezarri zizkien zigorrak jasotzen dituztenak. Dena den, ez bide zuen lortu bere xedea, 1441ean baztandarrek beren lurren gaineko jabetza kolektiboa eskuratu zutenetik ustiatu baitzituzten Izpegi inguruko mendiak. XVI. mendean, adibidez, Arizkungo Urtsua palazioko jauna agertzen zaigu Elortako eta Nekaizko saroien jabe, beren zerriak bertan bazkatu nahi zituzten partikularrei errenta baten truke alokatzen. Saroi horien banaketa oraindik ere ikus daiteke, borda zahar eta berriekin batera.

3. Emaitzak liburu batean jasoak

Egindako lanak biltzeko, Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Baztango Udalak *Baztan: paisaia bizi baten arkeologia* liburua plazaratu dute 2024an, *Nafarroa Arkeologia Auzolana* bildumaren baitan. Aurkezpena Elizondon egin zen urriaren 24an.

Baztan: paisaia bizi baten arkeologia liburuaren aurkezpena Elizondon egin zen urriaren 24an.

PUESTA EN VALOR DE LAS TERMAS DE ARTZI/ARCE (NAVARRA)
Responsable: Oihane Mendizabal Sandonís y Eider Conde Egia
Financiación: Gobierno de Navarra

Las termas romanas de Artzi/Arce se abrieron al público el 7 de febrero. Tras una década de excavaciones arqueológicas, durante el 2023 el equipo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en colaboración con el Ayuntamiento del Valle de Arce y el Gobierno de Navarra, ha realizado labores de consolidación y musealización de este enclave. La finalidad de estas actuaciones es dar a conocer este lugar de paso estratégico, que se ubicaba en la calzada romana Iter XXXIV y que atravesaba los Pirineos en la Antigüedad.

Las termas fueron inauguradas con la presencia del director general de Administración Local y Despoblación, Jesús Mari Rodríguez, la directora del Servicio de Patrimonio Histórico, Susana Herreros, y el alcalde de Arce, Javier Díez, a quienes han acompañado otros alcaldes o representantes de localidades por las que discurre la calzada romana en el Pirineo navarro.

A través de paneles informativos y una reconstrucción del edificio en 3D, los visitantes podrán conocer de primera mano la evolución y transformación de este enclave, que funcionó como estación viaria desde finales del siglo I a.C. Asimismo, durante las vacaciones de Semana Santa se organizaron visitas guiadas con el objetivo de dar a conocer este patrimonio.

Las acciones de musealización y socialización de este patrimonio se integran en la estrategia de regeneración del valle en la lucha contra la despoblación, y se enmarcan a su vez en una línea de investigación dirigida por la arqueóloga Oihane Mendizabal, que estudia los enclaves que daban servicio a la calzada romana en el Pirineo navarro entre los que destacan los enclaves de Arce y Zaldua (Auritz/Burguete). De hecho, las termas de Artzi/Arce son muy similares a las de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux, el asentamiento romano de la vertiente norte que se encuentra comunicado a través de la calzada que cruza el paso de Ibañeta.

El primer sondeo arqueológico se realizó en el año 2012 y posteriormente las prospecciones geofísicas, llevadas a cabo en los años 2014 y 2017, documentaron un emplazamiento de al menos 1 ha de extensión. Se han llevado a cabo 7 campañas arqueológicas, centradas en la excavación del complejo termal, que han finalizado en 2023 con la consolidación de los restos, vallado, su puesta en valor con cartelería explicativa y un estudio arqueológico tras una inversión de 98.740 euros euros por parte de Gobierno de Navarra.

Imagen del acto de la presentación de las Termas de Artzi/Arce con la presencia de los alcaldes y representantes del Proyecto de la calzada romana del Pirineo. En la imagen de arriba, visita guiada a las Termas de Artzi/Arce realizada en Semana Santa.
E. Conde, S. Mateo

ATURRIKO BARTAK: PAISAIAREN GEOARKEOLOGIA GIXUNEN (LAPURDI)
Arduradunak: Josu Narbarte
Finantzazioa: Frantziako Kultur Ministerioa

Paisaiaren arkeologiaren eta geoarkeologiaren printzipio teoriko eta metodologikoetan oinarrituta, Aranzadi Zientzia Elkarteak Aturriko estuarioan aurkitzen diren hezeguneen azterketa arkeologikoari ekin dio 2024an. Proiektuaren lehen edizio honek Gixune udalerria hartu du ardatz, tokiko gizartearen eta estuarioko ingurumen faktoreen arteko elkar eraginen epe luzeko ikerketa egiteko xedez. Eskualde honek eraldaketa handiak pairatu ditu mendeen joanean, Aro Modernoan bereziki; eta, desmartxa horren ondorioz, inguruko komunitateek kultur identitate bereizgarri bat garatu dute, uraren kudeaketa kolektiboak eta paisaia anfibio baten mantenimenduak baldintzatua.

Aturriko *bartak* deritzan espazio horiek adibide ezin hobea eskaintzen dute, epe luzean gizarte jakin batek ingurumenaren apropiazio eta kudeaketa praktikak nola egokitzen dituen aztertzeko; gainera, prozesu horiek eskala zabalagoko testuinguru sozial eta ekonomikoetan txertatzen dira. Ondorioz, kultur paisaia hauek aberatsak eta aldakorrak dira, beren konfigurazio historikoan eragin duten agente eta praktika ugari islatzen baitituzte: tokiko komunitateak, hirietako burgesia (Baionakoa, bereziki), landa-aristokrazia txikiak nahiz handiak (Agramonteko jaunen leinua da adibide argiena), baita Estatu moderno eta zentralizatu bat eraikitzeko borroka betean zen frantziar monarkia ere. Agente horiek guztiek neurri desberdinetan parte hartu zuten hezeguneekiko harreman berri baten sorkuntzan, eta horien arrastoak egungo paisaian inskribatuta gelditu dira.

Proiektuaren emaitzak mugatuak dira, noski, eta beste udalerri batzuetara zabaldu beharko dira; baina oso baliagarri gertatzen dira Aro Berriko "globalizazio atlantiarra" deritzan fenomenoak eta harreman kolonialen ezarpenak Europako landa-gizarteen izan zuten inpaktua handia izan zela ondorioztatzeko. Zehazki, hezeguneen egokitzapena funtsezkoa izan zen gizarte-ingurumen harreman berri bat ezartzeko orduan, natura menpean hartzeko borondateak markatuta eta finantza-inbertsio handiek mobilizatutako jakintza teknikoen bidez gauzatuta. Etorkizuneko ikerketak Aturriko estuario mailako ikuspegia eraikitzen lagundu beharko dute, galdera hauen gainean hausnartzeko eta egungo krisi ekosozialaren aurrean tokiko gizarteen ekintzailetzak eman ditzakeen aukerak mahai gainean jartzeko.

Proiektuaren emaitzak Gixuneko herriak antolatutako hitzaldi-ziklo baten baitan aurkeztu ziren 2024ko abenduaren 14an.

Bordenave baserria Aturriko bartetan, Gixune (Lapurdi)..
J. Narbarte

JATA ETA JATATXIKI (BAKIO, BIZKAIA) MENDIEN EREMUAREN INGURUKO BALIOEI BURUZKO TXOSTENA

Koordinazioa: Anartz Ormaza Ugalde

Parte-hartzaileak: Antropologia Saila-Memoria Historikoa (Jabi Buces, Manex Arrastoa, Tito Agirre), Historiaurrea Saila (Manu Ceberio), Botanika Saila (Anaïs Mitxelena, Olatz Erkizia, Luzia Urkiola, Mari Azpiroz, Yoana García, Mikel Etxeberria, Ana Irene Garcia), Herpetologia Saila (Ion Garin), Ornitologia Saila (Juan Arizaga, Maite Laso), Entomologia Saila (Alberto Castro, Beatriz Díaz).

Finantziazioa: Bakioko Udala

2023. urte amaieran Eusko Jaurlaritzak Bakioko udalerriaren inguruko parke eolikoei buruzko iragarkiak argitaratu zituen. Hauetako bat, Bakio Parke Eolikoa, Bakio eta Bermeo artean kokatutakoa, eta beste Berdeak Parke Eolikoa, Bakio eta Mungia artean kokatutakoa. Azken honek, Jata eta Jatatxiki mendien inguruko eremua hartzen zuen.

Bakioko Udalak horrela eskatuta, txosten honen helburua Jata eta Jatatxiki mendien tontor eremuaren inguruko balioak biltzen dituen txosten integrala idaztea da, arlo desberdinetan eremuak dituen balioak ezagutzeko.

Ikerketa eremua 539,64 ha-dun azalera izan zen, Bakio, Lemoiz, Maruri-Jatabe eta Mungiako udalerriek konpartitzen duten eremuan.

Txostenak osotasunezko ikuspegia izateko, proposamena Aranzadi Zientzia Elkarteko Sail desberdinekin elkarlanean egitea erabaki zen, eremuaren ingurumen balioak (floran eta faunan), balio arkeologikoak eta memoria historikoaren inguruko balioak ezagutzeko, bertan Gerra Zibilean Jatako bataila gertatu zela jakinda.

Azterketa maila diferenteetan egin zen. Kasu batzuetan azterketa bibliografikoak egin ziren, eta besteetan bertan egindako miaketak ere.

Aranzadi Zientzia Elkarteko arlo hauetako sailek parte-hartu zuten txostenaren idazketan: oroimen historikoa, historiaurrea, botanika, herpetofauna, ornitologia.eta entomologia.

Oroimen historikoaren alorrean, alde batetik Jatako batailaren inguruko ikerketa historikoa egin zen, eta baita ere bertatik bertara egindako miaketak ere. Hauetan, Gerra Zibilean Jatako batailak izan zuen garrantzia azpimarratzen da. Bestalde, Placido Ugarte ikertzailearen laguntzarekin, Jatako batailako lubakien eta babeslekuen aztarnak topatu ziren.

Jata (Bakio) mendian kokatutako Gerra Zibileko balizko gotorlekuen aztarnak. 📷 Aranzadi



Jatatxiki (sutan) eta Arrastakulo 1937an, bonbardaketaren ondoren. 📷 Aranzadi

Historiarreari dagokionez, ikusizko miaketak egin ziren, historiaurreko elementuen kokapen potentzialaren inguruetan. Txosten honetan ondorioztatzen da Jata mendiaren ingurua



Eukalipto, konifera eta bestelako fruta-arbolen landaketak afekzio-eremuan.
ARANZADI

hutsune bat dela herrialdearen historiaurreari buruzko informazioan. Ziur asko, gaur arte azterketa sakonik egin ez delako. Horegaitik ikusten da ikerketa proiektu sakon baten beharra, kata eta zundaketa arkeologikoak barne hartzen dituena.

Botanikari dagokionez, afekzio eremuko landareriaren azterketa bibliografikoa egin zen, eta biodibertsitatearen kontserbazioaren ikuspegitik interesezkoak diren habitaten eta landare espezieen lokalizazioa. Baita ere honi buruzk kartografia. Txostenean ondorioztatzen da afekzio eremua interesgarria dela flora aldetik. Honez gain, arriskuan dauden espezieen Euskadiko zerrendan (EHAA, 2011) dauden sei espezieen presentzia-nukleoak ezagutzen dira ikerketa-eremuan, kontuan hartu beharko liratekeena.

Herpetofaunari dagokionez berdin, afekzio eremuko anfibio eta narrastiei buruzko azterketa bibliografikoa egin zen, interesa izan dezaketen espezieen lokalizazioarekin eta kartografiarekin batera. Zera ondorioztatu zen: ikerketa eremuan potentzialki aurkitu daitezkeen 17 herpeto espezieetatik (6 anfibio eta 11 narrasti) 7 babestuta daude, eta horietatik hiru Euskal Autonomia Erkidegoko Espezie Mehatxatuen Zerrendan daude. Honek hurrengo fase batean laginketa egitea eskatuko luke.

Zentzu berdinean egin ziren baita ere azterketa ornitologiko eta entomologikoak. Alde batetik hegaztien azterketa bibliografikoa eta interesa eduki dezaketen espezieen lokalizazioa (Ornitho Euskadi eta Euskadiko hegazti habiagileen atlasa moduko iturri eta datu-baseak kontsultatuta) egin zen. Hortatik, ondorioztatu zen parke eolikoak izan zezakeen hegaztoien gaineko eraginaminimoa eta onargarria izango litzatekeela.

Ornogabe babestu eta mehatxatuen azterketa bibliografikoari dagokionez, esan daiteke eremuak landalanik ez duela izan, datu zehatzak ezagutzeko. Baina babes interesa izan zezaketen zortzi espezie kokatzen dira inguruetan. Hortaz, hurrengo fase batean landa-lana egitearen beharra ikusten da.

«Txostenak osotasunezko ikuspegia izateko, proposamena Aranzadi Zientzia Elkarteko sail desberdinekin elkarlanean egitea erabaki zen, eremuaren ingurumen balioak (floran eta faunan), balio arkeologikoak eta memoria historikoaren inguruko balioak ezagutzeko»

CONSOLIDACIÓN DEL CASTILLO DE MIRAVALLES (HUARTE/UHARTRE, NAFARROA)

Dirección: Anartz Ormaza Ugalde, Juantxo Agirre Mauleón
Financiación: Gobierno de Navarra
Promotor: Ayuntamiento de Huarte–Uharte

En 2022 se redactó el Proyecto de Ejecución para la puesta en valor y sociabilizacióin del castillo de Miravalles y su entorno natural en Huarte–Uharte (Nafarroa).

El objetivo general de este proyecto en torno a los restos del castillo de Miravalles en el alto de Miravalles-Oihana en Huarte-Uharte, fue el de realizar un diagnóstico de su situación previa, estudiar sus potencialidades, elaborar las estrategias para su puesta en valor, y redactar una propuesta de actuación que sirviera al Ayuntamiento para la puesta en valor del enclave del castillo y de su accesibilidad para toda la ciudadanía.

Este 2024, se ha ejecutado la primera fase de la consolidación del conjunto, interviniendo en algunos de los restos. A su vez, se ha señalizado el conjunto para facilitar la interpretación de los elementos y se han realizado labores de puesta en valor, haciendo accesibles algunos puntos.

Concretamente, en esta primera fase se han consolidado los muros de la batería fusilera Oeste, donde se ha colocado una plataforma realizada de traviesas de madera y un panel de interpretación. Para acceder a este punto, se han colocado traviesas a modo de peldañeado para facilitar el acceso.

Otra zona sobre la que se ha intervenido ha sido el montículo Este, donde se ubicó el castillo medieval. Como en el caso anterior, sobre la colina se ha colocado una plataforma de madera y un panel. Se ha acondicionado el acceso a la misma habilitando un pequeño sendero.

Asimismo, se ha eliminado el grafiti que se realizó en su día sobre la torre Este del castillo medieval, para después limpiar la piedra, tratarla y consolidar el muro. Frente a esta torre también se ha colocado un panel interpretativo.

De arriba abajo, plano de la intervención en el Castillo de Miravalles (Huarte/Uharte). Fase ILimpieza y consolidación de torre Este del Castillo. Batería fusilera Oeste, y acceso al montículo Este del Castillo. A. Ormaza

Por último, se han colocado paneles interpretativos y explicativos a lo largo del recorrido-sendero que rodea la zona, que ayudan al visitante a realizar una correcta interpretación tanto de los elementos como del conjunto.

El proceso de consolidación sobre los muros de piedra ha consistido en: limpiar las paredes y vaciar las juntas, rejunteo de las mismas con mortero de cal, y en algunos puntos de coronación labores de reconstrucción puntual para facilitar una correcta interpretación de los muros.

Todas las intervenciones, de diferente naturaleza, se han basado en el uso de materiales naturales y sostenibles, especialmente la madera como material conductor que se utiliza para diferentes soluciones. Maderas de tipo viga-traviesa como elemento principal de intervención en plataformas, paneles, peldaños, etc.

Vista de la batería fusilera Oeste y del sendero-peldaños de acceso al Castillo de Miravalles (Huarte/Uharte). A. Ormaza

AMAIURKO AZKEN GAZTELUA, AZKEN PORTUA ERAKUSTEKA (HONDARRIBIA, GIPUZKOA)

Arduradunak eta Babesleak: : Hondarribiko Udala, Arma Plaza Fundazioa, Amaiurko Gaztelua Elkartea eta Aranzadi Zientzia Elkartea



2024an, Hondarribiko hiribilduak Nafarroako Gerraren ondorioz jasan zuen setioaren 500. urteurrena ospatu zen. Hori dela eta, Hondarribiko eta Baztango udalek senidetzeko hainbat ekitaldi instituzional eta kultural antolatu zituzten urtean zehar. Amaiur Gazteluko Fundazioak eta Aranzadiko lan taldeak *"Azken gaztelua, azken portua"* izeneko erakusketa antolatu zuten. Horrez gain apirilak 27an Josu Narbarte, Arkeologia saileko ikerlariak, hiribildutik bisita bat gidatu zuen.

Euskal Herriko Unibertsitateko Udako Euskal Ikastaroen programazioaren barnean uztailak 12an ikastaro bat antolatu zen. '1524-2024 Hondarribiko setioa, 500 urte" lelopean, Eneko Etxeberria zuzendaritzapean, eta bertan Aitor Pescador, Andoni Esparza eta Iñaki Garrido ikerlariek hitzaldiak eman zituzten. Ikastaroan bertako Paradorean ospatu zen eta jende aunitz elkartu zen.

Ekitaldi instituzionala Hondarribiko gazteluaren aurrealdean. J. Agirre

INFORME DE EVALUACION DEL PATRIMONIO CULTURAL DEL TRAZADO DE LA CARRETERA BI-734 EN LA VARIANTE DE LAS CARRERAS (ABANTO-ZIERBENA, BIZKAIA)

Dirección: Alfredo Moraza Barea, Gorka Martin Etxebarri, Miren Garcia Dalmau y Jesus Angel Arrate Jorrin
Promotor: Dair. Engineering Intelligent Ways y Diputacion Foral de Bizkaia

La redacción del Informe de Evaluación del Patrimonio Cultural del Trazado de la Variante de la Carretera BI-734 (P.K. 128+400 y P.K. 103+500) se ha redactado con objeto de determinar el posible impacto que las obras derivadas de ese proyecto pudieran tener sobre el Patrimonio Cultural de ese referido entorno. El trazado consensuado discurre al N de la población de Las Carreras, con un desarrollo longitudinal de unos 1.758 metros aproximadamente, contemplando varias obras de infraestructura (dos rotondas, un viaducto y un falso-túnel entre otras).

Plano de localización de los principales elementos relacionados con la Batalla de Somorrostro en el trazado de la Variante de Las Carrera (Abanto-Zierbena). J. Agirre

Un espacio situado en pleno escenario de la conocida como Batalla de Somorrostro, uno de los enfrentamientos más conocidos de la Segunda Guerra Carlista (1872-1876). Debiendo de evaluarse el posible impacto que ese trazado pudiera tener sobre ese concreto entorno. Teniendo en cuenta las características del paraje por donde debía discurrir este vial se planteó, de acuerdo con los Promotores y la Diputación Foral de Bizkaia, un plan de trabajo conformado por una serie de actuaciones complementarias entre si:

Ejecución de un **Estudio histórico-arqueológico del entorno** afectado por el trazado de la Variante. Este entorno fue el escenario de una serie de encarnizados enfrentamientos armados entre las fuerzas gubernamentales y carlistas entre febrero y abril de 1874 conocido como la Batalla(s) de Somorrostro.

Realizar una Intervención arqueológica mediante una **Prospección geomagnética mediante detectores de metales** del trazado y sus aledaños. Un iinstrumento de trabajo muy útil para contextos similares relacionados con la Arqueología del conflicto (campos de batalla, campamentos de tropas o campos de prisioneros), tal y como ocurre en la presente Batalla de Somorrostro. Ofreciendo la labor desarrollada una visión muy detallada y adecuada del espacio de trabajo afectado por el trazado.

Prospección visual del trazado y su banda de influencia con una revisión pormenorizada del terreno destinada a localizar, evaluar y proteger la presencia de construcciones asociadas a este enfrentamiento que pudieren verse afectadas por el proceso de obra, o que presentaren algún tipo interés desde el punto de vista patrimonial.

Los combates conocidos globalmente como la Batalla de Somorrostro, son de de una manera muy sintética, el titánico esfuerzo protagonizado por el Ejército gubernamental por levantar el asedio y bombardeo al que las tropas carlistas estaban sometiendo a la villa de Bilbao desde diciembre de 1873. Un esfuerzo que se plasmó en la concentración, en este hasta entonces apacible Valle, de un importante volumen de efectivos (más de 50.000) con su correspondiente infraestructura bélica y pertrechos, así como la construcción de un número importante de defensas (trincheras, posiciones de artillería, hospitales, etc.). Un enfrentamiento que fue considerado como una de las más largas y sangrientes del conflicto, ya que supuso la muerte de varios centenares de soldados de ambos bandos (millares según las fuentes). Si bien, desde el punto de vista geoestratégico no tuvieron apenas relevancia puesto que tras la retirada del Ejército carlista (no fue derrotado) las posiciones de los contendientes volvieron a su estado casi inicial y Bilbao siguió casi completamente cercado y bombardeado por el enemigo hasta el final del conflicto.

La Batalla se desarrolló básicamente en tres grandes choques los días 24 y 25 de febrero (1ª Batalla), entre el 25 y 27 de marzo (2ª) y entre el 28 de abril y 2 de mayo de 1874 (3ª). Choques éstos en los que las tropas gubernamentales fueron ganando pequeñas parcelas de terreno a costa de grandes bajas, estrellándose de una manera humillante contra las defensas carlistas a pesar de superarles ampliamente en número de efectivos y armamento. Los periodos entre batalla y batalla los contendientes se dedicaron a bombardear sistemáticamente las posiciones enemigas y en paralelo a mejorar sus respectivas defensas.

En lo que se refiere al aspecto de la prospección física del terreno hay

que señalar que el área de trabajo se ha dividido metodológicamente en cuatro sectores o zonas individualizadas, habiendo podido obtener unos resultados muy similares y casi coincidentes en ellos, tanto a través de la Prospección visual como en la Prospección geomagnética. Las principales evidencias constructivas y materiales se han concentrado especialmente en los definidos como Sectores II y III (especialmente en el primero). Los otros dos sectores (I y IV), dispuestos en ambos extremos del Trazado, se corresponden con áreas que podemos considerar como marginales dentro del desarrollo de los combates.

La afección directa sobre construcciones asociadas a este enfrentamiento (trincheras, emplazamientos artilleros, etc.) dentro de esos dos señalados sectores principales (II y III) es muy reducida en líneas generales. La única excepción la podríamos tener en la presencia de al menos dos supuestos emplazamientos artilleros, dispuestos a media ladera, justo enfrente de las posiciones enemigas (carlistas) de El Montaño. Son estructuras de una gran fragilidad y escasa relevancia constructiva (construidos como túmulos de tierra y protegidos con fajinas de ramas) que presentan un estado de conservación muy deficiente. A estos elementos se une además la localización de una clara trinchera o línea de fortificación, dispuesta en paralelo al trazado del collado. Esta fue excavada en la ladera presentando unos 60 m de longitud (cortada en sus extremos por varias infraestructuras contemporáneas de agua y gas) y con escasamente 1,50-1,70 de anchura, y desde la cual se controlaba el posible acceso de los enemigos desde el Valle de Muskiz.

Trinchera empleada por las fuerzas carlista localizada en la Variante de Las Carrera (Abanto-Zierbena). A. Moraza

Una situación más compleja se plantea en el collado que se abre entre Las Carreras y Murrietabekoa y se prolonga hasta las laderas de la colina de San Pedro, donde actualmente se disponen el campo de fútbol de El Mortuero. Esta área, tradicionalmente, se ha considerado como un punto esencial dentro del desarrollo del relato de la Batalla de Somorrostro, por su supuesta relación con las áreas de enterramiento de las decenas de soldados de ambos bandos que fueron apresuradamente inhumados en la zona. Los datos históricos, ya referidos anteriormente, reiteran esta tradición oral, si bien los mismos son parcos en referencias sobre la ubicación de estas posibles fosas comunes (aluden genéricamente a las campas o prados situados en el entorno de Murrietabekoa y la colina de San Pedro).

Restos de un proyectil de artillería con envuelta de plomo localizado en la Variante de Las Carrera (Abanto-Zierbena), y proyectiles de tipo Remington y 50-70 Benet impactados resuperados en la Variante de Las Carrera (Abanto-Zierbena). A. Moraza

La cultura material recuperada en este Trazado ha sido globalmente bastante pobre, quedando reducida a sólo 28 piezas. De ellas 25 se pueden asociar directamente al contexto bélico que nos ocupa, las Batallas de Somorrostro (casi un 90%), en diferentes facetas. El resto podemos considerarlo como "basura moderna", si bien existe una cierta duda sobre un pequeño botón localizado. Entre esos materiales se pueden distinguir varios subgrupos:

- Actividad artillera con 2 piezas (7,14%). En ambos casos se relacionan con restos de proyectiles característicos de la artillería utilizada por las tropas del Gobierno, y con las cuales castigaron intensamente las posiciones carlistas durante todo el transcurso de la Batalla.
- Munición militar con 22 elementos (89,20%). Se ha podido localizar principalmente proyectiles (20) y vainas (2), pero ningún cartucho completo. Munición que presenta una gran variedad de tipos (tipo Remington 7 ejemplares, tipo 50-70 Benet con 4 ejemplares, tipo Berdan 1 ejemplar y tipo Lefaucheux 1 ejemplar y otros varios -6- sin identificar), relacionados todos ellos precisamente con la gran multiplicidad de fusiles empleados por los contendientes
- Hallazgos numismáticos con 1 ejemplar (3,58%). Se corresponde con una moneda 5 céntimos acuñada por el Gobierno Provisional (1868-1871).

El material es su conjunto presenta una clara relación con el desarrollo de los combates, destacando la concentración registrada en las proximidades del actual depósito de aguas. A ello se une que la mayor parte presenten claros indicios de su disparo o deformados por su impacto. Resultando curiosa la total ausencia de materiales relacionados con la vestimenta o el ajuar personal de esos soldados.

TELEÑETA EREMUAREN ONDARE-EBALUAZIOAREN TXOSTENA

(Azkoitia, Gipuzkoa)
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea
Sustatzailea: Azkoitiko Udala

Mendi-hegalaren ebaketaren ikuspegia Teleñetan (Azkoitia). A. Moraza

Azkoitiko Udalak eskatuta, Teleñeta izeneko parajea aztertu da, Altamira auzotik gertu, interes arkeologikoa izan zezaketen eta inguru horretan egiten ari diren obren prozesuaren eragina jasan zezaketen ebidentzia batzuk zeudela ikusita.

Zehazki, mendi-mazela moztean, lurrean induskatutako 2-2,50 metroko altuera eta 6 metroko zabalera izan zezakeen depositu baten hondakinak identifikatu ahal izan ziren. Inguruan, artisau-ekoizpeneko teila eta zeramikazko adreilu txintxor ugari berreskuratu ahal izan ziren, baita galdaketaren zepa zati txikiak ere.

Hondakin horien ezaugarriak eta datu historikoak kontuan hartuta, eraikuntza tradizionaleko zeramikazko materialak egosteko antzinako teileria edo labe batekin lotutako aztarna batzuen aurrean gaude. XVIII. mendearen hasieratik XIX. mendera arte aktibo egon zen ekoizpen-zentroa.

UBIDE ERROTA BASERRIAREN ONDARE-EBALUAZIOAREN TXOSTENA

(Getaria, Gipuzkoa)
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea eta Miren Garcia Dalmau
Sustatzailea: Mattin Epelde Pagola

Ubide Errota baserriaren Ebaluazio Txostena baserriaren inguruan egingo diren obrengatik idatzi da. Proiektua bi esku-hartze konkretuetara bideratuta dator:

- errepidera sarbide berria egokitzea eta aparkatzeko eremu berri bat sortzea.
- errepidearekiko babes hesia osatzea.

Planteatutako obrak ez dute inolako eraginik baserri/errota honen ondare balioan. Obra hauek harkaitz geologikoan soilik eragiten dute.

Ubide Errota ondoko aparkaleku berriaren kokapenaren ikuspegia (Getaria). A. Moraza

EREÑOTZUKO (HERNANI, GIPUZKOA) INDUSTRIA-MULTZOAREN ONDARE-BALORAZIOAREN TXOSTENA

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea eta Miren Garcia Dalmau
Sustatzailea: Hernaniko Udala

Ereñotzuko industria-multzoa Hernaniko Hegoaldean dago, izen bereko auzoaren inguruan. Multzo hori, elkarren artean lotura duten ondare-intereseko elementu desberdinek osatzen dute (Ereñotzuko burdinola eta errota, Bazterrolako burdinola, Ereñotzuko Zentral Hidroelektrikoa, Lonja Etxea, Zubia eta Txilibitako Oinetxea). Txostena Hernaniko Udalak eskatuta idatzi da. Helburua da multzoa osatzen duten elementuen kontserbazio egoera erregistratzea, elementu horien garrantzia zehaztea eta etorkizuneko jarduketa jarraibideak ezartzea.

Elementu horien artean bereziki aipatu daitezke **BURDINOLA ETA ERROTArekin** lotutako aztarnak. Eremuak oinplano ia karratua du (18x20 m), eta jatorrian barrualdetik gutxienez lau gelatan banatuta zegoen, denak neurri desberdinetakoak. Harri-hormaz eginak daude eta garaiera desberdinak dituzte, handiena 6 m-takoa izanik. Barrualdea zeharo utzita dago, txabola modukoak eraiki dituztelarik, nahiz eta orain dela 30 urte arte korta bezala erabili izan den. Egun, ia ezkutuan gelditzen dira landarediagatik, ezin direlarik baoak edo eraikuntza fase desberdinak bereizi.

ZENTRAL HIDROELEKTRIKOA aurreko eraikuntzen Mendebaldean kokatzen da, irin-errota zaharraren zati handi bat hartuz. Instalazio hauek orain dela urte gutxi arte martxan egon dira. Ibaiatik gertuago dagoena makina-gela zen, laukizuzenformako oinplanoarekin (9x11 m). Eraikina hormigoizko hormekin egina dago. Barrualdetik bi gelatan banatuta dago. Txikiena bolanteak eta turbinen erreguladoreak kontrolatzeko erabiltzen zen, gaur egun obra-hondakinez beteta dago. Bigarren gelan *Theodor Bell & C^ie* etxeko ardatz horizontaleko bi turbina daude, baina gaur egun ezin da gelan sartu dagoen landaredia dela eta. Ardatz

Ereñotzuko (Hernani) Multzo nagusiaren aireko ikuspegia (burdinola, errota eta zentrala) (2009). ARANZADI

bakoitzaren muturrean gurpil handi bat dago uhal-sistema baten bitartez bi alternadoreetara errotazio-higidura transferitzen duena, eta biak *Baden Brown Boveri & C^ie Suisse* etxeak eginikoak dira (1902 aldera). Eremuaren atzeko aldean kontrol-mahaia kokatzen zen, motibo geometrikoz apaindurik zegoen egurrezko altzari batean. Aginteak marmolezko plaka batean jarrita zeuden, eroalea ez delako, erreguladoreak eta kontrol piezak mantenduz. Goiko aldean "*1900 Electro Ereñozu*" lema azaltzen da. Errepidetik gertuago dagoen eraikina Zentraleko arduradunaren etxea eta biltegia zen, eta hasiera batean lurrun-makinak ere bertan zeuden. Gaur egunean aurri egoeran aurkitzen da, teilatua erdi eroriarekin. Eraikinaren sarreran, goiko aldean, zeramikazko plaka bat du jartzen duena: "*Central Hidroelectrica de Renteria, S.A.*".

Makina-etxearen inguruan, 1988an, elektrizitatea sortzeko instalazio berri bat eraiki zen, turbina eta alternadore berri bat egokituz. Gaur egun funtzionamendutik kanpo dauden instalazioak dira hauek ere.

Multzo honen elikadura-sistema edo **KANALA,** komuna izan da leku hori historikoki okupatu duten instalazio desberdinetarako, eta ekoizpen beharraren arabera bakarrik eraldatu izan da. Ubide honen trazadura Urumearen eskuineko ertzetik doa. Ubide honek 552 metroko luzera du, eta bere trazaketa momentu ezberdinetan berriztatua izan da (lehenengo 300 metrotan harri-hormaz egina eta 4 metroko zabalerarekin eta gainontzekoan, lurrean egindako zanga batean sartuta doa, 7-9,50 metroko zabalerarekin).

Jatorrizko **PRESA**ren kokapena eta itxura zeharo desberdinak ziren. Urumea ibaiaren ibilguarekiko luzetara kokatuta zegoen, inguruan dauden bi uhartetxo natural txiki aprobetxatuz. Gutxi gorabehera gaur egungo presaren hasiera eta Latsako meandroaren ondoan dagoen ibai-muturraren ertzean, 200 metroko luzerarekin. Gaur egun, ezin da haren eraikuntza aztarnarik ikusi, baina, egungo presaren ur bilduaren azpian lurperatuta egon daiteke. Presa berria, XIX eta XX. mendeen artean eraikia izan zen, Arriurdinetako parajean. Urumearen ibilguarekiko zeharka jarrita

Ereñotzuko (Hernani) burdinolaren ikuspegia (1981), lehen planoan zubiaren arrastoak. Goian, presaren zehaztasuna eraikitzeko proiektuan (1895)
Hernaniko Udala, Confederacion Hidrográfica del Cantabrico

eta ez luzetara, aurrekoa bezala, baina bere eskuineko zubi-branka presa zaharrarekin bat dator. Presa berriak 68 metroko luzera du, oinarrian 3 metroko zabalerarekin, goiko aldean 1,5 eta 5,50 metroko garaiera. Harri-hormaz egina, bi uhate ditu, bat hustuketarako, ibaira doan hustubidearekin, eta bestea ubiderako sarrera, duela gutxi berritutako garbiketa sareto eta guzti. Azken uhate hau 1930ean handitua izan zen, zabalera gehiago emanez. Halaber, ingurua birmoldatu zen uhateen aldean harri-hormazko hormak eta teilatua egurrezko egiturarekin duen etxola bat jarriz, non irekitze eta itxiera mekanismoak berrituak aurkitzen diren, baina gurpil eta biradera zaharrak mantentzen dituen.

Ereñotzuko industria-multzoaren lehenengo datuak XV. mende erdialdekoak dira, *"la ferreria d'Ereñoçu"* aipatzen denean Araeta familia garrantzitsuari lotuta (ondoren abizena aldatu eta orubearen kokapenaren izena jarri zuten, harrezkero Ereñotzu abizena hartuz). Burdina ekoizteak eta merkaturatzeak onura ekonomiko handiak ekarri zituen, eta, ondorioz, jabeek instalazioak handitu zituzten, eta XVI. mendearen hasieran beste bi burdinola eraiki zituzten inguru horretan (1520 eta 1533 artean). Bat jatorrizkoaren ondoan kokatu zen (*Ferrería menor*, *"de medio"* edo *Chabi*), eta bestea bazterraren ezkerraldean (Bazterrolakoa). Biak zubi baten bitartez elkar lotzen ziren.

Burdinola honek XIX. mendera arte lana egin zuen, azken urteetan kobrea landuz bi gurpil eta turbina batekin (1862). Bigarren Karlistadarekin (1872-1876) instalazioak oso kaltetuak suertatu ziren, eta ez ziren berriro martxan jarri. Errota, bestalde, instalazio txikiagoa zen eta urtean sei hilabete egiten zuen lan, arto irina ehotzeko errotarri pare batekin soilik. Martxan jarraitu zuen 1897ra arte, Zentral Hidroelektrikoak bere instalazioak hartu zituenean.

Azken ekoizpen fasea egungo Zentral Hidroelektrikoarekin lotzen

Ereñotzuko (Hernani) indarretxearen Makina-etxea barrutik 1941 inguruan. Eskuinean, Kontrol-mahaiaren armairuko ikuspegia. Errenteriko Udal Artxiboa, A. Moraza

da. Egitasmoa, Alberto Larralde enpresari lapurtarrak aurkeztu zuen XIX. mendearen bukaeran, industria erabilerarako energia elektrikoa ekoizteko. Instalazioak 1897an martxan jarri ziren (*"Viuda de Larralde y Cª"* enpresaren izenpean), energia elektrikoa eman zien bezero desberdinei. Horien artean Errenteriako Udala, zeinekin 1905ean lehenengo kontratu bat ezarri zuen, gorabeherak medio, berritzen jarraitu zena. 1923an Errenteriako Udalak erosi zuen, instalazio eta makineriarekin. Instalazio desberdinak berritu eta ekoizpena mantentzen saiatu zen. Azkenik, Zentrala 1974ko martxoan ibiltzeaz utzi zuen, mantenuaren kostu handiagatik. Urteetan zehar utzita egon ondoren, *Ente Vasco de la Energía*-k (EVE) eta Errenteriako Udalak, 1988. urtean, martxan jarri zuten berriro ere, makina-etxe zaharraren ondoan zegoen eremu batean makineria berria egokituz. Erabilerarik gabe gelditu ziren instalazio zaharrak, 2011n Hernaniko Udalari utzi zizkieten, epe baterako, makina-etxean eta etxebizitzan publikora zabaldutako interpretazio-gune bat jartzeko asmoz.

Ondorioz, Ereñotzuko multzoa Lurraldeko industria gune interesgarrienetako bat da, hainbat irizpidetan oinarrituta:

Urumea Bailarako eta Lurraldeko gunerik zaharrenetako bat da, 500 urtetik gorako jarduera ia jarraitua duena bere ekoizpen alderdi guztietan (hainbat burdinola, errota, zentral hidroelektrikoa, zerrategia, etab.).

Baliabide hidraulikoak energia-iturri gisa aprobetxatzeko multzo oso uniformea eta eredugarria osatzen du, eta hura osatzen zuten elementuak kontserbatu ahal izan ditu (presa, hornidura-kanala, ekoizpen-instalazio desberdinak, …).

Oro har, kontserbazioa egoera ona du, nahiz eta zenbait eraikin egoera txarrean eta erortzeko zorian dauden, bere irudi orokorra hondatuz.

Elementu desberdinen artean, Zentral Hidroelektrikoaren barruan kontserbatutako makineria nabarmentzen da bereziki (turbinak, alternadoreak, kontrol-mahaia). Mota horretako ekoizpen-instalazio multzo aparta da, jatorrizko makineriaren zati handi bat ia osorik kontserbatu ahal izan delako, aldaketa nabarmenik gabe (ia ez dago horrelakorik Lurralde osoan).

LAPAZA ETXEAREN (KORREO KALEA 27) ONDARE-EBALUAZIOAREN TXOSTENA (TOLOSA, GIPUZKOA)

Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea eta Miren Garcia Dalmau
Sustatzaileak: Iban Bengoa eta Aitziber Iguaran

Lapaza Etxea (Korreo kalea, 17) bezala ezagututakoa Korreo eta Letxuga kaleen arteko elkargunean dago, Tolosako Hirigune Historikoan. Beheko solairua, hiru solairu eta ganbara dituen eraikina da, 110 m^2 eskaseko azalerarekin. Irudia oso uniformea du, eta alde nabarmena beheko eta lehen solairuen (kalitate handiko kareharrizko harlanduzko fabrika) eta goiko bien (zurezko bilbadura eta adreiluzko itxitura) artean.

Eraikinean, barrualdea eraberritzeko eta berregokitzeko obrak egingo dira (igogailua, eskailera eraberritzea, etab.). Hori dela eta, Ondarearen Ebaluazioari buruzko Txostena egin zen, obra horiei aurre egiteko irizpide nahikoak izateko.

Eraikinaren egungo traza gutxi gorabehera XVII. mendearen hasieran familia amezketarraren kide batek egindako obra bat da, haren izena egokituz. Hiriko eliteen eraikin bereizgarri bihurtu zen, erakusleiho handi gisa. Herria sortu zenetik, puntu horretan aurretik egon diren beste bi edo hiru etxeren oinplanoaren gainean eraiki zen eraikina. Oro har, denborak aurrera egin ahala aldaketa handirik gabe mantendu den irudia (beheko solairuan merkataritza bao handiak ireki direlako izan ezik).



Lapaza Etxeko (Tolosa) teilatupeko egituraren ebaketa, eta mihiztadura baten xehetasuna 📷 M. Garcia; A. Moraza

PROYECTO DE ESTUDIO HISTÓRICO SOBRE LAS CASAS DEL VALLE DE LARRAUN (NAFARROA) (EDAD MEDIA–SIGLO XIX)

Responsables: Aitor Pescador Medrano
Colaboradores: Inmaculada Etxarri Sucunza, Belén Balenciaga Erro, Ondare Kultur Taldea
Financiación: Ayuntamiento de Larraun

El Proyecto de "Estudio histórico sobre las casas del valle de Larraun (Edad Media–siglo XIX)" es una continuación del que en su día se hizo para la localidad de Lekunberri. Tras mantener varias reuniones con la alcaldía se aprobó realizar una investigación histórica sobre los 17 pueblos y casas del valle de Larraun que debía ser realizada en dos fases (años 2024 y 2025).

En esta primera fase de 2024 se ha realizado un vaciado completo de toda la documentación medieval y moderna relativa al Valle y sus casas gracias, sobre todo, a la documentación existente en el Archivo General de Navarra, dado que en el Valle la documentación conservada es en su mayoría contemporánea. En cuanto a la historia medieval, se han trabajado los Libros de Fuegos, los Registros de Comptos y la documentación suelta, obteniendo un perfilado bastante claro de la evolución histórica y demográfica de las distintas localidades que componen el valle. En este ámbito se han trabajado determinados aspectos como la configuración de Larraun para la época medieval, la estructura de sus localidades, problemáticas existentes (guerras, asaltos, peste, etc.), privilegios (concesiones a los pueblos), etc. Un elemento diferenciador que se ha tenido en cuenta es la existencia de un señorío con su palacio de Cabo de Armería perteneciente a la casa de Eraso. Sobre este señorío se ha hecho un seguimiento documental a petición del Ayuntamiento que arranca en la Edad Media, pero que alcanza hasta los siglos modernos.

Para la Edad Moderna se ha realizado un vaciado de todos los procesos judiciales existentes en el AGN, tanto los derivados de las propias localidades como los de los particulares y los de las casas existentes a lo largo del tiempo. Esta información ha permitido reconocer un buen número de propietarios de casas desde el siglo XVI hasta comienzos del XIX. De igual manera se ha consultado el inventario del Archivo Diocesano de Pamplona, obteniendo de nuevo interesantes resultados. Para esta fase también se han ido recopilando todos los aportes obtenidos en los Libros de Fuegos de siglo XVI, los apeos de las centurias XVII-XVIII y los censos del XIX. En cuanto a la sección de Protocolos Notariales, se ha realizado una cata documental dado el elevadísimo número de documentos existentes. Por otro lado, parte del tiempo se ha focalizado en algunas investigaciones que se han solicitado de manera explícita por parte de las autoridades locales. En especial se ha pedido que se haga una búsqueda detallada de los procesos por brujería en los que aparezcan vecinas y vecinos del valle. De igual manera se ha llevado a cabo una cata documental en torno a la relación histórica existente entre la sierra de Aralar (montes, pastos, ganado, religión, etc.) y Larraun.



Belén Balenciaga, Inma Etxarri, Aitor Pescador y Aitor Pérez Mangado, junto a la casa de Alkatenea. Abajo, declaración del notario Pedro de Santander en la que advierte que preguntó a los testigos en vascuence (1552) Diuario de Navarra, Aranzadi

El resultado de toda la investigación ha sido un completo documento que se entregará al Ayuntamiento de Larraun durante este año. También se ha llevado a cabo una exitosa presentación de los resultados obtenidos a fines de noviembre de 2024 para conseguir así la colaboración de la gente (aporte de documentos particulares, historias personales, etc.). Una vez obtenida una base documenta de más de 2.000 páginas comienza ahora el período de redacción (fase 2) para una posterior publicación que se encargará de editar el Ayuntamiento de Larraun tanto en euskara como en castellano.

OSIÑAGAKO (HERNANI, GIPUZKOA) INDUSTRIA MULTZOAREN ONDARE-BALORAZIOAREN TXOSTENA
Zuzendaritza: Alfredo Moraza Barea eta Miren Garcia Dalmau
Sustatzailea: Hernaniko Udala

Hernaniko Udalak eskatuta idatzi da Osiñagako industria-multzoaren ondare ebaluazioari buruzko txosten hau, elementu honen garrantzia zehazteko. Multzoa izen bera daraman auzoan kokatzen da, herrigunearen hegoaldean. Multzoa Osinaga, Osiñagako errekaren (Otsueneako erreka edo Errotaran erreka ere esaten zaio) eta Urumea ibaiaren arteko bidegurutzean dago. Multzoa jatorri industrialeko hainbat eraikinek osatzen dute (Osinagako Errota, Osinagako Zentral Hidroelektrikoa eta Errotarango Burdinola), baina lanak Osinagako Errotan zentratuko dira eta haren elementuak diren Presa, Kanala eta Errotan.

Presa Otsueneko errekaren ibilguaren zeharka dago, Errotaranbekoa baserriaren aurrien parean, bertako meandro bat aprobetxatuz. Grabitate zuzeneko presa da, sekzio angeluzuzeneko profila du, eta harkaitz-azaleratze naturalaren gainean zurkaizten da zuzenean. 16,90 m-ko luzera du (betelanek partzialki ezkutatzen dute eskuineko muturra), 1-1,10 m-ko altuera gutxi gorabehera, eta ia I-H orientazioa. Harlangaitz-horma oso irregularrez egina dago, junturak partzialki zementuz entokatuta. Horma horrek 1,10-1,20 metroko zabalera du.

Horma horren erdialdean, gutxi gorabehera, forma irregularreko zulo bat dago (50 cm-ko zabalera du ibaian gora eta 65 cm-koa ibaian behera), eta erabat ebakitzen du. Hutsune horretan, jatorrizko hustubide metalikoa dago gaituta, jatorrizko erregulazio- eta garbiketa-sistema errazteko.

Presaren goiko koroa edo errematea hareharrizko lauza handi batzuek osatzen dute, eta zakarki landuta daude. Lauza horiek 80 eta 160 cm arteko luzera dute, eta 40 eta 95 cm arteko zabalera, lodiera handiarekin (15 eta 20 cm artekoa). Junturak elkarren artean zementuz zigilatuta daude. Presaren hormaren gainean daude, plano horizontalean, ibaian behera nabarmen irteten direlarik (10-30 cm inguru). Hori dela eta, ur-jauziaren efektu bitxi bat sortzen dute, ura haien gainetik igarotzen baita. Uraren erorketa hormaren zimenduetatik urruntzea zen helburua, zulatzea saihestuz. Ez da ikusten goragunerik edo antzekorik biltegiratze-emaria handitzeko.

Ur-hargunea ezkerraldean dago, presaren ondoan. Forma kubiko luzangako eraikin batek osatzen du, eta ibaian gora ezponda du aurrealdean. Hargune hori zementuz egina dago. 3,30x1,35 m-ko neurriak ditu (1,60 oinarrian) eta 70 cm-ko altuera erregistratua, baina ezin da guztizko altuera zehaztu, eremua lohiez eta harriz beteta dagoelako. Goiko aldean azal laua du, eta haren ipar-mendebaldeko muturrean (alboko hormatik 60 cm-ra) zementuzko tapa karratu batez estalitako erregistro bat dago (ura pasatzeko erregulazio-giltza). Aurrealdean, ibaian gora, metalezko sareta dago.

Aipatutako ur-hartunean abiatzen zen desbideratze-kanala, errekaren ezkerraldean. Kanal horrek 556 m-ko luzera du guztira, eta lehen 65 metroak lurpekoak dira, proportzio ezezaguneko tunel baten bidez. Gainerako kanala aire zabalean egiten da, lurrean zulatutako zangaren bidez. Zanga horrek sekzio angeluzuzen oso erregularra du (1,50 m-ko zabalera eta 0,70 m-ko altuera), alboak eta oinarria harlangaitz-horma batez forratuta eta zementuz entokatuta. Gaur egun, ubide hori trazaduraren zati handi batean jarrai daiteke, baina barrualdea hondakinez beteta dago eta ia erabat ezkutatuta dago landarediagatik.

Ubide horren amaieran, antepara edo erregulazio-depositua irekitzen da, haren luzapen gisa, egungo Presagain baserriaren azpian. Oinplano triangeluar irregularra du, gutxi gorabehera, 30x16 metrokoa eta 4 metro inguruko altuerakoa. Harlangaitz-horma arrunta batez eta



Osinagako (Hernani) multzoaren presaren oinplanoa eta ondoko irudian, presaren gainaldearen ikuspegia M. Garcia

Osinagako (Hernani) presaren aurrealdea ur behera eta errotaren hustubidearen argazkia (1994). M. Garcia, Hernaniko Udal Artxiboa

eskantzuetan kateatutako hareharrizko harlanduz egina dago, zementuz entokatuta. Barnealdea, gaur egun, higakinez beteta dago eta landaretzak ezkutatzen du.

En el lecho 5 se ha visto la necesidad de regularizar el sondeo inicial (de 50 X 50 cm), que se ha transformado en uno de 50 (X) X 60 (Y) cm. El sedimento tiene las mismas características del 4 y se han hallado en él numerosos fragmentos de carbones, huesos, trozos de concha, y fragmentos de un fino recipiente de vidrio que se han entregado para su restauración en Gordailu. Además, se han hallado fragmentos óseos.

En el lecho 6 se continúa trabajando en el sedimento arcilloso, si bien se aprecian fragmentos de concreción de distintas dimensiones y se han recogido algunos fragmentos óseos -*Ovis/Capra* -, unas pocas esquirlas quemadas, y un fragmento de cerámica -¿peinada?-. Aparece por todo el sondeo una nueva capa de concreción aparentemente homogénea. En total se han rebajado en 29Q unos 25 cm.

KOSKOBILO INGURUKO IKERKETA ARKEOLOGIKOA (OLAZTI, NAFARROA). IV. EKINALDIA

Arduradunak: Daniel Ruiz-Gonzalez eta Mattin Aiestaran
Finantzazioa: Olaztiko Udala, Nafarroako Gobernua eta Aranzadi Zientzia Elkartea
Laguntzaileak: Blanca Ochoa-Fraile eta Olaia Granizo

Koskobilo erreferentziazko izena dugu Nafarroako eta Euskal Herriko historiaurrean. 1940an, izen bereko harrobiaren ustiaketa lanen bitartean, Kuaternario garaiko aztarna arkeologiko eta paleontologiko aberatsak argitara atera ziren. Aztarnategia Nafarroa mailako Pleistozenoko aztarnategi paleontologiko zahar eta garrantzitsuenetako bat izateaz gain, Historiaurreko giza-okupazio desberdinak dauzka, Urbasako suharri azaleratzeekin estuki lotuak. Aranzadi Zientzia Elkarteak 2019tik gaur egunera bitartean martxan jarritako proiektuaren baitan Erdi Paleolitotik Neolitora bitarteko aztarna arkeologikoak topatu dira.

2024ko V. ekinaldi honetan eginiko lanetan bi aktuazio-gune nagusi izan ditugu: Koskobilo II kobazuloa eta Koskobiloko ingurua.

Koskobilo II: 2020ko interbentzioa hastean kobazuloa ia guztiz sedimentuz betea bazegoen, urterik urte barrualdera sartzen joateko indusketa azalera zabaltzen joan gara, hasierako 3 m^2-etatik gaur egungo 19 m^2-etara, bi sektoreetan banatuak (kobazulo sarrerakoa eta plataforma azpikoa). Alde batetik, kobazulo ahoko sektorean eginiko lane-

Koskobilo II kobazuloan 2024ko ekinaldiko indusketa-sektoreak: Goian: Kobazuloaren ahoko sektorea; Behean: Plataforma azpiko sektorea.. Dani Ruiz

«Koskobiloko eta Olaztiko Historiaurreko okupazio garai desberdinen identifikazio eta ezaugarritze lanetan erabakigarriak diren aurkikuntzak egin dira, zeinek urterik urte lurraldeko giza-populatzearen eboluzioaren ezagutza osatzen laguntzen duten»

Goian, Lanean Koskobilo II kobazuloan 2024ko ekinaldian. Behean, Olaztiko jaietan umeei zuzendutako Historiaurreko ginkana, 2024ko uztailaren 27an. 📷 Dani Ruiz

tan, behin Neolitoko giza-ehorzketa maila induskatuta, Koskobilon ezarri ziren garai desberdinetako ehiztari-biltzaileen aztarnak berreskuratzea ahalbidetu digu (IV. maila eta VI. maila), hots, Paleolito garaikoak (40.000-13.500 cal BP). Etorkizunean egingo diren materialen ikerketa sakonagoak eta C14 datazioek horien adskripzio krono-kulturala zehaztea posible egingo dute. Bestalde, plataforma azpiko sektorean bi maila arkeologiko desberdindu dira (II eta IIb mailak), material arkeologiko ugarirekin, bereziki harrizko industria eta ehizatutako animalien hezurrak. Harrizko industriaren ezaugarri tekno-tipologiko eta fauna-hezurren ezaugarriei erreparatuta, behin-behinean, Paleolitoaren Amaiera edo Epipaleolitoko maila giza-okupazioekin lotu daiteke (13.500-7.500 cal BP). Dena den, ikerketa xehatuen faltan ezin da gehiago zehaztu. Hortaz, bi sektore horietako Paleolitoko ehiztari-biltzaileen okupazioak ezaugarritzea izango da hurrengo ekinaldietako lehentasuna. Era berean, etorkizunean, estratigrafian sakondu ahala garai zaharragoetako okupazioak dokumentatu ahal izango dira.

Koskobilo harrobia eta inguruak: Inguruko ondare arkeologikoa balorean jarri eta babesteko helburuarekin aztarnategiaren inguruaren miaketekin jarraitu dugu beste kobazulo edo aztarna arkeologikoen bila. Lan horiei esker ezagutzen ez ziren hainbat kobazulo identifikatu eta sailkatu ditugu, hala nola arkeologikoki interesgarriak izan daitezkeen hainbat gune ere etorkizuneko ikerketen helburu izango direnak.

Laburtuz, 2024ko ekinaldia Koskobiloko ikerketa proiektuan beste mugarri bat izan da. Koskobiloko eta Olaztiko Historiaurreko okupazio garai desberdinen identifikazio eta ezaugarritze lanetan erabakigarriak diren aurkikuntzak egin dira, zeinek urterik urte lurraldeko giza-populatzearen eboluzioaren ezagutza osatzen laguntzen duten.

Azkenik, gure eskerrik beroenak adieraztea, bai lan-arkeologikoetan parte hartu duten bolondres guztiei eta baita Olaztiko udalari eta herritarrei gure lanekiko eta euren ondarearen babes eta zabaltzearekiko erakutsitako jakinmin, interes eta konpromezuagatik.

PROSPECCIÓN DE CUEVAS EN EL VALLE DEL ARAXES (ARAITZ-BETELU, NAVARRA)

Director: Jexux Tapia
Financiación: Financiación propia

En 2024 hemos continuado con la excavación del yacimiento paleolítico de Sagaskin 3 y se han explorado varias zonas del entorno.

En Sagaskin hemos iniciado la excavación del Nivel IV, formado por limos arenosos compactos de color amarillento, de textura similar al Nivel III pero con un contenido mayor en bloques y cantos de caliza. El contenido en clastos hace que algunos de los materiales se encuentren en posición hincada o inclinada, lo que de forma preliminar sugiere que se trata de una matriz pedregosa, de cierta porosidad, colmatada por los limos.

Hasta el momento sólo se han explorado los primeros 10cm del Nivel IV. Los materiales recuperados consisten únicamente en restos de fauna y no se han hallado carbones ni restos en sílex. Aunque la presencia de carnívoros es patente (cánidos, úrsidos y mustélidos), entre los restos faunísticos encontramos también fragmentos quemados y astillas con evidencias de fracturación por consumo humano.

Por lo tanto, el Nivel IV de Sagaskin también contiene ocupaciones paleolíticas, pero es necesario continuar la excavación para valorar su intensidad, cronología y características.

Excavación del Nivel IV de Sagaskin.
Jexux Tapia

Por otra parte, se han realizado prospecciones en la falda del monte Pagoeta, en la margen derecha del Araxes, y en el entorno de Txanpontxulo, donde se encuentran las cuevas de Urdanizeta 1-3 descritas por Galán y otros.

La cueva de Urdanizeta 1 o Txanpontxulo actúa como sumidero del arroyo del mismo nombre y no ha podido explorarse con detalle debido a las fuertes lluvias, mientras que Urdanizeta 2 y 3 se encuentran colmatadas de sedimentos y su exploración requiere desobstrucciones que se realizarán en próximas campañas. En la zona de Pagoeta, pese a tratarse de un entorno fuertemente lenarizado, de momento no se han encontrado cavidades.

HISTORIAURREKO MIAKETAK ITSASONDON (II EKINALDIA)

Zuzendariak: Amaia Arranz Otaegi eta Jon Aldaia Aierbe
Finantzazioa: Itsasondoko udala
Kolaboratzaileak: Aloña Aldasoro, Pako Barrio, Erramun Izagirre eta Andoni Mateos

AIZKOIA III:

Lehen ekinaldian Itsasondoko Aizkoia inguruan garatutako miaketen ondorioz hiru koba aztarnategi berri aurkitu genituen Murumendiko sortaldeko magalean. Hasiera baten aztarna arkeologiko interesgarrienak Aizkoia III moduan izendatu genuen kobak eman zituen. Bertan bi giza okupazio aurkitu genituen, Brontze Aroko ezkurrak txigortzeko erretegi bat eta Paleolitoko aldizkako kanpaleku bat. Beraz bigarren ekinaldi honetan bertan jarraitu ditugu lanak bi maila hauen informazio gehiago eskuratzeko asmoz. Hasierako zundaketaren inguruan beste lau metro koadro ireki ditugu eta Paleolitoko mailaraino iritsi gara. Brontze aroko mailan 1,5x1metroko erretegi obalatu haundi bat mugatu dugu indusketa eremuan, beste inolako aztarna arkeologikorik aurkitu gabe. Ondoren, Paleolitoko maila induskatu dugu. Aurten suharri aztarnak, fauna hezurrak eta sutondo txiki baten arrastoak aurkitu ditugu. Aurkikuntza hauek ikusita badirudi kobazuloa talde txikiek erabili zutela ehiza-leku moduan egonaldi la-



Indusketa lanak Aizkoia III koban. Ezkerreko irudian, Brontze aroko ezkur erretegia. Jon Aldaia

burretarako. Datazio berriei esker badakigu Azken Madeleine aldikoak direla okupazio hauek. Maila honen azpitik ere sakondu dugu, baina harrizko bloke haundi batekin topo egin dugu. Hurrengo ekinaldian indusketa eremuan sakontzen jarraitzea espero dugu Paleolitoko okupazio zaharragorik ote dagoen ikertzeko.

EXCAVACIÓN DEL DOLMEN DE ATXOLIN (SORALUZE-ELGOIBAR)

Director: Jexux Tapia

Financiación: Debegesa, Diputación Foral de Gipuzkoa

Colaboradores: Euken Alonso, Manu Ceberio, Txuma Costas, Ramón Gallastegi, Mikel Izagirre, Pako Barrio, Izaskun Egilegor

El dolmen se encuentra encajado entre las peñas de la cima del monte Atxolin, a 845 metros de altitud. Se trata de un túmulo de 7m de diámetro y 0,8m de altura máxima construido con basaltos del terreno, que en 1921 conservaba en su centro una losa enhiesta en su interior y fragmentos de otras cuatro dispersas sobre la superficie. Fue descubierto por J.M. de Barandiaran en 1921 y excavado ese mismo año por T. de Aranzadi, J.M. de Barandiaran y E. Eguren, pero no se han realizado nuevas intervenciones desde entonces.

La intervención arqueológica ha consistido en la excavación del cráter y de la masa tumular en todo su perímetro,.con una superficie de más de 50m cuadrados que abarca la práctica totalidad del monumento.



Vista cenital del dolmen de Atxolin. Euken Alonso

Como resultado de la excavación se ha podido determinar el emplazamiento original de la única losa conservada, pero también se han determinado las dimensiones y orientación de toda la cámara funeraria al identificar claramente los límites de la masa tumular que la envolvía.

Lamentablemente, no se han podido recuperar muestras de sedimento para dataciones y los restos arqueológicos son muy escasos, pero sus características permiten apuntar una edad neolítica para el dolmen de Atxolin.

RESTUARACIÓN DEL DOLMEN DE IDOIA O "IRUIYA" (SORALUZE)

Responsable: Jexux Tapia
Financiación: Debegesa, Diputación Foral de Gipuzkoa
Colaboradores: Euken Alonso, Anartz Ormaza, Giorgio Studer

La restauración de Idoia tiene por objetivo restituir la losa de cubierta, que se encontraba hundida en el interior del dolmen y que tuvo que ser retirada durante la excavación de 2023. La restitución se basa en los resultados de la excavación, que determinaron la existencia de restos de un ortostato *in situ* y de hoyos para el asiento de otros dos, además de límites netos de la masa tumular que permiten establecer la forma y dimensiones originales de la cámara funeraria. A partir de los datos y de la documentación registrada (modelos 3D, medidas y topografías de detalle) se ha llevado a cabo un estudio para evaluar los detalles técnicos de la restitución.

Tras valorar las distintas alternativas posibles se ha presentado un proyecto técnico de restauración que incluye un estudio detallado de las cargas y esfuerzos soportables por una estructura de sustentación metálica. Los cálculos y el estudio técnico se han llevado a cabo con la colaboración del arquitecto A. Ormaza (Aranzadi) y del ingeniero geomático E. Alonso (Aranzadi), de forma coordinada con G. Studer, restaurador de Gordailua.

Sin embargo, la Dirección General de Cultura de la Diputación ha optado por un modelo de reconstrucción distinto, lo que requiere nuevos trabajos de documentación, de cálculo y de diseño de la estructura metálica, e implica nuevos procedimientos de montaje. Dada la complejidad de la nueva propuesta, en esta campaña nos hemos centrado en realizar una la documentación fotogramétrica y en diseñar la estructura de soporte para la losa, cuyo montaje se realizará en la campaña siguiente.

Reconstrucción virtual del dolmen de Idoia.
Euken Alonso

PROSPECCIÓN ARQUEOLÓGICA DE CUEVAS DEL VALLE DE LARRAUN (NAVARRA)

Director: Jexux Tapia
Financiación: Financiación propia
Colaboradores: Ondare Kultur Taldea

Los trabajos de esta campaña se han visto obstaculizados por las condiciones meteorológicas y por diversos percances. Debido al mal tiempo, los retrasos en diversos compromisos profesionales asumidos por el director han obligado a posponer los trabajos de campo en Larraun hasta el mes de diciembre, momento en el que las condiciones meteorológicas han arreciado impidiendo realizar las prospecciones.

Por otra parte, uno de los miembros del equipo ha sufrido un percance que le ha incapacitado para realizar las exploraciones espeleológicas y las tareas logísticas habituales. Por ello solo se podido realizar una exploración en Iribas, en la que se ha localizado una pequeña trampa sumidero. La cavidad contiene únicamente restos de fauna actual y no ha sido posible aún realizar un levantamiento topográfico.

El resto de las prospecciones ha quedado detenido y se retomarán los trabajos en la campaña 2025.

SAGASTIETAKO LEPUA III TRIKUHARRIAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOA (EREÑOTZU, HERNANI)

Zuzendariak: Manu Ceberio eta Jexux Tapia

Finantzazioa: Ereñotzuko toki entitate txikia

2023an Igoin Akolako estazio megalitikoan dauden monumentu megalitikoen kokapena eta arkitektura ikertzeko proposamen bat aurkeztu genuen, monumentuen antolakuntza espazial eta kronologikoa ikertzeko asmoz.

Egitasmoa aurrera eramateko Sagastietako Lepua III monumentua ikertzeko proiektua aurkeztu genuen egituraren ezaugarriak hobeto zehazteko eta noizkoa den jakiteko asmoz.

Lehen fase batean, egituraren ezaugarri orokorrak behatzeko, ageriko egitura osoan lan egin da. Lana, hasiera batean, behatutako aztarnen gainean dagoen landaredia (101 UE) kentzea izan da. Ikertutako egituraren iparraldeko erdialdean landaredia harri pilaketa baten gainean dago (103 UE), baina, hegoaldean, landaredia lur-maila baten gainean dago (102 UE). Badirudi lur maila hori harrien pilaketaren gainean dagoela, baina ez da industu.

Arkeologia-lanak egiaztatu du sakonune irregular bat dagoela egituraren erdigunean, eta haren mugak zehazten saiatu gara. Barruko betelana (104 UE) ez da industu, 2. fasean gauzatzeko. Indusketa lanetan ez material arkeologikorik aurkitu.

Egindako lanei esker, egituraren elementurik nabarmenena agerian 8 metroko diametroa eta oinplano zirkularra duen harrizko tumulu bat dela ikusi ahal izan da. Ez da harri pilaketa bat, ondo antolatutako egitura bat baizik, harriak ondo lotuta daudelako. Tumuluan tamaina handiko bloke batzuk azaleratzen direla aipatu behar da; hilobi-ganberaren aztarnak? Tumuluaren iparraldea ondo ikusten da, mendiaren hegala jaiotzen den tokian baitago; egituraren hegoaldea, berriz, desagertu egiten da, mendi-bizkarraren punturik altuenean dagoelako eta tumuluaren gainean lur gehiago pilatzen delako. Horrela, ikusten den egitura altuagoa da iparraldean eta txikiagoa hegoaldean.

Goian, aurkitutako egitura. Beheko irudian, Indusketa lanak. Manu Ceberio

Egitura interpretatzeko beste funtsezko elementu bat tumuluaren erdian dagoen sakonunea da, gehienez 2 metroko luzera eta ipar-ekialdetik hego-mendebalderako orientazioa baititu. Zulo hori lekuaren arpilatze baten lekukotasun gisa uler daiteke.

Harrizko tumuluaren tamainak, bere ezaugarriek eta erdialdean arpilatze-sakonune bat egoteak antzinako trikuharri bat bezala identifikatzen dute egitura.

Bigarren fasean eta aurreko datuak kontuan hartutak, ustezko hilobi-ganbera zegoen tokian sakondu du eta tumuluaren gainean gelditzen zen lurra kendu du indusketa arkeologikoak. Lan horri esker hilobiaren aztarnak aurkitzeko aukera izan genuen. Zoritxarrez, ganberaren egoera txarra zen, arpilatua izan zelako eta bakarrik iparraldeko harlauzen aztarnak gelditzen zirelako eta hegoaldeko harlauza osoa mantetzen zelako.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei: Iñaki Apalategi, Iñaki Arizeta, Mikel, Txuma Costas, Irene Gaytan, Kelex Larreta, Izaro Quevedo.

HISTORIAURREKO MIAKETAK ALKIZAN. 2024KO EKINALDIA.
ITXURAIN TUMULUA ETA BELAKO ARKAITZAKO KOBAZULOAK
Arduraduna: Jexux Tapia
Finantziazioa: Alkizako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Aranzadi Zientzia Elkartea
Laguntzaileak: Kelex Larreta, Txuma Costas, Jon Aldaia, Manu Ceberio, Pako Barrio, Barbara Proserpio, Marta Pardo, Anabel Delgado

Alkizan ezagutzen diren aztarnategi gehienak Neolito eta Brontze Aro bitarteko kobak dira, eta megalito bakarra Itxuraingo tumulua da. Iazko kanpainan Olatzazpi eta Zopiteko kobak aztertu genituen, hileta-kobak eta bizilekuak desberdintzeko eta kasu bakoitzeko ezaugarriak zehazten hasteko. Aurtengoan berriz, Belako Arkaitza eta Belakumeko kobekin jarraitu, eta Itxuraingo tumulua indusi dugu, hileta-koben eta megalitoen arteko konparaketak hasteko.

ITXURAIN TUMULUA

Itxurain 1984an aurkitu zen eta orduz geroztik ez da inoiz aztertu. Diametroan 8,5 metroko tumulu batez osatuta dago, erdian zulatuta zegoen eta azalean ez zen harlosarik ikusten. Hilobi-ganbararik ikusten ez zenez, ez zen trikuharri gisa sailkatu, tumulo soiltzat baizik.

Gure eskuhartzean tumuluaren zabalera osoa eta erdian zulatutako gunea industu dugu, irizpide estratigrafikoetan oinarrituz eta lurrak 2mm-ko galbahetan aztertuz. Monumenturaen erdiko zuloan unitate estratigrafiko desberdinak bereiztu ditugu eta jatorrian hildakoak gordetzeko ganbara bat bazegoela zehaztu dugu, harlauza baten zatia lurrean zutik sartuta aurkitu bait degu. Tumulua bertako hareharriz osatuta dago eta azalean aurkitu ditugun arbelak ganbarako beste harlauzen zatiak dira, monumentua suntsitu izanaren ondorioak.

Beraz, gure lurraldean ohikoa den bezala, Itxurain trikuharri motako hilobi kolektibo bat zen jatorriz eta une zehaztugabe batean suntsitua izan zen. Hilotzak gordetzeko harlauzez osatutako ganbara bat zeukan, tumulu edo harri pilo batez inguratua, baino kontserbazio

Itxurain tumuluaren indusketa. Jexux Tapia

arazoengatik ez da giza hezurrik kontserbatu. Hala eta guztiz ere, ontzi zeramikoen zatiak eta suharrizko pieza batzuk aurkitu ditugu, eta lur laginak hartu ditugu C14-ko datazioak lortzeko.

BELAKO ARKAITZAKO KOBAK: BELAKO ARKAITZA I ETA BELAKUM I-II

1983an Belako Arkaitza I kobako lurrazalean A. Armedarizek eta F. Etxeberriak 5 gizakien hezurrak bildu zituzten. Gorpuzkinak lotura

Belako Arkaitzan egindako zundaketa. Jexux Tapia

anatomikorik gabe zeudenez eta bestelako materialik aurkitu ez zenez, zundaketa bat industea erabaki dugu hilobi multzoaren datu berriak jasotzeko: alde batetik, hildakoak aldi bakarrean edo gehiagotan utziak al ziren jakiteko, estratigrafian oinarrituta; bestetik, gorpuak apaingarri, eskaintza edo ostilamenduetaz hornituta ehortziak al ziren egiaztatzea; eta bukatzeko, gizaki kopurua zehaztea.

Ondorio bezala, 100 giza hezurretik gora aurkitu ditugu inolako lotura anatomikorik gabe, guztiak geruza estratigrafiko bakar batean zeuden eta ez da beste material arkeologikorik azaldu. Hezurren azterketa antropologikoa abian dago, eta gizaki kopurua zehaztean, C14-ko datazioak egindo ditugu ehorzketa guztiak aldi berean egin al ziren zehazteko.

Belakum II eta III kobatan Antxieta Taldeak zundaketa bana industu zuten 1980ko hamarkadan. Belakum II-an suharrizko gezi punta bat aurkitu zuten soilik, eta Belakum III-an zeramika zati batzuk, zenbait suharrizko printza eta lepoko ale bat aurkitu zituzten. Kobazulo horien okupazio mota zehazteko material gehiago bildu nahi izan dugu, eta horretarako beste zundaketa bana industu dugu guk aurten. Bietan ez da materialik azaldu, eta dirudienez, kobak aldi baterako okupazio xumeak besterik ez zituzten izan.

Ondorio orokor gisa, Alkizan ezagutzen diren aztarnategietatik hiru hilobi kolektiboak dira, eta besteak aldi baterako bizilekuak edo kanpalekuak. Hilobi kolektiboen aniztasuna aztertzeko, Olatzazpi eta Belako Arkaitza I kobek eta Itxurain trikuharriak aukera paregabeak eskaintzen dizkigute, baino ezinbestekoa izango da C14-ko datazio zehatzak lortzea.

ORIAKO BEHE-ARROA. ANDATZA, BELKOAIN, GARATE ETA ZARATE MENDIAK IKERTZEKO PROIEKTUA (ADUNA, AIA, ANDOAIN, DONOSTIA, USURBIL ETA ZIZURKIL). ANDATZA II MONUMENTUA. IV KANPAINA.

Zuzendariak: Manu Ceberio eta Izaro Quevedo Semperena
Finantziazioa: Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

Andatza II trikuharria J. Eloseguik aurkitu zuen 1955ean. Gipuzkoako Karta arkeologikoan 15-13,5 m-ko diametroa eta 1,8 m-ko altueradun tumulu duen trikuharri bat dela deskribatzen da. Monumentuaren erdian dagoen kraterraren barruan hilobi-ganbera zahar baten aztarnak izan daitezkeen harlauzak ikusten dira.

2023an monumentu guztiaren landaredia eta lurra kendu genuen, harriak azaleratzeko. Horrela, egitura osatzen duten harria ateraz eta prest utziz, 2024ko ekinaldirako indusketa-estrategia behar bezala planteatu ahal izateko.

Andatza II: indusketa lanak. Manu Ceberio

Hilobi-ganberaren behealdean eta, eroritako harrien artean, lur solte eta beltzez osatutako maila bat zegoen (UE 103), eta haren azpian blokeak eta harlauza txikiak agertzen ziren (UE 108). Maila horiek industerakoan, hil-ganbara osatzen zuten beste hiru harlauza agertu ziren (3, 4 eta 5 zenbakikoak), eta, hasieran ikusten ziren harlauzak bezala, hilobiaren aztarnak dira. Hau horrela izanda, hego mendebaldetik ipar-ekialdera doan ardatz bati jarraituz, bi harlauza kokatzen ziren, hilobia iparraldetik mugatuz (2 eta 6 zenbakikoak). Ekialdeko edo ipar-ekialdeko muga ez da ondo ikusten, bakarrik gelditzen zen harri txikiak (5 zbk) pareta hori iradokitzen du. Harri horrek izkina egiten du hego-ekialdeko muga seinalatzen duenarekin batera (4 zbk). Mendebaldeko/ipar-mendebaldeko harlauza (3 zbk) erorita zegoen, eta, pareta horren atzean, lur-azaletik 80 zentimetro ateratzen den harri handi bat kokatzen da, zutarri modukoa (1 zbk).

Hil-ganbararen ikerketa jarraitzeko, argazkiak eta kotak hartu ondoren, eroriak zeuden harlauza batzuk kendu behar izan ditugu, mendebaldekoa eta ipar-mendebaldekoa (2 eta 3 zenbakikoak), beste harri batzuk eta maila berri bat agertuz.

Kendutako harlauzen eta harrien azpian, lur beltzez osatuko maila bat agertzen zen (UE 109), goiko mailetan ikusi zen lur bera dirudiena (UE 103).

UE 109 kendu ondoren,

hil-ganbararen hondoa ikusten da: harlauzez osatutako maila bat agertzen da (UE 104), harlauzen azpian hondar-lurra horixka osatutako beste maila bat kokatzen da (UE 105), eta hilobitik kanpo, 3 zenbakiko harlauza zegoen tokiaren azpian, hobi zabal bat ikusten da (UE 106). Aztarnen kokapena ikusita, hilobiganbera ekialderantz orientatuta dagoen 150 x 130 zentimetroko hilobi poligonal bat dela ikusten da.

Harlauzen maila (UE 104) hilganbarak izan zuen zoru baten aztarnak izan daiteke, baina erabat deseginda dago.

Hobiari dagokionez (UE 106), lur beltzez beteta dago (UE 107) eta zutarriaren (1 zenbakiko harria) kontra kokatzen da: zutarria sartzeko egindako hobia al da?

Aurtengo lanak bukatzeko unean, zutarriak 130 zentimetro ateratzen da lurretik, eta oraindik ez da mugitzen, askoz gehiago sartzen dela erakutsiz.

J. M. Apellanizek eta J. Altunak, Andatza I dolmena industerakoan, antzeko zutarri bat aurkitu zuten, eta nahita landutako harri bat izateko aukera proposatu zuten, menhir forma lortzeko, baina hil-ganbararen iparraldeko harlauza zela ulertu zuten (Apellaniz, J.M.; Altuna, J.: "Excavación de Dolmenes en Guipúzcoa". *Munibe* 18, nº 1, 1966, 168).

Andatza II monumentuaren kasuan, harria hilobi-ganbaratik kanpo dagoela ikusten da, baina gehiago industu behar da dolmena eraiki zenean jarritako harri bat den jakiteko, edo ondoren sartutako harria den jakiteko. Harriaren tamaina eta atzean dauden harrien kopurua ikusita, datorren urtean jarraituko da lana.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei: Txuma Costas, Asier Iturralde, Irene Gaytan de Ayala, Itziar Illarramendi eta Asier Olazabal.

JAIZKIBEL II MONUMENTU-MULTZOAREN IKERKETA ARKEOLOGIKOA (HONDARRIBIA). II. KANPAINA.

Zuzendariak: Manu Ceberio eta Jexux Tapia
Finantzazioa: Hondarribiko Udala

2015eko azaroan Jaizkibel II multzoak kalteak jaso zituen, eta 2016an ikerketa arkeologiko bat hasi genuen jasotako kalteak zehazteko eta egituren multzo honen ezaugarriak ezagutzeko asmoarekin ere. Egindako lanei esker 4. monumentua uste zen baino egitura konplexuagoa, arkitektonikoki oso garrantzitsua zela eta inguruan katalogatu gabeko egitura batzuk zeudela erakusten. 2018-2020an, Jaizkibel V egitura industu genuen, monumentu ikusgarria eta ezaugarri arkitektoniko bereziak zituela ikusten. 2023an monumentu hori lehengoratu genuen.

Orain arte egindako lanei esker Jaizkibel V eta II monumentu-multzo nabarmenak direla ikusi da. Egiturazirkular hauek azken brontze-burdin aroko hilobiak edo zenotafioak direla eta multzo bakar handi bat osatzen dutela erakutsi dugu.

Lortutako emaitzak eta monumentuen garrantzia ikusita, zenbait urtetarako egitasmo estrategiko bat aurkeztu genuen 2023an, harrespil multzo honek osatzen duen parke arkeologiko hau ikertzeko, lehengoratzeko eta gizarteratzeko. 2024ko proposamena Jaizkibel II multzoko 4. monumentuaren ikerketa amaitzea eta balizko interes arkeologikoa izan daitekeen beste egitura bat industea izan zen. Hala ere, Hondarribiko Udaleko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Arkeologia Zerbitzuekin proiektua aldatzea adostu dugu, Jaizkibel II multzoaren luze-zabalean humusa kentzea planteatuz, multzoa osatzen duten monumentuen balorazio orokorra egiteko eta hedadura zehazteko.

Aurkitutako egitura berriak. Manu Ceberio

Jaizkibel II multzoa. Armendariz eta J.A. Mujikak aurkitu zuten 1980an. Gipuzkoako karta arkeologikoan honako deskribapena jasotzen da:

"Jaizkibel II monumentua 5 harrespilez osaturiko multzo bat da:

1.-harrespila: gutxigorabehera 8,5 m-ko diametroa duena.

2.-harrespila: gutxigorabehera 7 m-ko diametroa duena.

3.-harrespila: gutxigorabehera 6,5 m-ko diametroa duena.

4.-harrespila: gutxigorabehera 4,5 m-ko diametroa duena.

5.-harrespila: gutxigorabehera 7 m-ko diametroa duena.

Hauen artean zutikako harlauza ugari aurkitzen dira, ziurrenik beraien edo beste egitura megalitikoren batzuren zati izango direnak."

Testu hau idazteko orduan ikerketak martxan jarraitzen duen arren, orain arte egindako lanei esker ezagutzen diren baino beste bi egitura berri gehiago daudela aurreratu dezakegu.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei: Txuma Costas eta Paco Barrio.

EXCAVACIÓN ARQUEOLÓGICA DEL POBLADO DE BASAGAIN (ANOETA) XXX CAMPAÑA

Responsables: Xabier Peñalver Iribarren y Eloisa Uribarri Agirrebengoa

Financiación: Diputación Foral de Gipuzkoa y Ayuntamiento de Anoeta

La campaña correspondiente a 2024 se ha desarrollado a lo largo de las tres primeras semanas del mes de septiembre y durante la misma nos hemos visto obligados a modificar algunos de los planes y objetivos previamente previstos dadas las adversas condiciones climatológicas de esos días.

Las constantes lluvias y la continua filtración del agua caída a través de la ladera hasta la zona de intervención han hecho que no se haya podido actuar en el yacimiento aproximadamente la mitad de los días programados.

La actuación en determinadas zonas no previstas en un principio y en el área considerada prioritaria para la campaña nos ha permitido sin embargo unos resultados positivos tal y como describiremos a continuación.

Las áreas excavadas han sido cinco:

ÁREA UBICADA ENTRE EL LIENZO INTERIOR DE LA MURALLA Y LA PISTA ACTUAL DE ACCESO AL POBLADO: CUADRO 13W

La muralla, en su lienzo interior, había sido sacada a la luz en campañas precedentes hasta un punto distante poco más de 3 metros hasta la pista que accede al poblado en la actualidad, quedando la duda de si cambiaba su dirección formando una entrada al recinto o había sido destruida por la pista.

La intervención en esa zona ha permitido sacar a la luz algo más de un metro de nuevo desarrollo, el cual sigue la misma dirección de la defensa sin modificaciones. Sin embargo, dentro de la banda 13 se observa claramente como esa muralla ha sido destruida, desapareciendo todas sus piedras. Coincidiendo con ese punto se ha localizado un hogar o fuego y en el mismo numerosos hilillos de bronce.

LA PROLONGACIÓN DE LA MURALLA

La muralla, en su nuevo tramo presenta las mismas características que la zona colindante de la misma, es decir, está formada por bloques de tamaño grande y medio de arenisca roja y de arenisca amarilla, característica de la parte de la defensa situada en la zona sur de la trayectoria excavada.

EL HOGAR

Justo en el punto en donde se interrumpe la muralla (destrucción), aflora un hogar o fuego con numerosos restos de carbones y grupos de finos hilos de bronce, en ocasiones trenzados entre sí, así como gran número de clavitos de hierro.

ALINEACIÓN DE PIEDRAS Y HOGAR: CUADROS 13U-13V

Con el fin de determinar las características y trazado completo de la alineación de piedras que en la banda 13 dis-

Basagain. X. Peñalver

curre en sentido este-oeste y con la idea de poder obtener nuevos restos correspondientes a la gran vasija que comenzó a salir en 2023, se ha ampliado una zona en el cuadro 13U de 4 metros en sentido norte-sur y 1,5 metros en sentido este-oeste.

En la campaña correspondiente a 2023 ya quedó clara la presencia de un muro que discurría en sentido este-oeste, formado con piedras tanto de arenisca roja como amarilla, de las mismas características de las que forman la muralla del poblado en esa misma zona.

Salvo en una pequeña zona formada por dos grandes bloques escuadrados, el resto no presentaba una construcción elaborada; adosado a esta estructura apareció un hogar o fuego con abundantes carbones e hilillos de bronce. Esta estructura presentaba las mismas características que la localizada en el cuadro 13W en la zona destruida de la muralla y estando ambas separadas entre sí en torno a 3 metros.

En la ampliación antes reseñada en el cuaqdro 13U se ha podido constatar cómo el muro se prolongaba hacia el oeste siguiendo una línea recta aproximada de aproximadamente 5 m de desarrollo.

En esa misma zona, a cota ligeramente inferior se habían localizado materiales correspondientes a la Segunda Edad del Hierro, entre ellos el borde de una gran vasija hallado en 2023.

En la presente campaña, asociados al muro que estamos describiendo, se han hallado restos de munición correspondiente a la guerra carlista. Estos materiales se sitúan justo inmediatamente por encima de los pertenecientes a la Edad del Hierro.

Los materiales asociados al fuego del cuadro 13W son asi mismo pertenecientes a la guerra carlista.

Por otra parte, desde la zona más elebada del poblado discurre una trinchera en sentido norte-sur en la cumbre y que desciende hacia el este (terraza intervenida) en sentido este-oeste. Esa trinchera enlaza con el muro que describimos y con la interrupción (destrucción) de la muralla en el cuadro 13W.

«Los restos hallados en la campaña de 2024 corresponden principalmente a vasijas cerámicas fabricadas a mano, además de zarzo, elementos de hierro, escorias, vidrio y huesos de fauna (escasos)»

Es por ello que parece evidente que tanto el muro como la trinchera y los materiales asociados son una intrusión carlista en el asentamiento protohistórico. El material utilizado para la construccción de esta defensa provendría de la zona de la muralla del poblado destruida.

ÁREA DE LA GRAN VASIJA: CUADROS 13U-13V

Tras la eliminación de la estructura defensiva carlista se ha continuado excavando la banda 13 desde la muralla hasta incluir la ampliación en el cuadro 13U de 2024.

Los materiales hallados son los característicos del poblado de la Edad del Hierro: cerámica, cuenta de vidrio, elementos de hierro, escorias, etc.

Destacamos entre los mismos numerosos restos de la gran vasija que comenzó a aparecer en 2023 (el borde casi completo) y que ahora se ha ampliado con el fondo (completo) y grandes fragmentos del cuerpo, aunque muy fracturados.

LA ZONA OESTE: CUADROS 16R-17R

El retomar la excavación en esta zona ya intervenida anteriormente tenía la finalidad de ver el trazado del recorte del terreno en una zona fértil en materiales arqueológicos. Por ello se ha reiniciado la excavación en el cuadro 16R (5 m en sentido norte-sur y 2,5 m en sentido este-oeste) y en el 17R (2 m en sentido norte-sur y 2,5 m en sentido este-oeste).

La abundancia de agua caída ha hecho que tras excavar un lecho hubiera que interrumpir los trabajos en esta campaña.

LA ZONA NORTE: CUADRO 17S

Ante la imposibilidad de continuar los trabajos de excavación en la zona oeste (cuadros 16R y 17R) debido al mal estado del terreno a causa de la lluvia, se retoman los trabajos en el cuadro 17S que por su ubicación está más seco. En esta zona ya se había excavado años antes proporcionando bastantes restos de escorias. Se trabaja en una superficie de 3 por 2 metros, practicándose dos lechos con escasa presencia de material aunque dominando en número los restos de escorias.

LOS MATERIALES

Los restos hallados en la campaña de 2024 corresponden principalmente a vasijas cerámicas fabricadas a mano, además de zarzo, elementos de hierro, escorias, vidrio y huesos de fauna (escasos).

Por lo que se refiere a los materiales asociados a la estructura defensiva carlista, destacan elementos de hierro (principalmente pequeños clavitos) y de bronce (hilillos), así como munición.

Cabe destacar entre los materiales la gran vasija de cerámica a mano cuyo borde y arranque de cuerpo apareció en la campaña de 2023 y que se ha completado con el hallazgo del fondo y de importantes fragmentos del cuerpo en la campaña actual. Estos restos cerámicos se apoyaban sobre una arcilla enrojecida.

El estado de fragmentación *in situ* del cuerpo ha hecho difícil su extracción en bloques para facilitar su consolidación y reconstrucción posterior en Gordilua.

En cuanto al material de hierro destaca el extremo apuntado (posible regatón), bien conservado hallado en el cuadro 13U.

Así mismo se ha localizado un fragmento de cuenta de vidrio de color azul en el cuadro 13U.

MUNOAUNDI (AZKOITIA-AZPEITIA) BURDIN AROKO HERRI HARRESITUA. INDUSKETA ARKEOLOGIKOAREN XIX. EKINALDIA (3. FASEA)

Zuzendariak: Antxoka Martínez Velasco, Izaro Quevedo Semperena
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia, eta Azkoitiko eta Azpeitiko udalak

2024. urtean Munoaundiko indusketa arkeologikoaren XIX. ekinaldia egin dugu -proiektuaren 3. fasea-. 2. eremuan, 3. eremuan eta iparraldeko babes-sisteman aritu gara aurtengo ekinaldiko indusketa-lanetan. Programatutako ikerketa-lerroari jarraipena emanez, aztarnategiaren okupazio-mailetan eta defentsa-sistemetan sakondu dugu. Era berean, Munoaundi herri harresituarekin lotutako hilerriaren aztarnak topatzeko saiakera egin dugu eta, horretarako, katak egin ditugu.

-2. Indusketa-eremuan, okupazio-maila arkeologikoen azkeneko dokumentazioa jasotzen jarraitzen dugu, bai hegoaldeko etxebizitza-zoruan, bai iparraldeko ikatz-orbanean.

-3. indusketa-eremuan, bi kata egin ditugu ingurune hau arakatzen jarraitzeko helburuarekin. Miaketa magnetikoa ere egin dugu, baina ez dugu emaitza arkeologikorik izan.

-Iparraldeko eremuan, zazpi kata eta ebaketa bat ireki ditugu. 4 katek ez dute emaitza arkeologikorik izan. Beste bi katetan, ordea, balizko egitura bat izan zitekeela zirudien, eta argitzeko katak zabaltzea erabaki dugu, 6 x 1 metroko zundaketa. Zundaketaren hegoaldean, harri handiak topatu ditugu, erorkina izan litekeena, eta iparraldean, aztarnategi osoan zehar topatzen den harresiaren betelana izan litekeena topatu dugu. Induskatu ondoren, oraindik ez dugu datu zientifiko nahikorik hori dorre bat dela esateko, eta horregatik beste aldera ere 5 metro zabaltzea erabaki dugu, 11 x 1 metroko zundaketa izan da azkenean. Hala ere, aurtengo ekinaldian egin ditugun lanak hasierakoak baino ez dira izan, eta zalantzak argitzeko, datorren ekinaldietan bertan lanean jarraitu beharko dugu. Beste kata batean, errekuntza-egitura baten aztarnak topatu ditugu.

Munoaundi (Azkoitia – Azpeitia). Aurtengo 8. kataren indusketa lanak 3. Indusketa-eremuan.
Antxoka Martínez Velasco-Izaro Quevedo

-Materialaren inbentarioa egin dugu eta adituei bideratu diegu materialak lehengaiaren arabera, dagozkien azterketekin aurreratzeko.

-Hilerria topatzeko lanei dagokienez, ikus-miaketa eta miaketa magnetikoa egin ditugu, baina ez dute emaitza positiborik eman. Edonola ere, helburu horrekin lan egiten jarraitzeko asmoa dugu.

Aurreko guztia kontuan hartuta, aurtengo ekinaldiaren balorazioa ona da ikerketan aurreratu ahal izan dugulako. Aurrera begira, ikerketa horiei jarraikortasuna emango diegu.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei.

Iparraldeko eremua. Zundaketaren indusketa lanak.
Antxoka Martínez Velasco-Izaro Quevedo

BABIO (IZORIA-AIARA) BURDIN AROKO HERRI HARRESITUA. SEIGARREN EKINALDIA

Zuzendaria: Jon Obaldia Undurraga
Finantzazioa: Aiarako Udaletxea
Laguntzaileak: Izoriako Kontzejua eta Aztarna Elkarte Etnografikoa

2024an, Babioko herri-harresituan indusketak egiteko VI. kanpainarekin jarraitu dugu. Aurtengo helburua, aztarnategiko harresien ondoko terrazadun espazioak ikertzea izan da, baina ez ohiko indusketa arkeologikoaren bidez, baizik eta prospekzio geofisikoen bitartez.



Babio prospekzio geofisikoak. Jon Obaldia

Erabili ditugun teknikak, prospekzio magnetikoa eta georradarra izan dira. Hauek, lehen gune harresitu osoa ikertu dute, baina bereziki, bi harresien alboan dauden terrazadun espazioak, bertan, etxebizitzen aztarnak aurkitu ditugulako. Bi teknika horiek konbinatzean, lortzen diren emaitzak kalitate handiagokoak dira, eta oso baliagarriak izan zaizkigu balizko egiturak zehaztasun handiagoz identifikatzeko.

Gauzak horrela, metodologia hau erabiliz, informazio oso baliagarria eskuratu dugu aztarnategian eman beharreko hurrengo indusketa faseak planifikatzeko.

HISTORIAURREKO MIAKETAK AMASA-VILLABONAN (II EKINALDIA).

Zuzendariak: Amaia Arranz Otaegi eta Jon Aldaia Aierbe
Finantzazioa: Amasa-Villabonako udala
Laguntzaileak: Aloña Aldasoro, Karlos Almorza, Pako Barrio, Txuma Costas, Joanes Karrera, Andoni Mateos, Puskas eta Txirrita

Aurreko urtean Oria arroan historiaurreko aztarnategi berriak aurkitzeko miaketa proiektuari ekin genion. Hasierako emaitzak oso itxaropentsuak izan ziren, ondorioz interes bereziko eremu batzuk identifikatu genituen, hauen artean Amasako inguruak. Bertan lau aztarnategi berri izendatu genituen historiaurre berantiarretik hasita Goi Erdi Aroraino. Aurten potentzial arkeologiko handienak zituzten bi aztarnategietan jarraitu ditugu lanak, Aranerrekako harpean eta Garmendiko koban.

Indusketa lanak Aranerrekako harpean. Karlos Almorza

ARANERREKAKO HARPEA:

Aurreko ekinaldian egindako 1x1m-ko zundaketaren ondorioz bi giza

Burdin aroko ontzi zeramikoaren zatiak. Eskuineko irudian, Burdin aroko etxolaren aztarnak Aranerrekako harpean. Jon Aldaia Aierbe

okupazio maila aurkitu genituen Aranerrekako harpean, hauen artean Burdin Aroko etxola baten aztarnak. Garai honetako oso bizileku gutxi ezagutzen dira herrixketatik at Gipuzkoan, are gutxiago dira oraindik aztarnen kontserbazio ona dutenak. Hau kontuan hartuta, bigarren ekinaldi honetan indusketa eremua zabaltzea erabaki dugu, maila arkeologiko hau hobeto aztertzeko asmoz. Lehendabizi, harpearen azalera koadroetan banatu dugu eta zundaketaren inguruko hiru metro koadro berri induskatu ditugu. Aurreko urtean lehenengo maila arkeologikoan agertutako sutondoaren inguruan eskuz egindako zeramika zatiak eta fauna hezurrak azaldu dira. Bizileku hau, harrizko blokez egokitutako lurzoru baten gainean hedatzen da. Zeramika aztarnen ezaugarriak kontuan hartuta, okupazioa erromatar garaikoa izan daitekeela uste dugu. Karbono datazioen bitartez zehaztuko dugu. Ondoren, maila honen azpitik buztinezko geruza antzu bat garatzen da Burdin aroko bizilekura iritsi arte. Bertan ondo egituratutako etxola baten aztarnak aurkitu ditugu, harriz mugatutako sutondo batekin. Abereen hezurrak zein ikatzak ugariak dira eta hauen kontserbazioa bereziki ona da. Hala ere, aurtengo aurkikuntzarik esanguratsuena sukaldeko ontzi zeramiko handi baten zatiak izan dira. Eskura ditugun datazioek lehen Burdin Aro amaierako kronologia ematen diote maila honi, hau da, 2.500 urte inguru. Hurrengo ekinaldietan etxolaren itxitura aztertuko dugu eta giza-okupazio zaharragoak dauden ikertzen jarraituko dugu.

GARMENDIKO KOBA:

Garmendiko kobazuloan zundaketa egin ondoren aurreko ekinaldian, erromanizazio garaiko zeramika zati bat eta harlauzez egindako egitura baten aztarnak aurkitu genituen. Honen azalera oso txiki bat ikusteko gai izan ginen bakarrik, baina bazirudien kobazuloa ixteko horma baten arrastoak izan zitezkeela. Beraz, aurten jarritako bi helburuak egitura hau mugatzea eta karbono datazioak egiteko lagin baliagarriak aurkitzea izan dira. Ondorioz, indusketa eremua kobazuloaren barrenerantz metro bat zabaldu dugu eta alboko bi paretetaraino beste metro erdi bana. Lan hauei esker gai izan gara argitzeko harrizko egitura ez dela horma bat, baizik eta plataforma edo lurzoru egokitu bat, Aranerrekako okupazioen antzera.

Indusketa lanak Garmendiko koban. Jon Aldaia Aierbe

Zenbait alderditan nahiko ondo kontserbatuta dago, baina oro har desitxuratuta agertzen da. Egitura hau kobaren barnealdean dagoen harkaitz handi batek mugatzen du eta guztira bi metro koadro besterik ez ditu estaltzen. Bere gainean txikitutako harri xafla finezko lurzoru bat eratzen da. Azalera honetan zenbait aztarna arkeologiko bildu ditugu: erretako gari aleak eta abere hezur batzuk, baina orokorrean nahiko eskasak. Aranerrekako harpearen aldean, argi ikusten da Garmendikoa ez dela bizitoki bat, edozein kasutan aurkitutako aztarnak ez dira oso esanguratsuak kobaren erabilera mota argitzeko. Hala eta guztiz ere, jasotako laginei esker datazioak egin ahal izango ditugu, kobaren erabilera fasea Aranerrekakoaren garaikidea den jakiteko.

MURELU (ZUBIRI, ESTERIBAR; NAFARROA) BURDIN AROKO HERRI HARRESITUA MIAKETA ARKEOLOGIKOAREN I. EKINALDIA

Zuzendariak: Antxoka Martínez Velasco, Jon Obaldia Undurraga
Finantzazioa: Zubiriko Kontzejua

2024. urtean kata bidezko miaketa arkeologikoa egin dugu Murelu deitzen den Burdin Aroko herri harresituan, Zubiriko kontzejuan (Esteribar, Nafarroa). Jarduera horrek erantzun dio Zubiriko kontzejuak Aranzadi Zientzia Elkarteari egindako eskaerari. Helburua izan da aztarnategiaren ezagutzan sakontzea, haren katalogaziorako eta babeserako neurriak bideratzeko. Izan ere, oso mugatuak izan dira proiektuaren abiapuntuan eskura egon diren datuak aztarnategi horri buruz, guztiak azaleko miaketetakoa.

Miguel Etxegarai Agarak eta Juan Mari Martínez Txoperenak identifikatu zuten 2012ko otsailean, momentu hartan abian zuten ikerketa zabalago baten testuinguruan, hain zuzen ere, inguru hartako populaketa protohistorikoarena eta erromatar galtzadarena. Aztarnategia Mureluko tontorrean kokatzen da, Arga ibaiaren haranean, eta 1,66 ha inguru betetzen ditu. Ohiko patroiei jarraitzen die, eta hala, tokiak eskaintzen dituen babes naturalak aprobetxatzen ditu. Horiek harrizko harresi batez osatzen ditu, 420 m inguruko luzerakoa, baita foso zabal batez esparruaren iparraldean. Zenbait terrazamentu daude, gotorlekuaren barruan zein kanpoaldean, ingurunea egokitzeko. Materialik ez da ezagutzen, beraz, ezin gehiago zehaztu azaleko datuekin.

Jarduera, hortaz, hasierako informazio hori osatzera eta zabaltzera bideratu genuen, helburu zehatz batzuekin, hala nola ahal den neurrian, zehaztu herri harresituaren sorrera eta okupazio-sekuentzia. Horretarako, kata ekinaldi bat planteatu genuen, bost osotara, esparruaren barruan, hegoaldeko terraza batean eta iparraldean dagoen fosoan.

Egindako lau katek ezezko emaitza eman zuten; ez genuen topatu ez materialik, ez egiturarik. Bosgarrenak, berriz, iparraldean egindakoa, fosoa dagoela baieztatu zuen. Horrekin batera, behintzat, esan daiteke Burdin Aroko ohiko patroiei jarraitzen dien gotortze-sistema baten aurrean gaudela.

Oraindik ere zenbait galdera erantzuteko geratzen dira; hori horrela, bigarren miaketa ekinaldi bat egiteko asmoa dugu.

Ezkerrean, Murelu (Zubiri, Esteribar; Nafarroa). Egituren krokia." Goian, Kata 5. Lanean. Antxoka Martínez Velasco-Jon Obaldia

SAN ISIDRO (DEIKAZTELU; NAFARROA) BURDIN AROKO HERRI HARRESITUA. BILTEGIRATZEKO ZERAMIKA ONTZI BATEN INDUSKETA

Zuzendaria: Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: Deikazteluko Udala / Nafarroako Kultura Zuzendaritza

2024. urtean indusketa arkeologiko puntuala egin zen San Isidro Burdin Aroko herri harresituan, Deikazteluko udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari egindako eskaerari erantzuteko. Jarduera hori bideratuta egon zen berreskuratzera biltegiratzeko zeramika ontzi bat, baita haren testuingurua ezagutzera. Horretarako arrazoia izan zen hura hondatzeko, galtzeko edo ebatsia izateko arriskua.

San Isidro aztarnategia Deikaztelutik hego ekialdera kokatzen da, muino txiki batean. Harrizko harresi batez defendatuta dago eta 6.800 m^2 inguru betetzen ditu. Informazio mugatua dugu hari buruz, 80ko hamarkadan egindako kata ekinaldi batetik eta azaleko datuetatik jasota. Horien arabera, okupazio sekuentziak I. Burdin Aroa betetzen du eta II. Burdin Aroan luzatzen da. Bukaera data ez dugu ezagutzen, baina badakigu, behintzat, erromatarturik ez dagoela.

2023ko neguko euriek azalean utzi zuten biltegiratzeko zeramika ontzi zati bat (dolia) eta, hala, 2024an bideratu zen hura berreskuratzeko indusketa. Lana osatuta, helburuak bete ahal izan ziren eta zeramika eta haren informazioa berreskuratu ziren.

Zeramika ontzia zegoen amortizatutako egitura bat estaltzeko betelanean. II. Burdin Aroaren bukaeraren momenturen batean, antza, zenbait egitura utzi edo abandonatu ziren. Horrek ekarri zuen birmoldaketak egitea, besteak beste, ingurunea estaltzea eta horren gainean egitura berriak altxatzea, seguruenik etxebizitzak, aurretik zeuden egituren materialak berrerabilita. Zeramika ontzia, beraz, birmoldaketa horien testuinguruan kokatzen da; baztertutako materiala izan zen eta estaltzeko betelanean bukatu zuen.

San Isidro (Deikaztelu, Nafarroa). Dolia zatiaren ikuspegia agertu zenean. 📷 A. M. V.

San Isidro (Deikaztelu, Nafarroa). Doliaren ikuspegia indusketaren bukaeran. 📷 A. M. V.

ORIAKO BEHE-ARROA. ANDATZA, BELKOAIN, GARATE ETA ZARATE MENDIAK IKERTZEKO PROIEKTUA (ADUNA, AIA, ANDOAIN, DONOSTIA, USURBIL ETA ZIZURKIL).
IRIGAINGO ERROMATAR GARAIKO AZTARNATEGIA. V. KANPAINA

Arduraduna: Manu Ceberio eta Izaro Quevedo

Finantziazioa: Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundia

2020tik, 2004an aurkitutako aztarnategia sakonean ikertzeko asmoz, koadroz koadro irekitako indusketa eremu bat egin da, guztira 20 m^2 dituena. Koadroak bertako harkaitza (marga) azaldu arte industu dira, 2 maila desberdin aurkitzen: goikoa buztin marroia (UE 102), eta behekoa buztin horia (UE 103). Material gehiena bi mailen arteko mugan aurkitu da, baina zeramika zati batzuk humusean eta harkaitzaren gainean ere jaso dira.

2024an indusketa-eremua inoiz baino gehiago zabaldu da: 9 metro karratu iparralderantz (5 K eta J, 6 K eta J, 7 K, 8 K eta J, 9 K eta J koadroak). Aipatutako zabalpena egituraren mugak bilatzeko helburuarekin egin da. Aurreko urteetan 5F, 6F, 7F, 8F eta 9F koadroak eraikinaren kanpo gelditzen direla ziurtatu genuen, eta aurten beste kuadro batzuk kanpoan gelditzen direla ikusi dugu.

8 K, 8 J, 9 K eta 9 J koadroetan, azaletik 10-15 zentimetrotara aurreko urtean 9F, 9H eta 9G koadroetan ikusitako erromatar garaiko zoruaren jarraipena aurkitu da (UE 104). 8 J eta 9 J koadroetan zorua deseginda dago, aztarna batzuk mantentzen dira bakarrik (8 L eta 9 L gertatzen den bezala) eta UE 103 agertzen da, 8 K eta 9 K koadroetan, aldiz, nahiko garbi ikusten da. Aurreko ekinaldietan bezala, zoruan bertan eta gainean erromatar garaiko zeramika arrunt zati bat, buztin egosi zatiak eta iltzeak aurkitu dira, baita silexeko marruska bat ere.

Aro garaikideko jarduerek eragina izan zuten erromatar garaiko UE 102an. Horrela, gainazaletik gertu burdinazko xafla bat (9 K kuadroan), kristal zatiak (8 J eta 9 J) eta zurezko pieza baten zatiak (9 K) agertzen dira.

Mendebalderantz, 5 K, 6 K, 7 K, 5 J eta 6 J koadroetan harria (marga) agertzen da, beste koadroetan azaltzen den zoruaren maila baino altuago kokatzen da. Beraz, hegoaldeko koadroetan ikusten zena, arroka eta zoruak azalera horizontala osatzen zutela ez da errepikatzen.

Azaldutako zorua ez da industu, aurreko urtean bezala, hurrengo ekinaldi batean industeko utzi da. Beste alde batetik, ikertzen ari garen erromatar garaiko eraikinaren mendebaldeko muga aurkitu dugula aipatu behar da.

2020-2024an azaldutako materialak zeramikak dira gehien bat, erromatarren garaiko zeramika arrunta, tornu motelez egindakoak. Horien artean bi eltze forma desberdinak azaldu dira, batek ertza kanpoalderantz tolestuta dauka, horizontala eta laua; besteak ertza lodituta dauka, eta goiko partea horizontala eta laua, sekzioa triangeluarra daukana. Ertza batzuk markak dituzte eta bi motatako pasta zeramikak identifikatu dira momentuz, bat behe inperioan ohikoa dena, baina bestea erromatar inperioaren hasierako aztarnategietan azaltzen dena. Guztira 43 ertz zati aurkitu dira, baita beste 46 lapiko zati ere.

Horiekin batera, beste ontzi mota bat aurkitu da, bi katilu desberdineko 4 ertz zatik, sekzioa biribila daukanak.

Zeramikaz gain, ikatzak eta lur egosi 18 zatiak (erre egin zen buztinezko pareta baten edo su baten aztarnak) jaso dira, baita silexak ere.

Aurtengo materialen artean 3 suharri aipatu behar dira, horien artean marruska txiki bat. Beste alde batetik, erromatar garaiko zeramika arrunta eta adobe zatiak aurkitu dira, baita burdinezko iltze bat ere. 2024an jasotako material gehienak 9 J, 8 K, 8 J eta 7 K kuadroetan kokatu dira. Eraikinaren kanpo, 5 K kuadroan beste pieza bat aurkitu da, baina humusean. Ia material guztiak UE 102an azaldu dira, beste bat, adobe zati bat, zoruaren gainean azaldu da (UE 104).

Irigaingo aztarnategia 2000 metro karratu baino gehiago dituen eremu batetik zabaltzen dela kalkulatzen dugu. Inguru horretan eraikin batzuk kokatu zirela pentsatzen

Irigain: indusketa eremua. Manu Ceberio

dugu, antzinaroko nekazaritza eta abeltzaintzako ekoizpen-unitate pare bat.

Azken urteetan egindako indusketa-lanetan eraikin baten aztarnak ikertzen ari gara. Orain arte identifikatutako aztarnak honako hauek dira: harkaitzaren ebakidura lerro zuzen baten bidez eta ekialdetik-mendebalderuntz norabidearekin, argi eta garbi gizakiak harri txikiz egindako zoru baten aztarnak, baita hormak egiteko erabilitako adobe zatiak ere (egosiak daudelako). Gure ustez, zenbait puntutan bertako harkaitza (marga) landu zuten buztineko paretak jartzeko, eta, eraikinaren barnealdeko zorua osatzeko asmoz, erregularizatu egin zuten, harkaitz-azaleratzearen punturik altuenak aprobetxatuz eta, gainazal horizontala lortzeko, harri txikiz osatutako geruza bat ezarriz. Aurten eraikin honen mendebaldeko muga identifikatu dugu, beraz, datozen urteetan nondik industu behar den aurreikus daiteke.

Irigaingo aztarnategi honen ikerketa ezinbestekotzat jotzen dugu Oria ibaiaren garaiko populaketaren antolaketa eta landa-munduaren bizimoduak ezagutzeko, gaur egun Gipuzkoan ikertzen den aztarnategi bakarra da eta. Horregatik proiektu hau aurrera eramatea oso garrantzitsua da eta ikerketa arkeologikoa jarraituko dugu, zundaketa gehiago eta indusketa arkeologiko bat egiten. Horretarako orain arte izandako erakunde publikoen laguntza mantentzea ezinbestekoa da.

Bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkiegu proiektua bultzatzen lagundu eta bertan parte hartu dutenei: Txuma Costas, Mentxu Zorita eta Irene Gaytán de Ayala.

ARTOLA (ABADIÑO, BIZKAIA)

Zuzendaria: Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: Gerediaga Elkartea

Artola lepoa Anboto (1331 m) mendilerroaren mendebaldeko muturrean dago, Alluitz (1034.27 m) eta Astxiki (786.95 m) tontorren artean. Bizkaiko arkeologiaren aspaldiko ezaguna da, eta hala ere, ibilbide malkartsua egin du historiografian. Lehenengo berriak B. Taracenak y A. Fernández de Avilések (1945: 24-25) eman zituzten, eta horiek ere izan ziren lehenak lan arkeologikoak egiten. Bertan, itxiturarako egitura bat dago, ezponda bat, hori zela eta, "kastro" bat bezala identifikatu zuten. Hurrengo urteetan Burdin Aroko herri harresitu modura onartu zen eztabaidarik gabe eta horrela jaso ere ondorengoko lanetan, esaterako "Carta Arqueológica de Vizcaya"n (Gorrochategui eta Yarritu, 1984: 119). 1994. urtean berriz, A. Llamosasek eta D. Gilek (1995: 206-207) kata bat egin zuten itxiturako ezpondan, harresirik topatu ez eta horrekin utzi zen albo batera herri harresituaren izaera, baita aztarnategi arkeologikoarena.

Artola. Ikuspegi orokorra hegoaldetik. A. Arrieta

Baina ezponda hor zegoen eta azalpenik gabe jarraitzen zuen. Hori argitzeko beharrak ekarri zuen ikus miaketa egitea 2006an (Martínez 2007), baina ez zen emaitzarik lortu. 2014an berriz, beirazko lepo-ale bat topatu zen lepoan, gora doan bidexkan, eta horren harira miaketa berria egin zen. Orduan, harrizko leuntzaile bat eta eskuz egindako zeramika gutxi batzuk topatu ziren okupazio maila batekin lotuak puntu zehatz batetan bilduta (Martínez et al. 2015). Horiekin, behintzat, ingurunearen izaera arkeologikoa egiaztatu ahal izan zen. Hala ere, kokapenaren eta itxituraren ezaugarriak ez zetozen bat ohikoak ziren Burdin Aroko gotortzeko sistemekin eta argitzeko geratu ziren.

Hori horrela, Gerediaga Elkarteak enkargua egin zion Aranzadi Zientzia Elkarteari ikerketan sakontzeko. Lanak 2023an hasi ziren eta 2024ra arte luzatu dira; sei kata egin dira, baita miaketa magnetikoa eta lepoa ixten duen ezpondaren dokumentazioa ere. Lortutako emaitzen arabera ez da Burdin Aroko okupazio mailarik topatu, eta egiaztatu da berriro ere itxitura ez dela harresi bat.

Emaitza positiboak lortu dira ingurune horren interpretazioari dagokionez. Batetik, baieztatu ahal izan da lepoa ixten duen itxitura lurrez eta harriz egindako ezponda dela, hau da, gotortze sistema bat.

Eta bestetik, zenbait material arkeologiko topatu dira, besteak beste, erromatar gezi punta bat eta *verutum* bat. Kontuan hartuta bildutako datu horiek guztiak, hau da, kokapenaren ezaugarriak, erabilitako gotortze sistema eta topatutako materialak, Artola lepoan kontserbatzen diren aztarnak identifika daitezke kanpaina militar batean altxatutako aldi baterako erromatar kanpamentu batekin, hau da, *castra aestiva* batekin.

Modu berean, topatu dira Erdi Aroko zenbait gezi punta, bereziki lepoaren goiko aldean, Astxikin dagoen gazteluarekin lotu behar direnak, baita Guda Zibileko kartutxoteria elementu desberdinak ere, gehienbat Alluitzeko oinean, lepoari begira dauden harpeen inguruan. Horiek guztiak erlazioan jarri behar dira pasabidea kontrolatzeko beharrarekin momentu historiko desberdinetan.

Artola. Erromatar *verutum*. A. Martínez Velasco

EL RASO (LEZAUN; NAFARROA) ALDI BATERAKO ERROMATAR KANPAMENTU MILITARRA (CASTRA AESTIVA)

Zuzendaria: Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: Lezaungo Udala, Nafarroako Kultura Zuzendaritza

Lezaun herria kokatzen da Urbasa eta Andia mendilerroen arteko pasabidean, hegoaldeko aldean. El Raso deitzen den ingurunea herrigunetik 500 m aurkitzen da, iparmendebaldera. Magal leunez osatutako paisaia da, hainbat errekastorekin tartekatuak, eta horrek ematen dio mendi-bizkar erliebea inguruneari. Horietako batean identifikatu dira bi erromatar kanpamentu, El Raso A eta El Raso B, 850 eta 1100 m arteko altueran.

El Raso A. Erromatar kaligatarako tatxeta (*clavus caligarii*). A. M. V.

2024. urtean lau kata eta ebakidura bat egin dira, horietako hiru A kanpamentuan, laugarren kata bat eta ebakidura bat defentsa lerroan, berriz, B kanpamentuan. Jarduera horrek erantzun zion Lezaungo udalak Aranzadi Zientzia Elkarteari egindako enkarguari.

Egindako jardueraren emaitzek baieztatu ahal izan dute El Raso ingurunean aldi baterako bi erromatar kanpamentu militar daudela. A kanpamentuaren defentsa lerroaren kontserbazioa azalean irregularra da eta zailtasunez antzematen da azalean, hala ere, ortoargazki serie batean ikus daiteke oinplanta. Horren arabera, 13-14 hektareako azalera du, oinplantaren diseinuak oinarri errektangularra du, zenbait zuzenketekin magalaren erliebera egokitzeko, eta defentsa lerroa lurrez eta bertoko harriz eginda dago. B kanpamentuan, aldiz, defentsa

lerroaren (agger) atal bat kontserbatzen da, terraza zabal eta altu bat. Gainerako ataletan galduta dago edo ez da azalean antzematen, horregatik ez dago zehazterik une honetan betetzen zuen azalera. Jardueran zehar topatutako materialei dagokienez, El Raso An kaligetarako tatxetak topatu dira, mota horretako aztarnategietan ohikoenak eta esanguratsuenak. Oso adierazgarriak dira ere El Raso Bn aurkitutako bi fibula, nauheim motakoak, eta hain juxtu ere, burdinez egindakoak, espresuki lotzen direnak mundu militarrarekin, askotan ematen zen lehengai batzuen eskasiagatik guda testuinguruetan.

Kronologiari eta funtzioari dagokienez, ditugun datuak mugatuak badira ere, oraingo hipotesia da g.a. I. mendearen hasieran edo lehenengo erdialdean kokatu behar direla, Sertoriar guden testuinguruan seguruenik, kontuan hartuta, batetik, topatutako materialak, nauheim fibulak eta 2022an topatutako Turiasuko as bat (Martínez 2023), eta bestetik, kanpamentu bien ezaugarriak eta kokapena. El Raso A eta B desberdinak dira eta elkarrentatik oso hurbil daude, beraz, pentsa daiteke guda-testuinguru berean altxatu zirela baina bi mugimendu taktiko desberdini erantzuten dietela.

Kokapenak kontuan hartuta, kanpamentuak lotu beharko lirateke Urbasa eta Andia mendilerroen kontrolarekin; baliabide ugari daude bertan, baita bide eta ibilbide ere, guda testuinguru batean estrategikoak izan daitezkeenak. Zentzu horretan, oso adierazgarria da handik hurbil egotea Allideko erromatar postu militarra (Martínez, 2009), beranduagoko kronologia batekoa, baina argi erakusten duena ingurunearen eta bideen gaineko kontrolaren beharra. Modu berean, erromatar militarren mugimenduekin ere lotu beharko lirateke Andiako mendilerroan zehar, iparralderago gehienbat, urte batzuk atzera izandako zenbait aurkikuntza, bereziki tatxetak (Elkartea, 2017).

El Raso B. Nauheim motako fibula, burdinezkoa. 📷 A. M. V.

-Elkartea, E. (2017). Prospección en las sierras de Urbasa, Andia y Aralar. Campaña 2015. Trabajos De Arqueología Navarra, 28, 41-50.

-Martínez Velasco, A. (2009): El puesto militar romano de Allide (Ibiricu, Navarra). Prospección 2008. Kobie Paleoantropología, 28, 233-246.

-Martínez Velasco, A. (2023): El Raso (Lezaun. Nafarroa). Erromatar kanpamentu militarra. Aranzadiana, 143, 150.

LAS PEÑUESCAS (PIÉLAGOS, CANTABRIA). KOSTALDEKO GOTORLEKUA

Zuzendaria: Antxoka Martínez Velasco
Finantzazioa: Cantabriako Kultura Zuzendaritza

Las Peñuescas Liencresko Parke Naturalean dago; itsasoan sartzen den haitz-muturra da, Canallave eta Valdearenas hondartzen artean. Ingurune horretan dunak dira nagusi, baina urte batzuk atzera, aparkaleku bat egokitu zen hor ondoan bisitarien irisgarritasuna errazteko eta horrek eragina izan zuen dunen dinamikan zenbait tokitan. Horietako bat Las Peñuescas izan zen; ordura arte duna batek estaltzen zuen, baina obrak eragindako aldaketagatik, haizeak harea metatzeari utzi zion eta, kontra, higatzen joan zen, eta hala, 2023an, ezezaguna zen eraikin baten oinplanta azaleratu zen.

Mortera Verde elkarteko kideek hori ikusita, eta tokiaren interesarekin jabetuta, Cantabriako Kultura Zuzendaritzari hura ezagutzera bideratutako jarduera egitea eskatu zioten, eta horrek Aranzadi Zientzia Elkarteari egin zion enkargua.

2024an burutu zen, azkenean, ekinaldi arkeologikoa. Helburu nagusia izan zen eraikinaren funtzioari eta kronologiari buruzko informazioa lortzea; horretarako, oinplanta osoa garbitu eta/edo indusi zen; egituraren barrualdean, berriz, bi kata egin ziren.

Ekinaldia burututa, zehaztu ahal izan da oinplanta errektangularra diseinatu zela, 20,4 x 7,32 metrokoa. Hormek 60 cm inguruko zabalera zuten, inguruko kareharrizko harlangaitzezkoak ziren, zorua uharriz egokituta zegoen eta sarbide

Las Peñuescas. Ikuspegi orokorra . DMAX



Las Peñuescas. Fusil harria. IRUDIA: M. L. SERNA

bakarra zuen iparraldera begira.

Material gutxi aurkitu ditugu, baina horien artean bereziki argigarriak izan dira bi fusil harri, sukarri marroi argian landuak, eta bi txanpon, bata Felipe IV.rena, sei marabedikoa, birzigilatua 1603ko dekretuaren arabera, eta bestea Carlos II.rena, 1680ko bi marabedikoa.

Oraingoz, behintzat, ez dugu eraikinaren aipamenen berririk ohiko iturri historikoetan, zentzu horretan baina, indusketan jasotako datuek (egituraren ezaugarriak eta materialak) adierazten dute eraikina, behintzat, XVII. mendearen bigarren erdialdearen eta XVIII. mendearen hasiera artean erabili zela. Fusil harriek adierazten dute goarnizio bat zegoela eta, beraz, funtzio militarra izan zuela.

Kokapena eta izaera ere kontuan hartuta, baliteke kostaldeko bateria baten aurrean egotea, tiro tenkatuko artilleria piezak izango zituena. Hori horrela izanik, parabola-tiroko artilleriaren garapenak iraungita utziko zuen kokapen hori eta, ondorioz, modu ordenatu batean desmuntatu eta abandonatu zen.

SEDIMENTOLOGIA LABORATEGIA
LABORATORIO DE SEDIMENTOLOGÍA

Ana Urizeta José Miguel Edeso

2024. urtean, sedimentologia-laborategiko kideek honako jarduera hauek egin dituzte:

Berroberria eta Alkerdi I. haitzuloetan jasotako laginen analisiak amaitutzat eman ditugu. Txostena idatzita dago eta azken aldaketak eta zuzenketak baino ez dira falta.

Amaitu ditugu Koskobilo II (Olazti) aztarnategian jasotako laginen analisiak. Dagokion txostena idatzi da, eta indusketaren zuzendari Daniel Ruiz Gonzalezi eman zaio. Aurten beste laginketa bat egitea espero da.

Amaitu ditugu Aizkoltxoko aztarnategian (Mendaro, Gipuzkoa) jasotako laginen analisiak.

ARKEOZOOLOGIA LABORATEGIA / LABORATORIO DE ARQUEOZOOLOGÍA

Mikelo Elorza ha llevado a cabo el estudio e identificación de restos óseos de aves procedentes de los yacimientos paleolíticos de Sagaskin (Navarra), San Adrian (Gipuzkoa) y Tito Bustillo (Asturias), y actualmente prepara el estudio de las aves del yacimiento de Berroberría (Urdazubi/Urdax, Navarra) para su publicación.

Pedro Castaños ha llevado a cabo el estudio e identificación de restos óseos de mamíferos de los yacimientos paleolíticos de Sagaskin (Navarra) y San Adrian (Gipuzkoa), y actualmente prepara el estudio de los mamíferos de Berroberría (Urdazubi/Urdax, Navarra) para su publicación.

OSTEOTEKA

Este año hemos recuperado nuevos restos esqueléticos de mamíferos que se han incorporado a los fondos de la colección de referencia Osteoteka.

Se ha atendido a diversas consultas por parte de estudiantes e investigadores de la UPV/EHU, Universidad de Salamanca, y Universidad Complutense de Madrid, para la realziación de sus estudios y trabajos académicos.

BESTE IKERKETA-PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA/ PARTICIPACIÓN EN OTROS PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

- **Izaro Quevedo:** co-dirección junto a Gerard Remolins de la empresa ReGiraRocs, SL. de la excavación arqueológica de Canya dels Pujols (Sant Julia de Loria, Andorra) del 17 al 24 de agosto de 2024.

- **Izaro Quevedo:** co-dirección junto a Gerard Remolins de la empresa ReGiraRocs, SL. de la excavación arqueológica del Hort del Mossén (Canillo, Andorra) del 26 al 31 de diciembre de 2024.

- **Izaro Quevedo:** participación en el proyecto *Expansión y desarrollo del neolítico en el Mediterráneo central: tecnología y producción de alimentos en el asentamiento lacustre de La Marmotta (Roma, Italia)* (201818008), Proyectos Intramurales para Arqueología en el Exterior, financiado por el Ministerio de Ciencia Innovación y Universidad en colaboración con el CSIC-IMF.

- **Izaro Quevedo:** participación en el proyecto de divulgación científica *Integra>Ciencia: Divulgación científica sin barreras - FCT-17-11972* del CSIC-IMF financiado por la Fundación Española para la Ciencia y la Tecnología.

- **Izaro Quevedo:** estudio de los materiales cerámicos de Bòbila Madurell (Sant Quirze del Vallés, Barcelona) durante 2019 en el marco del proyecto de *Aproximación a las primeras comunidades neolíticas del Noreste peninsular a través de sus prácticas funerarias* HAR2011-23149 del CSIC-IMF financiado por el Ministerio de Ciencia e Innovación, Programa I+D.

- **Izaro Quevedo:** participación en el proyecto de I+D+I 2019, AtCoast: Pottery technology in the Atlantic coast of the Iberian Peninsula during the Late Prehistory (*ca.* 6000-3000 cal BC), cuya investigadora principal es **Miriam Cubas** y financiado por el Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades.

- **Jon Aldaia Aierbe:** Flotación y procesado de muestras de sedimento, procedentes de la campaña 2024 de excavación en el yacimiento de Amalda III (Zestoa).

- **Jexux Tapia**: co-dirección junto con Esteban Álvarez Fernández (USAL) y Marián Cueto Rapado (UAB) del proyecto *Investigaciones en la cueva de Tito Bustillo (Ardines, Ribadesella, Asturias). Campaña 2024*. Financiación: PID2020-114462GB-I00 (PaleontheMove) de la Universidad de Cantabria y por el GIR PREHUSAL (Universidad de Salamanca). Campaña del 27 de mayo al 8 de junio de 2024.

- **Jexux Tapia**: participación en el proyecto *Excavación del Poblado Neolítico Precerámico de Kharaysin (Quneya, Jordania)*. IP: Juan José Ibáñez (CSIC-IMF). Financiación: Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades, Fundación PALARQ, CSIC-IMF. Campaña del 16 de septiembre al 25 de octubre de 2024.

- **Jexux Tapia:** estudio de materiales en asta de ciervo del yacimiento paleolítico de El Cierro, en el marco del proyecto (PaleontheMove) de la Universidad de Cantabria y GIR PREHUSAL (Universidad de Salamanca).

- **Jexux Tapia:** estudio de materiales en asta de ciervo y de moluscos del yacimiento paleolítico de Langatxo, junto con Esteban Álvarez-Fernández y Alberto Marchán, en el marco del proyecto (PaleontheMove) de la Universidad de Cantabria y GIR PREHUSAL (Universidad de Salamanca).

- **Jexux Tapia:** estudio de materiales en sílex del yacimiento neolítico precerámico de Kharaysin (Jordania) junto con Bogdana Milić, en el marco del proyecto *Excavación del Poblado Neolítico Precerámico de Kharaysin (Quneya, Jordania)* financiado por el Ministerio de Ciencia, Innovación y Universidades, Fundación PALARQ y CSIC-IMF.

KUDEAKETA PROIEKTUAK / PROYECTOS DE GESTIÓN

SEGUIMIENTO ARQUEOLÓGICO INTENSIVO DE LAS OBRAS DE REMODELACIÓN DE LA EDAR DE OLAZTI (2023-2024)

Responsable: Daniel Ruiz-Gonzalez
Financiación: Navarra de Infraestructuras Locales S.A. (NILSA)
Colaboradoras: Olaia Granizo

Gracias a las prospecciones intensivas y las derivadas zonificaciones arqueológicas realizadas por investigadores e investigadoras de Aranzadi Z. E. en el entorno de Koskobilo desde 2019, se dictaminó la necesidad de realizar un seguimiento arqueológico de caracter intensivo durante la ejecución de la remodelación de la EDAR del municipio de Olazti (Nafarroa). Durante las labores del seguimiento se han identificado, delimitado y excavado tres yacimientos arqueológicos (Koskobilo III y IV y Orna I) y recuperado abundantes restos arqueológicos asociados, aunque descontextualizados.

Los trabajos de seguimiento arqueológico realizados en 2024 han permitido la recuperació de múltiples materiales líticos tanto retocados como restos de talla en sílex de diferentes momentos de la Prehistoria pero asimilables, principalmente al Palaeolítico Superior Final, en cosonancia con los descubrimiento realizados durante la excavación de Koskobilo IV.

Igualmente, se ha identificado y excavado otro yacimiento arqueológico, denominado coo Orna I, de cronología aún indeterminada. Sin embargo, resulta intersante pues presenta un conjunto de restos líticos de talla y algún útil retocado –todos en sílex– asociados a varias concetraciones de elementos vegetales leñosos carbonizados. El estudio en profundidad de los restos, así como los estudios antracológicos, dataciones radiocarbónicas, estudios petrológicos, etc. nos permitirá caracterizar dicha ocupación humana prehistórica.

En suma, los trabajos realizados hasta la fecha durante el seguimiento intensivo de las obras de la EDAR junto con el estudio pormenorizado de los restos recuperados y las investigaciones en el entorno (Koskobilo I y II) nos permitirá carcterizar las diferentes ocupaciones humanas prehistóricas que han tenido lugar en la Sakana y el valle de la Burunda.

Proceso de excavación del yacimiento de Orna I en en marco del seguimiento arqueológico en la remodelación de la EDAR de Olazti (Nafarroa). Abajo, Área de excavación del yacimiento de Orna I en en marco del seguimiento arqueológico en la remodelación de la EDAR de Olazti (Nafarroa). Dani Ruiz

ARROLAKO ETA MUSKIRITZUKO SAILAK LEHENGORATZEKO LANEN MIAKETA ETA ZAINTZA ARKEOLOGIKOA
Arduraduna: Jexux Tapia Sagarna
Finantzazioa: Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentua/URBAN KLIMA 20250-LIFE 18 IPC 000001.

Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak lurraldeko eremu degradatuak leheneratzeko diru laguntzak ebatzi ditu eta gure sailari eskatu dio Estazio Megalitikoen babes-eremuen barruko lanen zaintza arkeologikoa egitea.

Arrolan lehengoratuko den lursailak Satui-Arrolamendi Estazio Megalitikoaren zati txiki bat besterik ez du hartzen. Bertan ezagutzen diren tumuluak (Arolamendi I, II eta III eta Jentiletxe) ez daude arriskuan, eta azaleko miaketan ez da beste aztarnarik aurkitu.

Muskiritzun, lehengoratuko diren bi sailek ere zati bana hartzen dute Elosua-Plazentziako Estazio Megalitikoaren barruan, baino ez dute eraginik gertuen dauden monumentuengan (Iruiya, Sabua, Atxolin Txiki I eta I, eta Aizkoin trikuharriak) eta azaleko miaketan ez da aztarna arkeologikorik aurkitu.

ERAKUSKETAK

Joseba Rios Garaizar eta Asier Gómez Olivencia: *Neandertales. La historia de la otra humanidad en los Pirineos occidentales/ Neandertalak. Mendebaldeko Pirinioetako beste gizateriaren historia.* Arkeologia Museoa (Bilbao). 2024ko uztailak 5- 2025 martxoak 30

Maddi Barber (2023/2024): *Harria eta Poltsa.* Museo Bikoitzaren 6. edizioko filma. San Telmo Museoa (Donostia), 2024ko azaroak 16- 2025eko azaroak 16. San Adriango aztarnategian Aranzadi Zientzia Elkarteko arkeologi talde batek gauzatzen dituen lan prozesuetan murgiltzen da filma.

IRTEERAK ETA BISITA GIDATUAK

Sagastietakp lepua III ezagutzeko bisita. Manu Ceberio

Jexux Tapia eta Manu Ceberio: Sagastietako Lepua III ezagutzeko bisita Txirrita Eskolako HLHIko ikasleentzat eta herriko jendearentzat. Ereñotzu (Hernani), Martxoak 15 eta 16.

Daniel Ruiz-Gonzalez. "Mendiak guztiontzat. Koskobiloko aztarnategi arkeologikoetara bisita gidatua". Mank Sakana eta Montes Solidarios elkartearekin batera eginiko bisita gidatua, desgaitasunen edo dibertsitate funtzionalak dituzten jendearentzat irisgarria. Olazti, 2024ko maiatzaren 18an.

Daniel Ruiz-Gonzalez eta Olaia Granizo. "Koskobiloko indusketarako ate irekiak". Egun osoko bisita gidatuak, publiko orokorra. Olaztiko Udala. Olazti, 2023ko uztailaren 20an.

Daniel Ruiz-Gonzalez eta Olaia Granizo. "Koskobilo, Ibilbide bat Historiaurrera. Bisita gidatua ume eta helduentzat". Eguneko bisita gidatua, heldu eta umeentzat. Kukuerreka Elkartea. Olazti, 2024ko azaroaren 4a.

HITZALDIAK ETA IKASTAROAK

Jexux Tapia: "Historiaurreko miaketak Alkizan 2023-2024". Otsailak 7. Alkizako Udala.

Asier Gómez Olivencia. "¿Qué tal Neandertal?" Nuevos datos sobre un viejo conocido Otsailak 12, Bilbo. Organizado por: Cátedra de Cultura Científica UPV/EHU. Darwin Eguna.

Asier Gómez Olivencia. "Ecos de un pasado peligroso. Los leones en Euskal Herria". Otsailak 14, Donostia. Organizado por: Aranzadi Zientzia Elkartea/San Telmo Museoa. Jornadas de Arqueología.

Asier Gómez Olivencia. "Euskal Herriko Neandertalak". Apirilak 16, Iurreta. Organizado por: Cátedra de Cultura Científica UPV/EHU. Ciclo Ágora, plaza del conocimiento

Jon Aldaia: "Historiaurreko aztarnategien miaketa Oria arroan" hitzaldia. Subijana etxea, Amasa-Villabona. 2024ko maiatzak 7.

Asier Gómez Olivencia; Asier Hilario. "Geolodía, mucha geo en el Valle de la Prehistoria de Deba". Maiatzak 11. Deba. Organizado por: Geoparque de la Costa Vasca.

Joseba Rios Garaizar; Asier Gómez Olivencia. "Los Neandertales en Euskal Herria"
Ekainak 14. Arkeologia Museoa, Bilbao. Organizado por: Arkeologia Museoa. Dentro de las Jornadas Europeas de Arqueología.

Jon Aldaia: "Historiaurreko miaketak Oria arroan" hitzaldia. Kultur etxea, Itsasondo. 2024ko ekainak 28.

Asier Gómez Olivencia. "Georgiatik Zestoara, Atapuercatik pasatuz; lehenengo gizakien zantzuak bilatzen Urolako bailaran". Abenduak 10. Zestoa. Organizado por: Antxieta Arkeologi Taldea/Zestoako Udala. Arkeologi Astea.

TAILERRAK-TALLERES DIDÁCTICOS

Izaro Quevedo: taller "Ancestres. 1000 maneres de morir a la prehistória" en La Casa dels Xuklis (AFANOC) el 22 de enero de 2024.

Jexux Tapia: "Historiaurreko bizimoduak" tailerra, Oriarte DBH1-eko ikasleentzat (Lasarte-Oria), 2024ko urtarrilak 29-30 eta otsailak 1.

Jexux Tapia: "Giza Eboluzioa" tailerra, Talaia BHko ikasleentzat (Hondarribia) Kultura Eskola programa barruan, 2024ko otsailak 7.

Manu Ceberio eta Miren de Miguel: "Paleolitoko gizarteak eta paisaiak" tailerra, 5 urtetik gorako haurrentzat. Aranzadiko XXII. Arkeologia Jardunaldiak-San Telmo Museoa (Donostia), 2024ko otsailak 3, 17 eta 24.

Jexux Tapia: "Historiaurreko bizimoduak" tailerra, Lizartzako Eskolako ikasleentzat (Lizartza), 2024ko martxoak 4.

Jexux Tapia eta Manu Ceberio: BH1eko ikasleentzat "Paleolitoko kultura materiala eta bizimodua" tailerra. Cristobal Gamon BHI (Errenteria), 2024ko martxoak 21.

Jexux Tapia: "Sua pizteko teknikak" tailerra Akting Ingeniaritza SL-ko lankideentzat, Aranzadiko egoitzan, 2024ko apirilak 19.

Jexux Tapia: "Historiaurreko teknikak" tailerra Helduen Hezkuntzako ikasleentzat (CEPA-HHI Donostia), 2024ko apirilak 29.

Jexux Tapia eta Manu Ceberio: "Evolución de los animales: Leones, Ciervos, Gorilas y Humanos" haur eta familientzako tailerra. Donostia International Physics/Jot Down Ciencia Jardunaldiak, Tabakaleran (Donostia), 2024ko maitzak 4.

Izaro Quevedo: taller "Ancestres. 1000 maneres de morir a la prehistòria" en "La Festa de la ciencia 2024" los días 8 y 9 de junio de 2024 en el Born Centre de Cultura i Memòria en Barcelona.

Izaro Quevedo: taller "Ancestres. 1000 maneres de morir al neolític" en la "Fira didáctica de la Prehistòria del Museu de Solsona" el 15 de junio de 2024.

Jexux Tapia eta Manu Ceberio: "Historiaurreko bizimoduak" tailerra Txirrita Eskolako HLHI-ko ikasleentzat (Ereñotzu, Hernani), 2024ko ekainak 21.

Daniel Ruiz-Gonzalez, Olaia Granizo, **Erik Arévalo, Aitor Sánchez eta Blanca Ochoa-Fraile**. "Historiaurreko ginkana". El 27 de julio de 2024, aprovechando las festividades patronales del municipio de Olazti se organizó una mañana de yinkana-talleres para los y las más pequeñas. La yincana, centrada en la Prehistoria, contó con distintos puestos temáticos: el fuego; la caza, herramientas y su práctica; el sílex, su talla y la fabricación de útiles y herramientas; el arte Prehistórico, temáticas, materiales y técnicas de realización; los adornos personales, materiales y fabricación; y los asentamientos y su fabricación.

Izaro Quevedo: taller de arqueología en la Escola Teresa Clarademunt el 19 de octubre de 2024.

Jexux Tapia: Kutxa Fundazioko Inspira Bizitzak ekitaldian Historiaurreari buruzko aurkezpena. Eureka Zientzia Museoa, 2024ko azaroak 4.

Jexux Tapia: "Giza Eboluzioa" tailerra Jakintza Ikastolako BHko ikasleentzat (Ordizia), Kultura Eskola programa barruan, 2024ko azaroak 21.

Jexux Tapia: "Dolmenen Ibilbidea, Suaren inguruko kondairak eta Historiaurreko bizimoduak" Aranzadi eta Kutxa Fundazioko Bihotz-Berdeak programa barruan. Elosuko aterpea (Elosu, Bergara), 2024ko azaroak 23 eta 24.

NABARMENDUAK-DESTACADOS

IWGP (INTERNATIONAL WORK GROUP FOR PALAEOETHNOBOTANY) MINTEGIA ARANZADIN

Arduraduna: Amaia Arranz Otaegui

Irailaren 15etik 17ra IWGP-ko (International Work Group for Palaeoethnobotany) ikerketa talde batek Aranzadiko egoitzan bere lehen mintegia antolatu zuen. Historiaurreko saileko kidea den Amaia Arranz nazioarteko ikerketa talde honen koordinatzailea da ere. Euren ikergaia Asia Ekialdeko landareen lehen domestikazioa eta ustiaketa da. Donostiako mintegi honek arlo honetako aditurik ezagunetarikoak bildu zituen, estatuko zein atzerriko 30 ikerlari baina gehiago elkartuz bertan zein on-line.

Bileraren helburua azken urteetako aurkikuntza berrien inguruan solastea eta eztabaida arkeologiko nagusien inguruan adostasunak bilatzea izan zen. Lehendabiziko bi egunetan partaideek euren ikerketen aurkezpenak egin zituzten Elosegi aretoan, eta hirugarrenean mahai-inguru bat antolatu zen mintegiaren gogoetak amankomunean jartzeko. Ondorioz, erabaki zen aurkeztutako ikerketak aurten kaleratuko den *Vegetation History and Archaeobotany* aldizkariko argitalpen berezi baten argitaratzea.

Nazioarteko mintegiko partehartzaileak. Amaia Arranz

FORMAZIO AKADEMIKOA FORMACIÓN ACADÉMICA

Jon Aldaia: Doktoretza Tesia egiten ari da ERC Palaeorigins proiektuaren baitan Euskal Herriko Unibertsitatean. Epipaleolitoko paleoingurua eta giza taldeen baso ustiapena ikertuko ditu Ekialde Hurbilean.

PRENTSA, IRRATI ETA TELEBISTAN AGERRALDIAK

Jexux Tapia: Euskadi Irratia, *Argi Ibili*, Edurne Ayuso (2024/02/27): Olatzazpiko kobaren indusketa Alkizan. https://eitb.eus/N_p8KOOM/

Alfredo Moraza eta Jexux Tapia: Euskadi Irratia, *Faktoria magazina*, Maider Segurola (2024/04/23): Aranzadiko udako indusketa-eskaintza. https://eitb.eus/N_WGwDJj/

Jon Aldaia: "Historiaurreko miaketak egin ditu Aranzadik Oria arroan". Jon Miranda. Ataria (2024/05/09) https://ataria.eus/tolosaldea/1715172465734-historiaurreko-miaketak-egin-ditu-aranzadik-oria-arroan

Jon Aldaia: "Historiaurreko aztarnak Itsasondon". Laida Goiburu. Goiberri (2024/6/28) https://goiberri.eus/2024/06/28/historiaurreko-aztarnak-itsasondon/

Jon Aldaia: "Aranerrekako harpean barrena". Leyre Carrasco. Ataria (2024/08/09) https://ataria.eus/amasa-villabona/1723193532486-aranerrekako-harpean-barrena

Manu Ceberio, Jexux Tapia eta Alfredo Moraza: "San Adrian-Lizarrate. Pasabide natural eta estrategikoa". Amaia Jimenez Larrea eta Gotzon Aranburu/Foku. Berria (2024/08/23: 18-19).

Jexux Tapia: "Alkizako Itxurain tumulua induskatu dute". Jon Miranda. Gipuzkoako Hitza (2024/09/09). https://gipuzkoa.hitza.eus/2024/09/09/alkizako-itxurain-tumulua-induskatu-dute/

Jesus Tapia, Manu Ceberio eta Alfredo Moraza: Euskal Telebista, *Teknopolis*, Bego Zubia (2024/10/06): La nueva cara de los neandertales. https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/faktoria-magazina/osoa/9660786/

Jesus Tapia: Euskadi Irratia, *Faktoria magazina*, Maider Segurola (2024/12/30): Kharaysin (Jordania), 2024ko kanpaina. https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/faktoria-magazina/osoa/9660786/

PUBLICACIONES || ARGITALPENAK

KONGRESU ETA MINTEGIETAN PARTE HARTZEA-PARTICIPACIÓN EN CONGRESOS Y SEMINARIOS

Jesus Tapia: "Lateglacial occupations in Sagaskin 3 cave". Presentación en el grupo de trabajo TAHIA Workshop Lithique. Le Tardiglaciaire dans l'Arc Atlantique: Intéractions techniques, socio-économiques et graphiques entre communautés Humaines et Animales durant la transition Pléistocène-Holocène (14500-11000 cal BP). Gasteiz, 19 de marzo de 2024, EHU/UPV.

Jesus Tapia. "Lateglacial occupations in San Adrian cave". Presentación en el grupo de trabajo TAHIA Workshop Lithique. Le Tardiglaciaire dans l'Arc Atlantique: Intéractions techniques, socio-économiques et graphiques entre communautés Humaines et Animales durant la transition Pléistocène-Holocène (14500-11000 cal BP). Gasteiz, 19 de marzo de 2024, EHU/UPV.

Jesus Tapia. "La industria ósea de la cueva de El Cierro". Presentación en el grupo de trabajo Las materias primas de origen biótico y abiótico en la Prehistoria del Golfo de Bizkaia: resultados del Proyecto PaleontheMove. Salamanca , 21 de marzo de 2024, Universidad de Salamanca.

Izaro Quevedo. Comunicación oral: "Estrategias de divulgación para investigaciones relacionadas con el Neolítico: Neolithic Miscellany" en el Seminario Neonet que tuvo lugar en la Universidad de Alcalá del 25 al 26 de abril de 2024.

Jesus Tapia, Rodrigo Portero, Marián Cueto, Rosana Cerezo-Fernández, Jesús Jordá-Pardo y Esteban Álvarez-Fernández. Comunicación oral: "Bone industry in the Upper Paleolithic occupations at El Cierro Cave (Ribadesella, Asturias, Spain)" en el 15th Worked Bone Research Group (WBRG) International Meeting celebrado en París del 13 al 17 de mayo de 2024.

Izaro Quevedo. Organización de la sesión "What are you doing here?" en el Landscape Archaeology Conference que tuvo lugar en la Universidad de Alcalá del 10 al 14 de junio de 2024.

Asier Gómez Olivencia. "The vertebral column and thorax of the Sima de los Huesos hominins". Presentación online dentro del Palaeoanthropology and Comparative Anatomy (PACA) reading group, organizado por Department of Anthropology, 20 de junio de 2024.

Asier Gómez Olivencia. La columna vertebral y la caja torácica de los humanos de la Sima de los Huesos . Presentación en el Simposium Internacional Cuarenta años de excavaciones e investigaciones en la Sima de los Huesos organizado por: Universidad de Burgos y la revista The Anatomical Record en Burgos, 24 de julio de 2024.

Izaro Quevedo. Comunicación oral: "Breaking barriers: inclusive outreach in archaeology for children and teenagers undergoing cancer treatment and people deprived of liberty" en el 30 Annual Meeting of the European Association of Archaeologists (EAA) que tuvo lugar en Roma (Italia) del 28 al 31 de agosto de 2024.

Izaro Quevedo. Comunicación oral: "Aproximación al Neolítico a partir de la cerámica, el caso de la Cueva de Els Trocs (Bisaurri, Huesca)" en el VIII Congreso Internacional del Neolítico en la Península Ibérica que tuvo lugar en la Universidad de Alcalá del 11 al 13 de septiembre de 2024.

Jon Aldaia. Comunicación oral: "Anthracological study of Natufian palaeoenvironments in the Black Desert" en el International Research Group of Palaeoethnobotany (IWGP) celebrado en Donostia del 15 al 17 de septiembre 2024.

ZIENTZIA ARTIKULUAK-ARTÍCULOS CIENTÍFICOS

Aiestaran, M., Velaza, J., Gorrochategui, J., Usúa, C., Pujol, J., Alonso, E., Iriarte, E., Narbarte-Hernandez, J., **Ruiz-González, D.**, García-García, E., Sesma, J., Mujika-Alustiza, J.A., García Gazólaz, J., Balduz, B., Agirre-Mauleon, J., 2024. A Vasconic inscription on a bronze hand: writing and rituality in the Iron Age Irulegi settlement in the Ebro Valley. Antiquity 98(397), 66-84. https://doi.org/10.15184/aqy.2023.199

Alfaro-Ibáñez, M.P., Cuenca-Bescós, G., **Gómez-Olivencia, A.**, Demuro, M., Arnold, L.J., Arsuaga, J.L., 2024. Arvicolinae rodents of Galería de las Estatuas (Sierra de Atapuerca, Burgos) and insights into MIS 5- to –4 climatic conditions in Northern Iberia. Quaternary Science Reviews 343, 108939. https://doi.org/10.1016/j.quascirev.2024.108939

Cerezo-Fernández, R., Cueto, M., **Tapia, J.**, Álvarez-Fernández, E., 2024. Bevelled Tools from Tito Bustillo Cave (Asturias, Northern Spain). Revisiting an Understudied Magdalenian Antler Tool. En Markovi , D., Mladenovi , T.: Case Studies in European Zooarchaeology. BAR International Series S3192, 1-14. Oxford.

Gómez-Olivencia, A., Arsuaga, J.L., 2024a. The Sima de los Huesos cervical spine. The Anatomical Record 307, 2451-2464. https://doi.org/10.1002/ar.25224

Gómez-Olivencia, A., Arsuaga, J.L., 2024. The Sima de los Huesos thorax and lumbar spine: Selected traits and state-of-the-art. The Anatomical Record 307, 2465-2490. https://doi.org/10.1002/ar.25414

Jordá-Pardo, J. F., Cueto, M., Martínez-Villa, A., **Tapia, J**., Álvarez-Fernández, E., 2024. El Magdaleniense de la desembocadura del Sella (Ribadesella, Asturias, España) a la luz de las recientes investigaciones. En: Bernal Gómez, M.: Magdaleniense. Iberia tras el Último Máximo Glacial, pp. 57-99. Almuzara, Córdoba.

Martínez-Pillado, V., Demuro, M., Ortiz, J.E., Shao, Q., Arnold, L.J., Duval, M., Cheng, H., Torres, T., Santos, E., Falguères, C., Tombret, O., García, N., Aranburu, A., **Gómez-Olivencia, A.**, Arsuaga, J.L., 2024. Constraining the age of the Pleistocene sedimentary infill of Cueva Mayor (Atapuerca, N Spain) through a multi-technique dating approach. Quaternary Geochronology 83, 101576. https://doi.org/10.1016/j.quageo.2024.101576

Mendizabal, O., Esain, P., Velaza, J., Gorrochategui, J., Aiestaran, M., Pescador, A., Narbarte, J., **Ruiz-González, D.**, Legorburu, M., Ibero, I., Aranburu, A., Damas, L., Martinez, B., Iriarte, E., Puldain, J., Gartzia, E., Alonso, E., Edeso, M., Agirre-Mauleon, J., 2024. LARRAHE. Altar a una divinidad vascona del siglo I d.C. en Larunbe. Nafarroa Arkeologia Auzolana, nº 2, Aranzadi Zientzia Elkartea, Donostia.

Mujika-Alustiza, J.A., Arévalo-Muñoz, E., **Ruiz-González, D.**, Berganza Gochi, E., Arribas Pastor, J.L., 2024. La industria ósea Magdaleniense y Aziliense de la cueva de Santa Catalina (Lekeitio, Bizkaia). En Berganza Gochi, E., Arribas Pastor, J.L. (coords.), La cueva de Santa Catalina (Lekeitio, Bizkaia). Industrias líticas y óseas, colorantes y arte mobiliar, 139-186. KOBIE. Serie BAI, n.º 10, Diputación Foral de Bizkaia.

Rios-Garaizar, J., Sánchez-Romero, L., Arriolabengoa, M., Benito-Calvo, A., Expósito, I., Del Val, M., Karambaglidis, T., Marín-Arroyo, A.B., Pérez-Garrido, C., Arenas-Sorriqueta, E., Eixea, A., **Gómez-Olivencia, A.**, Agudo-Pérez, L., San Emeterio, A., Antxieta Arkeologi Taldea, 2024. MIS5-MIS3 Neanderthal occupations at Amalda III cave (Northern Iberian Peninsula). Quaternary Science Reviews 333, 108666. https://doi.org/10.1016/j.quascirev.2024.108666

Rmoutilová, R., Br žek, J., **Gómez-Olivencia, A.**, Madelaine, S., Couture-Veschambre, C., Holliday, T., Maureille, B., 2024. Sex estimation of the adult Neandertal Regourdou 1 (Montignac, France): Implications for sexing human fossil remains. Journal of Human Evolution 189, 103470. https://doi.org/10.1016/j.jhevol.2023.103470

Rodríguez-Almagro, M., **Gómez-Olivencia, A.**, Villalba de Alvarado, M., Arsuaga, J.L., Sala, N. 2024. Taphonomic study of the cave bears (Ursus cf. deningeri and U. spelaeus) from the Sima I of the El Polvorín cave (Northern Iberian Peninsula). Quaternary Science Advances 13, 100171. https://doi.org/10.1016/j.qsa.2024.100171

Sala, N., Martínez, I., Lorenzo, C., García, R., Carretero, J.M., Rodríguez, L., **Gómez-Olivencia, A.**, Aranburu, A., García, N., Quam, R., Gracia, A., Ortega, M.C., Arsuaga, J.L., 2024. Taphonomic skeletal disturbances in the Sima de los Huesos postcranial remains. The Anatomical Record 307, 2437-2450. https://doi.org/10.1002/ar.25197

Santamaría-Díaz, U., **Quevedo-Semperena, I**., Lozano-López, N., 2023. Tendencias en el estudio de la cerámica: principales enfoques y técnicas de análisis. Revista Arqueología y Prehistoria del Interior Peninsular ARPI, 9, 63-79.

Tejero, J.-M., Cheronet, O., Gelabert, P., Zagorc, B., Álvarez-Fernández, E., Arias, P., Averbouh, A., Bar-Or, G., BArzilai, O., Belfer-Cohen, A., Bosch, M.D., Brück, F., Cueto, M., Dockner, M., Fullola, J.M., Gárate, D., Giannakoulis, M., González, C., Jakeli, N., Mangado, X., Meshveliani, T., Neruda, P., Nigst, Ph., Ontañón, R., Shemer, M., Šimková, **Tapia, J.,** Sánchez de la Torre, M., Schwab, C., Weber, G, Pinhasi, R., 2024. Cervidae antlers exploited to manufacture tools and hunting implements as reliable source of ancient DNA. Helyon 10 (2024). https://doi.org/10.1016/j.heliyon.2024.e31858

Villalba de Alvarado, M., Crégut-Bonnoure, E., Arsuaga, J.L., Collado Giraldo, H., van der Made, J., **Gómez-Olivencia, A.** 2024. Pleistocene Asian black bear (Ursus thibetanus Cuvier, 1823) in the Iberian Peninsula: new evidence and a complete review. Quaternary Science Reviews 325, 108385. https://doi.org/10.1016/j.quascirev.2023.108385

DIBULGAZIO ARGITAPLENAK-PUBLICACIONES DIVULGATIVAS

Tapia, J. 2024. Alkizako Historiaurrea aztertzen. Oilategitik 24, 49-54.

ETNOGRAFIA

Zuzendaria / Directora: Maite Errarte Zurutuza [etnografia@aranzadi.eus]

“Aldaketa” eta “jarraikortasuna”. Esan genezake itxuraz erabat kontrakoak diren bi kontzeptu hauek deskribatzen dutela gure sailaren aurtengo jarduna. 2024. urte honetan, berrogeita bost urte inguruen ondoren belaunaldi berri batek ekin dio saileko zuzendaritzari. Determinazioz errelebatu eta ilusioz hartu da zeregin hau, “aldaketa” hau; baina gure lan ildoak, sortu diren berriak nahiz aurretiaz bagenituenak, betiko irmotasunez lantzen jarraitu dugu eta lanean aritu gara gure erreferentziak ahaztu gabe, katea hautsi gabe. Horra hor beraz, baita ere, “jarraikortasuna”.

Akademian nahiz maila dibulgatiboan, euskal gizarteari buruzko ikerketak eta ekimenak bultzatzen jarraitu dugu, nahiz eta proiektu berritzaileren bati ere ekin diogun. Esan liteke hiru izan direla departamentuko lan ildoak: gure lurraldeko elementu eta aspektu etnografikoen ikerketa, ondare kudeaketa eta dibulgazioa.

Ikerketei dagokionez, 2024. urtean berriro ere ondare higiezinaren ingurukoak gailendu direla esan genezake; horren adibide ditugu errotarri-harrobien, baserri desberdinen edota mugarrien inguruan egin diren lanak.

Bidebietako Etnografia Laborategiaren baitan, gure ondare etnografiko higikorra bildu, dokumentatu eta balioan jartzen jarraitu dugu. Azkeneko 5 urteotan bertan gauzatu den proiektu garrantzitsuenetako bati, hau da, Fermin Leizaolaren material etnografikoaren bilduma dokumentatzeko eta gordetzeko lanari akabera eman diogu aurten. Era berean, dohaintza berriak medio, elkarteko bilduma etnografiko propioarekin ere lanean aritu gara buru-belarri. Espazio honi esker, praktiketako ikasle nahiz boluntario ugarik gurekin lan egiteko aukera izan dute. Gure eskerrik beroenak beraiei.

Urteroko lanari jarraiki, aurtengoan Etnografia Jardunaldien 45. edizioa antolatu dugu San Telmo Museoan, askotariko hitzaldiekin eta berrikuntzekin jarraitzeko asmoarekin. Hala ere, gure sailaz gaindiko kongresu eta konferentzietan parte hartzeko aukera ere izan dugu, gizarteari gure kultur ondarea eta bizimoduak babestu eta ulertzera emateko helburuarekin.

Argitalpenei dagokionez, departamentuko bilduma propioa den Aranzadi Etnografia Bildumako 5. liburukia argitaratu eta aurkeztu dugu, zeinak errotarri-harrobien inguruko diziplinarteko proiektu oparo baten inguruan diharduen. Dena den, gure sailkideek Euskal Herri mailako nahiz maila internazionaleko artikulu eta argitalpenak ere osatu dituzte, askotariko gaietan zentratuta.

Departamendutik egindako beste hainbeste ekimen eta lan aurkezten dira datozen orrietan. Jarrai dezagun lanean, bada, joan direnek erakutsi digutena gordeaz eta etorriko direnei besoak zabalduz!

FERMIN LEIZAOLAK SAILEKO ZUZENDARITZAREN ERRELEBOA PASA DU

Fermin Leizaola Calvo etnografoak Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saileko zuzendaritzaren errelebo eman dio Maite Errarte Zurutuza (Beasain, 1995) historialariari 2024 urtean. Fermin Leizaolak 45 urte baino gehiago eman ditu Etnografia Saila zuzentzen, eta orain, talde gaztearen eskuetan utzi du saila, izan ere, Maite 2019an sartu zen etnografia sailean eta, Suberri Matelorekin batera, ondare kultural materiala katalogatzeko hainbat proiektu jarri dituzte martxan, batez ere ekimen museografikoak eta dibulgaziokoak.

Fermin Leizaola Etnografia Saileko zuzendari izan den urteetan Aranzadiren ibilbidean hain garrantzitsu eta mugarri izan diren proiektuak sortu eta zuzendu ditu, besteak beste Zaharkinak, Euskal Herriko Atlas Etnolinguistikoa, Anuario de Eusko-Folklore Urtekaria, Etnografia Jardunaldiak edota "Herriko etxegintza eta garaixeen European Kongresuak" bezala. Ezin ahaztu ere Sail honen zeregin eta ekimen handienetarikoa izan zela Gipuzkoako Foru Aldundiaren bilduma etnografikoa hutsetik sortzea, orain Gordailuan jaso eta zaintzen dena. Honen harira, **Goizane Álvarez Kultura diputatuak** balioan jarri nahi izan du Fermin Leizaolak egindako lan bikaina: "zalantzarik gabe, Gipuzkoako Foru Aldundiak aparteko etnografia-bilduma izan dezan ekarpen handiena egin duten pertsonetako bat da Fermin Leizaola. Sei hamarkada luzez Fermin Leizaolak ondare hori gordetzeko eta transmititzeko egindako ahalegin nekaezinak agerian uzten du euskal kulturarekiko izandako konpromiso sakona. Horrekin lotuta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Sailak ondare hori etorkizuneko belaunaldiei ezagutarazteko eta zaintzeko gure gain hartutako konpromisoa berretsi nahi du".

2024ko Etnografia Jardunaldietan Etnografia Saileko kide gazteenek Fermin Leizaolari esker ona erakusteko oroigarria oparitu zioten.

Fermin Leizaola eta Maite Errarte, Saileko zuzendari berria.

Goian, Fermin Leizaola Etnografia saileko eta Aranzadiko beste kide batzuekin Gordailuan. Behean, Fermin Leizaola XLV. Etnografia Jardunaldietan eman zuen hitzaldiaren ostean, inguruan hitzaldira bertaratu ziren Aranzadiko zenbait kide dituela.

ONDARE PROIEKTUAK / PROYECTOS PATRIMONIALES

COLECCIÓN ETNOGRÁFICA FERMIN LEIZAOLA BILDUMA ETNOGRAFIKOA
Arduradunak: Fermin Leizaola Calvo, Maite Errarte Zurutuza, Suberri Matelo Mitxelena
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia

En el año 2024 se han dado por finalizados los trabajos de catalogación de la Colección Etnográfica de Fermin Leizaola. La última remesa ha consistido en la catalogación y fotografiado de corchos de sidra y vino. Esta colección, fruto de más de cincuenta años de exhaustivo trabajo de investigación y recopilación por parte del propio Leizaola, tiene un gran interés etnográfico para la sociedad vasca. Por ello, Fermin Leizaola comenzó a catalogar y acondicionar su colección en 2019 junto al equipo del Departamento de Etnografía de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, de cara a su donación a la Diputación Foral de Gipuzkoa. El resultado ha sido fructífero: Leizaola ha donado su colección con el objetivo concreto de formar a personas en la etnografía y cultura material, para transmitir toda su sabiduría en cuanto a objetos etnográficos y sociedad tradicional se refiere en el proceso de catalogación.

Por lo tanto, el trabajo de estos cinco años ha pasado por diferentes etapas: primeramente, se procedió al traslado de la colección al Laboratorio de Etnografía de Bidebieta desde las dependencias de Leizaola; después se ha ido acondicionando, catalogando y fotografiando todo este material por fases o remesas según los criterios de Gordailua, Centro de Patrimonio Mueble de la Diputación Foral de Gipuzkoa; finalmente, se han trasladado los objetos a Gordailua, quedando a la espera de que se les proporcione un tratamiento de anoxia y almacenarlas definitivamente en sus instalaciones.

Durante todos estos años, el equipo de trabajo ha estado compuesto por Fermin Leizaola, Maite

Proceso de traslado de la colección etnográfica de Fermin Leizaola a Bidebieta en 2019.

Alumnos y alumnas de prácticas de Antropología trabajando en el proceso de limpieza y documentación de piezas etnográficas de la colección en el Laboratorio de Etnografía.

Errarte y Suberri Matelo. Para este trabajo ha sido, también, indispensable la ayuda de unos 25 alumnos y alumnas del Grado en Antropología de la UPV/EHU. Este año también hemos contado con seis de ellos: Irene Baez, Oier Garcia, Naroa Martinez, Joana Muñoa, Ainhize Mitxelena y Urko Rodriguez. Los seis han estado trabajando con la colección de Fermin Leizaola, formándose en aspectos de catalogación y etnografía con nosotros.

Resultados en cifras. Desde el año 2019 hasta 2024, se han podido catalogar alrededor de unas 4400 piezas, siendo ellas de muy diferente carácter: aperos de labranza, cerámica, botellas, pequeños electrodomésticos, herramientas manuales, forja, objetos relacionados con oficios tradicionales, etc. En todo este proceso, se han grabado una serie de videos explicativos de Fermin Leizaola, recogiendo así un valioso testimonio para el futuro.

CANTERAS MOLERAS EN EL NORTE DE PALENCIA

Arduraduna: Javier Castro Montoya

Este año 2024, Javi Castro ha visitado diversas zonas del norte de Palencia para localizar canteras moleras dentro del área del Geoparque Las Loras, también en el Parque Natural de la Montaña Palentina y por diversos pueblos de la zona. Durante estas jornadas, ha localizado hasta 53 nuevas zonas en varios municipios, mayormente en Aguilar de Campoo y en Brañosera. La exploración dentro del área del citado parque natural ha contado con la autorización oficial mediante Resolución del Servicio Territorial de Medio Ambiente de Palencia (Expte. AEN/P/0001/24), contando con la ayuda y colaboración de colegas locales como Patricia Zotes Ferrero y Luis Fernando Ruiz Puebla. Se han emitido 3 extensas memorias, una por cada área analizada. Así, el total de canteras moleras catalogadas entre 2022 y 2024 han sido de 212 zonas.

Zona de extracción de muelas en el borde noroeste del embalse de Aguilar de Campoo.
Javier Castro

CANTERAS MOLERAS EN EL SUROESTE DE CANTABRIA

Arduraduna: Javier Castro Montoya

Javi Castro ha visitado diversas zonas del suroeste de Cantabria para localizar canteras moleras, habiéndose localizado durante el año 2024 hasta 2 nuevas zonas en el municipio de Hermandad de Campoo de Suso, contando con la ayuda y colaboración de colegas locales como Patricia Zotes Ferrero y Luis Fernando Ruiz Puebla.

En la cantera Cinto de la Hermandad-1. J. Castro

MOLINO Y CASERIO DE SARASOLA

Arduraduna: J. Castro Montoya

Javi Castro ha seguido investigando los datos sobre el antiguo molino de Sarasola en Beizama, en el proyecto codirigido junto con Sergio Diez (Errenteria), consultando además diversos archivos. El objetivo es realizar diversas publicaciones con el ayuntamiento de Beizama en 2025.

Junto al molino del caserío Sarasola, Beizama. J. Castro

DOCUMENTACIÓN PARA "HAU", CONCURSO DE DISEÑO DE OBJETOS TRADICIONALES VASCOS

Arduraduna: Helga Massetani

Babesleak: Bitamine Faktoria, San Telmo Museoa, Mondragon Unibertsitatea, EIDE, Muebles Lufe, Aranzadi Zientzia Elkartea

Fermin Leizaola ha participado en la séptima edición del concurso HAU, Concurso de Diseño de Objetos Tradicionales Vascos, organizado por Bitamine Faktoria y San Telmo Museoa, con la colaboración de la Asociación de Ciencias Aranzadi, Mondragon Unibertsitatea, EIDE (asociación profesional que agrupa a diseñadores industriales, gráficos y espaciales del País Vasco y Navarra). El objetivo de este concurso es renovar un objeto tradicional de la cultura vasca, que en la edición de 2024 ha girado en torno al asador de castañas. Leizaola colabora en este proyecto desde sus inicios, aportando la definición etnográfica acompañada de diversos croquis del objeto elegido en cada edición.

BURDINA TALDEAREN BILDUMA ETNOGRAFIKOAREN KATALOGAZIOAREKIN HASTEA

Arduradunak: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza.

Babesleak: Andoaingo Udala

Burdina Taldea Leitzaran bailarako ondare historiko eta kulturala berreskuratzeko lanean aritzen den boluntarioz osaturiko elkartea da, 2002an sortua. Inguruan emandako historiako pasarteak jasotzeaz gain, ondare materialaren aldeko lana ere egin dute. Horren adibide ditugu inguruko karobien, erroten nahiz garbitokien identifikazioa eta berreskuratzea, esaterako. Dena den, ondare material higikorra gal ez dadin ere arduratu izan dira.

Hori dela eta, azkeneko bi hamarkadetan zehar, Burdina Taldeak 1500 pieza inguruko bilduma etnografiko aberatsa osatu du eta Udalak utzitako lokal batean gordeta dago erakusketa gisa. Bilduma honek izaera anitzeko objektuak barne hartzen ditu: ofizioei loturikoak, egunerokotasunari loturikoak, etab. Bai inguruko nahiz penintsulako beste eremu batzuetako piezak biltzen ditu. Andoaingo piezak bildumaren atal garrantzitsu bat dira, herriaren

ondarea jasotzea taldearen helburu nabarmena izan delako.

Bildumaren nolakotasuna eta piezen kopurua ikusita, objektu hauekin inbentario bat osatzeko beharra sortu da, bilduma etnografiko baten inbentarioa egitea funtsezkoa baita bilduma hori epe luzean gordeko dela bermatzeko, ikerkuntzarako nahiz didaktikarako errekurtso baliagarri bilakatzeko eta haren kudeaketa hobetzeko. Inbentariatze eta katalogatzeari esker, bilduma etnografiko hau andoaindarrentzat nahiz etorkizuneko belaunaldientzat baliabide kultural irisgarriagoa bilakatuko da. Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Saila lan honetan hasi da 2024ko urrian. Egitasmo honek urte batzuk irautea aurre ikusten da, bilduma mardula bezain interesgarria delako. Lan hauek egiteko Andoaingo Udalaren babesa jaso du. Gainera, Aranzadik Gipuzkoako Foru Aldundiarekin duen hitzarmenaren baitan Gipuzkoako etnografia sustatu eta zabaltzeko lanen baitan txertatzen da ekimen hau, beste askorekin batera.

Lanak egiteko ezinbestekoa izan da UPV/EHUko Antropologia Graduko praktiketako ikasleen laguntza. Egitasmo hau, beraz, Burdina Taldearen bilduma hobe ezagutzeko balio izateaz gain, jende gaztea ondare kulturalaren kudeaketan trebatzeko balio izaten ari da.

Lanen lehen fasean bildumaren ezagutzan sakondu da, piezei zenbakidun etiketa bat jarriz, bildumak duen objektu etnografikoen kopuru zehatza jakin ahal izateko. Hemendik aurrerako faseetan fitxa espezializatuak nahiz argazkiak egingo zaizkie pieza hauei. Lanei hasiera emateko lehen egunean proiektuaren parte izango diren entitate guztiak bildu ziren: Burdina Taldeko kideak, Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia saileko kideak, EHUko Antropologia Graduko ikasleak eta Andoaingo Udaleko kulturako alorreko zinegotziak Marta Lasa eta Diego Barrasa.

Bideberri BHIko Bitxigintza Diseinuko Goi Mailako Zikloko ikasleak objektu etnografikoen marrazketan.

BIDEBERRI BHI-REKIN ELKARLANA

Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Bideberri BHI

Aranzadiko Etnografia Laborategia antzinako Bidebieta BHI institutuko eraikinean kokatuta dagoenez, Etnografia Sailak 2019. urtetik harremana izan du auzoko institutu publikoa den Bideberri BHIrekin. 2024 urtea funtsezkoa izan da harreman horiei dagokionez, bi entitate hauen arteko elkarlanak indartzen jarraitu baitu. Honen testigu dira, adibidez, Bitxigintza Diseinuko Goi Mailako Zikloarekin kolaborazioan eginiko "Tradizioa Soinean" egitasmoa edota Batxilergoko ikasleekin eginiko etnografia tailerrak. Etnografia sailetik elkarlan honek jarraipen luzea izatea espero dugu.

BEKOOP KOOPERATIBAREKIN ELKARLANA

Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza

Bekoop ekonomia zirkularrean oinarritzen den moda sortzen duen kooperatiba da eta diziplina anitzeko hiru emakumek, Lurgi, Amets eta Krysiak sortu zuten 2022an. Beren oinarrietako hiru hondakinen berrerabiltzea, teknika berrien esperimentazioa eta euskal tradizioa dira.

2024. urtean, kooperatiba hau Kutxa Fundazioak bultzaturiko tokiko moda-ezagutzera emateko "Sorlekua" izeneko moda lehiaketara aurkeztu zen, Daroa izeneko osagarrien kolekzioarekin. Proposamen hau gure arbasoei egindako omenaldia da, egunerokotasuneko gauzak garraiatzeko erabiltzen zituzten objektuetan inspiratutako kolekzioa baita. Inspirazio honetan laguntzeko jo zuten, hain zuzen ere, Aranzadiko Etnografia Sailera. Etnografia saileko ekipoak aholkularitza eta gaiaren inguruko informazioa eskaini zion, bibliografia edota dokumentazio grafiko bidez, besteak beste. Azkenik, Bekoopen proposamena aukeratua izan zen lehiaketan eta kolekzioa Getariako Cristobal Balenciaga Museoan erakutsi ahal izan zuten Donostia Moda Festibalaren barnean. Zorionak hirukote!

SOINUENEAREN SOINU-TRESNAK EUSKAL HERRI-MUSIKAN ENTZIKLOPEDIAN KOLABORAZIOA

Arduraduna: Ander Moso Veira
Babeslea: Soinuenea – Herri Musikaren Txokoa

Soinuenea – Herri Musikaren Txokoa 2002an Juan Mari Beltran musikari eta musikologoak bultzatuta Oiartzunen zabaldu zen folklore tradizionalaren inguruko dokumentazio, sustapen eta topaketarako zentroa da. Espazio honen proiektu handienenetako bat izaten ari da Soinu-tresnak euskal herri-musikan izeneko entziklopedia osatzea. Bide horretan, herrikoiagoak diren edota jolas kutsua duten musika-tresnei ere atala eskaini nahi izan die eta Etnografia Sailari instrumentu hauen inguruko testuak osatzea proposatu zioten. Honela, Ander Moso Veira antropologoa arduratu da entziklopediarako testuak osatzeaz.

EHUKO ANTROPOLOGIA GRADUKO IKASLEAK PRAKTIKETAN BIDEBIETAKO ETNOGRAFIA LABORATEGIAN.

Arduradunak: Suberri Matelo, Maite Errarte

Irene Baez, Oier Garcia, Naroa Martinez, Joana Muñoa, Ainhize Mitxelena eta Urko Rodriguez ikasleak Etnografiako Departamentuan izan dira EHUko Gizarte Antropologia Graduko praktikak burutzen 2024ko irailetik abendu bitartean.

Praktikaldian ondare materialarekin loturiko hainbat lan burutu dituzte. Alde batetik, urte askoan Etnografia Saileko zuzendari izan den Fermin Leizaolaren bilduma etnografikoaren katalogazio eta atontze lanetan aritu dira; bestetik, Andoaingo Burdina Taldearen bilduma etnografikoa katalogatzen ere aritu dira; baita Ramon Urrutia etnografoaren argazki funtsa digitalizatzen ere. Proiektu hauek ondare materialaren kudeaketan zituzten ezagutzak sakontzen lagundu die, baita datu baseen erabilerarekin lehen kontaktu bat izaten ere. Honez gain, zenbait hitzaldi entzun eta irteerak egin dituzte, Etnografia Saileko kideek osaturiko erakusketa desberdinak ezagutzeko asmoz.

Lau hilabete hauetako helburua ikasleei ikasketen alorrerako nahiz jarduera profesionalerako baliagarriak egingo zaizkien erremintak eskaintzea izan da. Mila esker zuon ekarpenarengatik!

GIPUZKOAKO PRESONDEGIKO ASKATASUNAZ GABETUTAKO PERTSONAK BIDEBIETAKO INSTITUTU ZAHARREAN LANEAN

Arduradunak: Ibai Aiensa, Aimar Perurena

Babesleak: Kutxa Fundazioa, Gipuzkoako Foru Aldundia

2024ko azaroan zehar Gipuzkoako presondegiko barneko talde bat lanean aritu da Donostiako Bidebieta auzoko institutu zaharrean. Eraikin hau jabari publikoko ondasuna da eta bertan Aranzadiko Etnografia Laborategia kokatzen da, baita IBT-CRI Donostia, CEPA Donostia HHI, auzoko institutua den Bidebeberri BHI-ko jantokia eta Bidebietako Auzo Elkartea ere.

Proiektu honen helburua askatasunaz gabetutako pertsona talde bati bokazio soziala duen borondatezko auzolandegi batean parte hartzeko aukera eskaintzea izan da, hauen gizarteratzean lagunduz. Eginiko lanen artean Bidebieta auzoko inguru honen ingurumenaren lehengoratzea, lorategiak egokitzea, hondakinak biltzea, hauek zabortegietara garraiatzea eta inguruko instalazio komunak balioan jartzea egon dira.

Lan hauek osatzeko, bestelako irteera edota bisita kulturalak egin ahal izan dituzte; hala nola, Mater Ontzi Museo Ekoatiboa nahiz Ekain Berri bisitatu ahal izan zituzten. Halaber, gizarte kolektibo desberdinekiko sentsibilizazioa bultzatzeko tailerrak ere egiteko aukera izan zuten; Donostiako IBT-CRIrekin egin ahal izan zuten ikusmen urritasuna duten pertsonak laguntzeko tailerra kasu.

Proiektuan parte hartu duten boluntarioak lan eta jarduera desberdinetan.

LOTE-PAISAIAK. IRATZEDIEN ETA IHIDIEN BILAKAERA HISTORIKOA EUSKAL HERRIKO HERRI-LURREN BAITAN PROIEKTUAREN BURUTZEA

Arduradunak: Iñaki Sanz-Azkue, Suberri Matelo, Maite Errarte, Josu Narbarte
Babeslea: Kultura eta Hizkuntza Politika Saila. Eusko Jaurlaritza

2024. urtean Lote-paisaiak. Iratzedien eta ihidien bilakaera historikoa Euskal Herriko herri-lurren baitan proiektuari amaiera eman zaio. Proiektu hau Etnografia Saileko ekipoaz, Iñaki Sanz-Azkue biologoaz eta Josu Narbarte arkeologoaz osatuta egon da. Egitasmo honi Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eskaintzen dituen euskal kultura-ondarea babesteko ikerketa-lanak egiteko diru-laguntzen baitan ekin zitzaion 2023. urtean.

Lan honek EAEko herri-lurren pribatizazio prozesuak aztertzea izan du xede, prozesu horiek paisaian utzitako aztarna materialak identifikatuz eta honakoei balioa emanez. Horretarako, bi kasu konkretu izan ditu aztergai: alde batetik, Hernaniko udalerriko iratzedien lote-banaketa prozesua, eta bestetik, Urdaibai inguruko ihidien partzelatze prozesua. Azterketa horiek burutzeko informazio-iturri desberdinak erabili dira, bai eta tokiko eskalan egindako analisi sakonak ere.

PERGAMINO DEL CAMINO DE ERIBE (ARABA) 1529

Arduraduna: Yoseba Alonso Arratibel

El investigador Yoseba Alonso lleva años centrado en la investigación de la documentación de diferentes archivos históricos. De esta manera, sigue comprometido con el estudio de la documentación del municipio de Cigoitia y sus amojonamientos, que hace algunos años comenzó. Este año ha estado trabajando en el Archivo Diocesano de Vitoria, entre otros, en un pergamino en concreto: el pergamino del camino de Eribe, datado en 1529. Este documento se trata de una carta de pago o venta de un camino que Berricano compró a Eribe (ambos actualmente concejos del municipio de Cigoitia) para que por allí pudiera pasar el ganado directamente a sus montes. Alonso

ha transcrito el documento y ha analizado en detalle la información que pudiera dar en cuanto a las modificaciones en los límites geográficos del municipio en aquella época.

ERAKUSKETAK / EXPOSICIONES

"TRADIZIOA SOINEAN" PROIEKTUA: BITXIGINTZA BERRIA ONDARE ETNOGRAFIKOTIK ABIATUTA

Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza, Fermin Leizaola Calvo, Marta Fernandez Caballero, Arantxa Areizaga Ugartemendia

Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Saila, Donostia Kultura / Donostiako Udala, Bideberri BHIko Bitxigintza Diseinuko Goi Mailako Zikloa, IDarte Euskadiko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskola Publikoa

Tradizioa Soinean egitasmoa Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Sailaren eta Bideberri BHI-n eskaintzen den Bitxigintza Diseinuko Goi Mailako Zikloaren arteko kolaboraziotik jaio zen 2022an. Proiektu honen helburua gure kultura materialeko objektu tradizional eta esanguratsuak inspirazio artistikorako erabiltzea da. Honela, bitxigintza zikloko ikasleen ziklo amaierako proiektu gisa Aranzadiko Etnografia Laborategiko objektu etnografiko bat inspirazio hartu eta bitxi linea bat sortzea da. Lankidetza borobilduz, eta kateari lotuz, Vitoria-Gasteizen kokaturiko IDARTE Euskadiko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskola Publikoko Argazkilaritza Zikloa ere proiektura batu zen, bertako ikasleek bitxien argazkiak egin eta haien ikuspuntu eta aportazioak emanez.

Proiektu honek aurtengoan bigarren edizioa du. Oraingoan argizaiola izan da inspirazio gisa hartu duten objektu etnografikoa. Argizaiola euskal kulturako ehorzketa erritualaren pieza enblematikoenetako bat da. Landutako ohol edo euskarri batean datza, zeinari argizari bat biltzen zaion. Elizetako zoruan kokatzen ziren hilobien gainean kokatu ohi zen tradizionalki, hildakoen oroimena zaintzeko.

Egitasmoari dimentsio sozial eta dibulgatibo bat emateko asmotan, proiektuak erakusketa formatua ere hartu du aurtengoan eta ikasleen sorkuntzak IDARTEko sarreran erakusgai egon dira.

Goian eraztuna argizaiolatik abiatuta. Amaia Bobillo ikaslearen sorkuntza. Erdian, bitxigintza zikloko ikasleak argizaiolaren inguruan dokumentatzen eta behean, Erakusketaren aurkezpena IDARTEn. IDARTE

GAZTAIN KULTURAREN INGURUKO ERAKUSKETA JAUNTSARASKO (BASABURUA) GAZTAIN FERIAN

Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza.
Babesleak: Plazaola Partzuergo Turistikoa eta Basaburuako Udala, CEDERNA eta Habelarteren lankidetzarekin eta Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin

Azaroaren 2a eta 3a bitartean Jauntsarasko Gaztainaren Feria ospatu zen. Asteburu honen baitan zenbait ekintza antolatu ziren; besteak beste, hitzaldiak, tailerrak, etab. Azaroaren 3an, igandea, Mendialdeako Azoka Ibiltariaren txanda izan zen eta honekin bat eginez Etnografia Saileko ekipoak gaztainaren kulturaren inguruko erakusketa txiki bat osatu zuen, paneleria eta gaztainaren inguruko zenbait objektu etnografiko erakutsiz.

Suberri Matelo eta Maite Errarte.

TAILERRAK / TALLERES

ETNOGRAFIA SUSTATZEKO ETA GIPUZKOARRAK GURE ONDAREAN FORMATZEKO TAILERRA

Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza, Fermin Leizaola Calvo
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia-Kultura Saila

2024an zehar, herritarrak ondare materialean eta etnografian murgiltzeko eta formatzeko deialdiarekin jarraitu du Etnografia Saileko ekipoak. Deialdi hori berariaz osaturiko esku-orri baten bitartez zabaldu zen, korreo elektroniko bidez, Aranzadiko bazkideen artean. Tailer hau etnografiako ekipoari ondare materialaren garbiketa, atonketa eta katalogazio lanetan laguntzean datza. Honela, ostiralero, zenbait pertsona bertaratu dira Etnografia Laborategira lan hauek egitera. Honez gain, boluntarioek hitzaldiez, bestelako tailerrez eta inguruko museo edo kultur zentroetara eginiko irteerez gozatu ahal izan dute. Deialdiaren eta partehartzaileen harrera ona ikusita, datorren urtean ere ekimen honi jarraipena ematea erabaki da. Eskerrik asko guztioi!

KULTURA ESKOLA
Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia-Kultura Saila

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari esker Aranzadi Zientzia Elkarteak martxan jarritako Kultura Eskola egitasmoaren harira, Etnografia Sailak Museo etnografiko bat ikasgelan: gizarte tradizionalera hurbilduz saioa eskaini du 2024. urtean. Hala, Etnografia Saileko ekipoa Errenteriako Bizarain BHIn izan zen apirilaren 8an, 9an eta 15ean, DBH 3. mailako zenbait ikasgeletan tailer berau eskaintzen. Saio hauetan zehar, ikasleek taldeetan banatuta, alegiazko pertsonaia batzuen ondare materiala (objektu pertsonalak, lan tresnak, etab.) identifikatu, etiketatu eta katalogatu behar izan zuten. Behin hori eginda, pertsonaia bakoitzaren istorioa eta bizitza ibilbidea asmatu behar izan zituzten, amaitzeko poster batzuen bidez pertsonaiak beren gainerako kideei aurkeztuz.

FAMILIENTZAKO PAPERGINTZA TAILERRA HERNANIKO PORTU AUZOAN
Arduradunak: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza, Marino Ayala Campinún
Babeslea: Portu Auzo Elkartea

Urtarrilaren 4an, Etnografia Saileko ekipoak papera modu tradizionalean egiteko familia tailerra eskaini zuen Hernaniko Portu auzoan, Marino Ayala papergintzan aditua denarekin batera. Bertan, gaztetxo nahiz helduek, papera eta papergintzaren historia ezagutu nahiz paper orriak antzinako tekniken bidez eskuz egiteko aukera izan zuten. Guztira 30 pertsona inguruk parte hartu zuten ekimenean.

ETNOGRAFIA TAILERRA BIDEBERRI BHI-KO IKASLEEKIN
Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena, Maite Errarte Zurutuza
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia, Bideberri BHI

2024. urtean ere Aranzadi Zientzia Elkarteko Etnografia Sailaren eta Bideberri BHI-ren arteko elkarlanak aurrera jarraitu du lan-ildo desberdinetan. Horietako bat Batxilergoko ikasleekin eginiko etnografia eta katalogazio tailerrean islatu da. Saio honetan, ikasleek taldeetan banatuta, alegiazko pertsonaia batzuen ondare materiala (objektu pertsonalak, lan tresnak, etab.) identifikatu, etiketatu eta katalogatu behar izan zuten. Behin hori eginda, pertsonaia bakoitzaren istorioa eta bizitza ibilbidea asmatu behar izan zituzten, amaitzeko poster batzuen bidez pertsonaiak beren gainerako kideei aurkeztuz.

TALO TAILERRA ZUBIRI-MANTEON
Arduraduna: Suberri Matelo Mitxelena

Abenduaren 2an Etnografia Saileko kideak Zubiri-Manteo Institutuan, DBH 1eko ikasleentzat taloari buruzko tailer txikia eman zuten "Hedatze: Sukaldaritza Tailerra" barnean, artoaren eta garai bateko elikadurari buruz hitz egiteko.

IRTEERAK / EXCURSIONES

Ezkerreko irudian, Ondare Kultur Taldeko kideak eta Fermin Leizaola Larraungo gau-eskorta batean. Eskuineko bi irudiak Cesareo Soule arginaren

CESAREO SOULE ARGINAREN MUSEORA BISITA

Amaiurko auzolandegiaren baitan, bertako boluntario taldeak Cesareo Soule hargin eta artisauak bere Arizkungo Marmoles Soule tailerrean duen erakusketara bisita egin zuen. Etxe-lantegian bertan du museoa eta izaera anitzeko ondarea ikusteko aukera izan zuen taldeak bertan. Harri lanak, fosilak, eskulturak eta historia handiko zenbait objektu: irrati zaharrak, josteko makinak, erlojuak, txanponak, argazkiak, egunkariko albisteak… gure eskerrak eta zorionak Cesareori bisita egiteko erakutsi zuen prestutasunagatik eta urte askotan osatutako bilduma polit horrengatik!

EHU-KO ANTROPOLOGIA GRADUKO 3. MAILAKO IKASLEEKIN AMAIURKO GAZTELURA ETA ARKEOLOGIA ZENTRORA BISITA

Azaroaren 11an, Suberri Matelok EHUko Antropologia Graduko 3. mailako ikasleei Amaiurko Gazteluan eta Amaiurko Arkeologia Zentroan zehar bisita egin zien. Irteera honetan, Antropologiako ikasleek beren ezagutza teorikoak zabaltzeko eta ondare proiektu baten sorrera eta garapenak dakartzan kudeaketa eta eginkizunak bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten.

LARRAUN BAILARAKO GAU-ESKORTETARA BISITA

Irailaren 28an, Etnografia Saileko Fermin Leizaola, Suberri Matelo eta Maite Errartek, Larraungo Ondare Kultur Taldearekin batera, azken hauek Larraun bailaran berreskuratu eta balioan jarri dituzten gau-eskorta batzuk ikusteko bisita egin zuten. Bisita hau Ondare Kultur Taldeko kideek Fermin Leizaolak gau-eskorten inguruan duen ezagutza grabazio bidez dokumentatzeko eta informazioa elkarren artean partekatzeko aukera paregabea izan zen. Eskerrik asko Ondare Kultur Taldeari!

LEKUNBERRIKO NEKAZARI EGUNEAN ERAIKITAKO TXONDORRERA BISITA

2016tik ospatu gabe egon ondoren, irailaren 1ean Nekazari Eguna berreskuratu zen Lekunberrin. Egun honek abeltzaintza, landa-garapena eta kultura uztartu nahi ditu. Aurtengo ekintza nabarmenetako bat ikatza modu tradizionalean egin ahal izateko txondor baten eraiketa eta martxan jartzea izan zen. Egitasmo hau Ondare Kultur Taldeak bultzatu du, auzolanez, zenbait erakunde eta profesionalen laguntza eta babesa izanez. Aranzadiko Etnografia Saileko zuzendaria Fermin Leizaola bertan izan zen txondorraren eraiketa bertatik bertara ikusten eta honakoa dokumentatzen. Zorionak egitasmoa osatzea posible egin duzuen guztioi!

Javi Castro

Asistió al 20º aniversario de la Ferrería El Pobal (Muskiz), donde Luis Padura realizó una demostración para fabricar una veleta (22 de junio).

Visita a Etxalar, para reconocer diversos hornos con el equipo del profesor Xabier Orue-Etxebarria (25 de julio).

Visita a Eugi para mostrar a Koldo Colomo la talla de una posible estela discoidal, localizada en una cantera molera (29 de octubre).

Visita a Zigoitia para mostrar una pieza como antigua muela, a un técnico del Bibat, con miembros de la asociación Abadelaueta (7 de noviembre).

HITZALDIAK ETA BISITA GIDATUAK / CONFERENCIAS Y VISITAS GUIADAS

45. ETNOGRAFIA JARDUNALDIAK- JORNADAS DE ETNOGRAFÍA

Urtero bezala, Azaroaren 12tik 15era bitartean Etnografia Jardunaldiak ospatu dira San Telmo Museoko hitzaldi aretoan. Aurtengoa jardunaldien 45. edizioa izan da. Hizlariak, besteak beste, ondare material anitzaz, artxibo dokumentalen bilaketaz eta gure lurraldeko animalia jakin batzuen bereizgarriez aritu dira.

Jardunaldi hauetan parte hartu dute:

Fermin Leizaola Calvo: *Algunos elementos de cultura material propios de Vasconia* hitzaldiarekin.

Mikel Prieto Gil de San Vicente: *"Genealogiatik etxeko dokumentuetara Gipuzkoan" esperientzia: estrategiak bost mendeko etxe-jabeen katea osatzeko* hitzaldiarekin.

Miren Iraeta Orbegozo, Sofia Marcos Basagoiti, Oihane Mendizabal Sandonís: *Pottoka: Euskal Herriko poniaren jatorri eta ondareari jarraika* hitzaldiarekin.

Javier Castro Montoya: *Proyecto Errotarri sobre investigación de canteras moleras* liburu aurkezpenarekin.

Aurtengoan, hitzaldiez gain, azaroaren 15ean departamendutik abiatutakoa den eta etnografia eta bitxigintza uztartzen dituen "Tradizioa Soinean" proiektuko bigarren edizioaren baitan osatutako erakusketaren aurkezpena ospatu da Gasteizko IDarte Euskadiko Arte eta Goi-mailako Diseinu Eskola Publikoko hall-ean eta 2025eko urtarrila bitarte ikusgai egon da bertan.

Etnografia Jardunaldien barnean eta arestian aipaturiko egitasmoari lotuta, azaroaren 16an, 23an eta 30ean "Ondarea gure bitxia!" familientzako bitxigintza tailerrak eskaini ziren San Telmo museoan. Tailer honen bidez familiek objektu tradizionalak inspirazio hartuta eta material desberdinak landuz lepokoak edota belarritakoak egin ahal izan zituzten, Marta Fernández Caballero bitxigilearen eskutik.

SAILKIDEEK EMANDAKO HITZALDIAK ETA BISITA GIDATUAK

Javi Castro

[2024/02/17] **Canteras moleras de Bizkaia**. Ferrería el Pobal. Muskiz.

[2024/02/21] **Visita guiada a las canteras moleras en el monte Oiz**. Amaraune Mendi Taldea. Berriz.

[2024/03/07] **Visita guiada a las canteras moleras en el monte Oiz**. Amaraune Mendi Taldea. Berriz.

[2024/05/04] **Canteras moleras en la sierra de Urkilla-Elgea**. Ayuntamiento de Barrundia.

[2024/05/09] **Canteras moleras de Oiartzun. III día de los molinos de Gipuzkoa**. Iurrita Errota Sustatzeko Elkartea. Oiartzun.

[2024/05/11] **Visita guiada a las canteras moleras de Zorrola**. III día de los molinos de Gipuzkoa. Iurrita Errota Sustatzeko Elkartea. Oiartzun.

[2024/10/24] **Visita guiada a las canteras moleras en Baztan**. Altza Historia Mintegia. Donostia.

[2024/11/08] **El antiguo comunal de Aranogibel**. Suharri Kultur Elkartea. Mendaro.

[2024/11/09] **Visita guiada a las canteras moleras en el monte Oiz**. Amaraune Mendi taldea. Berriz.

Miren Egaña

[2024/06/21] **The impact of the Basque language in Canada [Euskera]. Euskal Herria eta Kanada. Itsasotik izarretara** UIK ikastaroa. Ekainaren 20-21. Miramar Jauregia. Donostia.

Gure saileko Miren Egaña euskal hizkuntzalariak "Euskal Herria eta Kanada. Itsasotik izarretara" UIKek antolatutako ikastaroan hitzaldia eskaini zuen; argazkian parte hartu zuten beste aditu batzuekin ageri da.

Maite Errarte

(2024/11/08) **Nola egiten dugu lan Aranzadin?** Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia Graduko ikasleei zuzendua. Aranzadi Zientzia Elkarteko Elosegi Aretoa. Donostia.

Iñaki Garcia Uribe

[2024/01/17] **Historia del Montañismo Vasco**. Cruces.

[2024/01/24] **Visita guiada de los templos pincelados de Orozko**. Grupo de profesores.

[2024/02/17] **Canteras moleras de Bizkaia. Ferrería el Pobal**. Muskiz.

[2024/02/28] **Ermitas Montañeras**. Sodupe.

[2024/04/10] **Ya no es tiempo de castañas**, Deusto, Bilbao.

[2024/04/13] **Visita guiada de los templos pincelados de Orozko**. Grupo de profesores.

[2024/04/26] **Mendian Gora –EMMOA-**. Ortuella.

[2024/05/16] **100 años de la Federación Vasco Navarra de Alpinismo**. Derio.

[2024/05/23] **1924-2024, Centenario de la FVNA**. Muskiz.

[2024/09/19] **Mendian Gora –EMMOA-**. Urduña.

[2024/09/21] **Visita guiada de los templos pincelados de Orozko**. Familia Gurtubay.

[2024/09/22] **Visita guiada a la ruta de los Kirikiño-hesi en Orozko**.

[2024/10/05] **Gorbeia en Sopela**. Sopela.

[2024/10/27] **Visita guiada al bosque mocho de Otzarreta**. Grupo de abogados.

[2024/10/29] **Es tiempo de castañas**. 50aniversario Txoko Uri-zarra. Bilbao.

[2024/11/21] **Centenario del BAC**. Bilbao.

[2024/11/22] **Kirikiño-hesi y castañas**. Basauri.

[2024/12/17] **Visita guiada a Intzina**. Grupo de abogados.

Suberri Matelo Mitxelena

(2024/11/08) **Nola egiten dugu lan Aranzadin?**. Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia Graduko ikasleei zuzendua. Aranzadi Zientzia Elkarteko Elosegi Aretoa. Donostia.

(2024/11/11) Amaiurko Arkeologia Museora eta gaztelura bisita. Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia Graduko ikasleekin.

Iñaki Garcia junto al buzón montañero de la cruz de Gorbeia.

Nola egiten dugu lan Aranzadin? EHUko Antropologia Graduko ikasleei hitzaldia.

EHU-ko ikasleak Amaiurko Arkeologia Museora eta gaztelura bisitan.

PUBLICACIONES || ARGITALPENAK

"HISTORIAS MONTAÑERAS" EN DEIA, 2024
Egilea: Iñaki García Uribe
Babeslea: Deia

Iñaki García Uribe ha seguido en su labor incansable de investigación sobre temas del montañismo vasco, habiendo escrito y publicado este año 51 artículos en el periódico *Deia* sobre ello.

Unos títulos de estos artículos son: 07-01-24 *Aniversario del Arroletza Mendi Taldea*, 12-04-24 *Gailurretan izan gaitun (FVNA)*, 19-05-24 *Origen de la marcha Hiru Haundiak*, 26-05-24 *Elgeta, cien años después*, 30-06-24 *Cincuentenario Expedición Tximist al Everest*, 22-10-24 *Fuentes montañeras* y 01-12-24 *La imagen robada de la virgen blanca de Gorbeia*. Así, aquel que desee documentarse sobre del montañismo vasco dispone de una rica fuente de información en la hemeroteca del periódico *Deia*.

Castro, J., 2024. Algunas referencias de la Tierra de Ayala citadas en el archivo de Indias (Sevilla). Revista Aztarna 62, 12-14.

Castro, J., 2024. Una noticia sobre vino del siglo XVI descargado en Deba para Azpeitia. Revista Deba 111, 16-17.

Castro, J., 2024. Hace ya 50 años. Los caseríos derribados al construir el polígono industrial de Itziar. Revista Deba 111, 49-53.

Castro, J., 2024. Petición de un cáliz de plata para poder dar misa en Terranova (1549). Revista Deba 111, 60-63.

Castro, J., 2024. Las canteras moleras en Navarra; Estado de la cuestión. Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra 98.

García, I. 2024. Los Pórticos de San Bartolomé. Blog Ecos de Ugao.

García, I. 2024. Histórica relación alpina vasco-asturiana. Revista Pyrenaica 295.

García, I. 2024. Ericeras de Orozko. Revista Bizkaia Naturala.

García, I. 2024. La fábrica Derivados del Fluor. Blog Ecos de Ugao.

García, I. 2024/11/19. Centenario de la primera ascensión en coche a la cruz de Gorbeia. Deia.

García, I. 2024. Desde la Guerra Civil hasta la división del 85 (1937-1985). Revista Pyrenaica 297.

García, I. 2024. Historia del refugio Elorria. Revista Pyrenaica 297.

García, I. 2024/12/24. ¿Existió Olentzero?. Deia.

García, I. 2024.III Jornadas Etnográficas de AZTARNA. Revista AZTARNA.

García, I. 2024. Pintor… si pintas con amor. Revista Aztarna.

PROYECTO ERROTARRI SOBRE INVESTIGACIÓN DE CANTERAS MOLERAS. ARANZADI ETNOGRAFIA BILDUMA V. LIBURUKIA

Egileak: Javier Castro Motoya
Babesleak: Gipuzkoako Foru Aldundia

Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren laguntzarekin, Aranzadi Etnografia Bildumaren bosgarren alea argitaratu da: *Proyecto Errotarri sobre investigación de canteras moleras*. Javier Castro Montoya Etnografia Saileko kideak osatutako liburua da honakoa.

Izenburuak berak aipatzen duen moduan, liburuak Errotarri Proiektuaren kontaketa dibulgatibo bat egiteko helburua du. Proiektu hau 2010. urtean abiatu zuen Castrok berak, harginaren ofizio zaharra ezagutzera emateko eta Euskal Herriko eta inguruetako errotarri-harrobien aztarnak identifikatu eta zabaltzeko xedearekin. Lan hau aurrera eramateko, diziplinarteko ikuspegi bat izan du: landa-ikerketa arkeologia, artxiboen bilaketa eta are tresna digitalen erabilerarekin uztartu ditu. Modu honetan, liburuan zehar ondare mota honen azalpen eta nolakotasunen deskribapena, hauen identifikazioan jarduteko erabilitako metodologia eta gure inguruko errotarri-harrobi garrantzitsuenen katalogo bat aurki genitzake. Halaber, irakurlea testigantza material hauen kokagunera iristeko azalpen geografikoak ere ematen dira.

Javier Castro Kimika Zientzietan lizentziatua da. Errotarri Proiektuan aritzeaz gain, Mutrikuko eta Debako alderdi etno-historikoen inguruko ikerketak egin ditu, artzain-kortak, baserriak, antzinako bideak, ermitak, errotak, karobi labeak edota haizeolak ikertuz. Halaber, Deba aldizkariko ohiko kolaboratzailea da.

Javi Castroren Errotarri Proiektua liburuaren aurkezpeneko irudia. Behean liburuaren irudi batzuk.





BOTANIKA

2024. urtean Euskal Herriko zein lurralde mugakideetako landareak eta habitatak ikertzen, kudeatzen eta gizarteratzen aritu da Botanika Saila. Landareen Euskal Germoplasma Bankurako haziak bildu dira, baita kostako habitaten, hezegune ezberdinen eta larren eta sastrakadien kontserbazio egoerak ebaluatu ere. Azpimarratzekoa da Pirinioetako landare loredun guztien informazio genetikoa lortzea duen helburu Phylopyr proiektuarekin egindako aurrerapausoak. Bestalde, hainbat udalerrietarako kudeaketa eta kontserbazio ekimenak aurrera eraman dira (Beasain, Hondarribia, Mutriku…) eta Ordiziako Oiangu Natur Eskolarekin ere jarraitu da. Hala, izaera anitzeko proiektuak garatzen jarraitu da, beti ere, ohiko kolaboratzaileen laguntzaz.

En 2024 el Departamento de Botánica ha trabajado en la investigación, gestión y divulgación de la flora y los hábitats de Euskal Herria y territorios limítrofes. Se han recogido semillas para el Banco Vasco de Germoplasma Vegetal y se ha evaluado el estado de conservación de los hábitats costeros, de hábitats hidroturbosos, y de pastos y matorrales. Cabe destacar los hitos conseguidos en el proyecto Phylopyr, cuyo objetivo es obtener información genética de todas las plantas con flor de los Pirineos. Además, se han llevado a cabo iniciativas de gestión y conservación para diversos municipios (Beasain, Hondarribia, Mutriku…) y se ha continuado con Oiangu Natur Eskola de Ordizia. Así, se han desarrollado proyectos de carácter diverso, siempre con la ayuda de colaboradores habituales.

ENTOMOLOGIA

Azpimarratzekoak dira habitatari buruzko azterlanak eta dibulgazio-eskaintzaren dibertsifikazioa. Basoko koleopteroetan izandako esperientziaren ondorioz, baso eta zuhaizti bereziekin lotutako proiektuak egin dira. Odonatoen, ditisidoen eta armiarmen eta akuikulturako habitaten arteko erlazioan ere sakondu da. Haitzuloetako armiarmen ikerketa ere sendotu egin da. Eroskiren Zentimo Solidarioen kanpainaren arrakastak, Worldcooren bitartez, sentsibilizazio-jarduerak bultzatu ditu.

Se destaca el énfasis en estudios del hábitat y la diversificación de la oferta divulgativa. La experiencia en coleópteros forestales ha conllevado la realización de proyectos relacionados con bosques y arbolado singular. También se ha profundizado en la relación entre odonatos, ditíscidos y arañas con los hábitats dulceacuícolas. Se consolida además la investigación de arañas en cavernas. El éxito de la campaña de Céntimos Solidarios de Eroski, a través de Worldcoo, ha impulsado las actividades de sensibilización.

ZIENTZIAK

HERPETOLOGIA

Mikroklima erronka ekosozialak hasierako etapa amaitu du, Sailean inflexio-puntu bat ezarriz: proiektu isolatuak kudeatzetik epe luzerako egitura koordinatuak eta estrategiak ezartzera igaro gara, Horrela, Aranzadiren barneko eta kanpoko lankidetza-sareak indartu dira. 2024an ohiko lan-ildoei eutsi zaie, Eusko Jaurlaritzarako sei urteko bigarren ebaluazio bat egin da katalogatutako anfibioen eta narrastien egoerari buruz, eta klimari dagokionez gure denbora-serie luzeak aztertzeari ekin zaio.

El desafío ecosocial Mikroklima ha concluído su etapa inicial, marcando un punto de inflexión en el Departamento: de gestionar proyectos aislados hemos pasado a establecer estructuras coordinadas y estrategias a largo plazo, fortaleciendo redes colaborativas internas y externas a Aranzadi. En 2024 se han mantenido las líneas de trabajo habituales, se ha realizado una segunda evaluación sexenal para el Gobierno Vasco sobre el estado de anfibios y reptiles catalogados y se han iniciado los análisis de nuestras series temporales largas en relación con el clima.

MIKOLOGIA

Mikologia sailak ohiko ikerketa eta dibulgazio jarduerei jarraipena eman zien joan den 2024 urtean. Gure bilduma aberasten jarraitu genuen mendi irteera eta laborategi lanaren bitartez eta zenbait proiektutan parte hartuz. Bestetik, hainbat mikologia erakusketa eta jardueretan parte hartu dugu Mikologia saileko kideok. Gure lan-taldea ikertzaile eta bolondresek osatzen dute, mikologia berezko bokaziotzat daukatenak. Lan zientifikoarekin batera, sortzen den ezagutza partekatu eta hedatzeko ekintzak prestatzen dira, aniztasun mikologikoa jakitera eman eta babesteko helburuz.

El Departamento de Micología ha proseguido las investigaciones y labores de divulgación durante el 2024. Se ha continuado enriqueciendo nuestras colecciones mediante trabajo de campo, trabajo de laboratorio y participación en proyectos. Además, los miembros del departamento han participado en varias exposiciones y actividades micológicas. En la actualidad el departamento de micología representa un grupo de investigación compuesto por diversos especialistas en micología que viven esta ciencia de manera vocacional. Asimismo, se desarrollan actividades generales, así como de investigación, al tiempo que se realiza una labor divulgativa para difundir el conocimiento y la conservación de la diversidad micológica.

ORNITOLOGIA

2024. urtea Aranzadi Zientzia Elkartearen Eraztunketa Bulegoaren sorreraren 75. urteurrena izan zen. Urte honetan zehar, hainbat ekimen egin ziren efemeride hori ospatzeko: egutegia, dibulgazio-jardunaldiak Estatu osoko eraztuntze estazioetan, Aranzadi Zientzia Elkartearen Hegaztien Eraztunketa Zientifikoaren I. Topaketa edo omenaldi-ekintza solemnea eta hunkigarria, 2024ko ospakizunei amaiera emateko. Hori guztia alde batera utzita, Sailak proiektu askotan jarraitu zuen lanean, eta horien artean nabarmentzekoak dira Gasteizko eta Iruñerriko hegazti habiagileen atlasa eta INBIOPYR proiektua.

El año 2024 fue el del 75º aniversario de la creación de la Oficina de Anillamiento de la Sociedad de Ciencias Aranzadi. A lo largo de este año se llevaron a cabo varias iniciativas para celebrar esta efeméride: un calendario, jornadas divulgativas en estaciones de anillamiento en toda España, el I Encuentro de Anillamiento Científico de Aves de la Sociedad de Ciencias Aranzadi o un Acto-Homenaje, solemne y emotivo, con el que se clausuró un 2024 de celebraciones. Al margen de todo ello, el Departamento continuó su labor en un gran número de proyectos, entre los que destacamos el atlas de aves nidificantes de Vitoria-Gasteiz y el de la Comarca de Pamplona, así como el proyecto INBIOPYR.

NATURALES

BOTANIKA

Zuzendaria / Directora: ANAÏS MITXELENA LARRAÑAGA [botanika@aranzadi.eus]

2024koa ere urte oparoa izan da Botanika Saileko kideontzat, era guztietako proiektuak garatu baititugu, ikerketatik hasita hezkuntzaraino. Ohiko kolaboratzaileekin jarraitu dugu lanean eta betiko hiru lan ildoei eutsi diegu: espezie mehatxatuen kontserbazioari, habitaten jarraipenari eta kudeaketari eta dibulgazioari, hain zuzen ere.

Landareen Euskal Germoplasma Bankuaren baitan haziak biltzen eta gordetzen jarraitu dugu, arriskupeko Euskal Herriko flora babesteko helburuarekin. Aipatzekoa da Bankuaren sorreratik 17 urte pasata 490 espezieren haziak bildu eta gorde direla, Espezie Mehatxatuen EAEko Katalogoko landareen %59a bildu da eta %52 gorde. Pirinioetako landare loredun guztien informazio genetikoa lortzeko helburuarekin, eta, hainbat erakunde eta kolaboratzaileekin elkarlanean, Phylopyr ikerketa-proiektu handia jarri zen 2023an martxan eta lehen urtea izan den 2024 honetan 4.000 taxoi baino gehiagoko zerrenda batetik 1.000 espezie hautatu dira analisi genetikoak egiteko.

Zenbait habitaten jarraipen-lanak ere egin ditugu eta baita haien zein beste batzuen kontserbazio egoerak zehazteko ikerketak ere. Azpimarratzekoak dira lintzura motako zenbait habitatak, itsaslabarrak, kostako txilardiak, sastrakadiak eta larreak ikertzeko egin diren lanak. Laginketa horietatik eta aurreko hiruzpalau urteetatik egindako jarraipenetatik ateratako datuekin 34 habitaten kontserbazio egoerak zehaztu ahal izan dira EAE mailan: 12 kostako habitat, 9 larre, 7 sastrakadi eta 6 lintzura antzeko hezeguneak.

Kudeaketa lanetan, hamaika udalerritan jardun gara, bertako zuhaixka eta zuhaitz espezieak landatzetik izaera inbaditzailea dituzten espezieak erauzterainoko lanak egiten. Horien artean azpimarratu daitezke Zumaian, Hondarribian eta Beasainen udalerritan garatu ditugun habitaten eta landare espezieen leheneratze lanak.

Urteak pasa dira Ordiziako Oiangu Parkean den Oiangu Natur Eskola martxan jarri zenetik. 2024ko udaberrian ere eskola martxan egon da eta bertatik

herriko bi ikastetxeetako 8-12 urte bitarteko ikasleak pasa dira. Ingurumen hezkuntza ez ezik botanikaren mundua gizarteratzeko hainbat ekimenetan parte hartu dugu, hala nola: irteerak, tailerrak, hitzaldiak, argitalpenak… Botanikaren munduan sakontzeko eta esperientziak elkar trukatzeko jardunaldietan ere parte hartu dugu, horien artean azpimarratu beharrekoa Madrilen antolatu den Botanikako Nazioarteko XX. Kongresua.

Ezin amaitu sarrera hau adieraziz 2024an ere geratu gabe ibili garela Botanika Saileko langileak, mendian, bulegoan zein laborategian. Era guztietako proiektu mordoa aurrera eramanda baina beti ere Naturaren kontserbazioaren helburuarekin. Proiektu horiek guztiak ondorengo orrietan bildu ditugu eta gozagarri izango zaizkizuelakoan gaude.

IKERKETA PROIEKTUAK / PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

LANDAREEN EUSKAL GERMOPLASMA BANKUA: EAE-KO LANDARE ESPEZIE MEHATXATUEN ETA PENINTSULAKO FLORAREN KONTSERBAZIOA *EX SITU*

Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia

Arduradunak: Ana I. Garcia, Mikel Etxeberria
Lan-taldea: Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Yoana Garcia, Luzia Urkiola eta Olatz Erkizia
Kolaboratzaileak: Agustin Aierbe, Ametza Larrañaga, Amador Prieto, Agustí Agut, Brais Hermosilla, Amaia Urkola, Jon Zulaika, Javi Sesma, Aitzol Oñatibia, Eneko Barriola, Axel Palau, Unax Goenaga, Itsaso Andueza, Katia Cezón

2024. urtean zehar Bankuaren lehentasunezko helburuetan jarraitu da lanean, beteak beste, EAEko eta inguruetako flora mehatxatuaren *ex situ* kontserbazioarekin eta Batasunaren interesezko habitaten lehengoratze lanekin. Germoplasma (hazi, espora, adaxka, errizoma…) bilketaz gain, hozitze protokoloen garapena eta landare hazkuntza gero eta garrantzia handiagoa hartzen doa, ezin baita ahaztu *ex situ* kontserbazioa *in situ* kontserbatzeko lanabesa dela.

2024. urtean Landareen Euskal Germoplasma Bankuaren lan eremua EAE izan da. Orotara, germoplasma hau bildu da: 9 espezieren 13 akzesio. Bildutako espezieen artean topa daitezke mehatxatuta egon, baina oraindik LEGBn gorde gabekoak. Baita ere, gordeta egon arren, laginaren kalitatea handitzeko asmoz eginiko bilketak. Izan ere, kontuan izan behar da garrantzitsua dela LEGBn gordetako laginak kalitatezkoak izatea. Hots, *ex situ* kontserbaziorako oso garrantzitsua da hazi kopuru handi bat gordetzeaz gain, espezieen populazioen ahalik eta errepresentazio genetiko zabalena izatea.

Landareen Euskal Germoplasma Bankuaren sorreratik 17 urte pasa diren honetan, azken urteetako hausnarketen ondoren, estrategikoak izango diren bi lan ildo berri zehaztu ziren iazko urtean: *ex situ* kontserbatutako akzesio bakoitzaren kalitatea neurtzeko indizea (Laginen Kalitate Indizea) eta Euskadi mailan *ex situ* kontserbatu beharreko landareen lehentasunak zehazteko metodologiaren garapena. Aurtengoan, ildo hauei jarraituz, aurrerapausoak eman dira Laginaren Kalitate Indizea-ren aplikazioan eta Euskadin *ex situ* kontserbatzeko lehentasuna duten landare espezieen zerrendaren berrikuspena garatu da.



2024an bildutako akzesioen banaketa lurraldeka antolatuta.

Landare espezie mehatxatuak *in situ* kontserbatzeko edo indartzeko *ex situ* bildutako materiala erabiltzen da. Horrela, beraz, aurtengoan bildutako zenbait espezieren germoplasma ekoitzi da etorkizuneko balizko ekimenetan erabiltzeko landarea lortzeko, hala nola, duna sistemetarako ekoitzi dira landareak.

Bankuan gordetako materialaren bideragarritasuna, zein espezieen hozitzeari buruzko informazioa eskuratzea beharrezkoa da eta horretarako 2023. urtean bildutako haziekin hozitze test eta protokoloak burutu dira. Gainera, Bankuan gordeta 10 urte baina gehiago daramatzaten hainbat laginen birhozitze testak ere egin dira. Azken bideragarritasun proba hauek, Bakuaren mantentze lan gisa ulertu behar dira, eta honela Bankuan gordetzen diren laginen denboran zeharreko hozitze gaitasunaren bilakaera aztertzen da. Beharrezkoa izango da beraz, prozedura horretan lortutako emaitzen arabera, Bankuan gordetako laginen kalitatea berrikustea, eta beharrezkoa den kasuetan, lagin berriekin ordezkatu beharko dira.

Datu baseari dagokionean, etengabeko eguneraketa lanekin jarraitu da. Bestalde, urtero bezala, LEGBan gordetako akzesioen bildumaren datu base eguneratua Global Biodiversity Information Facility (GBIF)

Pentaglottis sempervirens espeziearen argazkia.



Pentaglottis sempervirens espeziearen hazia lupan begiratuta.

2025. urtean bildutako akzesioak.

Puccinellia hispanica espeziearen hazi bilketa.

Rynchospora fusca espeziearen hazi bilketa.

Arizmendiko mintegian dauden Berula erecta aleak.

erakundeko web orrian ere eskuragarri dago.

Azkenik, Bankuko herbarioak (Aranzadi Zientzia Elkarteko ARAN herbarioan), Germoplasma Bankurako bildutako espezieen 450 plegutik gora dituela dagoeneko. Gainera, Bankuaren argazki-bilduma handituz joan da mendiko, laborategiko, Arizmendi mintegiko eta Iturraran Lorategi Botanikoko argazkiekin.

Aipaturiko lan horiek guztiak egin ahal izateko, Eusko Jaurlaritza eta Aldundien finantziazioaz gain, beste diru iturri batzuk topatzeko lan eskerga egin da azken urteotan. Horrek, Bankuaren ohiko funtzionamendua mantentzeko eta sendotzeko ez ezik, Bankuak duen berariazko garrantzia berresteko balio izan du. Aurten gainera, aipamen berezia egin behar zaio Royal Botanic Gardens-KEWrekin berritutako hitzarmenari. Azken hamarkadan hainbat kolaboraziotarako aukera eman du, eta etorkizunean ere hala izan dadin bermatzen du.

FLORA HALOFITO ETA BABESTUAREN KONTSERBAZIORAKO PROGRAMA AÑANAKO GATZ HARANEKO ENKLABE BOTANIKOAN (GESALTZA AÑANA, ARABA)

Finantziazioa: Arabako Foru Aldundia

Responsables: Ana I. Garcia eta Mikel Etxeberria
Arduradunak: Agusti Agut, Brais Hermosilla, Yoana García, Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena eta Luzia Urkiola

2018. urtean Arabako Foru Aldundiak aholkularitza eskatu zion Aranzadi Zientzia Elkarteari eta Olarizuko Lorategi Botanikoari (OLB) Añanako Gatz Haraneko iturburuaren inguruan enklabe botaniko bat sortzeko. Enklabe Botaniko horren helburua, Añanako Gatz Haraneko flora bereziari duen balioa eman eta berezitasun horien dibulgaziorako eremu bat izateaz gain, flora halofitoaren ikerketarako baliagarri izatea da. Añanako Gatz Haraneko Fundazioak dagoeneko eraiki du enklabe botanikoarentzako azpiegitura gatzaren ekoizpenean erabiltzen diren larrainez osatuta dago.

Añanako Gatz Haranean Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan (EAEko katalogoa) dauden 8 espezie daude eta beste hainbat espezie halofito ere interesgarriak dira.

Urtean zehar aipaturiko espezie horietako batzuen haziak bildu dira eta Enklabean bertan erein dira, bertako populazioak indartzeko asmoz. Pixkana Enklabe Botanikoa Añanako Gatz Haraneko floraren erakusleiho bihurtzen ari da.

Enklabe Botanikoa sortzeaz gain, lan-talde berdinak, formazio eta dibulgazio saioak egin ditu, eta ibaiertzeko landaredia berreskuratzeko lanak ere egin dira.

Goitik behera: Añanako ereinketak otsailean. Landare halofiloen ereinketa uztailean. Añanako flora halofiloaren inguruko ibilaldia.

DIAGNÓSTICO DEL ESTADO DE CONSERVACIÓN Y TENDENCIA DE LAS ESPECIES *SOLDANELLA VILLOSA* EN NAVARRA

Financiación: Gobierno Foral de Navarra
Responsables: Mikel Etxeberria y Ana I. Garcia
Equipo: Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena y Luzia Urkiola

En 2018 el Gobierno de Navarra, a través de la Empresa Pública GANNIK, diseñó y puso en marcha un plan de seguimiento de la planta amenazada *Soldanella villosa*. Así, el departamento de Botánica de Aranzadi ha sido el encargado de realizar el seguimiento en 2024 de algunas localizaciones de la especie con el objetivo final de valorar su estado de conservación en Navarra. El trabajo de campo se ha realizado entre mayo y junio en las cuencas atlánticas de Navarra, más concretamente en los enclaves de Leitzaran, Artikutza, Bidasoa y Baztan.

Son cuatro los parámetros analizados para la valoración del estado de conservación de *S. villosa*: distribución, población, hábitat y perspectivas futuras.

Una vez recopilados y actualizados los datos previos de la especie, y realizados los muestreos de campo, se resume lo siguiente:

En 2024 se ha confirmado la presencia de *S. villosa* en 18 cuadrículas UTM 1x1 km. En Navarra, su distribución es de 12 cUTM 10x10 km y su población tiene una ocupación de 77 cUTM 1x1km.



Izquierda, muestreando. Derecha, ejemplar reproductor de *S. villosa.*

Se valora el estado de conservación como *Favorable* por las siguientes razones: por un lado, las tendencias para los parámetros de distribución, población y hábitat se estiman estables; y, por otro lado, las poblaciones parecen ser suficientes para asegurar la supervivencia de la especie a largo plazo. Aun así, hay que tener en cuenta que las amenazas derivadas del cambio climático, gestión forestal y procesos naturales como erosión, inundación y sedimentación pueden afectar a la conservación de la especie.

GIPUZKOAKO ESPEZIE MEHATXATUEN JARRAIPEN LANAK ETA *IN SITU/EX SITU* KONTSERBAZIOA

Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia
Arduradunak: Ana I. Garcia eta Mikel Etxeberria
Lan-taldea: Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Luzia Urkiola, Yoana Garcia eta Olatz Erkizia
Kolaboratzaileak: Agustin Aierbe, Ametza Larrañaga, Iker Novoa, Jon Zulaika, Irati Milikua, Unax Goenaga, Axel Palau eta Itsaso Andueza

Gipuzkoako ondare naturalaren azterketak egiteko hitzarmenean urteroko lan-ildoak mantendu dira, besteak beste, *Galtzeko arriskuan* eta *Kaltebera* sailkaturiko hainbat espezieen jarraipen eta kudeaketa lanak, eta Landareen Euskal Germoplasma Bankuaren (LEGB) kudeaketa eta mantenua. Gainera, Iñurritzako errestaurazio lanetarako bertako espezieen landaketa eta ekoizpena ere burutu da, baita, Gipuzkoako landare mehatxatuen kartografiaren eguneraketa ere.

Lehenik eta behin, *Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrendan* (EHAA, 2011) *Galtzeko arriskuan* kategorian sailkaturik dauden 4 espeziekin lan egin da: *Lathyrus vivantii, Hugueninia tanacetifolia* subsp. *suffruticosa, Menyanthes trifoliata* eta *Carex hostiana*. Baita *Kaltebera* kategorian dauden beste 2 espezieekin ere: *Saxifraga clusii* eta *Angelica razulii*. Espezie horien jarraipen lanen artean honakoak daude: kartografiaren eguneraketa, kontserbazio ekintzak, ikerketa demografikoak, habitataren azterketak, ugal biologia azterketak, eta germoplasma bilketak. Gainera, populazioan eragina duten mehatxu eta presioak identifikatu eta

Persicaria vivipara espeziea loretan.

Hugueninia tanacetifolia subsp. suffruticosa espeziearen jarraipen lana egiten.

Saxifraga clusii espeziearen laginketa egiten Aiako Harria Parke Naturalean.

2024. urtean Iñurritzako errestaurazio lanak burutzeko ekoitzitako landareak.

etorkizunerako kontserbazio zein kudeaketa neurriak ere zehaztu dira. Bestetik, honako espezieekin *in situ* eta *ex situ* lanak ere burutu dira: *Carex hostiana*, *Angelica razulii*, *Persicaria vivipara* eta *Menyanthes trifoliata* .

Iñurritzako errestaurazio lanei dagokiela, duna sistemako landaredia (2110, 2120 eta 2130* BIH) indartzeko asmoz hainbat ekintza egin dira, horien artean: landaketak *in situ* eta landare berrien ekoizpena (Arizmendiko mintegian). Guztira, 10 espezieren 125.414 hazi erein dira.

Azkenik, Gipuzkoako landare mehatxatuen kartografiaren eguneraketa burutu da 2024. urteko kanpainan lortutako informazioarekin.

HABITAT HIDROTURBOSOEN ETA FORMAZIO TOBAZEOEN, ETA HORIEI LOTUTAKO FLORA-ESPEZIEEN KONTSERBAZIO-EGOERAREN EBALUAZIOA ETA JARRAIPEN-LANAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN 2020-2024 URTEETAN

Finantziazioa: Natur Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza. Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila. Eusko Jaurlaritza

Arduradunak: Ana I. Garcia, Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena eta Yoana García

Lan-taldea: Mikel Etxeberria eta Luzia Urkiola

Proiektu hau *Bazzania S.C*. zuzendaritzapean burutu da. Aurtengo lanetan, Aranzadiko Botanika sailak bi enklabe aztertu ditu, bata Larraitzen (Gipuzkoa) eta bestea Urkiolamendin (Bizkaia).

Larraitzen aztertutako hezegunea Txindoki mendiaren magalean kokatzen da, 0,1 hektareako azalera du eta itsas mailatik 500 metrora kokatzen da. Hezegune hau, *Cladium mariscus espeziearen zohikaztegi* bati dagokio, Habitat Zuzentarauak *7210** kodearekin babesten duen habitata da hain zuzen ere.

Urkiolamendiko hezegunea, Urkiolako Parke Naturalean dago (Bizkaia), izen bereko mendiaren magalean. Ia hektarea bateko azalera du eta 900 metrotara dago. Hezegune hau, *Trantsizioko zohikaztegi* bat da, Habitat Zuzentarauak *7140* kodearekin babesten duen habitata da, hain zuzen ere.

Azterketa honen helburua, aipatutako eremuen hainbat datu biltzea izan da, ondoren enklabearen kontserbazio egoera zehazteko. Mendiko lanaren bitartez ondorengo informazioa lortu da: hezegunearen azalera eta sare hidrografikoaren antolaketa, landare komunitateen kartografia eta haien landare espezieak, intereseko landare espezieen kartografia, uraren datu fisiko-kimikoak, turba deposituen ezaugarriak eta habitataren mehatxu eta presio nagusiak. Datu horiekin guztiekin Larraitzeko hezegunearen kontserbazio egoera *Erdipurdikoa* dela ondorioztatu da, Urkiolamendiko hezegunea berriz kontserbazio egoera *Onean* dagoela kontsideratzen da.

Jarraipen lan hauek sei urtetik behin errepikatuko dira metodologia eta irizpide berdinak erabiliz. Modu horretan, habitat bakoitzaren kontserbazio egoerak duen bilakaeraren berri eman ahal izango da.

Larraitzeko hezegunearen ikuspegi orokorra (Gipuzkoa).

Urkiolamendiko hezegunearen ikuspegi orokorra (Bizkaia).

PHYLOPYR

Finantziazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Arduradunak: Pablo Tejero, Mikel Etxeberria eta Ana I. Garcia

Lan-taldea: Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Luzia Urkiola eta Yoana García

2023. eta 2024. Urteetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako PHYLOPYR proiektua abian jarri da. Proiektu hau, oinarrizko ikerketa proiektua da eta Pirinioetako angiospermo guztien informazio genetikoa lortzea du helburu. Gainera, informazio hori komunitate zientifikoaren, eta, oro har, gizartearen eskura jartzea ere badu xede. Sekuentzia genetiko horiek erreferentziazko Herbario batean gordetako plegu bati, eta DNAren Banku Nazionalean gordetako DNA erauzketa bati lotuta egongo dira.

Proiektuaren lehen fasean, 4.000 taxoi baino gehiagoko zerrenda batetik 1.000 espezie hautatu dira analisi genetikoak egiteko. Horretarako, lehentasuna eman zaie katalogatutako espezieei, espezie bakanei edo endemikoei, edo kontserbaziorako edo ikerketarako interes berezia dutenei.

Gorbeiako irteeraren argazkia.



Phylopyr proiekturako bildutako Gipuzkoako hainbat espezie.

2024. urtean zehar bildu dira proiektua elikatzeko landare plegu gehienak. Lan hori Pirinio osoan zehar egin da eta kolaboratzaile talde zabal baten laguntzaz burutu da, besteak beste: IPE-CSIC, UPV/EHU, Sestaoko Zientzia Elkartea, CBD, Olarizuko Lorategi Botanikoa… Gainera, bilketak taldean egiteko eta botanikarien sarea indartzeko 3 irteera ere egin dira: Amunarritzen (Nafarroa), Gorbeian (Bizkaia) eta Jakan (Huesca).

Plegu guztiak bildu eta prozesatu ondoren, laginak laborategian aztertu dira, eta, besteak beste, honakoak egingo dira: DNA erauzi, genotekak sortu, hibridatu, anplifikatu eta sekuentziatu. Lortutako datu guztiak sarbide libreko plataformetan argitaratuko dira, GBIFen edo GeneBanken adibidez.

Horregatik guztiagatik, PHYLOPYR proiektuak ikerketarako oinarrizko informazioa sortzeaz gain, bilduma biologikoen beharra ere nabarmendu nahi du, hala nola, herbarioen garrantzia: kontserbazioan erabiltzeko, landare-aniztasuna interpretatzeko, klima-aldaketa aztertzeko… eta, kasu honetan, landare-DNA lortzeko eta kontserbatzeko.

EAEKO SASTRAKADIETAKO ETA LARREETAKO HABITATEN KONTSERBAZIO-EGOERAREN JARRAIPENA ETA ALDIZKAKO EBALUAZIOA EGITEKO SARERAKO LAGUNTZA TEKNIKOA, 2022-2025 ALDIAN

Finantziazioa: Eusko Jaurlaritzaren DESMA002SV/2022 kontratua

Arduradunak: Mari Azpiroz Murua eta Luzia Urkiola Azpiazu
Lan-taldea: Mikel Etxeberria , Yoana García, Anaïs Mitxelena eta Arantza Aldezabal.

Kanpezun txilardi lehor europarrean eginiko laginketa.

Europar Batasunak Habitat Zuzentaraua onartu zuen 1992ean eta horren bidez Europako hainbat habitat eta espezie babestu beharra agintzen du. Habitat eta espezie horiek babesteaz gain, horien kontserbazio egoeraren jarraipena egin behar da habitataren egoera hobetu edo okertu den ikusteko, hau da, habitataren egoera denboran zehar ebaluatzeko.

Testuinguru horretan, Botanika saila babestutako larre eta sastrakadi horien egoera aztertzen ari da EAEn. 2024an, iazko lanei jarraipena eman zaie eta mendiko lanak

Orozkon, Gorbeia Kontserbazio Bereziko Eremuan, txilardi lehor europarrean eginiko laginketan lurzoru laginen bilketa.

Bernedon, Izki Kontserbazio Bereziko Eremuan txilardi lehor europarrean eginiko laginketa.

egiten jarraitu da. 2024. urtean denera 3 habitat ezberdinen 28 enklabe lagindu dira.

Larreetan 47 aldagai neurtu dira eta sastrakadietan 23. Aldagai horiek guztiak 4 taldetan banatu daitezke: egitura fisikoa, landarediaren egitura, konposizioa (biologikoa) eta asaldurak. Aldagai horiek neurtzeko metodologia bat dator Habitat Zuzentarauaren 17. Artikuluko seiurteko txostenari erantzuteko, betiere gure lurraldera egokituta.

Datuak bildu ondoren, habitat bakoitzean neurtutako aldagaiak balio onargarrietan ote dauden eta aurreko laginketen aldean hobetu edo okertu diren aztertu da. Horrela zehazten da habitat bakoitzaren kontserbazio egoera eta bilakaera.

Kodesen, Araba Hegoaldeko Mendiak Kontserbazio Bereziko Eremuan, malda arrokatsuetako *Buxus sempervirens* espeziearen formazio egonkor xerotermofiloetan burututako laginketa.

ZARAUZKO GOLF-ZELAI BARRUKO ONDARE BOTANIKOA
Finantziazioa: Zarauzko udala
Arduradunak: Mari Azpiroz eta Anaïs Mitxelena
Lan-taldea: Yoana García, Mikel Etxeberria , Ana I. Garcia, Luzia Urkiola eta Olatz Erkizia

Zarauzko Udalak *"Real Golf Club de Zarauz"* enpresak golfean jarduteko behar duen baimena legeztatu du. Prozesu horren baitan, jarduteko baldintzak zehaztu dituzte Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Udalak. Baldintzen artean, Eusko Jaurlaritzak honakoa eskatzen du: *"Seguimiento periódico (cada 6 años) de los hábitats 1210, 2110, 2120 y 2130*"*. Baldintza horri erantzuteko, 2022-2028 seiurtekoan burutuko den proiektu honetan, golf-zelaian dagoen ondare botanikoaren informazioa jaso eta aztertzea helburu duen ikerlana burutuko da.

Proiektu horren helburu nagusia, Zarauzko Golf-zelaiaren barruan aurkitzen den duna-sistemako habitaten jarraipen sistematikoa martxan jartzea da. Hau honela, hainbat zeharkako helburu bete dira. (1) Duna-sistemaren baitan aurkitzen diren habitaten eta mehatxatutako espezieen informazioa eguneratzea. (2) Eremuaren Kontserbazio Egoera zehaztea:

Golfaren irudia non golfeko zelaiak eta duna tertziarioa ikus daitezkeen.

Laginketan 2x2 lauki-sare bateko ikuspegia.

habitatena eta mehatxatutako espezieena. (3) Kontserbazio eta kudeaketa neurrien proposamenak luzatzea.

Lan horretan habitatei dagokiela, 2022an ezarri ziren 2x2 m-ko 15 lauki-sareko jarraipen lanak burutu dira. Lauki-sare bakoitzean, aurkitutako espezieen inbentario floristikoa burutu da, baita espezie bakoitzaren estaldura (%) jaso ere. Laginketak bi garaietan burutu dira, udaberrian eta udazkenean.

Azkenik, habitat zein espezieen kontserbazio eta kudeaketa neurrien proposamena luzatu da.

SEFAMAX PROIEKTUA. ESPEZIE MEHATXATUEN JARRAIPENAK

Finantziazioa: Europar Batasuna (NextGeneration) - Tragsatec

Arduraduna: Luzia Urkiola eta Anaïs Mitxelena
Lan-taldea: Mari Azpiroz, Ana I. Garcia, Anaïs Mitxelena, Mikel Etxeberria eta Yoana García

Proiektuaren oinarrian, Europar Batasuneko NextGeneration dirulaguntzak daude. Diru-laguntza hauen bidez, Espainiar estatuan 2019-2024 seiurtekoan, floraren ezagutza hobetzeko programa bat diseinatu, ezarri eta gauzatzeko helburua finkatu zen, flora babestuaren kontserbazio-egoerari buruzko informazioa emango zuena.

Aranzadi Zientzia Elkarteak 2024 urtean, Tragsatec-en gidaritzapean Habitat Zuzentarauan barneratutako 6 espezieren jarraipenak egin ditu SEFA-MAX proiektuaren barruan: *Culcita macrocarpa, Narcissus assoanus, Narcissus pseudonarcissus* supsp. *nobilis, Narcissus triandrus, Orchis provincialis* eta *Woodwardia radicans*.

Lilipen kasuan, hiru espezieren presentziak baieztatu dira hainbat udalerritan. *Narcissus assoanus* Nafarroako 4 kuadrikuletan (UTM

2024ko udaberrian behatutako lilipa espezieak: *Narcissus assoanus, Narcissus triandrus* eta *Narcissus pseudonarcissus* supsp. nobilis

2024ko udaberrian behatutako iratze paleotropikoak: *Woodwardia radicans, Culcita macrocarpa* eta *Orchis provinicialis* espeziea (Urritzolan).

1x1km) behatu da, Lerin eta Sierra del Perdon-en. *Narcissus triandrus* espeziea, aldiz, Nafarroako 2 kuadrikuletan baieztatu da, Acedon eta Mendozan. Azkenik, *Narcissus pseudonarcissus* supsp. *nobilis* landarearen kasuan, Karrantza Haraneko 2 kuadrikuletan behatu da, eta Urkabustaizeko 3 kudrikuletan.

Iratze paleotropikalei dagokionez, *Culcita macrocarpa* eta *Woodwardia radicans*-en jarraipenak egin dira. *W. radicans* -en 9 kuadrikulen jarraipenak egin dira, Bakio eta bermeo artean. *C. Macrocarpa* -ren kasuan, hau ere Bakio eta Bermeon baieztatu da, eta populazioaren jarraipena egin da.

Azkenik, orkideoen kasuan, *Orchis provincialis* espeziearen bi populazioren jarraipenak egin dira, Gasteizen eta Urritzolan. Gasteizko populazioan, baina, ez da alerik behatu.

RED DE SEGUIMIENTO Y EVALUACIÓN DEL ESTADO DE CONSERVACIÓN DE LOS HÁBITATS COSTEROS EN LA CAV

Financiación: Eusko Jaurlaritza

Responsables: Anaïs Mitxelena y Mari Azpiroz
Equipo de trabajo: Luzia Urkiola, Yoana García y Amador Prieto

Con la aprobación en 1992 de la Directiva Hábitats (DH), los estados miembros de la Unión Europea tienen la obligación de proteger determinados lugares, hábitats y especies, así como de realizar un seguimiento de su estado de conservación para comprobar si su estado ha mejorado o empeorado, es decir, evaluar su estado de conservación en el tiempo.

Vista general del acantilado costero en Azkorri .

En este contexto, el Departamento de Botánica lleva analizando los hábitats costeros de la CAV desde más de una década. Se distinguen 12 tipos de hábitats costeros según la DH que se incluyen en las siguientes agrupaciones: *estuarios*, *marismas*, *playas y dunas* y *acantilados y brezales costeros*.

Entre 2018 y 2021, se puso en marcha el sistema de seguimiento de los hábitats costeros mediante la metodología consensuada entre el Ministerio para la Transición Ecológica y el Reto Demográfico, Gobierno Vasco y la Sociedad de Ciencias

Aranzadi. Se visitaron en total 31 enclaves y 95 teselas. En esta primera fase del seguimiento (Estadio 0), se obtuvieron datos sobre algunos parámetros claves para evaluar el estado de conservación general de cada hábitat. En 2022, se continuó con labores encaminadas a obtener más información sobre los hábitats costeros, así como la actualización de la cartografía de hábitats en algunos enclaves y hábitats.

Entre 2023 y 2024, se ha realizado la segunda fase del seguimiento (Estadio 1) visitando de nuevo los 31 enclaves y muestreando 92 teselas. Al igual que en el Estadio 0, en esta segunda vuelta se han recogido tanto las presiones como las amenazas que repercuten sobre los hábitats y otra información de utilidad para la evaluación de los hábitats.

Finalmente, mediante el análisis de la información recopilada desde 2018, se ha evaluado el estado de conservación de los hábitats costeros en la CAV para el sexenio 2019-2024. Como resultado, se observa que el estado de conservación de los hábitats costeros sigue siendo deficiente a pesar de llevar a cabo medidas de conservación y restauración de dichos hábitats.

Vista general del acantilado costero en Iñurritza.

EAE-N BATASUNAREN INTERESEKO FLORAREN KONTSERBAZIO-EGOERAREN EBALUAZIOA. 2019-2024 SEIURTEKOA

Finantziazioa: Eusko Jaurlaritza

Arduradunak: Anaïs Mitxelena
Lan-taldea: Mikel Etxeberria, Ana I. Garcia, Olatz Erkizia, Luzia Urkiola, Yoana García eta Mari Azpiroz
Kolaboratzaileak: Irati Milikua

1992an Habitat Zuzentaraua onartu zenetik Europar Batasuneko estatu kideek lurraldeko biodibertsitatea babesteko eta habitat naturalak eta fauna- eta flora-espezieak kontserbatzeko betebeharra dute. Gainera, zuzentarau horrek berak, 17. artikuluan, administrazio eskudunak behartzen ditu sei urtean behin txostenak egitera, eranskinetan jasotako espezieen kontserbazio-egoerari buruzko txostenak.

Ibarbasoan topatzen dira Habitat Zuzentarauko zenbait espezie. Eskuinean *Vandenboschia speciosa* iratzea lagintzen (2022ko argazkia).

2019-2024 arteko sei urtea amaitzen zelarik eta lurraldeko administrazioarentzat lagungarri izango zelakoan, EAEn dauden eta Habitat Zuzentarauak II, IV eta V. eranskinetan barneratzen dituen landare baskularren kontserbazio egoera ebaluatu da. Landare zerrenda horri, euskal endemismoa den *Armeria euscadiensis* espeziea gehitu zaio.

Beraz, guztira, ondorengoak dira 2024an iturri ezberdinetatik jasotako informazioaren analisiaren bitartez ebaluatu diren taxoiak: *Armeria euscadiensis, Arnica montana, Culcita macrocarpa, Gentiana lutea, Lycopodium* spp. (*Diphasiastrum alpinum*, *Huperzia selago* eta *Lycopodium clavatum* barne), *Narcissus asturiensis, Narcissus bulbocodium, Narcissus pseudonarcissus* subsp. *nobilis*, *Narcissus triandrus* subsp. *triandrus, Ruscus aculeatus, Soldanella villosa, Spiranthes aestivalis, Vandenboschia speciosa* eta *Woodwardia radicans*.

KUDEAKETA PROIEKTUAK / PROYECTOS DE GESTIÓN

NATURA-ONDAREA EZAGUTZEKO KONTSERBATZEKO EKINTZAK HONDARRIBIKO UDALERRIAN

Finantziazioa: Hondarribiko Udala

Arduradunak: Anaïs Mitxelena eta Ion Garin

Lan-taldea: Olatz Aizpurua, Maialen Arrieta, Mari Azpiroz, Mikel Etxeberria, Ana I. Garcia, Yoana García, Maddi Otamendi, Iñaki Sanz-Azkue, Luzia Urkiola eta Olatz Erkizia

Kolaboratzaileak: Irati Milikua

Natura aldetik balio handiko bi eremu ditu Hondarribiko udalerriak, Jaizkibel mendia eta Jaitzubiko padurak; eta biak Natura 2000 Sarearen barruan kokatuak daude. Eremu babestu hauetatik kanpo ere, intereseko eremuak daude, hala nola, Udalak duen Goikoerrotako lursaila.

2024an hiru eremuetan aritu da Botanika Saila hainbat lan aurrera eramaten:



Goian *Drosera intermedia* landare haragijalearen haziak biltzen eta ondoan, mintegian hazitako *Drosera intermedia* aletxoak. Behean, *Crocosmia x crocosmiiflora* landare inbaditzailea erauzten. .

Jaizkibel:

Auntzbixkarko hezegunean eta inguru hurbilean natura-ondarea ezagutzeko laginketekin hasi da proiektua. Ondoren, zuhaitz-zuhaixken (itsas pinua bereziki) eta landare exotiko inbaditzaileen ezabaketak egin dira. Gainera, bertan den *Drosera intermedia* landare mehatxatuaren populazioa zentsatu da eta zenbait aletatik haziak eskuratu dira Landareen Euskal Germoplasman gordetzeko baina baita ere urte betera bertan ale berriak landatzeko. Proiektuaren hasieran zein amaieran hezegunearen bilakaera zein den jakiteko jarraipenak egin dira, gerora hartu beharreko bidea zein izango den erabakitzeko beharrezkoak.

Martierreka inguruan kostako txilardiaren eta txilardi atlantiarraren kontserbaziorako ekintzak egin dira: landare exotikoen ezabaketak eta txilardiaren indartze-lanak. Indartze-lanetarako lau txilarren (*Calluna vulgaris, Erica ciliaris, Erica cinerea* eta *Erica vagans*) haziak bildu, hazi horiek laborategian garbitu eta ekoitzi eta ondoren landareak

Jaitzubiko putzuen eremua moztu berria. Eskubiko Auntzbixkarko hezegunean topaturiko sorgin-orratza.

mintegian transplantatu dira, etorkizunean mendian landatzeko landaretxoak lortzeko helburuarekin.

Jaitzubia:
Apo lasterkariaren (*Epidalea calamita*) kontserbaziorako ekintzak: espeziearen jarraipena egin da baita espeziearen kontserbazioa bermatzeko putzuen inguruko belarren mozketak.

Goikoerrota:
Goikoerrotako lursailaren diagnosi botanikoa egin da: bertako habitatak eta landare interesgarriak identifikatu dira eta haien banaketa zehaztu da. Era berean, landare aloktono inbaditzaileen kartografia burutu da, baita eremu irekian landatu diren zuhaitz eta zuhaixken banaketa zehaztu ere.

CARACTERIZACIÓN Y SEGUIMIENTO DE LA VEGETACIÓN EN PLAIAUNDI (BAHÍA DE TXINGUDI), AÑO 2024

Financiación: Eusko Jaurlaritza
Responsables: Anaïs Mitxelena y Olatz Erkizia
Equipo de trabajo: Mari Azpiroz, Mikel Etxeberria, Yoana García, Ana I. Garcia y Luzia Urkiola
Colaboradoras: Irati Milikua y Axel Palau

En una superficie de 22 hectáreas de la Bahía de Txingudi se ha realizado trabajo de campo con el principal objetivo de conseguir la cartografía más actualizada de la flora y los hábitats de la zona.

Como resultado se han cartografiado todos los hábitats, inventariado las especies de árboles y arbustos de Zona Bosque y recogido datos de distribución de la flora amenazada e información sobre flora exótica invasora observada. Estas labores se han realizado dentro del proyecto europeo Regions4Climate, como punto de partida de unas labores de restauración de la marisma a realizar por la administración.

Área de muestreo, marismas de Plaiaundi. Dcha., panorámica de las marismas desde Itzaberri.

IRURAKO IBAI ERTZEN HONDAKINAK JASOTZEKO LANAK

Finantziazioa: Irurako udala
Arduradunak: Mari Azpiroz Murua

Ibaiak ekosistemen funtsezko zati bat dira eta milaka milioi pertsonen biziraupenerako elementu kritikoak. Ibaiertzak, ibaiertzeko basoak, hezeguneak, estuarioak eta lurpeko urak ibaiaren bizitzaren parte dira. Ez daramate ura bakarrik; mantenugai eta mineral disolbatuetan aberatsak diren sedimentu ugari ere garraiatzen dituzte, beheko lurrak eta itsasoak ongarritzen lagunduz. Era berean, elikaduraz, botikez eta aisialdi-jarduerez hornitzen gaituzten askotariko bizimoduei eusten diete. Sistema hidrikoek lehorteak, uholdeak eta akuiferoak arintzen laguntzen dute, eta ibai-garraiobide gisa balio dute. Nekez biziraun genezake sistema horiek eskaintzen dituzten onurarik gabe.

Iruran, udaletxe aurreko plazan herritarrak sentsibilizatzeko bildu den Oria ibaiko eta Astabide errekako zaborra.

Tamalez, ibai ertzetan hondakin ugari pilatzen da (plastikoak, hodiak, ontziak eta abar) eta horrek uraren kalitatea eta ibilgua kaltetzeaz gain, bertako ekosistema kaltetzen du, bai animaliak eta baita landareak ere. Irurako udala hondakin horien garbiketa lanetan hasi zen 2018. urtean eta 2021-2024 urteetan ere ibai garbiketa lanak egin ditu. 2024eko garbiketa lanetan Oria ibai ertzeko eta Astabideko zaborra bildu da.

2024ko uztailean eta irailean burutu diren garbiketa lanetan 332 kg zabor bildu da, 150 kg gurpil, 72 kg burdin, 52 kg plastiko, 49 kg errefusa, 5 kg egur eta 4 kg beira.

Garbiketa lanean bildutako zaborra udaletxe aurreko plazan bildu da herritarrak gaiaren inguruan sentsibilizatu daitezen.

KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA DEN UROLA ITSASADARREKO (ES2120004) PADUREN KONTSERBATZE ETA BERRESKURATZE LANAK (2024-2025). II. FASEA

Finantziazioa: Zumaiako udala (EGEFen bidez Europar Batasunak kofinantzatuta)
Arduradunak: Mari Azpiroz
Lan-taldea: Anaïs Mitxelena, Luzia Urkiola, Mikel Etxeberria, Ana I. Garcia, Yoana García eta Olatz Erkizia Suinaga

Azken hamarkadetan Gipuzkoako ibaien inguruko berezko landarediak behera egin du, bereziki, nekazaritza lurrak ugaritzearen, hirigintzaren eta ibaien birbideratzeen ondorioz. Gipuzkoan geratzen diren padura eremu arrasto bakanak, Deba, Urola eta Iñurritza bezalako ibaietan daude. Horietan, paduretako landare komunitateak mantentzen dira, bereziki Jaitzubia-Bidasoan. Beste ibaietan giza-presioa handiagoa izan da eta erabat desagertu dira, Oiartzunen eta Urumean, esaterako. Hori dela eta, azken urteetan padurak berreskuratzeko ekintzak egiten hasiak dira, hala nola, Deban, Iñurritzan eta Jaitzubian.

Testuinguru honetan, Zumaiako udalak aurrera eraman duen proiektu honetan, bi helburu nagusi bete nahi izan dira: Beduako eremuko paduren kontserbazioa eta Santiagoko dunako landare inbaditzaileen erauzketa. Lehen helburua lortzeko ekintzak 2020ean hasi eta aurten arte luzatu dira, *Spartina maritima* espeziaren populazioa berreskuratzeko.

Gipuzkoan, *Spartina* generoaren egoera kezkagarria da. *Spartina maritima* espeziaren Zumaiako populazioari dagokionez, 2009ko datuen arabera, azalera oso txikia zuen (12 m²). Hala ere, azken urteetan gainbehera egin du eta ezin izan dugu populazioa berriz ikusi, seguruenik *Spartina alterniflora* landare inbaditzailearen ondorioz. *Spartina maritima* espeziearen gainbehera lehengo mendeko bigarren erdian hasi zen. Datu bibliografikoetan

Europar Batasuna
Fondo Europeo de Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"
Eskualde Garapenerako Esuropar Funtsa (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

Urriaren 29ko auzolaneko irudiak. Joan Luis Ramotet

ikus dezakegunez, badira zita zaharrak non zenbait itsasadarretan bere presentzia aipatzen den: Oiartzun itsasadarrean, Deba eta Urolan eta Txingudin. *Spartina maritima* espeziearen berreskurapena bultzatzeko, 2023an Beduako bi eremutan *Spartina alterniflora* erauzi eta hazitik lortutako *Spartina maritima* landareak landatu ziren. 2024an landaketa horien jarraipena egin da eta bideragarritasuna neurtu da.

Proiektu honen bigarren helburua betetzeko, Santiagoko dunan landare inbaditzaileen eta aloktonoen erauzketa lanak egin dira. Lehenik, espezie exotikoen kartografia egin da eta kartografia horretan oinarrituta erauzketa lanak egin dira. Erauzi diren landareen artean *Fallopia japonica, Buddleja davidii, Cortaderia selloana*, *Oenothera glazioviana* eta *Pinus pinaster* daude. Beduan, lehen hiru espezie horien banaketa puntuala da eta aleak sustraietik atera dira. *Oenothera glazioviana* eta *Pinus pinaster* espezieen kasuan, Santiagon banaketa zabala dute eta erauzketa lanak uda eta udazkenean zehar luzatu dira. Itsas pinuaren kasuan, Santiagon ale handiak daude eta horiek botatako hazietatik ale txiki-ertain ugari daude, habitata eraldatzen ari direnak. Ondorioz, eremu handi bateko ale txiki-ertainak erauzi dira.

Aipatutako espeziez gain, Santiagoko eremu babestuan *Arundo donax, Yucca gloriosa, Lobularia maritima, Conyza sumatrensis* eta *Sporobolus indicus* espezie inbaditzaileak ere badaude. Espezie horien erauzketa, proiektu honen baitan, hurrengo urteetan egitea aurrikusten da.

Aurtengo lanei bukaera emateko urriaren 29an *Carpobrotus edulis* espezie inbaditzailea eta itsas pinuak erauzteko auzolana egin zen.

MUTRIKUKO NATURA ONDAREAREN BERRESKURAPENERAKO EKINTZAK (I ETA II. FASEAK)
Finantziazioa: Mutrikuko Udala
Arduraduna: Yoana García
Lan-taldea: Luzia Urkiola, Olatz Erkizia, Ion Garin-Barrio (Herpetologia saila), Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Mikel Etxeberria eta Ana I. Garcia

2023an auzolanean egindako putzuaren ondoan bertako basoa berreskuratzeko zuhaitz eta zuhaixkak landatzen auzolanean, 2024ko urtarrila.

Duela 4 urte Mutrikuko Udalak bertako ondare naturala era jasangarri batean kudeatu ahal izateko *Mutrikuko natura ondarearen kontserbazioa lantzeko bide-orria* garatu zuen Aranzadi Zientzia Elkartearen laguntzaz. Bertan, udalerriko habitat eta espezieen diagnosia egin da. Bide-orri horretan adierazten da Mutrikuko Udalak ondare naturalaren kontserbazioan duen ardura, eta, horretarako eman beharreko pausuak. Egitasmo hau, bide-orri horren ondorioz sortu zen 2022. urtean, eta Eusko Jaurlaritzak diruz laguntzen du *Garapen jasangarria sustatzeko ekintzak* egiten dituzten

toki-erakundeei zuzendutako dirulaguntzari esker.

Dirulaguntzari esker eta Aranzadi Zientzia Elkartearen aholkularitzarekin, 6 ha-ko lursail bat erosi zuen Udalak 2022. urtean Artzainerreka inguruan. Partzela hori degradatua zegoen; landare exotiko inbaditzaile ugari zituen eta landarediaren estaldura eskasa toki batzuetan. 2023an bertako basoa berreskuratzeko lanei hasiera eman zitzaien lursail horretan, eta aurten, lan horrekin eta beste hainbatekin jarraitu da.

Batetik, espezie exotiko inbaditzaileen erauzketari jarraipena emateko, bertako espezieen landaketak burutu dira urte hasieran. Denera 1.300 zuhaitz eta zuhaixka landatu dira. Egindako lanen gizarteratzea bultzatu eta partehartzea sustatzeko auzolana antolatu da landaketak egiteko. Auzolanaren aurretik, egitasmoaren nondik norakoak azaltzeko hitzaldia antolatu zen Mutrikuko Zabiel Jauregian.

Bestetik, inguru horretako berreskurapen naturala indartu eta aberasteko, iaz sortu zen urmael txiki baten jarraipen lanak egin dira maiatzean. Horiei esker, bost anfibio espezie, lau narrasti eta bost odonato espezie identifikatu dira inguruan. Aipatu, Herpetologiako sailak baso-igel iberiarra (*Rana iberica*) aurkitu duela Artzainerrekan. Espezie hau EAEko espezie mehatxatuen katalogoan barneratuta dago *Interes berezikoa* kategorian eta aipu berria da kokapen honetarako.

Txukun lantokiko langileak Mutrikuko lursailean egindako sasiakaziaren erauzketak, 2024ko irailean.

Azkenik, udan zehar, 2023. urtean hasitako espezie inbaditzaileen erauzketaren balorazioa eta erradikazio lan berriak egin dira, bereziki sasiakazia (*Robinia pseudoacacia*) espeziea erauzten. Basoaren errestaurazio lanek ordea pazientzia eskatzen dute, beraz, 2025. urtean lan hauekin eta gehiagorekin jarraitzea espero da.

IDIAZABALGO AMEZTI EUROSIBERIARRA BERRESKURATZEA, 2023-2025

Finantziazioa: Eusko Jaurlaritza

Arduraduna: Luzia Urkiola

Lan-taldea: Ana I. Garcia, Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Mikel Etxeberria, Olatz Erkizia eta Yoana García

Idiazabalgo udalerrian abeltzantzak garrantzia handia du, ondorioz, lursail ugari larreetara daude bideratuta ganaduak bertan larratu dezan. Hala ere, udalerriak baditu bestelako habitat interesgarri batzuk, eta hauen artean, Habitat Zuzentarauan (DIRECTIVA 92/43/CEE) interes komunitarioko habitat bezala sailkatuta dagoen **amezti eurosiberiarra (9230)** dago, zeina urteetan zehar jasandako kudeaketa ezberdinen ondorioz nahiko zatikatuta dagoen.

2023. urtean abiatutako proiektu honen bitartez, Idiazabalgo ameztia balioan jarri nahi da, eta horretarako basoaren azalera eta konektagarritasuna handitu nahi dira. Hau betetzeko bi helburu espezifiko zehaztu ziren: alde batetik, Idiazabalgo Ameztiak leheneratzeko eta baso orbanak konektatzeko Onura Mendi Publikoetan 400-500 ametz gazteen landaketak egitea proposatu da, bertako ezkurrak bildu eta mintegi batean hazita. Beste aldetik, herritarrak ameztiaren garrantziaz jabetzeko eta sentsibilizatzeko hainbat dibulgazio ekintza proposatu dira.

Lehenengo fasea 2023 urtean abiatu zen eta hasierako ideia ezkur bilketa Idiazabalgo lursailetan egitea bazen ere, baldintzek ez zuten ahalbidetu. Gauzak horrela, gertutasunagatik eta baldintza antzekotasunagatik, Oamendi Mendi Onura Publikoan egin zen ezkur bilketa. Ondoren, mintegira eraman ziren, 2025 urtean landaketak egiteko.

2023an bildutako ezkurretatik lortutako ametz landare gazteak, 2025 landatuko direnak.

Ameztia basoberritzeko hasierako ideian 400-500 zuhaitz gazte sartzea proposatu zenez eta ezkur bilketan nahi adina ezkur biltzea lortu ez zenez, 2025eko landaketaren aurretik beste landaketa txiki bat egitea erabaki da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Arizmendi mintegian ekoitzitako ametz gazteekin. Gauzak horrela, 2024ko martxoan lehenengo landaketa egin zen Idiazabalgo ameztian, orbainen konektagarritasuna handitze aldera.

Azkenik, bigarren helburuari helduz, lehenengo dibulgazio hitzaldi bat eman zen udalean, herritarrei proiektuaren berri emateko. Bigarren ekintzan, herritarren parte-hartzea bultzatuko da, lortutako landareen landaketan.

2024an Gipuzkoako Foru Aldundiak eskainitako ametz gazteen landaketak Arttaitta gainean, Idiazabalen.

MARIARATS ARROKO NATURA DIAGNOSIA ETA BERRESKURAPENERAKO PROPOSAMENAK

Finantziazioa: Beasaingo eta Ordiziako udalak

Arduraduna: Luzia Urkiola eta Yoana García

Lan-taldea: Mari Azpiroz, Ana I. Garcia, Anaïs Mitxelena, Mikel Etxeberria eta Olatz Erkizia

2024. urte hasieran, Beasain zein Ordiziako udalak Mariarats ibaiaren ondare naturala ezagutu eta babesteko aurrera pausoak ematen hasi ziren. Testuinguru horretan, proiektu honen helburua Mariarats arroa ondare naturalaren ikuspegitik aztertzea eta hori kontserbatu eta hobetzeko proposamenak luzatzea izan da, dibulgazioa eta herritarren parte-hartzea kontutan hartuz. Horretarako, eremuaren miaketa bat egin da mendiko lanaren bitartez, eta bestelako informazio bilketa egin da bibliografiaren bidez zein adituen laguntzarekin.

Egindako diagnosian, landarediari dagokionez, behatu da Mariarats arroko azaleraren ia %40 koniferoen landaketetara bideratuta dagoela. Hala ere, azalera txikiagotan bada ere, Habitat Zuzentarauan (DIRECTIVA 92/43/CEE) Batasunaren Intereseko 4 Habitatdaude: 4030 *Ulex* sp. nagusitzen den txilardi atlantiarra, 6510 Larratu gabeko sega belardi atlantiarrak, 91E0* Ibaiertzeko haltzadi eurosiberiarra eta 9120 Pagadi azidofilo atlantiarra. Hauetaz gain, Habitat Zuzentarauan *Interes Bereziko* kategorian sailkatuta dauden gorostiaren *(Ilex aquifolium*) eta erratzaren (*Ruscus aculeatus*) ale ugari ikusi dira. Faunari dagokionez, espezie ugari behatu dira. Anfibioekin hasiz, interes berezikoa den txantxikuaren (*Alytes obstetricans*) larba behatu dugu alde batetik, baina baita uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*) edo arrabio arrunta (*Salamandra salamandra*) ere. Hegaztietan, okil berdearen (*Picus*

Mariarats errekaren irudia. Eskuinean, natur diagnosian zehar behatutako espezietako bat, Uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*).

viridis) habiak behatu dira, eta eremua potentzialki interesgarria izan daiteke bertako ibai karramarroarentzat (*Austropotamobius pallipes*) eta galtzeko arrisku larrian dagoen Bisoi europarrarentzat (*Mustela lutreola*), bere bizileku potentzialetatik oso gertu dagoelako.

Behaketak egin ondoren, arroa berreskuratzeko proposamenak luzatze aldera, lehen pausoa udalei lursailen erosketa egiteko laguntza eskaintzea izan da. Horretarako, partzela bakoitzaren natura balioa eskuratu da alde batetik, eta berreskuratze balioa bestetik, hainbat irizpidetan oinarrituta. Bestalde, azpimarratzekoa da berreskuratzeko lehenetsi diren partzelak habitat degradatuak izan direla, eta babesteko lehenetsitakoak, aldiz, bertako basoak. Hurrengo pausoetan, erositako lursailaren berreskurapenari ekingo zaio, eta herritarren esku-hartzea eta sentsibilizazioa bultzatzeko ekintzak egitea aurreikusten da.

BEASAINGO UDALERRIAN AGAUNTZA, ESTANDA ETA ORIA IBAIETAKO ZABORRA GARBITZEA

Finantziazioa: Beasaingo udala
Arduradunak: Olatz Erkizia eta Luzia Urkiola
Lan-Taldea: Mari Azpiroz, Mikel Etxeberria, Yoana García, Ana I. Garcia eta Anaïs Mitxelena

Beasainen 2021ean hasiera eman zitzaion ibai garbiketaren egitasmoarekin jarraitu da 2024an ere. Ibai garbiketa batez ere Beasain udalerria zeharkatzen duen Oria ibaian zentratu da, GUREAK enpresaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko elkarlanean. Egungo zaborraren ekoizpen handiak eta honen kudeaketa desegokiak, batez ere, ibaietan eta itsasoetan eragiten dute, bertako ekosistema eta komunitateak serioki kaltetuz. Hala, bi ekintza nagusi burutu dira Beasainen.

Alde batetik, 2024ko uztailaren 10ean auzolana egin zen Igartza jauregiaren inguruan, 400 metroko ibilbidean. Bederatzi boluntario aritu ziren lanean, eta bildutako hondakin gehienak plastikoak eta oihalak izan ziren. Bildutako zaborra Sasietako garbigunera eraman ziren.

Bestetik, 2024ko irailaren 19tik urriaren 28ra bitartean, Oria ibaia garbitzeko lanak egin ziren Beasainen, Antzizar kiroldegiko zubitik hasita ibilguan behera. Lanean aritu diren lau langileek 12 egunetan guztira 1.417 kg zabor bildu zituzten.

Eskuinean auzolanean parte hartu zuten kideak eta bildutako zabor pilaketaren irudiak.

BEASAINGO UDALERRIAN AGAUNTZA, ESTANDA ETA ORIA IBAIETAKO INBADITZAILEEN ERAUZKETA

Finantziazioa: Beasaingo udala
Arduradunak: Luzia Urkiola eta Olatz Erkizia
Lan-Taldea: Mari Azpiroz, Mikel Etxeberria, Yoana García, Ana I. Garcia eta Anaïs Mitxelena

2024ko udan Beasaingo Agauntza, Estanda eta Oria ibaietan landare inbaditzaileen kartografia eguneratu zen, guztira 8 km lineal miatuz eta 13 espezie identifikatuz. Horietatik 3 espezie aloktono eraldatzaileak dira kalte ekologiko larrienak eragiten dituztenak: *Buddleja davidii, Robinia pseudoacacia* eta *Helianthus tuberosus*. Kartografiaturiko landare inbaditzaileen azalera 33.959,27 m²-koa izan da, aurreko urtean baino txikiagoa.

Landare hauen erauzketari dagokionez, lehentasunak ezarri dira lanak optimizatzeko, eta *Buddleja davidii* espeziea izan da erauzketaren ardatza. Ikerlora enpresak erauzketa lanak egin ditu 2024ko irailean eta urrian, Aranzadi Zientzia Elkartearen koordinazioarekin. Ale gehienak sustraitik erauzi dira eskuz eta herbizidarik ez da aplikatu, hau posible izan ez denetan aleak motozerraz moztu dira ipurditik. Dispertsioa ekiditeko, loreak moztu eta poltsetan bildu dira.

2023an Beasaingo udalak 12 albo (*Platanus x hispanica*) erauzi zituen. Horien motzondoak edo ipurdiak erauzteko zailtasuna ikusita, 2024an haietatik ernatutako ale berriak erauzi eta motzondoak motozerraz zartatu dira. Honez gain, 6-8 cm-ko perimetrodun 23 haltza (*Alnus glutinosa)* eta lizar (*Fraxinus excelsior)* ale eta 32 basaerramu (*Euonymus europaeus)* eta sahats ilun (*Salix atrocinerea)* ale landatu dira inguruan. Gainera, alboen erauzketa eremutik beherago, ibaiaren ubide ertzean, eremu egokia identifikatu da SAHATSAREN 150 aldaxka jartzeko 2025eko udaberrian.

Ezkerretik eskuinera, Ikerlorako langileak *Buddleja davidii* erauzten; ondoren, errausten eta azkenik, landaketak egiten.

ORDIZIAKO UDALERRIAN ORIA IBAIKO INBADITZAILEEN ERAUZKETA

Finantziazioa: Ordiziako udala
Arduradunak: Luzia Urkiola eta Olatz Erkizia
Lan-taldea: Mari Azpiroz, Mikel Etxeberria, Yoana García, Ana I. Garcia eta Anaïs Mitxelena

Biodibertsitatearen galera giza jarduerek eragindako arazo globala da, eta espezie exotiko inbaditzaileen sarrera eta egonkortzea arazo horren eragile dira. Espezie inbaditzaileek bertako ekosistemak kaltetu eta espezie autoktonoen funtzionamendua oztopatzen dute. Goierriko hainbat udalerrik, tartean Ordiziak, landare inbaditzaileen kartografia eta erauzketa lanak egin zituzten 2013-2016 artean, baina Ordizian ez dira lan hauek errepikatu 2016tik. 2024an Ordizia eta Beasain lotzen dituen Oria ibaian espezie inbaditzaileak identifikatu eta kartografiatu dira, 2.5 km-ko eremuan. Guztira 13 espezie inbaditzaile identifikatu dira, horietatik 4 espezie eraldatzaile nagusiak izanik: *Buddleja davidii, Fallopia japonica, Helianthus tuberosus* eta *Robinia pseudoacacia*. 2025ean espezie inbaditzaileen erauzketa egingo da, 7 eguneko epean.

INTERES BEREZIKO LANDARE ESPEZIE ETA HABITATAK BERDEA PARKE EOLIKOAREN AFEKZIO EREMUAN, BAKIOKO UDALERRIAN

Finantziazioa: Bakioko udala
Arduradunak: Olatz Erkizia eta Anaïs Mitxelena
Lan-taldea: Mari Azpiroz, Mikel Etxeberria, Yoana García, Ana I. Garcia eta Luzia Urkiola

2023ko abenduaren 7an, Industria Administrazioaren Bizkaiko ordezkariak jakinarazi zuen Bakio, Lemoiz, Maruri-Jatabe eta Mungiako udal-mugarteetan Berdeak parke eolikoa jartzeko administrazio-baimenak martxan jarri zirela. Bilaketa bibliografikoan oinarrituriko metodologia bat jarraituz, parke eolikoaren afekzio-eremuan (539,64 ha) dauden eta biodibertsitatearen ikuspegitik interesekoak diren landare espezieen eta habitaten kokaleku eta deskribapenen informazio txosten bat egin du Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailak. Habitatei buruzko 92/43/EEE Zuzentarauak barne biltzen dituen Batasunaren Intereseko lau habitat identifikatu dira (6210*, 4040*, 9340 eta 4030) eta EAE mailan Eskualdearen Intereseko kontsideratzen den G1.86 *Quercus robur*-en baso azidofiloa. Gainera, afekzio eremuan sei landare-espezie mehatxatu identifikatu dira, tartean *Culcita macrocarpa* galtzeko arriskuan dagoena.

Culcita macrocarpa galtzeko arriskuan dagoen iratzea. Eskuinean,, *Woodwardia radicans* kaltebera kontsideratzen den iratzea.

ORDIZIAKO OIANGU PARKEAREN BIODIBERTSITATEAREN KUDEAKETA ETA KONTSEBAZIOA

Finantziazioa: Ordiziako Udala
Arduraduna: Yoana García eta Olatz Erkizia
Lan-taldea: Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Mikel Etxeberria, Ana I. Garcia, Luzia Urkiola eta Virginia García (Astronomia saila)

Oiangu Parkea Ordiziako hegoaldean kokatzen da eta Goierri eskualdeko aisialdirako eremu berde ezagunenen artean aurkitzen da 32,40 ha-tako azalerarekin. Inguru honetako paisaiari dagokionez, landa-eremuko larreekin batera baso autoktonoak aurkitzen dira, bai paisajistikoki zein ekologikoki balio aberatseko eremua sortuz.

Aisialdia balio ekologikoekin uztartzeko helburuarekin, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailak aholkularitza lanak aurrera eraman ditu Udal arduradunekin elkarlanean. Hau da, Oianguko biodibertsitatea babestu, hobetu eta herritarrak horren parte aktibo sentitzeko ekintzak proposatu eta gidatu ditu. Ekintza horiek garrantzi berezia dute garai hauetan, ez soilik larrialdi klimatikoaren aurrean natura ingurune erresilienteagoak lortzen laguntzen dutelako, baita naturaren babesaren beharra eta jasangarritasuna gizarteratzen laguntzen dutelako ere.

Jarraian, 2024an burututako lanak zerrendatzen dira:

- Zuhaitz eguna herriko ikastetxeekin.

Oiangu. Parkeko zuhaitz masaren erresilientzia handitzeko itxituretako bat.

- Parkeko zuhaitz masaren erresilientzia handitzeko lanak eta horrekin lotutako dibulgazio lanak: Oianguko bi eremutan landare inbaditzaileak (*Quercus rubra* haritz amerikarra eta *Robinia pseudoacacia* sasiakazia) erauzi, tratatu eta itxiturak egin dira bertako basoaren erregenerazioari lagunduz. Oianguko erabiltzaileei ekintza hauen arrazoi eta garrantziaren berri emateko informazio-kartel bat jarri da itxitura bakoitzean.
- Oianguko segabelardiaren kudeaketarako bitartekaritza lanak Almitza sega elkartea eta Udalaren artean.
- Oria ibaian eroritako zuhaitza Oiangun uzteko aholkularitza.
- Gipuzkoako Foru Aldundira eskatutako dirulaguntzaren zuriketa.

IRTEERA ETA BISITA GIDATUAK

Auzolana: berreskuratu ditzagun artzainerreka bailarako basoak!
Data: 2024/01/27
Tokia: Artzainerreka bailarako olakapietako finka.
Gidaria: Yoana García

Deskribapena: lursail horretan bertako basoa berreskuratzeko Udala eta Aranzadi Zientzia Elkartea egiten ari diren lanetako bat auzolanean egin zen: bertako espezieen zuhaitz eta zuhaixkak auzolanean landatu ziren urtarrilak 27ko goizean zehar. Auzolana amaitzeko hamaiketakoa eskaini zen parte -hartzaileentzako Mutriku herrian.

Irteera: Zuhaitz eguna Oiangun
Data: 2024/02/21 eta 22.
Tokia: Oiangu parkea.
Gidaria: Yoana García

Deskribapena: ikasleek basoen garrantziari buruzko azalpenak entzun ostean Oianguko bi eremu bisitatu zituzten: egur-piramideak eta zuhaitzen erregeneraziorako sortutako eremuetako bat. Lehenengo geldialdian, basoetako egur hilaren garrantziari buruzko azalpenak entzun zituzten. Bigarren geldialdian, itxitura egitearen arrazoiak adierazi ziren. Bukaeran, baso-lanen ondorioz itxitura kanpoan gelditutako adarrak bildu zituzten eta Udaleko langileen laguntzarekin birrindu egin zituzten.

Irteera: Biotop
Data: 2024/05/26
Tokia: Zumaia, Talaimendi.
Gidariak: Anaïs Mitxelena eta Gonzalo Torre.

Deskribapena: Talaimendin txango motz bat eginez bertako habitat ezberdinak ezagutu ahal izan ziren, hala nola: larreak, heskai biziak, itsaslabarrak eta kostako txilardiak. Habitaten identifikaziorako landare nagusienak ezagutzeko aukera izan zuten parte hartzaileek; bereziki kosta hurbileko inguru gogorretara egokitzeko landareek erabiltzen dituzten estrategia ezberdinez jabetzeko aukera izan zuten.

Ordiziako zuhaitz egunean ikasleak adarrak biltzen. Eskuineko irudian, Talaimendi (Zumaia) irteera botanikoa.

IKASTARO, HITZALDI ETA TAILERRAK

Hitzaldia: Artzainerreka bailaran ondare Naturala berreskuratzen
Data: 2024/01/24
Tokia: Zabiel Jauregia. Mutriku
Izenburua: Artzainerreka bailaran ondare Naturala berreskuratzen
Gidariak: Yoana Garcia

Deskribapena: Mutrikuko ondare naturala berreskuratzeko martxan dagoen proiektuaren garrantzia eta nondik norakoak azaldu ziren.

Hitzaldia: Emakumeak zientzian
Data: 2024-02-13
Tokia: Santo Tomas Lizeoa, Donostia.
Izenburua: Emakumeak zientzian
Gidariak: Ana I. Garcia

Deskribapena: Emakumeak zientzian egitasmoaren baitan egindako hitzaldia Donostiako Santo Tomas Lizeoko batxilergoko ikasleei. Bertan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailean egiten diren lanak azaltzeaz gain, emakume zientzialaria izateak suposatzen dituen argi eta itzalen inguruan aritu ginen.

Hitzaldia: Idiazabalgo Amezti Eurosiberiarra berreskuratzen
Data: 2024-02-15
Tokia: Idiazabalgo udala
Izenburua: Idiazabalgo Amezti Eurosiberiarra berreskuratzen
Gidariak: Luzia Urkiola

Deskribapena: 2023. urtetik martxan dagoen Idiazabalgo amezti eurosiberiarraren berreskuratze proiektuaren inguruko hitzaldi dibulgatiboa.

Hitzaldia: Emakumeak zientzian
Data: 2024-02-28
Tokia: Ikas-bide ikastola, Donostia.
Izenburua: Emakumeak zientzian
Gidariak: Luzia Urkiola

Deskribapena: Emakumeak zientzian egitasmoaren baitan egindako hitzaldia Donostiako Ikas-bide ikastolako lehen hezkuntzako ikasleei. Bertan, Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailean egiten diren lanak azaltzeaz gain, emakume zientzialaria izateak suposatzen dituen argi eta itzalen inguruan aritu ginen.

Hitzaldia: Basogintza ponentzia
Data: 2024-05-14
Tokia: Gipuzkoako Batzar Nagusia, Donostia.
Izenburua: Gipuzkoako Lurraldeko basogintzaren egoerari eta etorkizuneko basogintza politikari buruzko Ponentzia
Gidariak: Mikel Etxeberria

Deskribapena: Gipuzkoako Batzar Nagusiko ordezkariek antolatutako basogintza ponentzia saioen baitan emandako hitzaldia. Gipuzkoako baso eta landaketen gaur egungo egoera azaldu da eta etorkizunerako irtenbideen inguruko proposamenak egin dira.

NABARMENDUAK

ELKARRIZKETAK

EUSKADI IRRATIA - FAKTORIA:

Deskribapena: Phylopyr proiektuaren aurkezpena Ana I. Garcia eta Pablo Tejerorekin. https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/faktoria-magazina/osoa/9495353/

Deskribapenak: zuhaitz, lore, hegazti eta tximeleten mini-giden aurkezpena Ana I. Garcia ren eskutik. https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/faktoria-magazina/osoa/9609416/

Deskribapenak: Botanika Saileko lan ildoei, eta, oro har, botanikako bitxikeriei buruzko elkarrizketa Yoana García eta Anaïs Mitxelenarekin. https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/faktoria-magazina/osoa/9410909/

EUSKADI IRRATIA – BAIPASA:

Deskribapena: Euskal Herriako iratzeen inguruako azalpenak, Luzia Urkiolarekin. https://www.eitb.eus/eu/nahieran/irratia/euskadi-irratia/baipasa/osoa/9581693/?t=0

FORMAZIOA || ARGITALPENAK

KONGRESUETAN PARTE HARTZEA (SINPOSIO, MINTEGI ZIENTIFIKOAK)

XXth International Botanical Congress

Aranzadi Zientzia Elkarteko botanika sailak Botanikako Nazioarteko XX. Kongresuan (IBC2024) hartu zuen parte joan 2024ko udan. Ekitaldi horrek, mundu osoko botanikariak bildu zituen Madrilen, uztailaren 21etik 27ra. Bertan gaurkotasun eta garrantzia handiko gaiak jorratu ziren: sistematika, filogenetika, biogeografia, ekologia, biodibertsitatea eta kontserbazioa, besteak beste.

Ekitaldiak ikaskuntzarako eta garapen profesionalerako espazio bikaina eskaini zuen. Aranzadiko botanikariek hainbat hitzaldi eta tailerretan parte hartu zuten, eta puntako botanikarien eskutik ikasteko aukera izan zuten. Etengabeko ikaskuntza hori funtsezkoa da botanikako zientziaren azken joerak eta aurrerapenak egunean izateko.

Gainera, kongresuan zehar, Aranzadiko taldeak ere bere proiektuak aurkeztu zituen. Alde batetik, *Rhynchospora fusca* (L.) W. T. Aiton espeziearen hozidura protokoloari buruzko azken aurkikuntzak; eta, bestetik, Phylopyr proiektua.

Horrelako ekitaldiek agerian uzten dute lankidetzaren eta ezagutza trukearen garrantzia. Eta ordukoan ere hala izan da, Aranzadiko botanika saila kontaktu eta ideia berriez beteta itzuli baitzen. Funtsean, botanika arloan aurrerapausoak ematen jarraitzeko plaza paregabea izan zen IBC 2024.

Botanika saileko kideak Madriden egindako XX International Botanical Congress (IBC)-n parte-hartzen.

ARGITALPEN ZIENTIFIKO, TESI ETA DOKTORETZAK

Arizaga, J., Garin-Barrio, I., Etxeberria, M., García del Bao, A.&, Laso, M. 2024. *The value of multi-taxon approaches to improve biodiversity assessment at municipal scales.* Animal Biodiversity and Conservation. Volum 47.2 (2024) Pàgines: 161-170. DOI: https://doi.org/10.32800/abc.2024.47.0161

Garcia-del Bao, A. I., Otamendi, M., Etxeberria-Okariz, M., Tejero, P., & Arrieta, M. 2024. *Stratification length, the key to breaking deep dormancy of Rhynchospora fusca* (L.) W.T. Aiton. DOI: 10.13140/RG.2.2.35272.53766

Tejero, P., Viruel, J., Hidalgo, O., Pokorny, L., Villaverde, T., Martínez-Ortega, M., Palacio, S., Murienne, J., Pladevall, C., Nualart, N., Jimenez-Alfaro, B., Calvo, J., Ezquerra, V., Ferrández, J. V., Illa, E., Pérez, A., Cambecèdes, J., Catalán, P., Pérez, I., Fernández, P., Güiza, E., Fernández, O., Pérez-Serrano, M., Etxeberria, M., Mitxelena, A., Otamendi, M., Arrieta, M. & García, A. 2024. *The genetic information of Pyrenean flowering plants accessible worldwide.* Conference: XX INTERNATIONAL BOTANICAL CONGRESS MADRID 2024. DOI: 10.13140/RG.2.2.17286.18247

ARGITALPEN DIBULGATIBOAK

MINI GIDAK

Llobet, T., García, Y., & Garcia, A. I. 2024. *Euskal Herrian ezagutu beharreko 101 zuhaitz.* Lectio ediciones. ISBN: 978-84-18735-65-3

Llobet, T., García, Y., & Garcia, A. I. 2024. *101 Árboles de Euskal Herria que hay que conocer.* Lectio Ediciones. ISB: 978-84-18735-64-6

Llobet, T., García, Y., & Garcia, A. I. 2024. *Euskal Herrian ezagutu beharreko landa-eremuko 101 lore.* Lectio Ediciones. ISB: 978-84-18735-63-9

Llobet, T., García, Y., & Garcia, A. I. 2024. *101 Flores de campo de Euskal Herria que hay que conocer*. Lectio Ediciones. ISB: 978-84-18735-62-2

ARANZADIKO WEBGUNEA

Mitxelena, A. 2024. Landare haragijaleak? Bai zera!. https://www.aranzadi.eus/eu/landare-haragijaleak-bai-zera

BERRIA

Izenburua: Mendian lahar artean…
Data: 2024ko maiatzaren 22a
Deskribapena: Phylopyr proiektuaren baitan egindako Amunarritzeko irteeraren kronika.
https://www.berria.eus/bizigiro/mendian-lahar-artean_2125441_102.html

Izenburua: Garrantzitsua da dunen iraupena bermatzea
Data: 2024/11/09
https://gipuzkoa.hitza.eus/2024/11/09/garrantzitsua-da-dunen-iraupena-bermatzea/

Izenburua: Gorostiaren negu gorria
Data: 2024/01/06
https://www.berria.eus/bizigiro/gorostiaren-negu-gorria_2118760_102.html

GOIBERRI

Izenburua: Bizirauteko ahaleginean
Data: 2024-03-08.
Deskribapena: landare haragijaleen inguruan idatzitako artikulu dibulgatiboa

https://goiberri.eus/2024/03/11/luzia-urkiola/

Izenburua: Idiazabalen ameztien azalera berreskuratzen
Data: 2024-05-31
Deskribapena: Idiazabalgo ameztien berreskuratze proiektuaren inguruan egindako erreportaia.
https://goiberri.eus/2024/05/31/idiazabalen-ameztien-azalera-berreskuratzen/

Izenburua: Izen zientifikoak iraingarriak izan daitezke?
Data: 2024-06-17
Deskribapena: Izen zientifikoen egokitasunaren inguruan hausnartzen duen artikulu dibulgatiboa.
https://goiberri.eus/2024/06/17/izen-zientifikoak-iraingarriak-izan-daitezke/

Izenburua: Goierriko udazken koloreak, inspirazio iturri
Data: 2024-10-07
Deskribapena: Goierriko udazkenaren inguruko hausnarketak.
https://goiberri.eus/2024/10/07/goierriko-udazken-koloreak-inspirazio-iturri/

NOTICIAS DE GUIPUZKOA

Izenburua: Gracias a la ayuda de los zumaiarras la playa Santiago está más sana que ayer
Data: 2024-10-30
https://www.noticiasdegipuzkoa.eus/gipuzkoa/bertan/2024/10/30/gracias-ayuda-zumaiarras-playa-santiago-dunas-plantasinvasoras-8867119.html

BALEIKE

Izenburua: Santiagoko landare espezie inbaditzaileak kendu dituzte auzolanean
Data: 2024-10-30
https://zumaiaguka.eus/zumaia/1730284101545-santiagoko-landare-espezie-inbaditzaileak-kendu-dituzte-auzolanean?fbclid=IwY2xjawGPaB1leHRuA2FlbQIxMQABHb7NNeIFAyRQEfvosvNPSCn3No53NqA8bFzIT8JB1txAugS58pA_2mp_w_aem_6AZo2gAxAFYaef0Tf2sRtw&sfnsn=scwspwa

MUTRIKU.EUS

Izenburua: Mutrikuk bere natura ondarea hobetzeko lanean jarraitzen du
Data: 2024/06/30
Deskribapena: Mutrikuko natura ondarea berreskuratzeko proiektuaren inguruko artikulua.
https://www.mutriku.eus/eu/albisteak/mutrikuk-bere-natura-ondarea-hobetzeko-lanean-jarraitzen-du

Santiagoko landare espezie inbaditzaileak kentzeko auzolanean.
Noticias de Gipuzkoa

ENTOMOLOGIA

Zuzendaria / Director: Alberto Castro [entomologia@aranzadi.eus]

El año 2025 ha sido continuista con las principales líneas de trabajo, si bien caben resaltar ciertas ampliaciones y modificaciones resultantes de las tendencias de la naturaleza de los proyectos. Así, destaca el énfasis en los hábitats. Por ejemplo, la dilatada experiencia en la línea de escarabajos saproxílicos (ligados a árboles viejos y madera muerta) ha conllevado una experticia en árboles y sistemas forestales que ha venido de la mano de la realización de proyectos sobre bosques y arbolado singular en los últimos años. Por otro lado, la trayectoria en odonatos, sumada al trabajo con escarabajos buceadores, va sentando las bases de un conocimiento de relación especies-hábitats dulceacuícolas. A todo ello, de manera transversal se unirían las arañas, pues no sólo se han ido investigando las afines por humedales, sino que también ya es habitual la ligazón de las investigaciones de estos arácnidos con el medio cavernícola e hipogeo.

En otros casos, existen convergencias en líneas de trabajo. Es el caso de los lepidópteros, que han sido incorporados a la línea de polinizadores, por presentar una mayoría de especies que intervienen en esta función ecológica.

Finalmente, en la parte de divulgación y sensibilización, destaca la diversificación de actividades, pues a las tradicionales charlas, exposiciones y visitas guiadas en distintos formatos, se unen talleres de técnicas de muestreo e ilustración, concursos y campañas fotográficas, instalación de señaléticas y hoteles de insectos, etc.

Taller de ilustración impartido por Maddi Astigarraga.
Beatriz Díaz

IKERKETA PROIEKTUAK / PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

MIKROKLIMA: RED DE MICROHUMEDALES ANTE LA CRISIS CLIMÁTICA. ENTOMOFAUNA AFECTADA

Responsables: Carlos Cabido (coordinador-Herpetología), Alberto Castro y Beatriz Díaz (responsables de la parte entomológica), Ana García del Bao (Botánica) y Ion Garin (Herpetología)

Financiación: Kutxa Fundazioa (programa de Desafíos Ecosociales) y Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de Gobierno Vasco (programa de generación de conocimiento en la conservación del Patrimonio Natural)

En enero del año 2025 finaliza este proyecto que se inició en el 2023, dándose por terminada la parte referente a entomofauna a finales del 2024. Coordinado por el Departamento de Herpetología, Mikroklima consiste en una cartera de proyectos en torno a la creación de una red de seguimiento de procesos naturales en microhumedales en Gipuzkoa, que incluyen una serie de especies centinelas, para monitorizar los potenciales efectos del cambio climático y otras alteraciones de origen antrópico. Los microhumedales suelen excluirse de las figuras de protección y la biodiversidad asociada a ellos, por tratarse de especies de pequeña talla, hábitos discretos, o escasa apreciación social, se encuentra a menudo desamparada ante la escasez de medidas de conservación.

Observando caballitos del diablo en una charca de Irun. B. Díaz

